

FELIX ZUBIAGA



LEKUAN

LEKUAN MALOA

LEKUAN LEKUAN MALOA

**Bizkaiko Diputazioaren
ELEBARRI SARIA (1990)**

Felix Zubiaga

Egilea: Felix Zubiaga
Eragilea: Fermin Iraolagottia
I. S. B. N.: 84-86399-20-3
Depósito Legal: BI - 2.606 - 90
Argitaratzailea: IBAIZABAL. Euba.
Tfnoak.: 673 04 86 - 673 18 50
Argitaletxea: Ibaizabal - 257

IGARRI, S. C. L. -Rafaela Ibarra, 1- Deusto - Bilbao

1

“Lekuan lekuan maloia
gurean handiago” (esakuna).

“HARRITU EGITEN NAU GURE KOLDORI JAZO JAKO-
nak. Bizitzan mugea igarotea debekauta eukatsun, hil ostean
barriz, ez eutsen eragospenik ipini. Ea heriotzea ete den lurreko eta
gainerako muga guztiak hankaz gora jaurti daroazan muga eta
amnistia eta askatasun guztien benetako atea. Gure Koldori jazo
jakona ikusiaz bakarrik dinotsut, ez nonbaiten-edo irakurri doda-
lako. Lokamets ingumak estarria estutzeraino lez, jazarritu daust
gauotan idea honek... edo noiz arte itxaron behar ete dogu gure
situazinoaren normalizatzea?

Koldoren heriotza neure askatasun une eta seinalea izan eiteke-
la otu jatan une batean. Neure eukiak batu, lutozko mantilea jantzi
eta alargun antzean bere gorpuari jarraitzeko prestatu nintxatzu-
nean. Rito haretan ez egotzun halabaina alargunarentzat toki
nabaririk, dena ikurriak eta gudari ganorak baino. Benetako
alargun izateko zer falta eikidan? Eleizaz eskonduak izatea ausaz.
Hara ba, norainokoa izaten den sarritan askoren kontraesana.
Bizitza guztian eleizakoak ukatzen dihardutsue eta hilez gero
ohikunen morroi dozuz. Eskontza agiria faltako jatan seguru!

Nire mantila baltza ez zendun nonbait nire eta Koldoren arteko
ezkon-agiri nahikoa. Laster konturatu ninduzun, bizitzan erdiz-
erdizkakoa nebana heriotzean harexen itzala ere ez nebala.

Egia esan, ordu larri haretan euren pentsudan hartu eutsuen
guztiaren ardurea, gorpua kale gorritik jaso ebenetik eta hara.

Heurek ziurtatu Koldoren nortasuna gendarmeen aurrean, eurek gorpua garbitu eta jantzi, gaubelea antolatu. Trantze odoltsu hare-tatik zeozelan eskier gorde izan gurako ninduen neuri ezer esan barik edo Koldoren gorpua neure esku lohio-tatik aldendu gurako... Nork jakin bizitzaren eta heriotzaren arteko mugak eta mugatasu-nak.

Gero prensan ikusi ahal izan neban sarraskia gordintasun osoan... Zeuk ere ikusiko zendun, ene. Inpernua eta bera! Muga-zandik ia gauza arrunta ei dozu, baina mugazemendik ez dogu ikusi izan holakorik gaurdaino eta mila bider esan dautsat neure buruari "Jesus, baina zelan heldu gara gizarte hau inpernu bihurtzera?" Baina ez da izan goizetik gauerakoa. Gorrotoaren inpernua artean egotsun kukurio eta burua jaso baino ez dautsu egin. Zartatekoak bihotzaren erdian emoten dautsun arte ez zarela konturatu ere egiten.

Anaiarteko gaubela haretan azkenez ikusi nebanean gogo baketuaren betarte naroa begitandu jatan gure Koldorena. Kandela biztuen erlusean halako goitar islada-z argitzen jakon unadaka bekokia. "Lortu dozu azkenik itxumustuan bada ere —ninotson neure artean— funtsean beti itxaron izan dozuna: askatasuna eta bakea".

Zeuk dakizu han ez zela falta izan ez argizaririk, ez eta gurutzerik ere. Abadeak ipiniko eutsun, behar bada, baina han egotsun. Askorentzat itxurakeria hutsa izango dozu, baina gustau, denei gustatzen jake, beste itxurabiderik ez dagonean. Hagaitik alkilatu neuntsun neuk ere harako lutodun mantila errespatagarria. Bizilagun izan nebanari halako omena-edo zor neutsola heriotzean uste izan neuntsun.

"— Ezingo diozu gorpuari jarraitu"— esan eustien.

Ez, gendarmeez ez, eurretari-ko batek baino. Hiletaren zera eroanak. Ordura arte ez nintxatzun konturatu Koldo guztiz neurea ez zenik. Bere taldeari eta zereginari sor izan jakola nire aurretik. Azaletik baino ez nenzagun neure bizilaguna. Izan ere, haren bihotz barrurantz sarradarik egin gura izan neutsun bakoitzean, harrizko ormaren bat topo egiten neuntsun.

"—Mugaraino ere ez?"— erregutu neuntson gorpuari jarraitzea eragotsi ninduanari.

Amoremon eustan, baina Aduanako kontroletik urrun gelditze-kotan.

"—Eta hareago tamaina horretan jantzita... —Halako begira-kunea jaurti eustan—. Bere ahaidekotzak-edo hartuko zindukete eta txakurren ortzetara zioakez segidan."

Ezetz ba nik, nire lutoa mugazandik gorpuaren bila letorkezen familiarren aurrean doluminezko sentipena agertzearen zela. Berak nire seguridaderako zela ostera. Nire seguridaderako? Ze seguridade behar dot nik honez gero? Besterik da euren seguridaderako neure sentipenok salatzea, lehenago ere neure askatasuna errefuxiatuen kartara lotu eutsuen lez... Horixe, esaten dautsudana.

"—Jo! Kazetari kume bat gure artean!" —eraso ninduen orduan.

Eta horixe ninduzun ni, kazetari kume bat eta Udako Euskal Unibertsitatera etorri jatzun amesez beteriko estudiante bat. Hain kume eta ezelako esperientzi gabeko inosentea, izan ere. Zuhurrak besteen lepotik ikasten dauela? Niri tuntunen eskola tokatu jat, gure aitak Unibertsitatea alperrik ez eustala ordaintzen esaten eustanarren.

Erraza egiten jatan harakoan kurso aprobadauren sarigarri Udako Euskal Unibertsitatera apuntatzea. Parisen-edo izan balitz, gurasoek ez eusteen itziko, baina hemen Lohitzunen, mugea aparte, Iruina bera baino hurrago dagoen itxas bazter honetan... Hori eta Euskal-erri barruan, muga debekatua artean delarik ere... Bizi garenontzat behenipehin. Uste dozu, Fidel, bizi gareino ez dauksuela beste aldera bakean joaten itziko? Horren parkaezinak ete dira ba gure, nire tuntun erratuak?

Esatera noatsuna: Lohitzuneko lohi une honetan izan behar eutsun-eta. Pariseko "lutetian" izan balitz ostera, honez gero, ezelako lokatz aztarren barik, titulu eta guzti nengotzun etxean aitak eta amak alde bietatik pozez jaten ninduela.

Baina ez, honaxe turismo gozo baketsuaren txoko honetara etorri nintxatsun... Ba etorren kazetari kumea euskera baino frantzez praktikatu larriago eta hatarako baimendu Udako Euskal Unibertsitatean bertan, aitatzuk kazetari kumeari erregalau fotografi makina turisten erataro sorbaldatik dindilik ekarrela eta orduan... "Beatriz", laster ikasi eutsuen nire izena, bada han mutilezkoak zenduzan geheinak, neska gitxi, egia esan, eta bat ere ez nilan argazkari eta azaltzen zenik. Ba... klase artean fotograforen bat tximistaz aurreratzen zela? Han joatzun kazetari kumea ere euren lehian maisu ule urdindu eta ikasle ule gorriren bati argi egitera. Eta orduan behin ere falta ezin daiteken deabrua...

"— Ta ze komediatan ari zara zu, Beatriz"—txuliatu eutsun orduan mutil batek neskatilea.

"— Komedia?— nik aztoratu.

Hogeta bi-edo urteko mutila izango zendun, betaurrekoak, ule gorritzka, mehe, idealista halakoa. Horrela gogoratzen dot beti.

"— Zeu izango zara zu komediantea —purrustatu neuntson—. Edo kazetari estudiantea nazela ahaztu ete dozu?

"— Eta kazetarick noren argirako egiten ditene? —Berak lehen-go erdeinuz.

"— Eta poetek zeren koipetarako historian? —nik.

Banenkizan historia ikasle haren olerki zaletasunak.

"— Txarto al deritzain iraganeko historia piska bat idealizatze edo presentekoari olio poxi bat nahastatzeari?

"— Ez, ondo baino. Baina zuhur ibili hadi hire azterlanak eta ibilerak eurak ere niretzat kronigai dozak-eta."

"—Heu ere historia edertzen beraz..."

"— Hagaitik esan dauat ez gabiltzala alkarrengandik urrun."

Ba ez hur eta ez urrun. Harrezkero ez neban ikusi gehiago mutil ha. Pabeko Unibertsitatean ikasten ebala esan eustan, baina nik zer nenkian Paben Unibertsitaterik egonetz ere? Euskera bai, bertoko

koen doinura egiten eutsun eta nire euskerea bitxia egiten jakon berari, neuri berea hainbat kontuizu.

Kurtsiloaren erdia izango zan historiako estudiantea ostatur gengoan Institutotik ahienatu zenean. Kuku egin ete eustan? Joan beharren bat ausaz?

Hurrengo egunetan ere apunteen aitzakian-edo kuskusean inguratzen jatan mutilen bat, ea seilurik neukan, ea kartazalik, harik eta Ainhoa izeneko bateren lagun egin nintzan arte. Bera ere bertoko alaba, ez dakitsut zetarikoa esan, une bateraz gero eta ikusiak ikusi, ia denak susmotan hartzen dozuzalako.

Ainhoa eta biok arratsaldeko klase artean ondartzara eguzkia hartzera joaten gintxatzuzan. Behin handik itzulikeran, Ainhoari foto bat atera behar neuntsola-ta, hartu neuntsun makinea eta pelikularik ez barruan.

"— Nor ibili da nire maletean?" —azaldu nintzan.

"— Ez hunan ba giltza eman gabe utziko?" —Begiratu nindun berak.

"— Giltzaz itzi jonat nik, baina lan fina egin jon baten batek. Ez haz konturatzen? —Bileteroa erakutsi neuntson— Diruari ikuririk ere ez, makinea bere tokian... Karreteak bakarrik..."

Ni poliziakaren bat ikusten, Ainhoa bera ere zurto samar. Ez, ez eiteken izan bera konplizea. Orduan susmotan ere ez neuntsun hartu, baina gero, ikusiak ikusi, batek ez daki zer pentsau ere.

Nire susmoak beste bidetik joan ziran, "ta kazetariet noren argitarako egiten ditene" harako ziri egilearen atzetik hain zuzen. Adarjotzea ala karretean egozan arpegien azterketa bat? Hatarako ez eukan baina zertan aldendu ostatu etxetik: Edo satorra atzemon nengian bildur zendun...

Beste asaldur barik joan jatan astea eta Udako Euskal Unibertsitateko kursiloen ornigarri Miarriz eta Baionatik osteratu batzuegitea erabagi gendun Ainhoak eta biok, Ainhoa beraren kotxean. Berak ekarriko nindula Endaiaraino. Bere etxera eroan nindun, bertan gaua igaro. Egun bateko osteratu zena aste beterantz ere luzatu

eiteken nigaitik eta asmo horixe azaltzen neuntsen gau haretan gurasoei egin neuntsen kartean.

Hurrengo baten, Urruina inguruan gendarmeeek alto bota euskuen, maletak errekiatu, ni euren kotxean sartzera behartu. Hantxe eta halatan aldendu nintzan betiko Ainhoagandik. Ez dot harrezkero bera ikusteko erarik izan, ez eta ustezko bere etxekoei galdetuta ere, etxea barik ostatua zendun-eta. Horko ibileretan ez al dozu ezagutu begi urdin, ule kastain eta hogetairu urte inguruko Ainhoa Senpere izeneko neskarik?... Bai, ehundesak izango dozuz halakoak, baina ez Ainhoa Senpere deritxenak... Izenez eta zapakeraz sobera aldakor dela jendea? Baleiteke, eta ustezko lagunik onena zeure salatzaile. Ezuste batez topo ete gendun gendarmealako harekin, ala euren eskuetan itzi ete nindun? Ez dakit zer emongo neunken horixe jakitearren. Zintzotasunaren eta salduke-riaren arteko leizea ezagutzea lez litzaken niretzat, egia esan.

Harrezkero ezin neinkezan banandu nire bizitzan eztelakoan sartu eta badelakoan, beste agurrik egin barik, itzi nauenak, Udako Euskal Unibertsitateko historigile kumea eurretan eta Ainhoa Senpere... Koldo? Ez, Koldok ere ez eustan, ez euskun agurrik egin joan zan egunean, edo bezperan, baina ez dozu bardin, ez hala?"

“NIK EZDAKIT KOLDORENA BARDIN ETE JAKUN zuri eta niri, baina bera agur esan barik joan jakunetik, nire egunak eta orduak atzekoz aurrera kontatzen hasiak direlako daukat eta ez zindukedaz ezelan be, ezusteko lagunek lez, agur esan barik itzi. Egizu hemendik aurrera, agur esaten dautsudan bakoitzean azkena izan daitekela eta kitu. Ez dinotsut txantxetan. Galekoen txorimalo hau ez da gitxiagorako. Paradisoan gengozalakoan eta ikusi noraino etorri diren txakur amorratuok. Berari egin dautsoena bardin egin eikiden neuri. Ez dakizu nortzu diran, ez dakizu noiz oratu zaikezan. Zuk lehen inguma aitatu dozu, nik txorimaloaren gerizea aitatu daiketsut. Geriza hori dabilkula jarraian eta zu ez zara konturatu be egiten harik eta eguzkia argitzen dan arte eta ordurako ia berandu dozu. Gerizea zeurea dozu eta gurata be, ezin daikezu zeugandik aldendu...

Bakoitzak dauka bere historia. Zu hemen bertan, Lohitzunen konturatu zintzala; ni mugazandik, etxetik esateko, keriza horregandik ihesi nentortzun. Koldo eta biok batera etorri gintzazan. Beraz azkenaldian zeuri lotuago izango zendun, baina ez hasieran...

Koldoren auzotiar nazenez, ondo egin dozu haren aldeko isil eleizkizun honetara niri deitzean, honela azkenak hasieraz lotzeko aukerea izango dogula uste dot, bada zoriak zeu Koldogana erakarri zinduzanez, ni Koldo berak ekarri nindun mugaz hementira. Esango dautsut zelan. Koldo ni baino urte bi zaharragoa zendun, Mikel nire anaiaren kintoa. Eskolaumetatik alkarregaz beti mokoka ibiltzen zenduzan, batak be txilik egiten ez ekiala. Politikan be banandu izan behar eben, biak be abertzale zirala, baina bakoitza berekoi. Zu abertzale amorratu? Ni amorratuago. Gaztetan be umetaroen lez eta gauza serioagoetan umekerietan lez. Ez dinotsut neu besteak baino gizonagoa nintzanik, eztabaidea euren artean nabariagoa zala baino. Ni urte pare bat gazteagoa be banintzan eta ez dakitsut zergaitik hasi nintzan Koldogaz urtetan, ba hortik lagun izatera aldea dago. Behar bada, Mikel anaiari arpegian emotearren. Ez dana dala be, Koldo begi-begikoa jatalako-edo. Itxumustuan lez hasi zan eta konturatu orduko, ia atzerantz egiteko berandu, orain sarritan drogaren sareetan jausten diren horrei jazotzen jaken lez, kontuizu.

Koldok bere kotxea, bere ibilerak eta bere adizkide eskutuak eukazan. Olako lanaz aparte, ez zendun bere gurasoei baserriko lanetan lagundu edo bere arrebea kotxe osterata batera-edo konbidatzeko. Aparteko bizitza egiten eutsula esan gura dautsut... Hori dala-eta, gurean nahiko marmar izaten zan. Horregaitik eta Koldoren huelga erronka edo politika partaidego zaratatsuak zirala-ta.

Domeka arratsalde baten izan zan. Jo! Ba ni goize haretan mezea entzun eta guzti nengotzun... Angerua distraiduko jatan. Domeka arratsalde haretan ez nintzan jatxi erromerira, kalera esan gura dautsut, ba gu baserrian bizi gara eta nik baserrian egiten neban lan. Nire beste nebarrebek osterata, kalean.

Zapultzaldi bat izan neban eta ez nintzan eurekaz erromerira joan, Jone nire arrebeak dei egiten eustanarren. Koldoren etxea guretik metro gitxira dago. Atartetik harek nire ukapenak ikusi eta bakarrik gelditu nintzaneko, taka ziztau nindun ezustean.

“— Zer, nobieagaz asarre-edo?”

“— Ze ardura deuk hiri? Zer dakik hik andregaiez?” —edo holako erremuskaden bat jaurti neuntson.

Berak kasorik be ez, sumina neure artean egosten itxi nindun. Apur bat gerotxoago badinost:

“— Ba hator neugaz ehizean?...”

Ehizea zendun Koldoren ibilaldietako aitzakietariko bat gure marmarrak inoenez. Burgosera-ta joaten ei zan bere lagunekin. Inoiz tentagarri egin jatan halako osteren bat emotea, baina gure Mikelek Koldorenik ez egitearren ez eutsun eskopetarik be hartzen eta han egotzun aitaren eskopeta zaharra kuarto zaharreko erloxu zaharrean uhartzen. Eta hara nondik neuri halako abenturarako eukerea. Isi-isilik eta ostu-ostuan lez, aitaren eskopetea eskuetan hartu nebaneko, gure aitaren gaztaroko ehize ekintza aipatuak eta ipuintsuak hatzamar artetik odolerraino irakiten hasi jatazan. Nora eroango ete nindun Koldok halako baten, Autzikan harrezkero ez egon ez erbirik eta ez paseko txoririk-eta?

“— Topauko joagu bela zaharren bat-edo hortik” —esan eustan Koldok nire eskopeta uhartuari irrisinua egin eta bere errepi-katzailea erakusten eustala.

Gure aitaren kainu bakarrekoa harenaren parean txatarrea eta bera zendun. Hara nondik Koldoren gorea nire aurrean, bestelakoetan geure mailara heltzen ez zirelarik Beitibiskokoak. Gu Beitikoak eta eurak Beitibiskokoak. Ez zan alperrik bestalde Koldo ni baino zaharragoa eta ehizari osartua, nik ostera barrabaskeriaren bat-edo egiteko inoiz kurloiei tiroka ibilia.

Eskopetea sorbaldan hartu eta Koldoren kidegoan basorantz abiatzea bestelakoa zendun hamazortzi urteko mutil batentzat. Olgetatik benetara doan une-unea ausaz. Isilik ginoazen bidean,

basoak berak-edo zer ehiza salatuko. Ezin igarri nik Koldoren gogoetarik, ez nik itauntzen haren osteraz eztabaidatuez. Ni aitaren gaztaroko ehizaketak edo haren umetzaroko jolas erbi-erbiketen kontakizunak gogoratzen eta ezin antzemorik orduko umeak zelan izan eitekezan era batera edo txandaka ehizari eta erbi eta txakur ululari zurezko edo kainaberazko eskopetekin. Kainaberazko eskopetea gure aitaren inbentua ei zendun auzoan, eta hagaitik ehizari nausi izendatu ei eben. Behin halako eskopetaz armatu ei eban baratzeko txorimaloa.

“— Zergaitik ipini dautsak ba?

“— Paseko txoriek gure nabazia ikutu ez daien.”

Koldoren dunbatekoak atera nindun basoko bake eta ipuinen mundu berandutik eta min emon eustan ezorkuko tiroak belarri ondo-ondoan. Bela zahar bat ikusi neban hegaz basoko argiunean

“— Lekutan! —esan neuntson, beleak bidea hausirik, eta bere aldrakoei dei eginik, harutzago ahienatzen zirela ikustean.— Burgosera joan beharko dok osteraz be.”

“— Je-je —barre egin eban.— Hemen izan be, txorimaloak-edo dantzatu ezik, ez diagok zereginik.”

“Txorimaloak dantzatu” esan eustan harakoan neure arteko ume gogakizunen jakitun bailegon. Txorimaloak dantzatu? Nik “txorimaloa armatu” ninoan ba neure artean. Benetan ala txantxetan ete ebildan? Umetzarokoak itzi eta ez ete genduzan ba gizonzkoenak hartu behar? Ez neuntsan ezer itaundu Koldori. Igarri eizala, kapaz bazan, nire ezbaia be. Gauzea berez etorriko zan.

Koldoren dunbatekoari erantzuki-edo, beste ehiztariren batek tiro-hots egin eban. Baso sakonagotik edo mendiskaren bestaldeketik etorren hotsa. Nork igarri?

“— Hemendik dok” —esan eban Koldok eta Herrimendi osterako bidea hartu eban.

Bai igarri be Koldok. Handik jo eben osteraz be punpatekoek, gero eta hurrago entzuten genduzan. Koldok bidea ekian. Harrobi

Zaharreko zirkuluan ehiztari bi edo danadalako, Koldoren ezagunak behenipehin, aurkitu genduzan. Burgosera osteratako lagun ezezaguntzat emon nebazan eta eurak be, antza, txorimaloa dantzatzen ebiltzuzan.

“— Hona hemen nobieagaz aserretu dan auzo lagun bat.”— Honela aurkeztu nindun ezezagun harein aurrean.

Barre egin eben gustora neure lepotik. Ez jatan gustau bat be Koldoren nabastarrea. Artean isilekotzat itzi genduna, hantxe besteen aurrean atera beharra, eztalakoan be saldukeriatzat hartu neban.

“— Keaitxo”— eskua luzatu eustan euretarike batek.

“— Honeek Txiski eta Bizar dozak hemendik eta Burgoserainoko ehiztari trebeenak”— goraiatu eustazan Koldok, auren kide egiten zala.

Koldo baino zaharragoak zenduzan halan be, hogetamar-hamabi urteko tipoak. Orduantxe ezagutu eta beste domeka bi... edo hirutan ikusiko nebazan eta, zeuk esan dozunez, agertu leztxe, ezuste batez gero aldendu zirenak, esango dautsudanez.

Txiski eta Bizarrek apunteria lana erabilen, ez dakit nongo “explosivos” eta kartutxutegi modeloak aztertzen. Haxe Herri-mendi osteko toki apartatua aukeratu ei eutsuen aste buruetan eta ekiteko inor gogaituazo barik. Beretik ekien ala Koldok emon ete eutsoen tokiaren barri? Bada tokia Autzika bazterra da eta eurak Okizagakoak zenduzan. Harrobi zaharra, behin sasi-garbitu agertzen zanez, halako pruebak eskutuan egiteko aukerakoa zan, izan be. Nik artean sasiz beterik ezagutu neban, behin aitak handik hur dagozan trintxerak erakustera eroan nindunean, “honeek geuk ebakiak dozak, txotxo” esan eustan harakoan...

Beraz, tirorik lehenago be izan zendun handik eta ez txorimaloak dantzatzeko aitzakian, gudatean esan nahi dautsut... Harrobi Zaharrean txorimaloena zan. Tiro hotsak haurreko eta hegaletako ormak jota gora haizatzen ziran. Sakonean gora ezbardinetako zurgasta batzu egozan bata bestegandik bi edo hiru metrotara ba-

nandurik gainean piper pote bana eukeela. Tiro andana jarraian punpatzeko puntuak ziran. Hegal baten, beste tiro bidea egiten ebala, egoan txorimaloa. Hara ba nondik begitandu jatan haxe apuntatzea izan eitekela “txorimaloa dantzatea”. Haseran beste edozeintariko txorimalotzat jo neban, paparrean handitik txikira-ko zirkuluak eukazala tirounetzat eta erdian bihotzalakoa. “Zer egiten ete dau txorimalo horrek paseko txoririk be ez dagoen toki honetan” ninon neure artean.

Txiski eta Bizarrek poteak joteari ekin eutsoen, andana ezkerretik eskumara eta eskumatik ezkertera txandakatuz.

“— Hik, txo, egik uso aldra direla eta tiroak dozaken beste uso bota behar dozakela”—eskolatu nindun Koldok.

Txiskik egina bera egiten eutsun ondoren Bizarrek, baina hurragotik eta eskopeta motxa begietara eroan barik, besoen alturan euki eta hegalka ibiliz, bidebateko lana baileuan. Hutsik be ez eban egin. Zer egin neinken nik hareen ondoan neure kainu bakarrek eskopeta zaharragaz?

“— Postakoa emongo dauat, ea zenbakarren zirkuluan sartzen doan”— txorimaloa seinalatu eustan Txiskik.

Probatu egin behar neban. Agindu eusten distantzia hartu, arma begira jaso, punpatu eta emon eustan kulatadeaz txorimaloak berak baino dardarizu handiagoa hartu neuntsun neuk. Zirkuluko zulatunea ikustera hurreratu gintzazan.

“— Ez diagok txarto be —esan eban Koldok.— Bihotzean ia-ia.”

“— Be!— gitxietsi neuntson neure egitadeari.— Ez dago txorimalo desarmatua horrela erasoteko eskubiderik.”

“— Txorimalo desarmatua! —erantzun eustan Bizarrek aserre bizitan.— Armatua ekarriko deuagu hurrengoan, ea bihotz-biotzean emoteko hazen.”

Nik inozentzirik handienaz esan neutsan “txorimalo desarmatuarena” eta harek berari egindako iraintzat hartu eustan, neu

harritzeraino. "Txorimalo harmatu" hori geure aitaren ipuinetariko dozu, baina Bizarrek adierazi gura eustana, badakigu, Beatriz, zetaraiko txorimaloa izan zan?"

"EZ EISTAZU ESAN. NEURI ERE GENDARME ZIRELA-ko hareek bestetarikoak gertatu jatazan-eta. Pasaporte, Estudiante Karneta, neunkazan paperak, apunteak, fotoak, negatiboak eta makinea bera, beste barik, kendu egin eusteezan.

"— C'est une merde d'atroupement"— esan neuntsen amorruren amorruez eta neure frantzez apurrean.

"— Gozoago faborez, neska, gu ez gara gendarme kakatsuotarikoak- eta."— Eskutik oratu nindun eurentariko batek, esana erasoaz bultzatzearen-edo.

Euskera entzun eta eskua askatu orduko nortzu eitekezan konturatu ninduzun. Egunatan ez dakik noren sekuestroa zan eta kasketada harek emon eustan. "Erreskateren baten-edo bila ete dabilz eurok?"-ninon neure artean... Ez erreskatearen bitarteko, erreskatearen ordeko neu atzilotzen baino. Opus Deikoen Unibertsitateko estudiantea nintzala eta beste barik guraso aberatzetako umea nazela uste ete daue eurok? Eta zer ni eta nere gurasoek ere oso abertzaleak gintzala esaten baneuntsen? Askatu egingo ete ninduen? Inpuestu arinagora behartuko? Ala iraultza zergan ez ete eutsoen begiratzen bat ere besteen abertzaletasunari?

Egia esan, etxean ez gintzazan ez aberatz eta ez horren abertzale, aitaren aldetik beheinipehin. Ama eta ni bai oster. Harro esan neinkien behin suspensorako eta ia espedienterako istilua sortu nebala non eta Opus Deikoen eskolan, Euskadi noizbait independentea izan zela defenditzearen. Euskadi, Euskalerrria edo Nafarroako Erreinua, hitzen gora-behera izan zendun gutzia. Hankea sartu nebala guzti horri ordua baino lehen "Euskadi" deitzean.

Gendarmelako mutil harek ere ez egozan bereizketa handirik egitekotan. Eurek eurenera eta kito.

"—Eta kronikak? Nora bialtzen ditun hire kronikak?"— Asintzen nindun komisario tipokalakoak.

"—Ze kroniak?"— nik zurtu.

"—Ez al dakin muturrak larregi sartzen dituen kazetariei zer gertatzen zaien?"— Zema-durundiaz berak.

"—Horren mesfidagarri ete jatzue nire abizena?"— Aurre egin neuntson batez ere karnetetik "Fernández" hagin artean murduskatu ebanari.

"—Ez da abizen kontua!"— Begiradea itzuri eustan.

Alperrik esaten neuntsen okerreko susmoa edo txibatazioa eukeela. Udako Euskal Unibertsitatean ikaskideren bateri-edo esaniko arinkeriak ez zirela aintzat hartzekoak edozelan ere eta gitxiago belarri berotzailereren ahotik.

"—Zeinen ahotik?..."— Sudurrak astindu ebazan berak.

"—Ez dakit nor zenik ere"—nik.

"Nik baino hobeto jakingo dozue zeuok" ninon nik neure artean. Ez nintxaken arpegira esaten ausartu. Atzeurreak ondo zaintzen ekiezenetarikoak zenduzan biak ere. Hanka sarterik ez eben ezagutu gura izan, nik nere inozentzia agertuaran.

"—Muturra handik hona barik, hemendik hara sartu behar da"—inosten.

"—Muturra sartu? Espiatzat-edo hartzen nozue?..."

Bueno zoratzekoa zan. Lar aintzatan eukeen nire nortasuna eta neure Estudiante Karneta hobeto begiratzeko eskatzen neuntseen. Ea mugaz bestaldeko euskal estudiantea batek Udako Euskal Unibertsitate eta etorteko eskubiderik ez ete eukan. Begiratu eutsoen karnet horri eta Opus Deiko Fakultatea zela ikustean, oker susmorako aki-akulu gehiago eurentzat. Benetako euskaldun bat zelan joan eiteken hain erdalzaleen Unibertsitate.

"—Euskalerrrian bakarria delako —nik— eta etxetik hurrena."

Hurragorik eta batez ere euskaldunagorik bilatu neinkela, non eta Paben. Kontzejuak emoten hasi jatasan bidean. Pabe hori non egoan ere ez nenkitsun. Nik Baiona inguruan-edo uste neuntsun. Nire gurasoekin kontaez gero, nigaitik Parisen ere bardin, esan neuntsen. Ez neuntsola euskaltasunari bildurrik, ez eta kilometrajei.

Euskaltasuna agertu eta batez ere susmogarrietatik aske ikusi nindeien erantzun neuntsen halatan eta hainbat arinen libre itzi nindeien. Libre bai, baina joaten itzi baino lehen aitorenaren egiztatzeko, prueba batetara behartuko ninduela.

“—Hemendik harako bidebatezkoa egin behar digun...”

“—Bidebatezkoa?”— Arpegira begiratu neuntseen hitz haretan ikusten neban txantaia-edo salatu nahiez.

Hareek begiradeari eutsi, “bai” ala “ez” eskatzen eusteela. Gogor ikusten nebazanez gero; nik baietz, egingo neuntsela erre-kadoa edo denadelakoa, baina droga edo arma paketerik ez izatekotan. Ez jaken gustau bat ere nire baldintza...

“—Nortzat hartzen gaitun ba?...”

Fidagarritzat euren eskuetan itzi beharko nebala Canon fotomakinea, nahiznoiz haren bila itzuli neintekela. Horixe eta “nortzat hartzen gaitun” gainera. Ohorea deitzen deutsoe horri.

Ez neban gauzea argi ikusten. Neure Canon maitea artetsuago kentzeko timoa? Edozelan ere emotea gaitzerdi zendun. Hobe dozu halakoetan —ontzat emongo eutsun gure aitak ere— oin bat galduta bizirik urtetea, oin biekin lezean jaustea baino.

Neure Canona galdutzat emon neban une haretan. Ez nintzan konturatu ere egiten ordez emongo eusteen paketea galgarriago izan eitekidala mugako ikerketetan... Egun pare bat-edo itxaron beharko nebala. Artean estudiante batek zer egiteko baina? Ba estudiante jakinminak egingo leuken gauzarik arruntena, erantzun eusteen. Pabe Unibertsitatea ikusi neinkeela, erakustera eroango ninduela etabar. Jokora prestatu nintzanez gero, jokoaren parte lez

hartu neban. Ba neunkan neure baitan Historiako estudiante txuliatzailea han aurkitzeko itxaropenik. Ikustea bakarrik neban korapiloa askatzeko nahiko. “Eta zerikusi dauka poeta batek Canon bateren sekuestroan?” edo holakoren bat esango neuntsan. Ainhoagazko ibilerak amaitu eta neure sekuestradoreekin emongo nebazan astearen gainerako egunak.

Hanartean gizabidetsu portatu ziran nigaz. Berebilean zela, mahaian zela edo ostatuan Euskadi eta askatasunaz ejerzizio espiritualak bezelakoak emon eusteezan, harrezkero gendarme itxurak itxita, bien artean. Konbertidu egin begar neban neure fedean: abertzale motela izatetik abertzale sutsu izateraino hatan ere. Gero jesuitek edo Opus Deikoek “sekuestratu” ohi dauen gaztedia aipatu dagistela.

Orduak nasai igarotea erabagi neban. Pentsau ere ez ihes egiterik, ez eusteen itziko gainera. Neure inozentziaren pruebarako konfiantza emon behar neuntsen. Zer egin neinken?... Zer egin neinken? Bai, bai, gero esaten da arrisku batek bestea dakarrela eta holakoak...

Hurrengo egunean Paben izan gintzazan. Estudiante txuliatzailearen arrastorik ere ez. Ez eta Ainhoarenik. Jakina, jendea oportetan eta ormak, orma eskergak baino ez nebazan ikusi Pabeko Unibertsitatean, Unibertsitatea barik kartzela eristeraino bi sekuestratzaile haren erdian. Unibertsitateko ormei agur esan eta kaminora orduko ostera ere gendarmeak, oraingoan benetakoak, eta nitaz arduratuago nire lagun biez baino. Bada haren karnetei azal begiradea bakarrik eta nire pasaporteari barriz luzaro begiratzan eutsuen. Lehenengo fitora eta gero nire arpegira, ea benetako Beatriz neu ete nintzan-edo. Zer gura ete eben? Sekuestratzaileen-gandik ni askatu? Bururatu ere ez jatan egin une haretan. Ausaz Ainhoa neskalgunaren errekadoren bat ekartsuen, baina ni mutil biren erdian nasai-edo ikusirik, ez eutsuen ezer egin. Ahoa idegi edo esku luzatu izan baneban, zeharo libre nintzaken euren eskuetan... Zenbat damu izan dodan une haxe ez uztiatzea eta Ainhoari mila esker ez emotea!... Baina jasoak jaso eta joanak joan. Haxe ere frantzes morroi biren erdian baino euskaldun biren laguntasu-

nean hobeto ninoala pentsau beharra. Hareek alde egin eta behin-goan izan zendun mutilen asaldua:

“—Fitxatuta zaude —esan eusteen—. Gu baino lehenago da txakur hoién txibatazioa aduanan. Ezingo duzu bete gure erreka-doarena, adizkide fitxatuon bileran ikusi bai-zaituzte...”

Ernegua eta larria biak irakiten hasi jatazan barrenean. Neure suerte txarrari oska nengon, gendarmeena akzidentea ala asmake-ria ete zen ezin asmaturik. Ainhoak bialduko laguntza ez ete jatan ba neure kontrako prueba, hau da ni heurrekin nenbiletako prueba argiena gertatu?

“—Ezin zaitekez mugara hurbildu —inosten—. Errefuxitu karta eskuratuko dizugu.”

Gendarmeak nire atzetik etozen ala nire sekuestratzaileek trafiko hutsen batez probokatu egin ete eben “fitxatuta zaude” harakoa neuri leporatzearren?

Zoritxarrean ez ziran gendarmeok barriro azaldu, bestela eskua jaso ezeze, askatu nindaiela eskatuko neuntsen. Negarrari emon neuntson eta ez larritzeko, errefuxiatu txartelagaz ez neunkala zertaz arduratu. Koldoren gorpuari mugazandira jarraitzeko pres-tatu nintzanean, errefuxiatu txartel hau Bidasoara jaurtitzeko asmoa neuntsun, baina ondo jan eragin eusteen asmo hori...

Bere arimaren aldeko isil eleizkizun honetara zuri deitzean pentsau ere ez neuntsun egingo gertakizunon kontaearak gure alkartea iluntzeraino luzatuko eutsunik. Hortxe neunkan hatarako, Koldori meza bat aterateko, gure amak bialdu dirua. Gure amak ba ekitsun Koldo eta nire arteko harremonen barri, ez nik esanda. Asteetan euki dot diru hori eta agindua betetzera behartu nauen purgatorioko sua izan dot barrenean. Harrezkero pozik nago. Koldoren arimeak edo betebeharraren suak libre izten nau.

Ze u gonbidatzea barriz, ez Koldoren auzokide zintzazalako bakarrik, Koldok zenak zure izena maiz ahotan hartu eta zutaz arduratzen zelako ere bai... Zer esango dautsut? Behar bada, esan daustazunez, zeozelan zeure estropozuen errudun sentitzen zelako

behar bada. Agur bako despeida egin euskunez, bere ahotik jakiteko aukerarik ez zendun izango eta haren gogakeren jakitun egin gura zindudazan. Ez neutsun hagaitik zuetariko beste inoren presentzirik ikusi nahi izan Sokoako mezatan. Ez eitela ostera ere, hilen oroimena den gauzarik apalena eta erabat gorena, ikurrin eta armen arrandiz kutsatu... Lehenengo zure argalckeriren batez jabe-tzen dozuz, hurren zure bizitzaz, gero zure heriotzaz eta azkenik zure gorpuaz eta arimaz jabetzeko ahalegin faltan ez dozuz geldit-zen. Arima salgai ipintea baino ez dozu. Ez nik behenipehin...

Aspaldiko partez otoitz egin dautsut mezatan eta ez dot aurkitu gure Jaungoikoari errurik nondik egotsi, bai ostera zertan parkaes-katu berari. Neu naz neure erruen lehen erantzule. Mugaren bestaldean gelditu jatzula angeru jagolea eta, zeuk aitortu dozu-nez, erruak beti inori egosten ibili barik, norberarenak norberegan hartzeko ordua da.”

“ONDO DINOZU, ESAN BE, ANGERU JAGOLEARENA, Beatriz. Neuk be ba neban neurea, baina aldi haretan Koldogaz trukatu neutsula uste dot. Koldok barre egiten eutson nire inozen-tziari, amaren gonetatik urten-barri nintzala-edo esaten eutsun.

Harako domeka arratsaldetariko baten tiroketara gizoazela, basurdeak erasoteko posta kartutxoak eta karabinarena aitatzen eustazala, behin Burgosko ezpatadantzariet zaparradea bota eutse-la esan eustan. Ea ze patari modu ziran nik Burgosko dantzariok eta berak barre, “hi kokoloa haz” esatean lez. Orduantxe heldu gintxatzuzan Harrobi Zaharrera eta han egozan ordurako Txiski eta Bizar, gure lagunak. Koldok barre zantzoka ospatu eutsun nire ezjakina, lagunei agur esan orduko.

“—Txo! Honek ez dakitsue Burgosko ezpatadantzariet nortzu diren be, ja-ja-ja!”

Horixe: zeure ezjakinak urtiatzen dozuz, lehenengo zeure lepoti-k barre egiteko eta hurren euren jakintsu-ustekoen esaneko.

“—Hor daukak jakin gura badok... —Bizarrek eskua luzatuz, txorimalo barria adierazi eustan.— Je! Burgosko ezpatadantzaria!”

Lehengo txorimalo arruntaren lekuan egotzun eta plastiko barik. Okume berdez pintatuan egin zan garritik gorakoa. Txapel okerraren isladuratik eta besapeko metraileta punta antzeztuan igarri neuntsun. Paparrean, beste txorimalo arruntak lez, zirkuluz eginiko tirounea eta erdian bihotza. Haxe izan behar eutsun Burgosko ezpadantzaria.

“—Hik txorimalo armatua deitzen dautsak ala?”— Barre gehiago egin eban ostera be Bizarrek nire lepotik.

Txorimalo armatua... Zelan azaldu neinkon Bizarri txorimalo armatuarena? Hareek gure aitaren umetzaroko ipuinak- edo zirala esan behar ete neutsan? Azalpen bat sor neutsan edozelan be.

“—Nik aitaturiko txorimalo armatuek ez eutsuen halako bihotzik edo tirounerik” —esan neuntson.

“—Ba diakiguk bihotzik ez diaukeela, baina suposatu egiten joagu haren orde larrosea eta fletxak eukiko joezela eta guk jo eta ke bertara.”— Barre zantarragoa oraingoan Bizarrek.

Nire angeru jagolea, txorimalo armatu gabea lez, indarge gelditu jatzun paseko txori gosetien pentzudan, eta hara, gure aitaren baratzeko eroa goizetik gauera gaizkile bihurtu... Txorimaloaren, ipuinetako txorimaloaren alde urten neuntsun beste behin halan eta guzti.

“—Zer ba? —ausartu nintxaken— Txoriak amnistiatu eta txorimaloa hartu ete dozue tirounetzat?”

Esan baneban, esan neban. Bekain garratzaz begiratu eustan Bizarrek.

“—Amnistia? Hik zer dakik amnistia zer dan?”

“—Jakingo ez joat ba? —Aurre egin neuntson—. Amabost- amasei urte euki najoazan harako manifestapen orokorrean parte hartu genduanean. Bai eta lortu be. Ez haz gogoratzen?”



“—Bai, eta ez ete dok gogoratzen orduko eslogana?”
—Haginak erakutsi eustazan Bizarrek.

“—Eslogana?... “—Ni zurtz ostera be.

“—Bai, bai eslogana, txo —Hitzari oska berak.— Edo ez hendun “Presoak kalera! Txakurrak barrura!” ohiukatu?... Ba, lekutan gelditu zoan amnistiarena! Gu kaleratu gintsoazen, baina hareek hor diagozak kalean, barrura sartun barik. Ulertzen dok?

Egia esan, ez nengon Bizarren arrazoiak ulertzeko orduan, baina Harrobi Zaharreko tiroketak baino aitaren baratzeko ipuinak ederragoak emoten neuntsuzan harrezkero.

“—Ordurik hona gainera txori asko sartu joezak ostera be kaiolan —jarraian Bizarrek—, eta jakingo dok txoriak ez direla kaiolan eukiteok, ez hala? Bada, entzuidak, hareek guztiak kalera-tu artean, horrek dozak —txorimalo harmatua seinalatzen eustan— txorimaloak eta bienke “maloak”. Eta ez txoriak! Entzun dok?”

Ez neunkan zertan asarrazo gehiago mutila. Ni beti be amnistiaren alde nengola berbaz erakutsi behar ete neuntson Bizarri ala neure tinua probatu txorimalo barriaren kontra?

“—Benga ba karabina hori!” —eskatu neuntson pausoa aurre-ra emonik.

Karabina harek Oesteko pelikulen durundua eta abenturaren sundea ekartsuzan alde batetik, ona eta gaiztoak bereizten eutsuzan hain sinpleki besterik, Harrobi Zaharreko ohiko erbi ehizaketak, gizarteko burruka eta gure aitaren gaztediko guda ekintza bihurtu gurarik-edo. Dunbateko larria benetan haren tiro astindua-rena! Harrobi Zaharreko zirkua dana hartzeko lain ez bailitzan, zeure belarrietara etortzun ohiartzuna. Neuk ostikadea sorbaldan eta txorimaloak, hilezkorra balitz lez, zirkinik be ez.

Zenbat eta txorimaloa geldiago, tiroa bular erdirago hartu ebalako seinalea. Hantxe eukatsun okumeak zulatunea eta oholari ikuturik be egin barik, bihotzean jo zeinken.

Ez nintzan txarto gelditu neure txandean, ez nenduzan egin alperrik proba gehigarriak neure kontura erosineko posta kaxa bigaz. Txalotu be egin nindun Txistik eta nik ez aintzat hartu neure punteria-edo eta ostera berba egin neban.

“—Bai baina, itxurazko armaren ondoan, benetakoa euki izan bajoan, larri ibiliko nintsoan...”

“—Ako bestea! —aspertu jatan Bizar ostera be.— Eskopeta edo karabina zahar bategaz nahi dot metrailetadunari aurre egitea? Gixajoa! —Erdi errukiz, erdi erdeinuz begiratzen eustan eta buruari eraginez. — Izango dok, halan be, olgetea benetaz probatzeko abagunerik, gura badok...”

Nire hanka sartzeen ondoriozko Bizarren asalduek baretzearen-edo, Txiskik harako bizarrak aipatzen dauzan kantuari ekin eutson:

“Zeru altuan izarra
erreka ondoan lizarra,
independentzia lortu arte
ez dok kenduko bizarra.”

Ez dakit okotzean bizarrrik gordeten dauen Bizarrek oraindino. Txorimalo armatuaren dantzaketa osteko abesgai lez gogoratzen dautsut. Ez dago antza norbere bizarren neurrikoa baino imno ederragorik. Baina haxe izan zendun Bizar azkenez ikusi nebane-koa. Txiski lagunaren kantaldi ostean nahiko gozatu emoten eban, nire ergelkeriarren-edo sortu izan jakon umore baltza joan izan balitxako lez. Non ete dago Bizar? Mugaz handik ala hemendik? Txori gaixoen kaiolan ala txorimalo armatuei erasoka? Bizi danik be ez dakit. Bere izena, benetakoa esan gura dautsut, zein zan be ez dot jakin eguno, geroago Txiskirena jakin izan dodanez... Ezizenetik? Ezin baina. Txiski bera be orain ez dozu Txiski-eta. Benetako izena aldatuz gero, harago aldatuko dautsuez guzurrez-koak. Bat mugazandik eta beste bat hemendik. Izena txapela lez edo txapela izena lez. Beste zera izango da nor bere burua... Hori Txiskigaz jaso jatan behin mendiketa baten alkarregaz suertatu gintzazanean.

“—Kaixo, Txiski” —agur egin neuntson.

“—Ez nok Txiski, Txindoki baino”—erantzun eustan.

“—Mendienak dozak orduan orain modan”—Adarra jo neuntzan.

Ez jakon bat be gustau nire ateraldia. Hil egin zala Txiski? Biba Txindoki eta aurrera! Baina bere beteko izena, pontekoa, Juan Okize Ulazia zendun. Ezin neinken ahaztu. Hola inotsun Koldo berak erakutsi eustan periodiku txatalean. Txiskiren errequisitoria zendun. Izena eta “alias Txiski” inotsun han.

“—Juan Okize Ulazia?”—Nik ostera be Koldori.

Koldo harakoan ni neu baino aztoratuago egotsun.

“—Ba horixe. Nor dala uste dok Txiski, Juan Okize Ulazia baino?”

Bizarren errequisitoria ez etorren harako txatalean. Zer jaso ete jakon Bizarri? Oratu egin ete eben? Eta horrexek aztoratzen eban Koldo.

“—Oratu badaue, Bizarrek gure barri emongo dautse txakurrei. Geu be galduta gagozala! Ez ete dok ulertzen?” —Besotik oratzen nindun Koldok.

Harako gaua etxetik kanpo igaro gendun eta behingoan mugea igaroteko erabagia hartu. Hartu egin gendula? Nik beti esan dautsot neure buruari, Koldok hartu eutsula nire orde. Eta Koldoren orde... Bizarrek, behar bada... Nork jakin? Ezuste baten, ezizen bateko lagunek bidera urteten dautsue eta aldentzerako ez dakizu Juanek ala Txiskik edo Bizarrek ala danadalakoak saldu zaituen.”

“Kaltea daukanak lepoan bizarra” (atsotitza)

“AMA, NAHIKOA DA “GUK ZER EGIN DAUTSOGU GURE Fideli eta guk zer egin dautsogu gure Fideltxori” esaterik. Gauzak ez dira hemen alamenka edo Don Feliperi kontsegu onak eskatuz bideratzen edo eta hari eragineko kartaz ezer aurreratzen. Argi dakizu orain ez dagola haren sotanapean... Noren menpean? Ba, berak jakingo dautsu noren menpean dagoen. Arazo barriak bide barriak eskatzen dazela esan gura dautsut. Hatarako dagoz legegizonak, abogaduak. Ez zeunsten abogadua bilatzeko esan? Ba egon naz beragaz ostera be... Egon horixe. Uste dozu egon eta beste barik dana arreglauta dagoala hala? Nahiko be nahiko izango dogula hemen” profugo” deklaratu ez daien lortu ahal izatea soldadutza deia laster etor dakionerako... Garbi bai, lehen lez garbi dagola gaur be ezelako gaiztakeriatik, ez daukala akatzik legearen aurrean. Bera Koldok eraginda joan zala bakarrik. Baina halan be, mugazandik hona, errefuxiatu kartadun dagolarik, erakartea beste kontua dala... Errefuxiatu? Ba Frantziako Gobernuaren babesean dagola eta nahiz eta garbi egon, errefuxiatu kartak berak dinotsu, ama, polizien zigorren batetik ihes egin dala. Nik zer dakitsut ze zigoretik. Beitibiskoko Koldok jakigo dautzu hori, alkarregaz joan ziran-eta.

Amnistiako Zuzendaritzara jo behar dogula esan daust abogaduak. Neuk be ez dot ulertzen zergaitik, ama. Nik abogaduak esan daustana dinotsut. Argi dagoela alde batetik, berak, gure Fidelek, ez ebalu aitaren eskopetea baino beste armarik erabili Koldogaz-eta ibili ziraneko ehizaketetan. Baina zuek bazenkien holakorik?

Orain ba dakigu domeka arratsaldetan-eta gugaz erromerira jaisten ez zanetan zergaitik izaten zenduen... Baina hortik Armina jaunaren sekuestroan parte hartu ebenetarikoekin hartzea alde dagola. Armina jaunaren sekuestroa eta gure Fidel eta Koldoren ihesa egun beretsuetan izan zanarren, ez daukala batak besteagaz zerikusirik.

Honetan geu gozuez bere inozentziaren lekuko. Armina jaunaren sekuestrotik gureen ihesara hirulau egun igaro ziran eta sekuestroaren zertzelada batzuk alkarregaz eztabaidatzeko uea izan gendun-eta. Gogoan diaukak oraindino hik, Mikel, sekuestroaren hurrengo gauean, Telediariorari begira gengozala, bosteun miloiak, sekuestroaren saria, zirala-ta, "horreek diruak geureak dira" hik esan hendunean gure Fidelen ateraldia.

"—Aberatzak gozak orduan —erantzun eutsun harek txantxetan—, ez najoat atxurkadarik be emoten hemendik aurrerantzean."

Hik benetan eta Armina beraren lankide lez berba egiten hendun eta harek burlezar hartzen, baina ez Armina jauna-edo gorroto eutsuelako edo haren isil-barririk ekitsuelako, ez talakoan be, gure Fidel hire ileroko aloguraren bekaitzez egoalako baino. Etxion hire kaleko diruak balio joek, eta baserriko haren izerdiek ez zoazen aintzat hartzeko be.

Ahor ba, onurak eta lanak gora ezbardinean ipinten zenduezan pisuan eta gure umeak min hartu, ez talakoan be... Ezetz dinozu, ama, ostera be? Bada "zer egin dautsogu guk gure Fideltxori" zure alamenkei erantzuna emon gurarik nabiltzu. Eta ez dogu dana aztertu oraindino.

Ik, Mikel, Fideli erantzunez zera esan hendun orduan: "diruok langileon emoitzak dozak eta lapurrok ez joek hor atzamarrik mogidu, inorenak ohostuteko ez bada" eta nik gure Fidel bekaitzaarren, atzakolak jan beharrez ikusten najoan.

Une bat geroago, ez dozue gogoratzen Armina jaunaren emaztea eta seme bat Telediarioran agertu ziran eta periodistearen itaunari "es verdad que se ha podido rebajar hasta la mitad la

primera cantidad estipulada?" gure Fidelek barre eginaz zer erantzun eban?

"—Ahor ba zertan gelditu dozaken gure diruak?"

Guk arantzea gorputzean lez sentitzen genduna, harek Mikeleri adarra joteko uztiaten eutsun, ez Armina jaunari okerrik gura eutsolako, haren zoritxarrean zeozelan hire alogurak be ondatuago ikusten ejoazalako baino. Bestalde bera dozue Armina jaunaren sekuestroan berak parterik hartu ez ebalako seinalerik onena. Bestela ez eutsuen gauzea horren arinkiaz hartuko. Isilik egon eta ez talakoa egingo eutsuen. Baina ez, bera saltzan sartzen jatzuen.

Halan da be, gogoan dot orduko bere badaezpadako erantzunetarikoa bat. Hik, "gitxi deritxak miloi erdiei" erantzun eta gero, sindikatoa aitatu hendun. Zuen langile sindikatoak be Armina jaunaren baiketa kondenatzen ebala-ta, kalean manifestatu zintza-zela, baina ez ostera Koldoren sindikatokoek. "Zer dala-ta?" —salatzen hendun hik, eta salakeran gure Fideli begiratzen. Eta harek une batean begiradea itzuririk, "nik zer diakiat ba sindikatoez? —erantzun euaan—. Zeuon ardurak dozuez horreek..."

"—Ez e? Ez deuk bat be ardura gu kale gorrian gelditzeak?" —hik bero.

Fidelek orduan esku artean gordetzen eutsuen burua, erantzunik ez baleu lez, baina ezarduratuarena eginaz zera esan eutsun: "Behar bada Koldoren sindikatokoek beste era batera begiratu jo set uzgabaren bosteun miloioi."

"—Lapurren begiekaz hain zuzen! —Amorruz hik."

"—Koldok-eta ohostu dauzela esan gura ete dok?"

"—Nik ez joat esan holakorik —Sutu zan Fidel be orduan, eta hobe egingo hendukek heuk be berbak neurtzea."

Alkarri oratu eta umetan lez erasoka hasi ez bazintzazen gurasoak aurrean egozalako izan zenduen.

Zer egin dautsogun gehiago gure Fideli? Ba zeuok be, guraso lez, ondo egin ete zenduen Fidel ola lanetik aldendu eta baserrikoe-tara..., ez dinot behartu, baina bai larregi bultzatzean? Nire ustez anaien arteko bereizketa egitea lez izan zenduen hemendik begirata. Bata kaleko fabrikara eta bestea baserriko arlora, honek haunetarako eta besteak bestetarako balio baleue lez... Eta itxura baten bai, ez dinot gauzeari txarto begiratzen zeuntsenik, baina azaletik halan bairudian be, azpitik ez joan hain samur gauzea... Berak be hori gura ebalako... kalean barik, baserrian ihardun, ez dago argi. Umekeriaz esan eiketsuen edo Mikelegandiko aldeak markatzearren edo-eta zeragaitik: Asunegazkoa hasieran angeru jokua emoten eutsuelako, edo zelan azaldu...? Hasieran zerua, baino gero ilundu egin jakola zerua, Asunegazkoa eten jakonean. “Zergaitik asarratu zaree Asun eta biok?” itaundu neuntsonean, Fidelek orpoak biratu eta ez eustan erantzun. Umearena egin eustan. Umekeriaren bat izan eiteken Asun eta bien artekoa, baina bai eta be Asunek, bera dan gangarraz, baserrirako asmoak... bai, Aita, Beitirako asmoak, ukatu egin eutsozalako. Nik hor ikusten dot gure Fidelearen ihesaren zio bat, eta behar bada, handiena. Asunegaz kitutzean baserriagaz, geugaz eta zati baten bizitza beragaz eten egin ebala esango neunke. Ez haz gogoratzen, Mikel, ezpabe Asunegaz aserretu zaneke hurrengo domeka arratsaldean ez ebala ohi lez gugaz kalera etorri gura izan? Ni deika eta deika maniatu eiten. “Niri begira bazagoze, gautu egingo jatzue”—berak.

“—Etxean gordeta ez dot ezer lortuko!” —nik—. Okizako diskotekak neskez beterik diagozak! Asunegaz ez dok amaitzen mundua, txotxo.”

Eta zer besterik ez neuntsan esan! Berak azkenez atean hots egin eta alde egin euskun. Asunegazko frakaso neska guztiegazko frakasotzat hartu ebalakoa daukat edo haren larriunetik buruz urteteko umeegia zenduen. Orduan danaz konturatu izan banintzatzuen ez nintzan ezarduratuko “ba heuk ikusiko dok” esanda.

Ordutixek uste dot Koldogaz urteten hasi zala. Ikusi zenduen hanartean Beitibiskoko mutilegaz ezelako arronkidetasunik gure

Fidelengan? Ez eta kazarako zaletasunik be. Ito edo urkatzea izan zenduen beretzat harakoa.

Basilik esan eustanez, antza Asun hori beste mutil bategaz dantzari ikusi ei eutsun Fidelek, eta gure mutilak kaletarren zentzunik harean be ez eukatsunez, ba horixe..., beste barik, gauzea apurtutzat edo ta beste barik apurtu ebala. Umeegia dala esan dautsuet, baina behar bada, sentikorregia be ba dozue... Bai, gure Fideltxo, ama.

Beitiko oinordekotzaren asmoa baliagarritzat emon dau abogaduak bai Fidel bera etxera begira jartzekoan, hau da, bere etxean beharrezko dogula aditzen emoteko, bai amnistia Erakundeko Zuzendaritzak gure auzia kontuan hartu daian. “Ez ete daue nahi Euskadiren ona” —abogaduaeren berbak dozuez— Horra ba baserriaren etorkizuna Euskadiko altxorretariko bat...”. Ez dago ondo pentsauta ala, ama?

Hara nondik ba, hemen, baserri bat, geure Beiti, aita, mugazandiko errefuxiatu baten pentzudan. Euskadi jasotzeko lana eta zeregina badauka berton, mugazandira joan barik be. Auziak be hortik ikusi beharko leukeela gauzea eta ez, deserzioaren puntutik... Zer izango dozu ba deserzioa? Horixe: norbere eginbeharrak itzi eta beste arazoetan sartzea. Eurak, handik hona begiratzean gauzeari “deserzioa” deitzen badautse (militarrak militargintzari esate baterako) geuk be bardin, beste hainbeste deitu geinkiola baserritarrak baserriko arazori eta harago oinordekotza izteari. Goldeari oratu eta gero atzera begiratu dauela, ama, Don Felipek esango leukenez. Hori da desertatzea, uka egitea. Nahiz eta ez dan hau gure Fidelen kasoa. Baserria itziko eutsuen ba edozein soldadutzagaitik? Ez eta gudaritza deituta be. Harek ez dautsue izan eguno armetarako jokerarik. Hain zuzen be, abogaduak esan daustanez, “soldadutzari kuku egitearren ihes egin ebala” esan eta entregauko balitz be, ez leukela zigor handirik izango.

Deserzioa, deserzioa... Berak geuri egin dauskuna galanta!

“OINDINO GOGOAN DOT, JOSEFA, “FIDEL” IZENEZ bateatu nebane-koa. “Fidel, nik bateatzen zaitut...” Zeuok duda-txoak zenduezan zelan deitu, aitabitxi eta amabitxiren arteko gorabeherak zirela-ta. Nik artean “Fidel” entzutean, beraren alde ipini neutsun neure botoa.”Fidel? Izen ederra benetan”-esan neuntsuen— “zintzoa” esan gura dau. Eta nork ez dau seme zintzo bat euki gura? Beste barik, “Fidel” izan eitela erabagi zenduen orduan.

Orain bada, Josefa, bateatu eta kristau heziketa emonez landa, zeuk dinozunez, zer egin dautsogun edo zer ukatu dautsogun guk Fideli?... Egia esan, ez da seme zintzo batena berak egin dauskuna. Eta semealaben erratuak ez dira, beste barik, gurasoei leporatze-koak, edo bestelaz, gurasoen hutsak ez dozuz semealabei egozte-koak... Baina sendian, eleizan lez, batabesteen erantzukizunaren partaide garata... Fidelen kasoan zer esatea gura dozu? Kristinau otz edo eleizatik aldendurikoa izan balitz, ulergarriagoa izan eitekgula, baina zuen Fidel gure artean egon zaino mezatara etorten jatzunetarikoa zendun eta bateoko promesak Sendotzaz barriztau-barria kontuizu... Urte bi pasautxu. Hementxe dot eguna eta guzti, “maiatzat 16, 1978”. Koldorena baino urte bi geroago. Harek maiatzaren 22an. Gotzainak bisitatu ginduzan bietan eta berak egin eutsen berba Kristoren orde, berak hasibarriei, “inizia-doei” ohi erronkak be: “Uko egiten dautsozue Satanasi eta bere ekintza guztiei?”. Eta hareek “bai, uko egiten dautset” erantzun eben. Gotzainak oster: “Sinisten dozue Jesukristogan...”? Eta hareek “bai, sinisten dot”. Zeuok, gurasook, eta herri guztia izan zintzazen lekuko. Nik ez dakit behintzat euretariko bat be mutu-edo gelditu zanik. Han eukeezan gainera bakoitzak bere aita-amabitxiak. Umeak be ez ziran harez gero. Hamasei eta hamazaz-pina urte eukeen biak be... Bai, zuenak hamasei.

Gero eta hain urte gitxiren epean zer jaso dan? Ezaguna dot guretariko gazteren bat baino gehiago, horretan be, Koldo esate baterako... Baina itzi daigun Koldorena.

Sendotzako sakramentua deitzen dautsogu, fedean ahul direnak, hasibarriak indartzekoa dalako. Eta guk, halantxe, bide zuzenean finkatu gura izan genduzan euren bizitzako unerik

ezbaikorrena eta kinkatsuen, hau da, zirt edo zart egiteko sasoi, uztiatuz. Batzuk teatroa egin eta egun berean, hasera burutzeagaz trukaturik, eleizako lokarrietatik deslaitzen hasi jakuzala eta aurre-ra pauso egin beharrean, kontrapasa joten? Eurak dira erantzule! Ederra sartu dauskuela? Euren buruari egin dautsoe marro, nahiz ta biziro samindu gaituen...

Zer dan gero Kristo aitortu eta Antikristoari jarraitzea! Kristok jarraipena eskatzen dauku. Kristori jarraitzekotan sinisten da Kristogan. Ez “Jauna, Jauna” deitzen dauenak, esana egiten dakie-nak baino, Josefa...

Halabaina zuen Fidelegaz ez neunke izan gura horren zorrotza. Izena eta izana ez daitekez hain erraz banandu. Zuen Fidelegan nik funtzeko fidelatasuna, zintzotasuna esan gura dot, ikusten dot. Okerren bat jaso jakon edo lagun txarrak, zeuk esan dozunez, Josefa... Ene! Beitiko zuen txikerragaz nik une batean izan neba-zan amesekin eta!... Ez dautsut inoiz esan, Josefa? Baina hori Mikel zuena Okizagako Institutura hasi baino lehenago zendun. “Agur” esan neutsun neure artean, zuen Mikel kalera bidean ikusi nebanean —”Andresek-eta semea fabrikara bialtzen badabe, Beitin nor geldituko?” —kontuak ateraten hazi nintxatzun, Josefa.— “Jone alabea? Ez, Jone bera be kaleko haizeak jota dabiltzu-eta...”

Geroak arrazoia emon daustanez, Fidel txikiena zenduen auke-rakoa edo aukeratua. Eta Fidel nire monagiloa, meza-erazolea, zenduen oraindino. Nik inoiz edo behin nire monagiloiei taka botaten neutsen harakoa: “Zuetariko nork izan gura dau abade edo fraile? Nork joan gura dau urrunera misiolari edo gure herrietako predikari izan?”... Pentsa eizu, Josefa, Eleizamak edo orain maiz esaten danez, Jainko-herriak be bere serbitzariak behar dauzela eta aukeratzalea Espiritu Santua danarren, guk bitarteko ezer gitxi garenok, geure hazitxoaren ereiten dogula...

Ba, hara esateko neunkana eta esan barik gelditu jatzuna: “Zuk, Fidel...?” Eta ez dakit zergaitik gelditu zan esan barik. Behar bada, zuen etxeko erantzunaren bildur ninduzun, Josefa. Ez zeuongan federik edo bihotz zabaltasun nahiko ikusten ez neutsuelako, neure

federik nahiko-ezagaitik baino. Eta zoritxarrean, giza-arrantzalearen sarea bota barik gelditu jatan... Hori, hori...! Ondo dinozu, Josefa, gero amua bota eutsonak ez ebalá izan holako erreparorik, Beiti baserriaz zer izango-edo. Jakina ba, Josefa! Kristo berak esana dozu-ta: "Ilun-semeak argi-semeak baino ausartagoak dozuez euren zereginetan", izan be, eta hori jaso jaku guri zoritxarrez...

Batek badakiz gure bideak eta gure Jaungoikoak zirkun-zarkun dalarik be, helburura garoaz, baina zenbat neke jasan eta jasanazo halatan ibili behar dauenak! Hara, Josefa, Eleizamak be negar egiten dautsu Apokalipsian haurdun agertzen dan emakumeak lez, ume barri bat Kristoganatzen dauenean. Eta badakizu zergaitik hatan be? Ez erdiminakaitik, aurrean dakusan irensuge gorriagaitik baino, inpernuko deabru horrek bere jaio-barria irunsteko daukan asmoa dala-ta. Eta karraxi egiten dautsu, laguntza eska bailegon.

Azken baten Jauna da gure laguntza, zeru-lurra egin dituená, eta guk ez dautsogu gure ahalegin eta otoitzean atzerantz egingo. Goiak beti erantzungo dasku zelan edo halan.

Ardura barik, Josefa; honeek eta bi esango dautsodaz kartan neure eskuz Fideli, ea danon artean bide onera erakarten dogun. Ez negarrik... Hobeto esan, Josefa, negarrok, Santa Monikarenak lez, semearen bigarren ertaldirako izan daitezela. Aragiz ama danak, gogoz eta sinistez izaten be, beste inork ez lez, lagundu daiketá...

"PAZKO BIGARREN ASTEA IZANGO ZAN, ELAIAK gure parajeán agertu barri eta paseko txoriak, txirriskilak, txotak eta txorruak, bata bestearen ondotik aldraka etozan gure baratzeán potindu hazien susmotara.

"—Txorimaloa ipinteko ordua da"— esan eban gure aitak.

"—Zer da txorimaloa, aita?"— nik.

Sei urteko mutila izango nintzan ni orduan.

"—Hator neugaz eta erakutsiko dauat..."

Zer? Ez ete dozue entzun gura gehiago txorimaloarena? Orduan gure amomaren gona ñabarrak galdu ziranekoa kontatuko dautsuet.

Ba goaz aita eta biok ganbarara eta mantarren kaixa arakatzen hasten da bera. Praka zahar batzuk jaso eta ba dino: "Galtzuz beteko joaguz eta ikusiko dok".

Joan lastatira eta prakak galtzuz potolotu genduzan. Gerritik beherakoa prest egotzuen, baina handik gorakoa... Ganbarako kaixara osterá be ornigarrien bila.

"—Ez ete dago hemen alkandorarik?"— Alperrik arakatzen eban aitak.

Nik, kaixa barrura sarturik, mantarrei tiraka hasi nintzan.

"—Zer darabilk, Andres? —Barre egistan aitak.— Horrek amuma zanaren gona pintxameak dozak-eta!..."

Argitara atera eta eurái begira gelditu gintzazan aita eta biok. Amumaren gona pintxameak, ilunak izanik be, kolore biziko txatal laukituz eukan barreneko hegal zabala: gorriak, urdinak, oriak eta ez dakit zenbat gehiago. Amuma ezkondu zanekoa edo Sanjuanetakoa erromerira eroaten ebazanekoa izango ziran. Orduan usadioko gonak, antza.

"—Bueno, besterik ezean —esan eban aitak.— Sorbaldara jaso eta brusarena egingo joek."

"—Bai, bai; oso politak dira-eta"— nik.

Praka potolotuei taket eperdi eginik, sorbaldaz besoen pareko zehar makileari amumaren gona pintxameak jantzi geuntsozan. Erdiko taketaren puntan barriz ziezko kapela zahar bat. Kapelea bera be amuma berarena izando zenduen, solora eroaten ebana ziur.

Gure aitak, giza piurea gora jasorik, begiratu egin eustan.

"—Ikusten gok txorimaloa?"

“—Txorimaloa?” —goitik errepikatu neban behin eta barriro: “txorimaloa! Txorimaloa”— kalte guztien kontra-seinua-edo bailitzan.

Zer ete eukan ez gizon eta ez andre, baina bien arteko nortasun edo naste harek “txorimaloa” deitzeko?

Ganbaratik atarterainoko nire “txorimaloa” ohiura etxeakoak modigu ziran. Aitak txorimaloa astinduala, amumana zanaren gona pintxameak ikurrina haizetara lez mogitzen ziran. Gure ama agertu zan orduan eskarazetik eta bekain izugarritz ba dinotso aitari: “Oso polito! Ez hala? Eta nora daroazuez mantarrok, jakin ahal balei, auzoko irri eta esamesen arduragixkook?”

Erantzunari begira egon barik, amak txorimaloari prakabarre-netik oratu eta amumaren gonak erantzi eutsozan tirakada baten, txorimaloa bilusik ezeze, soin erdiko izten eutsuela.

Zurtz gelditu gintzazan aita eta biok halako amaren erasoaz, beso eta bular bako txorimaloari begira... Eskerrak amak handik gitxira alkandora zahartxo bat ekarri euskuna. Txorimaloari alkandora jantzi eta beragaz batera bizkortu zan ostera be gure umorea... Harrezkero nik ez dodaz gehiago ikusi amumaren gona pintxameak. Gure amak berak erreko ebazan seguru auzoko esamesen ardura-gitxikook txorimaloen irrigarrira-edo behartu ez gengizan halakoren baten. Une haretan pena hartu neban ikurrin antzeko brusa ñabar ha alkandora maiz eta kolorgeagaz trukatu beharragaitik, baina orain ondo dakust gure amaren korajea. Aitak ez bada, amak edo norbaitek erantzun behar dau beti be etxeako ohoreaz. Edo ez ete dozue uste noizbaiten harako gonetan egon eitekela Beitiko ohorea? Ez egin barrerik! Gure amak ez eutsuen egin behintzat harakoan.

Txorimaloak gizonkil urten euskun ba hori dala-ta, nik lehengoz gure baratzean ezagutu nebanean. Geurean lez, auzoko beste baratzetan txorimalo bereziak agertzen zirela konturatu nintzan, danak nabazien zaindari, batzuk besteak baino txairoago edo baldarragoak: harakoa burubako edo kapelabako, bestea besa-motx edo beso gabe, txori harraparien kontrako burruka izugarrie-

tan mankatu-edo izan bailitzan. Koloreak be asko begiratzen ziran. Zenbat eta ñabarrago txorientzat bildurgarriago ei ziran... Harekek gure amumaren gona pintxameak... etxeako arerioak baratzetik uxatzeko ez zenduezan txarrenak izango...

Arbi aukeratuen lorea jausi eta lekea berde baina potintzen zaneko, txori lapurrak beti prest... Bueno, ez ete daustazue entzun gura? Argi dago hemen, Telebista hori erosi danetik, gitxi ardura dautsuela zuei baserriko kontuak. Ba... ez uste, horreek, hor pantailan agertzen diren mamuak, hareek auzoko baratzeako txorimaloak baino gitxiago diren. Zer-zaindua amaitzen jakenean txorimaloei jaso jakena jaso leikiela...”

“ARMINA GURE UGAZABA BAITU EBENEKO gauean, gogoan jonat gure Fidelek hartu eban ikarea, Burgostiko ehizean zala uste ebaneko Koldo neuk Diskotekan sartzen ikusi nebala esan neuntsonean. Ez dozu gogoratzen, aita? “Hiru egun eta gizonaren arrastorik be ez” —esan zendun—. Zer eginten dautsue guardiazibilok, kaka praketan ezpabe?”

“—Ederto gengokez, aita —erantzun neunsun nik—, etxez- etxe eta harakoan lez, metraileteaz apuntatzen eta bazterrak arakatzten baletorz. Itxura galanta eta bestalde lan makala izango leukeen Autzikako baserri guztiak aztertzen. Eta baserri ustuak zer? Arrien, Uxarte, Mendikok ez te daukee beteek besteko kaminoa bertaraino eta beraz ez ete daitekez eskutu-toki eder bihurtu goizetik gauera?

Nik esaterako esan nebazan orduan baserri batzuren izenak, baina zuk, aita, hitzetik ortzera, Uxarte emon zendun harakoan susmogarrieneko odolean daukazun Kolonbo agentearen senaz. Zeu be ez zinan, ama, urrunago ibili, hain zuzen be, gau haretan, Armina jauna baitu ebenekoan, Mendikoko txakur hausiak entzun zenduzala esatean. Bai, eta halan izango zan, baina nik orduan ninoana: auzoan bertan hainbeste gordeleku baegozan, gordetzai-leak be urrungoak ez ebela zertan izan... Nik susmoa edo danadalakoa jaurti eta behingoan urten eustan gure Fidelek:

“— Bai eta Koldo Beitibiskoko sekuestratzaile, ez al dok?”

"—Heuk dinok hori, nik ez joat esan holakorik!" —jarkitu nintxakon.

Min egin eutson, antza nire ateraldiak, Koldorik aitatzen ez nebala be. Ea zelan izan eiteken Koldo, oraindino berak, Armina sekuestratu eben gauean beste bere lagunekin ehizean Burgostik zala-eta.


"—Jai, jai! Zera kazan Burgostik —nik ordu—, Katu Baltza Diskotekatik urteten eta ez gero ehize jantzian ehize lagunekin, neska ule erre bategaz baino... Etortea baino ez hendun ikusteko. Jarraitu eizak ezpabe hobeto hurrengoan lagunen edo lagunustekoen pausoak edo kazatxakurra erosi eikek eskopetea baino lehenago..."

Badakizue eskopeta barria erostekotan ebilala harrezkero, halako susmoa izan neban behintzat, zeuek esanda-edo.

Berak atzerantz egin ebanez orduan, ez neuntsan neuk be hortik astindu gehiegorik emon eta mihinaren puntan neunkan Asunegazkoa: ea etxean gorderik, edo badaezpadako lagunekin batuz, benetako arazoari kuku egitea ete eban bide egokiena.

Ondo zapuztuta gelditu zan harakoan, agirian ez sinistu gurarik, baina barrutik, behar bada, lehenengo arrak oska egitsola... Izan be, hau harrigarria dozue gero! Berak, Fedelek, Koldoren laguna izanik, Koldoren errugabetasunaz ziur egotzula, gu ostera, sarritxo haren epailari izan garenok, geure susmoak geunkazala. Susmoak bakarrik, bada egia ez da gaurdaino garbitu, eta ausaz garbitu be ez da egingo. Ez da probatu Armina jauna Uxarten-edo baituta egon zanik, ez guk salatu be, ez eta neure partetik aztarren bat idoro izan baneu be...

Ez deusuet esan behin, eztalakoan Uxartera joan eta zehatz etxea eta etxe-ingurua begiratu nebazana. Ez neban ezer idoro ez barrutik eta ez kanpotik... Urube zergaitik ez neban arakatu? Zeuon susmoen ostetik ibili nintzalako. Uxarte barik, Urube aitatu izan bazendun harakoan, ziur Urubetik ibiliko nintzala garazetan, baina edozelan be, zelan heldu neinteken ni guardizibilak eurrak heltzen ez diran tokitara?



Zure detektibe ganorak beste bide batetik joan ziran orduan, aita. “Ze jantzitan joan da Koldo?” —itandu zeunstanean.— Ez hoan ba egongo harako marro jantzian”. Sekuestratzaileak marrotuta joan jakozala esan eban Armina jaunaren andreak harako Telediaroan, entzun zenduenez... Bai, bai, zu zeurean, aita.

“—Eta zergaitik marrotu?” —erantzun neuntsun.

“—Ez ete zoazen ugazabaren ezagunak hareek hirurak be? Eta zergaitik erderaginen, hatan be? Ez ziur Arminaren euskerarik ez ekitsuelako, erdal hotsera susmoak urrunagotzearren baino eta “kanpotarrak izango zoazen” esan egien.”

“—Horixe: euren euskaltasuna hobeto gardetzearren”—Zeure harira nentortzun, aita, detektibe olgeteari jarraitzearren, ez gauzea egitan artzen gendulako. Eta gogoratuko dozue orduan be gure Fidelen seriotasuna.

“—Eta horregaz zer probatu gura dok?”

“—Nik ezerbez, guk pelikula librea diaroaguk. Norbaitek egin behar jok Kolonborena”—erantzun neuntsan.

“—Probatu ez diakiat, txotxo —ederra sartu zeuntson zuk, aita—, baina ez marrorik be neuri mozorrook... Eta dinozuezan kazariak izatekotan be, Burgosera joan, Burgosetik etorri, edo Burgosera doazelakoa egin, (izan be nork zaintzen dauz kotxeetan ibiltzen direnen pausoak?), jantziak aldatu, arpegia eta berbakerea marrotu eta Armina jaunari afaltzen egoala oratzeko astia euki ebela. Oratu, kotxean, sartu... Nora jo eben? Zein bidetik? Baserri husturen baten sartu. Ez euken urrunegi joan beharrik. Baserriok baino toki sekretoagorik... Urube? Han ez dozue txakur bat be egoten zaintzaile. Hiru zoazen lapurrak, ez dok? Ba euretarioko bat guardian itzi eta besteak, ezer eztalakoan, betiko kalera. Ondo noa...?”

Ondo zinoazen, aita, ondotxo. Guk, orduaren larrian be, gustora jarraitzen geuntson alkar arteko autuari, gure Fidelek izan ezik. Kukuriotu eta bekaitzez hik dinon lez, Jone? Baina ezkerreko atzazkolei oska bera. Zer eukatsuen ume harek orduan? Ezaguna

zan harek ez eukala parterik sekuestroan, baina ez eta be gure eritsi eta susmoetan. Koldori eutson zintzotasunagaitik, behar bada. Eta guri ez eskun ala? Gu nor ginduzan ba? Guri zer euskun edo guk zer geunkan bere aurka?

Funtzean heuk esan donana nik uste, Jone. Harek neure eritsien eta eskuartzeen kontra urteten eutzuen, gauzea bera eta neure artean balitz lez... Uste dot behin be ez eustala parkatu ni etxeko seme zaharrena izatea. Ez zenduen halako nasaitasunik ohartu beragan ni olara lanean hasi nintzanean? Nik bai. Harrezkero harraiago ikusten neutsuen... Asunegazkoaz muxindu zan arte...

Guk zer egin geuntson edo ez geuntson? Eta Koldo Beitibisko-koak zer egin eutson, orain berak engañata joan zala aitortzeko? Gu etxeko susmokariak izango gintzazan beti be, baina bera xaloa eta itxua be esango neunke, Koldorekikoez behintzat... Lekutatik emoten dausku orain arrazoia!”

— “USTEA ABOGADUAGAN IPINI BEHAR GENDULA-ETA
— hara hor ba orain berak ezinekotzat emon dauela eta, alperrikotzat emoten don abogadutan diru gehiago galtzea. Horixe, alabatxo. Orain artekoak be alperrikoak izango zonazen eta ez ziur gero-koak... Zer dinostan orain Don Felipen aholkuez?... Ez diakinat haregazkoak huts egin daustenik, baina ez jatan behintzat hoger-lekorik kostau...

Ausaz merkeegiak emoten henduzan bere kontsejuak gauza onerako. Baina jakin egin, erremedio karuak ez dozan hobeak izaten karu direlakoagaitik, alabatxo... Orain bada, abadeak Jaungoikoagan ustea ipinteko eta abogaduak Amnistia Erakundean. Zer egin behar jonatu? Ez dinonat diruakaitik, dohan hartuneko mesedea diruz erosinekoa baino hobea don-eta. Gauzea lortzea don eta dana beharreko une honetan, itxi nagin Jainkoagaz, hi Amnistiako ordezkariagana hoan artean. Neuk be neure aldetik ahalegintxoia egin behar jonat Don Feliperen laguntzaz bada be.

Hauze be ba don, alaba, seme galduraren parabolea errepara-tzen jonadan bakoitzean, gurea errugabeagoa izanik, Ebangelio-

koa baino urrunago ikusten jonadala... eta ez jonat ulertzen. Harakoak etxeko ondasunen parte hartun eta alde egin jonan etxetik, gureak ostera, aldagarririk be ez jonan eroan, geroago geuk bialdu dautso guzan diru-laguntzak izan ezik... Harako seme galduak eukiak mozkor eta bizitza zantarrean eraldi eta urribizian burua ikusi jonan eta gureak dirurik ez bialtzeko, berera moldatuko dala-ta... Antza ez diagon goserik nahiko lurralde horretan, ez jon antza sentidu bakartade nahikorik edo bere bizibidea ez don orduko txarrazairenalakoa oraindino..., bestela jakingo jonan hemen ez gagozala inori, eta gitxiago berari, kontu zorrotzik hartzeko... Dagoneko zorrotzegi hartu ez badionagu gero? Asarre eginda be baniagon hori dala-ta gure Mikeli: "Ez daukak heure anaia horren gogor ahotan hartzeko eskubiderik, bera aurrean ez dagola"... Bai, bai, arazoia daukan parabolako beste semea be, seme ona, ez zala santu-santua izan. Alkarren arteko bekaitza eukenan harexek be. Ez egozanan behingoan alkarri parkatzeko, ez mahai batetik jateko. Aitak bere bihotz zabaltasunaz alkarganatu behar izan jonazen... Bueno eta aita-semeaz esana, ama-alabaz, alabatxo.

Hagaitik, seme galduen parabolak ez bardinak direla-ta, ez jonat ondo ulertzen, harakoa bere oinez eta inork ezer esan barik, goscarren bakarrik etxeratu zonala eta gurea ostera, errekaduak, abadearen kartak, abogaduaren bisitak eta dana alperrikoak bialtaz lez. Edo gure umeak ez ete jon gurasorik edo nebarrebarik etxean? Edo bihotz bakoak ete gozan etxean?... Ez dala hori arazoa, alabatxo? Zein don ba arazo arazoa?... Esango daustan arazoa zein dan edo zer jasoten jakon gure semeari, eure ustez, seme galdua ez izanik, ez talakoan seme galdua bera baino etxetik urruduago ikusteko?..."

3

"Izanaren itzala hitza da" (esakuna)

"—ZE IZEN IPINIKO DINAGU?" —ESAN EUSTAN ANDERENOAK edo heuretariako profesorak.

"—Beatriz"—nik.

Ez nenkitsun ze asmo erabilen ere, ez zetariakoak ziran. Nik, ezer aldatzekotan, gurago nebala abizen biak aldatzea, ez erdaldu-na bakarrik.

"—Ba dakin, hemen errefuxiatu izan edo ez izan, ekintza berezirako izenak marrotu egiten dizkinagu gure harremanetan askatasun gehiago eduki eta poliziek, frantxesak edo espainolek direla, hain erraz identifika ez gaitzaten."

Horrelako ezizenaz nekezagoa zela behenipehin, esan gura eustan. Baina kartarako "Beatriz" garbi gelditzen zela, gainerako ezizena zela egokiena. "Lore", "Maider" eta ez dakit zenbat izen poetiko idaroki eusteezan. Nik muxin. Harek orduan epikoagoak: "Amagoia", "Amaia", "Malintxe"... "Bai, toki onetik" nik neure artean.

"—Horrela "Amagoia" salatuko diton, baina hire benetako izena garbi geldituko dun."

"—Bai, eta Amagoia izenagaž matrikulatuko non Kazetaritzako Fakulteteetan, neure izenean lehendik aprobauta daukadazan kursoak pikutara bialduz!" —nik aurka egitearren.

"—Ezetz ba!" —harek.

Gauzea ez zela Errefuxiatu Kartarako edo karnetekoa. Ez nebala ulertzen, paperetan benetako izena geldituko zela. Izena marrotzea, edo ezizen hori, lagunarteko harremonetarako zera, amarrua zendula, azaletik bai, baina barrutik benetan ezagutu ez zindeizan edo azaleko errefentziaz bakarrik igarri ahal gengan bakoitzaren nortasuna.

Hala ere ni ezezkoan, begi aurrean nenkusan arratoi tranpala-koa zapaldu gura ezik. Neure izena eta eginkizuna karnet edo karta berean nenkusanez, ez neunkala inori ez arpegirik eskutau edo jatorrizko izenik aldatu beharrik. Abizenak lehenago! Nire izenak "Beatriz" jarraiko ebala mugazandik eta hemendik eta Beatrizena nire eginkizuna Udako Euskal Unibertsitatean harako estudianteak goraintsi eustanez "ta ze komediatan ari zara zu, Beatriz?". Ez neunkan neure komediarenik inori eskutau beharrik. Nere paperak edo eginkizunak eta kontzientzia garbi egozan. Ez nengola marro beharrean...

Udako Euskal Unibertsitateko mutil haren lausengak bultzatzen nindun, behar bada, neure izena gordetzera, edo angeru zaindariak eztalakoan. Ezin neinteken izenaz hain erraz bilustu, nere eginkizunak ezeze nere izankizunaz ere bilustea gura ez banaban. Gainera ezin eitela ni nintzana espresatzeko beste izenik asmatu.

Eurek "izena marrotu" inotsuen, baina niretzat inoren soinekoz janitzea baino nereez erantztea zendun hareago. Komeria egin behar banaban, gainera, zein "Beatriz" izena baino izen egokiagorik kamediarako?

Ha zelako komendianta neu Amagoia edo Malintxe izenagaz! Hatarako arpegia ete daukat, Fidel? Ene Jainkoa! Zelan ikusten ete ninduen edo ze aldatu nengon haren epe laburrerako!

Komedia bera zan aldadu gura eustena, "Jainko-Komedia" zenduna "Giza-Komediagaz". Hagaitik izena aldatu gurea ere. Ezizen bakoitzari berea dagokio-eta.

Nire Kartan eta Estudiante Karnetea "Beatriz Fernández Munitxa" gelditzen zan, baina ez neban lortu ezelan Opuseko nire

bi urteak Frantzian konbalidatzerik, ez Paben, ez Toulousen. Oi! Frantzia Handiko Historia jakitea falta jatzun eta Espainia Handiko Historia barriz sobra. Hara ba ni ordutik hona Euskadi Txikiko Historiagaz lehen baino lotuago, baina izorratuago.

Nire gurasoek neuk merezi ez bestean portatu jatazan. Hori aitagazkoak ia apurtuta neunkazala, abogaduekin-eta sartu ninduen korapiloan. Hareek nire matrikulea eta ikasketak ordaintzeko prest, Parisen izatekotan ere. Ezina gertatu jatala? Baina ez neure erruz.


Tratua ere proposatu neuntsen ezizenez ezagutzen dozuzan mutiloi: mugaz bestaldera eskuz-esku eroan beharreko errekadua hutsean gelditu zenez gero, itzi nindeuela karrera Iruinan amaitzen eta gero mugaz hemendira etor neintekela egoki zen lanen bat egitera. Baina, ja-jai!... Euren abogaduak (bada jakingo dozu, deabruak ere abogaduak daukazana) ezetz. Fitxatu aurretik izan balitz, baietz, baina fitxatu egin ninduenez, nire Pasaporteak ez ebala harrezkero piperrik balio. Eurentzak, jakina. Hutsak beraz, nire paperak eta hutsak nire hitzak.

"—Zertan gainera Espainiako titulorik, Frantzian onartzen ez baldin badizuete?" —gaineratu eusteen gainera.

Halan eta ere, kazetaritza hutsean gelditzeagatik ez larritzeko. Eurak idoroko eusteela bizibide egokirik Donibanen bertan. Titulo bako erakustetan zan, haurtzain. Horixe: haurtzaintzan gelditu bai-zan eurak opa eusteen andereño lana. Haurrak hazi egin zenduzan, baina nire asmoak lehen baino ere umeago...

Gero, dakizunez "Amalur" Kafetegira arte joan dira hiru urteak. Hor daukatsut oraindino erreportaritzarako Canona, neure estudioko frakasoen lekuko, eta galdeketa barik, horko mostro-dorean zentzun bako galderei erantzuketan hasi nintxatzun. Han agertu zintzazan zeu ere halakoren baten eta zerbeza bat eskatu orduko, "ola Koldo" agur egin zeuntson nigaz berbetan egoen mutilari.

"—Ez nok Koldo" —harek serio.



Aserretu ere egin zendun eta ez dinot munduaren aurrean, nilako neska baten aurrean, horren bilustu zendulako-edo...

Nik artean ezelan ere ez neutsan deitzen Koldori. Gerotxoago hasi zan gurea. Uste dot nire berbakera bizkaiera zelako-edo inguratu jatala lehenengotan eta neuk ere beste hainbestegaitik entzuten eta erantzuten hasi nintxakola. Hau da, harrezkero Koldo deitzen hasi nintxakola. "Ola Koldo". Uste dozu zeuri ipini eutsunalako bekaina ipinten eustala? Bai zera! Amaren abotsa-edo entzungo baileuan. Lehendik berea eta harrezkero larregitxo zale-tu jatan, haren beste lagunek ere Koldoren andregaitzat emoten ninduela neure zorion edo zoritxarrerako...

Beraz, parkatu esatea, baina zeuri zor dautsut, Fidel, neure inpernuaren zati bat. Koldogaz izan dogun zeragaitik dinotsut...

Nik ez neuntson Koldori behin ere bere burruka izenaz deitu. Zeri egiten dautsozu barre? "Txordo" bere ezizenari? Zurea behe-niphein eroangarria dozu, ezizen eroangarririk egotekotan. Ez dela horren nabarmena esan gura dautsut. Koldorenak barriz, itxusia ere emoten eutsun. Hiztegian ere ez hain zarpilagorik... "Garri" izan balitz, ausaz deitu neinkion, baina "Txordo"..., zelan deitu neinkion "Txordo" neure mutil lagunari?

Gainera Koldo ez zendun txordoa. Betagain arruntak eukatsuzan eta ez adar biorkaturik eta gitxiago nik ipinikorik. Abereentzako deikera horrez pertsoneri deitzea irain zantarra dozu. Berak aukeratu ba eban, edo ezjakina edo gusto txarra berea, eta inork behartu baeban, inor horren aberekoikeriaren seinale.

Ba dinotsut hurreratu ere ez nintxakola egingo Koldori, bere izen jatorra jakin izan ez banendu eta halantxe korrontearen kontra joateko sartu jatan amorruarren izan ez balitz.

Ezizeneko beste arronkideentzat, behar bada, bikote hobe egingo geuntsun, geure benetako nortasunaren ezjakitun, Koldo eta Beatriz barik, Txordo eta Amagoia-edo izan bagintzazan. Ez da barre egiteko ala? Orduan bai marro egin leikiola ez bakarrik Amagoiak Txordori, bai eta Beatrizek berak ere Amagoiari!... Eta nilako buru simple batentzat komeria larregia zendun hori.

Koldo eta biona izenen kontrako burrukea izan zendun maitasuna baino gehiago edo izenen burrukan orekatzen den maitasunalakoa. Ezin neinken jasan gu bion artean "Txordo" tartekatzerik. Behin baino gehiagotan, Txordori ateak izten neutsozalakoa begitantzen jatan amesetan ere, baina begitantzinoa zendun, edo hori ere ez, amesa. Marro? Neure buruari egiten neuntson. Eztalakoan ere Txordoren adar biorkatuak neuri eta berari min egitera etorkuzan...

Beatrizek gizarteko inpernua kronikatu behar eutsun, baina bera egotzun, Beatriz, inpernu berean sartuta eta inpernua beragan. Gero... halako inpernua, halako heriotzea, Koldori dagokionez, niri barriz, halako bizibeharra. Ausaz Koldogaz batera hil banintzan, batera amatau eiteken bion inpernua. Hala uste neuntsun une baten, Koldoren gorpuari jarraiki, mugaraino joan nintzan harakoan, baina Koldo hil eta ehortzi eta gero, hara non Txordoren adar biorkatuak oratzen ninduen ostera ere.

Eta guzti honek komeriatik pasa egiten dautsu. Ez leuskik barriro itaunduko estudiante txuliatzaile harek "eta ze komedaitan ari zara zeu, Beatriz" nik erantzun barik: "hago isilik, txotxo, nirea komedia barik drama, drama dok-eta".

"NI ZURE INPERNU ZATI BATEN ERRUNDUN NAZENEZ... Bai, ba dakit nire errua, behar bada, azaletikoa dana eta nahi badozu gurazetik probokatua, baina, zera esan gura neuntsun... Ez dozu, ba, Beatriz zarela-ta, inguruko gizakion inpernuaren jakitun egon behar? Ba, horixe: Koldo izan zendula neure inpernu zati baten errudun, neu berarenaren eta gero zeurearen zati izan nazen einan behenipehin. Bera neu baino errudunago izan zala esango baneutsu, ez nintzake ausaz zuzena izango. Neure burua neurtzen dodan neurriaz neurtu gura neunke neuk be bera. Bestalde alperrik da, honez gero epaile hoberik izan dau-ta...

Arratsalde haretan zaldikada bedarrez solotik etxera nentorrela aurrez-aur Herrimenditik behera goardazibil pareta etorten ikusi neban. Eguzkia pare-parean eta aurka neunkanez txorimaloen haizetako dantza begitandu jatan une baten. "Horra Burgosko ezpatadantzariak" esan neban neure artean. Nondik etozen? Ze

bide edo asmo eroen? Armina jaun sekuestratuaren gordelekuaren garatzetan ausaz? Armina jaunarena bigarren asterantz joian eta ezer argitu barik. "Harrobi Zaharra arakatuko eben —pentsau neban— baina berandutxo. "Aste bi aurretik izan balitz, kartutxoen aztarrenik nahiko idoro ahal izango eutsuen, baina Bizarrek-eta ez eutsuen han samarrik be itzi Burgosera-edo joan ziran asteburua. Ez, neu ez. Ez nintzan eurekin ibilteko nahiko ehiztari, armarik be ez neuntsun hatarako. Ni etxean itzi ninduen. Halan eta guzti, neure eskopeta zaharra hartuta pruebak egitera Harrobi Zaharrera joan nintzan. Orduantxe konturatu nintzan tiro unearen aldaketeaz. Han ez egotzun ez potefik, ez tentepotefik harrezkero, ez txorimaloen trapuzki edo kartutxo alerik mustrarako. Zergaitik itzi gura izan ete daue horren garbi? Jai bezperako gure amaren-eta garbi zaletasuna gogoratzen neban irrigarriz. Otu be ez jatan egin Armina jaunaren sekuestroa zala-ta, polizien halako mogimenturik. Tiro bat botaten be ez nintzan ausartuko debekua jaso eta txorimaloa eskegi ez egien arte. Ez, ez, burutaratu be ez sekuestratzaileak eurak izan eitekezenik, gurean arinkeriak eta batez be anai Mikelen etsaigoarren, Koldoz maizetzen zanarren. Bera zenbat eta susmakariago, ni kontraago... Ni bera izan ez zalakoan nengotsun eta oraintxe be halatan nago, nahiz eta gitxi ardua orain hemendik begiratuta... Beste biez... ez neuskizu beste hainbeste esango.

Harako goardiazibil pareta, bere kapa eta guzti, mendi osteratik kaminorantz etozan. Nora ete joazen? Aita eta ama soloan begira neunkazala ia ahaztu eta goardiazibilen zelatan gelditu nintzan etxean. Herriko tabernara jo eutzuen ohi legez, ardaoren bat hartu, telefonoz deitzera edo Felipatxuren auzoko azken barrien jakitera. Begiradarik be ez beste baserriei, ez hustu ez bizilagundunei. Gero polizien jipa bat etorten ikusi neban. Guardiazibilak eroatera etortzun. Alkar hartuta egozan. Joaten ikusi nebazan.

Nik zelatan uste izan baino denpora gehiago emon nebanez, solora orduko gurasoak bidean etorten aurkitu nebazan.

"— Bai, ordu onean!" —esan eustan aitak.

"— Okerren bat jaso jak ala, seme?" —amak.

“—Ez ba, goardiazibilak ikusi dodaz Felipaxunean eta auzoan ezer besterik egiteko etozen begira egon nozue” —nik.

“—Armina jaunaren barririk?” —aitak.

“—Ez, etxea hutsik aurkitu ez egien” —nik.

Iluntzean Mikel eta Jone kaletik itzuli zireneko, gu afaltzen gengoan. Koldo ez zan agertzen eta ni larri. Afari erdian Koldoren kotxea barruntau neban. “Hauxe eta hauxe jasoten dok” —esan neutsan. Urduri susmatu neban Koldo. Itxaroteko esan eustan kalera buelta bat egin behar ebala-ta.

“—Etorri-barri eta kalera?” —nik.

“—Txiskigaz egon behar joak —erantzun eustan—, eta heu be prest egon hadi.”

“—Prest? Zetarako?” —nik.

Ezer erantzun barik, kotxea hartu eta atzera bultatu zan Koldo kalera. Eta zertan kalera Tabernako telefonoaz behingo baten egin leiken erreka? Ala telefonoz ezin emonetariko eta eban? Felipaxuren berbaroaren bildur ausaz? Iluntze haretan argirik ez zan ikusten Tabernan. Oraintxe be ez dakitsut Armina jaunarena zelan izan zan. Koldok ez eustan haren barririk eguno aitatu, ez eta nik itaundu be. Bakoitza libre da, bai eta inpernu zati bat barruan gordeteko be, nahiz eta burrukan jausi, norbere mamuak besteen mamuen kontra.

Afaldu eta laster gurasoak erretiratu egin ziran, Mikel eta Jone, ohi lez, Telebista ikusten. Neu be pantaila aurrean nengotzun, egotez, baina zutunik, pantaila barrutik zan Oesteko zarraparra haretan zerikusia baneunkan lez. Tiroteorearen erdian Koldoren kotxe zaratea ostera be. Erretiro aitzakian, Koldogana barriro ni. Koldo lehen baino be urduriago.

“—Egun bi dozak ia Txiski etxetik falta dala —esan eustan Koldok.— Txakurrek bere bila etorri zoazen egun berean alde egin ei joan.”

“—Zergaitik baina alde” —nik harrituta.

“—Ez ete dakik Txisti eta Bizar orain hiru urte amnistiatu mutilerikoak dozakena?”

Ni izarrak ikusten halako gauaren ilunean, eta Koldo neu besotik astinka, “joan egin behar joagu”, eta “joan egin behar joagu” esaten.

Amnistiatu eta ihes? Ez neban ulertzen. Koldo ziur.

“—Txakurrok parajea ezagutzen etorri dozak... Batek ba dia-kik Bizarri zer jazo jakon... Badakik zelako astinaldi eta somantak emoten jozaken txakurrok? Edo heuk potroak hausita urten gura dok? Ihes egin behar joagu.

“—Ihes? Baina zergaitik eta nora?”

“—Ordubitertiak edo hirurak izaten dozak parte txarreko gaut-xoriok harrapakinen bila etortzen dozakenekoa. —Koldok besotik oratzen nindun.— Kuku egin behar jautseguk. Ez gagizela habian harrapau. Hobe kanpoan lo egin, edo neure kotxean badaezpadan, eta bihar goizean jakingo joagu.”

“GIXAJOA!... KOLDOGAIK DINOTSUT. JAUSI ZENE-ko egunetan seguruegi ikusten eutsun bere burua. Nik kontuz ibil-teko ninotsanarren, bera itxu egunetik egunera ipiten euskuen lazoaren aurrean. Zeuri ere bardin dinotsut, Fidel, eta Jainkoarren, hurrengoan zatozenez, aurreko atetik barik, sartu zaitez kalean bestaldeko ate txikitik. Esanda daukatsat etzekoneko andreari, atea jo eta zeure partez, Fidelen partez, ez Garrirenez. Neutaz galdetzea baino ez dozu. Aintxinako etxeok eukin pasiloa dozu eta galgoak despistatzeko barriz egoki baino egokiagoa. Batetik sar-tun eta besterik urten. Horrela ezingo dautsuez jakin noiz-nora-koak, han zagozalakoan hemen zagoz edo barruan zagozalakotan, alde egina. Koldori ere gauza bera esanda neunkatsan azken aldian norbaiten edo norbaitzuren jasarpina hurretik susmatzen nebala. “Galgoak, galgoak diabilzak” esaten eutsuen Kafetegian eta edozein sartzen zeneko, atera begiratzen... Ni oraindino “galgo” horrek zer ziren ez nenkitzula. “Zer edo nortzu dozuez galgoak?”

nik halakoren baten Koldori, eta berak gauzeari gararik emon gabe:

“—Galgoak? Txakurretariakoak dozan.”

Ni isilekoren bat-edo gordeten eustalakoan. Edo beste mutiloi “txakur” ez deitzearren edo batzuren trebetasuna goraiptzearren-edo erabilena... “Galekoak” entzun nebanean, hobeto ulertu ahal izan neuntsun galgoena.

“—Ikusten dok hor doan hazur baltza?”—esan neuntsan behin etxetik kalera motodun baltzeran bat ohartzean.

Moto handietan ibilten ei dozuz, ez da horrela? Betaurreko baltz eta guzti joan harakoa, asmoak hobeto estaltzekotan-edo.


“—Bai zera! —orduan ere berak—. Horrek binaka ibilten dozan, batak motoa jagon eta besteak, atzekoak, armak erabilteko eskuak libre.”

Arrazoa eukatsun. Halakoxe bikotea izan ei zan handik aste pare batera jota eratsi ebenak... Jesus, pentzatea ere!

Ez, ez dabiltsuz nagikerian beste mutilok, galgook edo dena-delakook. Bienke galgoak, handik direlakoan hemen dozuz eta hemen barrabaskeria egin daueneko gure gendarme galantak lauorritu. Laster biurtu dauskue inpernu askoren usteko urrezko desterru hau. Batek golpeak inorentzat direla uste izaten dautsu, harik eta norbere haragian zauria hartu arte. Koldok ere barre egiten eutson halako posibilidadeari. Ez eukatsun, behar bada, inortzat bere burua. Harek ere horixe uste izango eutsun: Jaustekotan horreek, nire aurreko gizenak... Baina sarritan gizenak barik, errezenak jausten jatzuz eta errurik gitxien daukeenak...

Uste dozu horren inportantea izan zela Koldo? Mutilon artean esan gura dautsut... Ez ba. Gauzea numeroa egitea dela eta hiltzeko norbere alderdirako tantua egin. Ez daustazu esango horixe ere inpernuan asmatuiko jokua ez denik.

Ahalegin bat baino gehiago egin neuntsun nik Koldo eskuratzan. “Amalurrera” deitu eta norbaitek telefonoz edo Txordoz



itauntzen eustanean, nik “ze Txordo eta ze mordo” erantzun eta linea garbitzen neuntsun. Zeri egiten dautsazu barre? Zeutaz horrelatan baletorz ere bardin, “ze Garri eta ze barri” esanda, eskegi. Pistarik ez emon despistatu nahi nauenari. Ez ba, ba diatortsu norbait Motxoren partetik “esaion Motxoren partetik jarteko”. Ze Motxoren partetik? Zuk ba ete dakizu Motxo nor den?... Ba neuk ere ez. Edozein beste txoriren bat izan daitekizu soinua imitatzen. Ez ete dozu inoiz entzun txori harrapari batzuk euren bitimen kantua bardintzen deusuela harrapakina erakartearren? Niri halako txoriak axatzea dagokit. Horixe erantzun neuntson behin telefonista kontuak eskatzen etorri jatan mutil bateri. Galgoen izu horregaz, zer erantzun ezean gelditu jatan.

Marrotu dabilenari ere huts egiten dautso azkenik narroak: kartoia, ulea edo kolorea busti, horixe. Bestalde ez daukat neugaz dagonaren intimidadea salatzerik “zu hemen eskatzen zaizun informazioa emateko zaude” esaten badautsu ere.

Hemendik aurrera beraz, Garrigandik zaindu beharko dautsut Fidel eta GALekoengandik Garri, harik eta zorioneko amnistia horrek ezarri dauskuen tranpa honetatik atera gagiezan arte.”

“BAI, BAINA GARRIK BERE ORDAINDU BEHARKO-dautsu, oraindino heldu ez dan zorioneko egun hori Fidelentzat helduko balitz be. Baina ez da helduko zuk uste dozun eratako amnistia. Amnistia orokorra bai, baina bakarka emona, bakoitzak bereaz erantzun ondoren... Ez daustazula ulertzen? Neuk be zeozelako kontra-burruka daroadalako izango da. Garrik berea ordaindu eta gero, Fidel aske gelditu daitenean bai... Ondo esan dozu Fidel Garrigandik zaindu behar dozula esan dozunean. Hor dago ba gakoa. Ez dautsut oraindino kontau “Garri” ezizenaren inbentoa. Muxarra aitabitxik (berak beste ezizen bat eukan, baina nik Muxarra deitzen neuntson neure artean) “ze burruka-izena gura dok heurtzat” itaundu eustanean, nik “Don Bildur” erantzun neuntson.

“—Don Bildur izan gura dokala?”— berak harriturik.

Lehenengo zurtz eta gero berde jarri jatan, adarra joteneun-tsolakotan. “Don Bildur” mamutzarra izan behar dozu Euskalerrian, geroago jakin izan dodanez. Ez neunkala ezelan be adarjoteko asmorik nik aitabitxiri. Gauzea probatzearren, gure aitak kontatzen euskun Bertatzako mutilarena be konta neinkion. Bertartza hori baserri apartadu bat dozu, orain inor bizi ez dana. Betartzako mutikoa bakar eta babesgabe sentitzen ei zan Autzikako Auzoikastolan eta erdera tutik be ez ekiala-ta kikilduago maisuaren aurrean eta baztertuago edo jazarrituago beste eskolamutilen artean, “bildurti, keldo” eta beste irainez itxurgatzen ebela. Hortik edo barrabaskeriren bat egin ebala-ta, maisu erdaldu-nak behin “Don Bildur” deitu ei eutsan eta ezizen horregaz gelditu sekulako.

Neuk ez dakitsut zergaitik, baina hemengo frantzez-erdera barik, nahiko baztertu nenkusalako neure burua, Betartzako mutilaren konplexua sartu jatalakoa daukat, nik aurretiaz ezer pentsau barik “Don Bildur” erantzuteko. Ez uste bestalde horren kikila izan behar ebanik Betartzako mutilak, gure aitak inotsunez. Behin bera baino zaharrago bateri haginkada galanta egin ei eutson eskuan adarra jotera joan jakon halakoren baten. Haren eskuko zambroa ikustean maisuak harriturik esan ei eutsun: “A ver si ahora resulta Don Txakur el que creíamos Don Bildur.”

Harrezkero batean “Don Bildur” eta bestean “Don Txakur” ei zan, gure aitak inonez, kikildura eta ausardia era batera.

Nik “Don Bildur” aukeratu neuntsun neuretzat, gainera orain galgoekin zentzu okerragoa leuke Don Txakurrek.

Aitabitxiri ezin neinkiozan kontau aitaren ipuinok, haren “eleizkizunak” behinbehinekoak ziralako alde batetik, ederra litzaken bestetik mamau zaharren gainetik mamau gaztearena kontatzen hasten banajakon.

“—Parkatu —esa neuntson—. Ez neban inor molestau gura.”

“—Parkatu! Parkatuuu! —Berak abotsa ergelduz esan eutsun gero zakarragoan gehitzeko —Herriak ez du barkatzen.”

Ez dakitsut hori p/b hizkiaren aldeagaitik zan ala osterantzean, berbeak arrotza-edo emoten ebalako. Horixe: herriak ez ebalako barkatzen, bildurrik be ez ebalako. Ona egotsun Don Bildur. Koldarkeriak eta beraz koldarrez ez eukeela zereginik burruka armatuan.

“— ‘Bildurgarri’ -edo izatekotan...” — Une bat gora adi gelditu zan aitabitxi.

Muxarra ez danean aitabitxi deitzen dautsat, beste batzuk Kapi edo Buzuzagi deitzen baeutsen be, bada nire ezizena ofiziotik diatorko, ez beste batzuri legez, izakeratik edo gogoan daukeezan mendi edo inoiz txikitan-edo gorroto izan dauezan baserriko abeltzaingo edo laborantzako emaitzetatik.

Aitabitxik betargiago begiratu eustan orduan, koldarren artetik ausarten alderdira, harako Betartzako mutila lez-edo, berreskuratu izan bainindun. Aserrearen orde, aitatiar oharra egin eustan orduan:

“— Edo ez al dakik ze espirituko seme izatera deitua haizen?” — Gerrikoan eroan pistolea eskura emon eta “ea honela” begiratu eustan.

“— Ea! Apuntatu nazak! Zapart, gorago! — Aitabitxik eskuak gora jaso ebazan. — Ikusten dok orain zein den Don Beldur eta zein Beldurgarri? Ba, horixe!”

Esanak izanagaz zerikusia eukala azaltzen ahalegindu jatan, izen aldaketa ez dala berez beste aldaketarik gabe jasoten. Zeuk lehen esan daustazun haritik apur bat. Izena eta gogozko ganorea esan gura eutsun. Ba dakizu zer esan eustan gainera? Neugan egin eban aldaketa egin gura leukela Euskalerrria osoan: Don Bildur Don Bildungarri biurtu: “hara ba nondik “Don Bildur “ “Don Txakur” natorren” ninon nere artean eta bera aurrera azalpenetan.

“— Hik urteetan eta urteetan barnean kukuriatu dukan beldur hori, kolpean erabat atera eta aurkakoari haurtikitzen diot. Ortzak erakutsi esaten dena. Entzun duk? ”

Horixe: Betartzako mutilak lez: irainka edo izeka datorreranari zaust atzamarreran edo bardin belarrian, eredia ipinten neuntsun neure kontura azalpenen ulerbiderako. Jasan eta erasan erretolikaz luzatu jatan, pasiboa eta aktiboa, horreek kolore biko txamarrak lez: gaintik baltzak, barrutik gorriak. “Gorrian jantzi baltza dana eta ez etsi, ez uzurtu...”

Beste ariketa bat gainera, ea sendatu-edo nengon neure ganora barrian. Ez ziran, ez dot uste, ohikuna arruntak ziranik, bakoitzaren neurriko eta aitabitxiren une-uneko kasketaldiak baino. Komodatik metrailetea jaso, ez txantxetako gero, benetakoa baino, blaust besoetara jaurti, nik hartu eta bera zoragarritu lez zaldun armatu-barriari begira gelditu jatzun.

“— Beldurgarri! Beldurgarriago!” — aitortu eban, eskerreko begia klikatu, behatz nausiak topau.

Halantxe ikusten nindun antza kanpotik, nik barrutik gure aitak umetan armatu eban txorimaloa gogoratzen neban artean. Harek kainaberazko eskopetea ipini eutsola eta niri barriz burdinezko metrailetea. Ze txoriri erasoteko gero?

Txanpanaz ospatu gendun “eleizkizuna”. Eleizkizuna dinotsut, bada aitabitxik benetako aitapontekoaren ganorea eukatsun.

“— Ze uste hendun ba? — esan eustan. — Ur bedeinkatu hutsaz izango huala?” — Nire ustez, Muxarra bera be monagilo izana zendun.

Ur bedeinkatua esan ebanez, nik bateoko eleizkizuna-edo aditu neuntsan eta ordutik nik Muxarrari “Aitabitxi” deitzea.

Izen barria “Bildurgarri” zendun. Handik gero praktikotasunarrren “Garri”, laburtu zan, Josemaritik Txema edo Marijesustik Marije ohi dan lez. Bestela luzeegia egiten jatzun “Hi Bildurgarri” esaten hastea mezua arin bialtzekotan. Ariketa erasolea “Hi, Bildur” esaten hasi jatan lehengo. Aitabitxirena aitatu neuntsoanean barriz “Garri”. Garri hona eta Garri hara, belarrira egin jatan, neuk uste baino familiarragoa izateraino. Urte biotan ez dot entzun be egin “Garri” baino besterik, etxekoan bisitaren baten-edo izan

ezik. Eta zeuk orain. Zelan aldatzen dan bat, ene! Baina zeuri behenipehin "Fidel" deitzen entzun gura dautsut... Bai, Fidel, horrela. Izen baztertu honek bizi egin gura dautsu eta Fidel, neure izena ezeze, neu nozu. Garri neure marroa baino ez. Txamarrea iduleztara ipini dauste eta barrutik luto baltzez nagotzu, kanpotik gorriz edo "Garriz". Garri eta Fidel Kain eta Abel lez dozuz, baina biak batean, anaia bi izan beharrean. Hagaitik eta, nahiz zailagoa izan batak bestea erailtea, hainbat eta garratzagoa dozu bien alkar bizi-beharra eta bien arteko burrukea...

Inoiz Garri nazela be pentsau dot eta dagoneko Fidel hiltzat emon, baina gero iluntzeraz gero, otoitzen bat ahora orduko, antziz eta zinkurinez somatu izan dot norbait neure barruan. Fidel zendun, hain zuzen, neure dominearen parte ona. Eta zer esatea gura dozu, Beatriz? Izen bion arteko burrukaren erdian mirariz irauin dodala zoratu-edo egin barik.

Eurek, ezizenezko mutilek, nire seguridadeko amarrua aipatzen dautsue, baina nik neure nortasunari eginiko marroa lez sentitzen dautsut. Ze ardura dautsuo bizirik irautea, bizirik irauten dauena nor dan, nor zaren, ezpadakizu? Nik Garri izenez erantzuten dodan bakoitzean, iruzur egiten dautsot neure Fideli. Zuk, Beatriz, ez egin kasorik Garriri. Atzindu, desegin Garri hori. Garri heriotzera kondenatuta dago, nahiz eta bere orde, errubakoak hil behar izango... horixe, amnistiaren izenean."

"Hator, mutil, etxera" (Gabon kanta)

"BAINA ZER USTE DAU ABOGADU HORREK? ZURBITU jaunak, hatan be! Jakin egin behar leuke ba, nire senarra beste ezer baino lehenago kirolari dozuna holako arazoetan sartzeko... Ikusten dozuz kopa horreik? Kiroletan irabaziak dozuz eta ez Amnistiako minifestapenetan. Begitu, begitu aldizkariok. Egunkariak lehen orrialdean eta bihotzeko nahiz kulturazko nahiz politikazko aldizkariak, portadagai aukeratu eben. Hara hemen bere fansekin, hona kirol jantzietan, eta danetan arpegi alai bera, ni, bere emazte nazenak, medailaren atzekaldea maiz ikusi behar izaten dodanaren...

Fameak fama dakar eta bere arpegia diruz erosten dautsuen aldizkariok be beste hainbeste bilatzen dautsue: fama eta dirua. Zer dala-ta uste dozu, aukeratu dauela Gestorakoak ere aurrelari? Kirol Federazioak be gauza bardina gura eutsuen, eta ohorezko puestoa zanarren, gure senarrak kuku, ezetz esan eutsen. Nahiko eta sobra lan eukan berak bere kirol konpromisoei erantzun eta aurreratuak etxeko negozioren baten eralgiten... Beste hainbeste egin ahal izan baleutso Gestoreari, egingo eutsun... Ai, baiña ez zan bardina... Izena emon beharra izan eutsun, aurreneko zerrendan hatan be.

Benetako zuzendari, zuzendari ordezkoko edo ohorezko izatea beste kontua dozu. Berak, nire senarrak, dana dala, ez dautsu ezer zuzenduko, kirol jokua izan ezik. Ez ardurabakoa dalako, ezin dautsulako, hatan be, egin besterik. Bere izenaz baliatzea dozu gauzea.

Ez dozu uste izan behar aldizkariaren portadan urteten dauela-ta beste barik, aldizkariak barruak dinonaren erantzule edo hango akzionista danik. Ba hemen be bardin... Arpegiko irribarrek edo buruko ideiak gitxi ardura, generoa ondo salduz gero.

Bai, alabatxo..., famatuon emazteek be geure zergea emon behar izaten dautsugu fansen eta publizidadearen munduari, batean norbere onurarako eta bestean zeloetarako, horixe... Onerako danean, ostaz aintzat hartzen zaitue zeu, kirolariaren emaztea, eta ezpabe, fansen txaloak eta keinuak ohostuten dautsue erdia... Txarrerako danean barriz, arpegia emon behar izaten dozu, orain zeu etxean hartzean lez, nahiz ez dodan hau neure eginkizun, ez eta nere senarrarena. Ez estutu esan dautsudanagaitik, Jone. Neska gaztea eta nire senarraren preguntaz etorri zarenez gero, "sar daitela" esan deusat neure neskameari. Zurbitu jaunaren izenean zatozelako be bai, zati bat. Bestalde nire senarraren fansak ez naue hemen molestutzen, ez direla agertzen, esan gura dautsut.

Zure nebeaz dinostazun kasuan, Zurbitu horrek berak ezin eta, ondo jakin behar leuke gure senarraren ahalmenak be norainokoak diren. Baina horixe... Bera ere legegizon famatua dozu eta, famatuak esan dautsudanez, famearen zergea ordaindu behar. Batek badaki... Baina esatera noatzuna: ni hemen senarraren sekretaria lanetan eta karta bat bera be ez nire izenean. Negozioak, deporteak, nominak eta sinpatiak alde guztietatik eta ni hemen bakarrik danen kontra eta alde. Niretzat atentzinoko karta bat be ez, ez eta senarraren maite kartarik be. Eta ez dakitsut hau sekretariaren ala emaztearen konplexua danik. Behar bada, senar famatuaren emazte izatearena.

Eta halatan, zuk erdi sekretaria eta erdi emazte zapuztu, senarraren eguneko korrespondentzia zuzentzen hasten zara eta, halakoren baten, zuk eguno itxaron ez zendun eta ikusi gurako be ez zeunken papera heltzen jatzu eskuetara eta zu, erdi arduratsu eta erdi jeloskor, azala idegi eta barrukoa irakurten dozu: "...sabedores del volumen de sus nóminas..." etabar, ezbaigabeko esigentziaz eta arma-tiro-pun zemaiez. "Carta bomba" esaten jako horri edo ez samurrago. Eurak iraultza zerga esango dautsue, eta ez

txikia be! Hemen agertzen diren faktura guztien sumealakoa!... Jo, herriaren lepotik bizi garela-ta, narrutik ordaintzeko, ezpade... Kartea eskuetan eta zer egin? Senarrari deitu, abogaduari. Arnasarik be ez. Nora jo? Bankura? Guk ez geunkatsun halako dirutzarik bankuan, etxeko negozioan eralgita baino. Zuk herriaren askatasunaren aldeko borondaterik onena, baina nondik halako diru piloa? Argi bila zoaz eta orduan lagun salbagarri horretariko batek urteten dautsu bidera. Zurbitu jaunak jakingo dautsu horrelakorik. Zuen ezina ikustean, diru arazoa komponduko dautsue, baina ez hutsen. "Boltsea edo famea" esatea lez. Ulertzen daustazu? Aldizkari honexek lez, gitxi gorabehera. Eta nik ez dakit zein dan hobea zergea dirutan ala famatan ordaintzea...

Artista askok euren arpegia edo bilustasunak be erakusten dautsuez anunzioetan edo posterretan, portadetan ere bai inoiz, diru apur bat egitearren. Nire senarrak eta biok (bada okerrerako danean arpegia neuri edo biori emon beharra dagokigu esan dautsudanez) geure eukiak defenditzearren, ez uharitzearren, geure arpegia eta izenak ezeze, geure presentziaz pausoak markatu behar izan doguz Gestorakoak manifestapenen bat antolatu izan dauen bakoitzean. Eta guzti hori zeure idealismo eta asmoetatik urtengo baleutsu lez... Ulertzen daustazu?

Eta hara nondik, kiroldegiko txalo eta gorespenetan ni inor ez nazela, Amnistiako manifestapenetan eslogan amorratuaren eta poliziek jaurtin peloten artean agertzen nazen kirolari famatuaren emazte. Txaloetan ez baina, txistueta hantxe gon behar dautsut, "no faltaba más", ezkondu gintzazaneko edo liturgia serioenetan lez.

Baten batek zera esango dautsu: "hau be..., ume egin-barri dagola..., zelan datorren gero dantzaldi honetara, bere senarra fansengandik-edo zaintzearren ezpada..." Eta erratu egingo litzake, ez dakielako barrutik daroagun prosezinoa. Fansak lan gitxi emoten dautsue halako manifestapenetan. Geure beste ondasunak, senarraren nominak eta negozioa zaintzearren bai. Udako beroa ala neguko izotza dala, haurdun edo haurra egin barri nagola, ni hantxe kale gorrian eta ez dantzaldietako musika gozoa entzuten...

Neure txiki hau... Bai, laztana, emon pa bat Joneri... Neure txikien hau oraindino erraieran neunkala, kilometroak egina nozu geure kaleetan zehar eta senarraren ondotik. Gustora be egin dautsudaz batzutan, ez gero arpegia erakustearren, neure senarragaz ibiltarren baino. Hara ba nondik estadioek eta dantza aretoek emon ez dausten aukerea!... Eta zer esanik ez, hori dala-ta, nire senarra, fans mosu eta aldizkarien portadetatik urruntzen joan dan neurrian, alkartu be egin garela halako nekebidetan. Ez dautsut alde on hori be ukatuko. Halako manifestapenetan kiroletako bitsak eta txima harroen lerak eta karraxiak ez dautsue balio... Zigorrek formaldu, esaten danez, eta guzurra badirudi be, geure zergea dozu azkeneko negozioa. Barre egitekoa ez da? Negarrezkoa ezpalitz... Manifestapenetara doazen besteak euren sendikoren baten amnistiarako doatzuz, baina gu geure diruak zaintzearen goaz. Guk ez daukagu senitartekorik kartzelan, nahiz ta euskaldun guztiak, edo lagunurko danak be, holakoetan senitarteko lez izan. Zuk osteranebea daukazula dinostazu... A, bai, kartzelan barik, mugazandik... Hori, amnistia edo reintzertzinoa edo danadalakoa. Eta erratua izan dala dinozu?... Ezeren erru barik eta horrela?... Izan be poliziok bildurgarriak dozuz... Nik ez dakit Gestorak eta gitxiagore senarrak zer egin leiken holakoetan, hau da, kartzelan barik, errefuxiatu dagola. Errefuxiatu edo kartzelan, danok gagoz egon, apur bat; oin biak edo bata zapaldu dauskue. Gero "apur dezagun katea!". Hori zendun azken manifestapeneko esloganetariko bat eta nik inoiz baino samatik hurrago sentitzen neuntsun kate hori eta senarri besotik sendo oratu beharra izan neuntsun, neure buruari ames larriagotetan ez nenbilela aditzen emotearren.


Bueno, Jone, orain badakizu famatuon zergea zein den. Aberatzena ez dozu hobe, pobreena ausaz txarrena. Famea edo diru daukanak emon leike, eztaukanak borondatea... Eta ezpabe neba, seme edo senitartekoren bat, dagola preso edo mugazandik, desagertu edo hilda... Eta haren guraso eta senitartekoak barriz, danak manifestapenetara, harik eta kale guztiak bete arte. Orduan izango ei da egun handia. Beharrak ekarriko omen zorioneko amnistia eta errefuxiatuen aberriratzea.

Orain argi daukazu zuen abogaduak zer esan gura eutsun gurera bialdu zaitunean. Ez zaitetz larritu, Jone. Adizkide handi dogu Zurbitu jauna, batez be harako zerga zemak konpondu genduzanetik. Halan be ez dozu bardin Gestoragana edo nire senarragana zeu bialtzea. Jakina, lana banatu egin behar izaten dozu. Ea honek ahal dauen harek ezina, ea hemengoek hangoak baino arpegi hobe erakusten dausteen. Ulertzen daustazu? Neuk ez zindukedaz Gestorara halako eskaritan bialduko. Lehendik be oker pauso batzuk emonda nago. Latza da benetan dinotsudana, baina zu nahiko argia eta borondatetsua ikusten zaitut. Hartu eizue gauzea pazientzi handiz, danabeharrean egongo zaree-ta, eta ahalik eta askatasun handienaz erabagi etxekeen artean, bada lehen esan dautsudan katea daukazu samatik..." Zenbat zaree etxean?... Bera-gaz bost. Jakina, bostok etxean bazengoze, danok libre... Orain bada bosgarrena mugazandik dozuenez gero, etxeke beste laurok indar egin beharrean zagoze, ea danon artean lortzen dogun Amnistia Orokorra.

Amnistia Orokorra, ez ahaztu. Aitatu be ez egin amnistia partikularrik. Hori burgestzat emongo dautsue. "Amnistia Orokorra" dozu herriaren eslogana edo beste era batera esanda: "Danak edo inor ez". Ez beraz, hau, nere semea edo beste haren anaia edo senitartekoa. Herri maila danok nebarreba. Gauzea ez ei da odolezko edo sendimentuzkoa, politikazkoa baino. Hemen ez da juzgatzeten bataren edo bestearen errua edo errugabetasuna. Hemen herria bera epaitzen da eta gutariko bakoitza bere alde edo kontra gagoz. Euren ahotik dinotsut, Jone: herri burruka egiten danean, ezin zeinke bakarrik joan auzira. Abogaduak legetik at dagotsuz euren bezeroen pupuakin bajoatzuz. Hemen danok kalera urten beharra daukagu, hau edo bestea defenditzekoan. Nik senarragaz eztabai-datuta daukatsut hori eta dagoneko, ni baino roiloan sartuago dagotsu bera. Danok daukagu, izan be, zer irabazia zerbait galdu-takoan.

Bakarreko nekea, bestalde, latzagoa dozu. Taldean pisu astunak be erosoago eroaten dozuz, herriaren pisua danon sorbaldetan daroagula: nire arazoa, zure arazoa, danon arazoa egiten da. Ulertzen daustazu, Jone?..."

"EZ, BERA EZIN IZAN JOAT IKUSI, BAINA BAI BERAK-kiroletan irabazitako kopak. Armairuan kabidu ezin ahala. Bai eta bere seme txikiena, rubio-rubioa bera, ume galanta. Otxando bera kanpotik, esan dautsuedanez, ama. Bere emazteak hartu nauela... Bai, Alamedako kalean, eurak bizi diren pisuan. Ez dot egundo ikusi halako bizitokirik... Bera kiroletan, non egongo zan ba? Hagaitik ezin izan dausat emon gurean daukazan "intxen" barri... Esango dautsuet, halan be, bileterik ordaindu barik, bera non ikusi zeinkeen hurretik... Jakina gure Fidelez egin dogula berba, luze eta astiro egin be, ama, baina itzi eistazu apur bat berbetan, ez uste gauzea bai edo ezkoa danik. Hatarako ez da luzaro berba egin beharrik izaten. Bardin jazoten jat neuri be. Zeuok dakizue abogaduren aholkuz Otxandogana joan nazela. Harek ez eustan esan Gestorakoengana joatekorik, bada goragoko baten txistadea sarritan hobea izaten dalako. Ez dodala bera, famatuena, ahaltzuena etxean aurkitu? Eta bere emazteak emon leikidan txistadea ez dela guk itxaron geinkelakoa? Gero ikusiko dogu hori. Baina jakin behar dozue Otxando eta bere emaztea ondo be ondotxo konportzen direna alkarregaz eta ez hor rebista batzuk esaten dauenez. Niretzat ez da ohore makala izan bere emazteak ni etxean hartzea eta ardo gozo eta bizkotxoz gonbidatzea... "Zurbitu jaunak hatan be" —esan daust— . Jakin egin behar leuke beralako abogadu bategu kartzelatua eta errefuxiatua ez direla auzi bardinak..." Ama, ez dala bardin, Frantzian egotea edo Alkala Mekon egotea. Bata bere oinez dabiltsu nazioarteko mugea baino beste eragozpenik ez daukala; kartzelan dagonak barriz, lau ormaz inguratuta dagotzu... Nahiz eta berak esan daustanez, hemen danok egon apur bat kateatu. Danok daukagula, gehienok behintzat, senitartekoren bat kartzelan edo ihes egina. Eta eskuak eta oinak libre eukiarren, bihotza loturik daukagula... Bai, guk gure Fidel, baina gure Fidel ez dagotzue bakarrik. Hor daukazue Beitibiskoko Koldo be... Ze arduña dauan Beitibiskoko Koldok? Ez zoan izan heure eskolalaguna ala? Bada, danogaz arduratu behar dogula, Amnistia Orokorra danekin arduratzen dan lez... Eta ez bakoitxak bereak aparte, Beitikoek alde batetik eta beitibiskokoek bestetik, arazo ezbardina-edot baileroen. Hau da, burruka politikoa danean, bihotza



isilazo egin behar dala eta herriaren alde urten. Ezin geinkezala bakarka joan herriaren alde, danok katean baino... Bai, bai, bai... Erruen eta meritoen zera be aitatu gendun. Gureak meritorik ez baina, errurik be ez eukola esan. Guzti hori auzi partzialetako pisuan ipintekoak direla eta hemen ostera, herria dagola auzian, herria juzgatzen dala... Guzti hau ez dinoat neure burutik, berak esanda baino. Bai. Otxandoren emazteak. Zer ba? Otxandok esanda sinituko henduken ala? Senarrak eta biek guzti hau eztabai-datu ebela. Inori ez esateko, baina, aberatsak negozioagatik eta pobreak geure etxekoen izenean egin beharrekoa baino ez gendula... Ezik esan gauzak nahastetan natorrenik. "Danok batera" esan joadanean, ez joat "danok nastean" esan gura izan. Horixe, danok batean, herriko burruka on baten egin behar litzakenez... Bai, karidadea norberenetik hasiko dot ziur, baina hemen ez dok karidadearena, askatasunarena baino eta ezin geinkek aske garenik esan, gutariko bat Beitiko eda Beitibiskoko, kartzelan edo errefuxiatu dagolarik. Joan ala ez joateko libre garella, baina Amnistiako kanpainetan uste dan baino indar handiagoa egin geinkela. Eta kale betean joanez gero, gure Fidel ezeze, errefuxiatu eta espetxeratu danak urtego leukeela. Ez ba, ala ahaztu egin dok dagoneko orain bost urte-edo direla, Fidel eta biok parte hartu zenduen harako manifestapen handian lortu zenduena? Ez ete zoan izan Amnistia Orokorra? Zeuon ahotik entzuten najoan, zeuon garaipena lez... Ez diakiat ba umetakoak sentzunez ala handitakoak umekeriaz juzgatu behar joadazan. Ba diakiat hordurik hona bost urte joan dozakela, eta hain zuzen be, gure Fidel ez dokala oraingo manifestapenetan lagun izango. Orduan ez zenduen etxekorik kartzelan edo errefuxiatu.

Orain ba daukak noren alde egin. Nik bai behenipehin. Orduan ni txikiegia nintsoan kalerako, baina ez dozak alperrik bost urte igaro. Orain kalerako moduan sentitzen nok...".

"ZER EGINGO JAKO BA, JOSEFA? BEHIN LANTZAREAN sasiak oratzen dauenean, goldatu-edo egin ezik, alperrikoa da puntak ebaiten hastea. Aitzurraz sustarretik atera doguzala-

koan, han agertzen jatzuz hurrengo udabarrian sakonean gelditu ziran sustar eskutuak, indartsu agertu be. Eta lehengo sustarrak gitxi be ez direla, besanga luzeak jaurtiko dautsuez, lantzarre guztia euren arantzen jabe egiteko. Masustak izango dozuz gero sasien konsolagarri.

Esastazu ezpabe, Josefa, lehen seminariok eta komentuek beterik genduzan eta orain barriz, kartzelak... Kartzela zaharrak estu gelditu jakuz eta barriak, lehen baino handiagoak, modernoagoak, "cárcel modelo" deritzenetarikoak egitera joatzuz Bilbon eta Donostian. Gazteizen be ez dira izango gitxiago. Zelan egon leiteken bestelan Ereduzko Seminarioa euki izan eban lehen probintziako uriburua eta orain Euskadiko uriburua dana? Seminarioak hutsitu zirenez gero, orain kartzelak bete. Uste dozu, Josefa, herria lehen Seminario Nagusiaz harrotzen zan lez harrotuko dala orain kartzela Modelo horregaz? Edo lehen Seminarioak hainbesteri emoniko hezikuntzaren parekoa izango dauala orain gure gazteek? Gure herria maitatzen eta herritarrei serbitzen ikasiko dauela han gure semeek?...

Gu, Josefa, geure sasoirik onenean mila izateraino heldu gintxatzuzan aldi haretan. Oraingo gure espetxeratuak be kopuru bardina heltzera heldu jatzuz dagoneko, Kartzela Modelorik ez daukeela be. Zer izango da gero? Jakintzaren suziai argitu-edo beharrean, iraultzaz-edo goldatu behar ete daukue herriko alorra?...

Euren frutuetatik ezagutuko dozuez, Kristo jaunak dinoskunez, eta dagoneko... ezagunak doguz masusta baltzak...

Ia ez da ereiten ez garirik, ez artorik gure soloetan. Industria-gintzaren ekonomiak ezemonkor egin dautsuz, kalean dabilen dirurako beheinipehin. Beste hainbeste esango neuskizu gure Eleizako alorraz. Aitzurkadak emon bai, baina hazi onik erein bai?

Orain ez dautsu inork joan gura seminarista, ez abadegai, ez frailegai. Monjetarako bokazinoak be bardintsu urritu jatzuz. "Lehenago kartzelara" esango baileutsuen... Ba kartzelara ba doatzuz. Nondik dakie eurok kartzelako bizitza komentu edo

seminariokoa baino hobea-edo danik, behin be probatu ezbadatsue? Kartzelea “modan”-edo dagoelako? Horra ba okerreko bide-
ra zein itxu joatzuzan eta zein setati onetik alde egiten. Gero galan-
tak hartu be egiten dautsuez e?... Hogeï urteko kartzela, hamar
urteko kartzela. Beste hogeigaz ia bizitza guztia... eta ondo gurae-
zik, ondo damututa, urten gurarik eta ezin urtenik harik eta epea
bete arte, amnistia edo holako haizeren batek artean puts egin
ezik...

Orain bada, Josefa, esaistazu seminarioan edo komentuan nor
egon zan, ez hogeï edo hamar urtean, urte betean be, horrela
guraezik edo behartuta. Nahiz noiz urten eiketzun zala negu edo
udabarri eta azken aldiotan barriz, inork abademotx edo frailemotx
deitu eikien bildurrik gabe. Aukera librea zendun eta libre geldi-
tzen zintzazen gero, hala nahi izanez gero, botoen lokarrietatik edo
eleizkizun beharretatik.

Bakoitzak halan da be, bere bizimodua aukeratzen dautsu,
Josefa, bai ezkontzen danak, bai Jaunari bizitza eskeintzen dautso-
nak. Eta osarkeria bada be, bardin bizitzan kartzelara edo hiltean
inpernura doanak. Jokera edo bokazino ezbardinak izango dozuz,
bai eta zio edo gurutzebide ezbardinak bakoitzean, baina azken
baten bihotz bakoitzak bere kidea eta ugazaba aukeratzen dautsuz.
Ugazabarik aukeratu gura ez dauenak barriz, norbere burua izango
deabru eta bakartadea inpernu. Maitasuna librea da, baina lotu
egiten gaitu, eta lotzen gaituen neurrian askatu be gero...

Ni monjatxoek komentuetara bisitatzen joaten nazen bakoitze-
tan, esate baterako, klausurakoak izanda be, euren benetako poza
iragarri eta komunikatu egiten dauste, beti be euren bokazino edo
suertea ospatzen. Haren kantuak eta barreak! Aurretiaz zeruan-edo
bailegozan. Ba... konparazinarako joan zaitez kartzelara, ha edo
bestea bisitau gurarik, ez dozu arpegi alai bat ikusiko, ez zotinen
edo amorruzko kantuak baino entzungo. Urten egin gurako leukee
mazmorro haretatik, baina ez dautse inork aterik idekiten. Batzuk
purgatoriko arimen antzera amnistian itxaroten dautsue. Baina
purgatoriokoen amnistia ez dozu lurrekoa lezkoa.

Han bakoitzaren bihozkeria aztertzen da hemendik agindu
geinkezan mezen edo otoitzen gainetik. Hemen osteran bakoitzaren
damu edo bihozkeria horri begiratu barik, manifestapenetako erro-
gatiben indarrez egin gura da dana. Eta ez dozu bardin Jainkoaren
errukia eta gizarteko legea. “Amnistia, amnistia”, baina ez dago
amnistiarik, norberegana iraultzarik ez dagoen artean. “Bakea,
bakea, baina ez dago bakerik” Liburu Santuek dinoen lez.

Pentsau be egin dautsut hori dala-ta, Josefa, bakoitzak nahi
dauen gurutza ezeze, nahi dauen zerua eta inpernua be aukeratzen
dautsuzala mundu honetan bertan gehiago barik. Baina zoritxa-
rrez, aintzina baten gaztetxo eta heldu barik komentuan sartzen
zirenez eta gero bizitzaren latzaz-edo damutu, gaur kartzelara
doazenei be beste hainbeste jasoten jakeela. Sartzea libre da
komentuan edo kartzelan, baina urtetea? Hor dago ba untzea. Egon
badago, baina gaitza dala esan gura dautsut, kartzelatik batez be.
Norbere inpernua apurtzeko norbere deabruak iruntzi beharra
dago, ez deabruen ahotan norbera galdu.

Eta hainbeste gure gazteren urterik ederrenak purgatorio edo
inpernu horretan igaro beharrak zer pentsa handia emoten daust
neure oharpenetan. Gurikeriak-edo erakutsi ez dautsena laztura
hareek erakutsiko al dautse? Sufrimentua beti ere maisu ona ei da.
Ausaz gure gazteek ez dautsue artean goserik edo nekerik nahiko
jasan, baina hasiak jatzuz dagoneko nekearen Unibersidade horre-
tan. Orain ikasiko al daue, kristinauok Kalbarioko eskolan ikasi
ohi doguna! Ez dautsogu bildurrik jasan beharrari. Baina konfor-
midaderik edo damurik ezean, zenbat ordu eta asmo on galdu! Eta
gure gazteetariokoa ia danak dozuz aldi baten Kristori hitzemo-
nak. Ai bere dei gozoa entzun izan baleue! Zeozergaitik dinosku
berak “zatoze nire bustarria biguna eta nire sorta arina da-ta”. Ba
ekitsun berak nondik-handik latzak batuko genduzana. Haren
bustarria itzi daunak bustarria gogorragoa dautsue lepoan eta haren
sortea jaurti ebenak sorta eta erdi daroatsue bizkarrean. Edo hobea
dala uste dozu, Josefa, gurutzea itzi eta suga eta aizkorea lepora-
tzea, esate baterako, Kristorenenena barik, euren iraultza egitearren?

Eta nik dinodana: ze iraultza egin behar daue kartzelan urterik
ederrenak galduta? Golperik be ez, ez herrian, ez Hirugarren

Munduan. Eta eurek izaten dozuz herriaz eta atzerriaz zarata gehien egiten dautsuenak. Han Hirugarren Munduan misiolari balitzaz sikeran, benetako iraultzaile izango litzakez Amerika, Afrika edo Asiako hainbeste misinotan. Baina maite deiari barik, gorrotoarenari erantzun eutsuen eta horra sasiaren frutuak.

Gure gizartea lanik-etzaz kexu dago, eta gure Jaunak ostera dino: "Uharia da uzta, langileak urri". Nor dabil nor guzurtatzen? Ez dagoela lanik? Jakina, eurak lanpostua deituko dautsoe, esan dagiela, beraz, "lanposturik-eza". Doazela ea ahotan maiz eta benetan ostaz darabilen Hirugarren Mundura eta ikasiko daue.

Baina hemen danok gura dogu aberatzen munduan lan egin eta ondo kobrau, inork be ez, antza, zegaz ordaindu ez daukan pobreen alde. Erregutu daiogun, Josefa, soloko ugazabari, Jaunak berak dinoskunez, langileak lanera bialdu dagizan.

Zure nekeak ikusita, Josefa, ostera be Eleizamaren erdiminak diatordaz gomutara. Izan ete dau berak be, seme-alabak askatasun eta santutasunean ikusteko zoririk? "Ez bedi larritu zuen bihotza". Nahiz eta itzelezko bildurrez, Kristo beraren neke bidetik goazela jakinik, sinistu berari, atzera begiratu barik. Ez gaizala bildurrak antzutu, siniste urriko ama askoren erraiak, umeak zerez jantzi eta manteduaren bildurrez, antzutu diren lez.

Ez dogu etsiko harik eta mundura ekarri genduzan geureak Aitaren erraiera erakarri arte. Geuk daroagu herri guztien salbazino dan maite misino hori. Eurak ez dautsue inoren eskutik hartu, gorrotoaren asmoetatik ezpada. Herri borondatearen lapurrak dozuz, batzen barik, zakabanatzen. Ta zerikusi dautsu gure bake Espirituaren usoak euren burrukako arrano baltzagaz?"

"TXORIMALOA HAN ARBI SOLOAN EGOTZUEN, BAINA gure aita zana aztoratuta ebilen harakoan txorruek baratzeko arbazian egiten ebezan sarradak zirela-ta. Txorimalo hori ez zan ondo portatzen, antza. Egon bai, han egotzuen bere trapuak haizetan, beste auzokoak lez, bakoitza bere arloa zaintzen, baina gunez lokartu egiten ei zan, gaez iretargiagaz ibilteagaitik edo

ibiltearren. Nor jakin? Gero paseko txoriok etorri eta haren lelo begiak ikustean, kaka egiten ei eutsuen burutik behera. Aaaa! Ez e? Ba entzuistazue hauxe... Behin gure txorimaloa harmatu beharra izan neban, neuk, orduan zortzi urteko umea nintzan honek, nausiek txorimaloekin karrerarik ez ebelako ateraten.

Orduan auzoko mutilok asteburuetan-eta erbi-erbika egiten geuntsuen Goietatik Herrimendiraino. Geure amesen kazari bizkorrak gintxatzuezan, neu aurrerena nintzala. Ez zenkien neure eskopetea zela jolastekoen artean kainudun bakarra? Besteak makila hutsean apuntatzen eutsuela, nire kainabereak kulateari egokitzen jakola, beste errespetoa eukatsuen. Nik eginiko tiroak besteenak baino hilgarriagoak zenduezan. Hagaitik halako eskopetea geldian egon ez eitekenez, kazari izatea tokaten jatan beti, besteak barriz, txandaka batean kazariarena eta bestean erbiarena edo txakurrarena egiten eutsuela. Eta astegunetan, zer egiteko nire kainudun eskopeta harek hantxe kaixa ostein gordeta? —pentsau neban, gure aita zanak-eta paseko txorien barrabaskeriak aitatzen ebezela. "Ba neuk erakutsiko dautset txorioi errespetoa zer dan" esan neban neure artean. Isil-isilian hartu kainudun nere eskopetea, lokarri bat eta baratzera joan nintzan. Han egotzuen gure txorimaloa, maisuak zigortutako astabelarria lez, besoak gurutzetan eta papau arpegiagaz. Buruko kapelea apur bat jaso eta aurrez-aur begira, zorrotz be zorrotz esan neuntsan:

"—Txo, hau ez dok ganora, eta kontu eik geure aitaren prakak eta alkondarea daroazala soinean. Auzokoek zer esango be!" —Bekaina erakutsi neuntson—. Halan da be igarri egin dauek txoriek bihotza barik, galtzua daroakala barrutik".

Neure eskopetea begien pareraino jaso eta ondo begiratzeko ninotson.

"—Ikusten dok hau? Hau ez dok gero edozelango eskopetea. Hau ez dok auzoko beste mutilen kirten jostailualakoa e? Honek zuloa diaukak, txo, eta auskalo "pun" egin orduan zulo honetatik zerk urten leiken. Jakin egin behar dok auzoko mutil guztiek errespetatzen nauena arma hau dala-ta. Ea heuri be, lotsa apur bat



eukiten dauaen txori lapurrok. Ez itxi hemendik aurrera gure arbaziei ikuturik be egiten. Doazela hortik zehar edo besteen barazetara, buru-buruan tiroa hartu gura ez badaue. Entzun dok?”.

Uste dot nik altu egiten neuntsola berba, ez bakarrik neure artean esan, berak begien klikadaz-edo uler egistan.

“—Eutsok ba?”— esan neuntson azkenez.

Besoen parean kordelaz lotu neuntson kainudun eskopetea, txoriek ondo ikusteko cratan eta gauzea benetan joela kontu egien.

Etxera joan, txorruz, txotez eta txirriskilez ez arduratzeko esan neuntsen aitari-eta, handik aurrera kontu handia eukiko ebela txoriok gure barazetik igarokeran . Aitak plateralako begiak idegi ebazan, nire eskopetaren magia iragarri neuntsonean.

“—Zer ba? Zer diaukak hire eskopeteak?”.

“—Nire eskopetea kainuduna da eta benetakoa dirudi haizeak txorimaloaren eskutan mogitzen dauean.”

“—Ez dok izango!...”

Sinistu be ez eustien egin gura. Ezetz? Baratzera joatea baino ez eukeela. Bazkal ostea zan eta aitak lagundu egin eustan baratzera.

“—Jo! —esan eban aitak txorimaloaren arma ikustean. —Hamalauko kartutxoa be botako leukek honek. —barre egin eban auzoko etxei begira. —Hauxe dok harako “Iekuan lekuan maloa, gurean handiagoo”! Bai, bai, zuentzat ipuinak, baina niretzat bizitzako pasadisoak...”

“EZ JONAT ULERTZEN, ALABATXO, “DANAK EDO inork ez” erretolika hori. Artzain onaren ipuina bestelaz zonan”: Heun hardi izan eta bat galduez gero, gainerako larogitemeretzia eskortan itzi eta zuetariko nor ez da joaten heungarrenaren bila? Eta aurkituten dauenean, maiteriko lepoan hartu eta ekarten?” Artzain onak ez leukenan bestela egingo. Eta ardi gal-

duak bi badozan, gure auzoan jasoten danez, edo mila edo bi mila Euskalerrri osoan, be bardin: danen bila joango litzakenan eta banan-banan ekarriko. Ala artzain erraldoiren bat-edo uste ete jon “danak edo inor ez” esaten jokan hori? Ala ardi galdu danak ete diagozan sasi berean kateaturik edo amildegi berean jausirik? Edo euren arteko errugabeak erantzun behar ete jonae danen errugabetasunaz? Nor don ba danei era batera parkamena emoteko lain dan artzain ona, Kristo Jaungoikoa izan ezik?... Amnistia? Parkamena dionak amnistia jinon. Edo hardi galdu danak batera lepoan eroan ezin leikezela-ta, bertanbehera itziko ete jonazan gozez hilten edo otsoen pentzudan?... Ez direla ardi galduak? Ba, gurea behintzat nik ez jonak bilatzen; hemen, etxean, geugaz egongo zonan ezpabe.

Baten bihotza falta danean, askoren indarra bilatzen dozue. Artzain onaren maitasuna ahaztu dozue; maitasuna indarririk handiena dala. Horrela bat ezin dozue askatu eta danak batera gurako zenduez... artzain onaren parabolak ez jonala balio? Jakina ez jonala balio, artzain onik ez dagonean, eta harago, hardi galdurik edo galdutzakorik aitortu gura ez danean... Bai, jakina, alabatxo, parabolan ardi galdu bakarra zonala eta hemen ostera bosteun dozanala. Bosteunak batera galdu dozan ala? Banaka galduko zonazen, ez don? Eta, jakina, artzain onik ezean, bi, hiru, lau, bost eta azkenean bosteun. Gero... galduko danak bertanbehera itzi eta kalera jo “danak edo bapez!” ohiu egiten. Ez diakinak nortzu zagozen galduago eurak ala zeuok, ez jonat ulertzen...

“ENTZUN DOZUE KOLDO BEITIKISKOARENA?... HIL egin dauela...! Entzun dozuenez. Goizion jakin dogu. Ez, egunkariek ez dakarre. Bart Donibane Lohitzunen-edo, Frantzian, kalekalean, antza... Galekoek-edo. Ez, ez dinoe beste inortaz ezer. Gure Fidelen izenik entzun be ez da egin, ama. Koldo, alias “Txordo”. Ba zenkien horrela deitzen zanik ekintza barrian?... Bueno, gitxi ardura dautso onez gero ezizenak. Bart izan danez, egunkariek ez dakartsue, baina goizeko partetik zurrumurrua izan

da gure lantegian. Gero argiago Potikos Agerreko mogidu eta manifestapena danoi deika hasi danean.

“—Ze jaso jakok ba Koldari”— itaundu dautsoe.

“—Hil egin dauela galekoek!”.

Neu be dardara baten itzi nau. Betibiskoko Tomasa-eta izan dodaz gogoan. Ba ete dakie? Manifestapena baino lehenago dala eurai aditzen emotea eta “ni banoa” esan dautsat Potikosi.

“—Zer? —berak— Auzokidea ezeze, lankidea izan oraintsura arte, eta huts egin behar ete daskuk?”.

“—Auzokidea nokalako, hain zuzen be, —erantzun dautsat— auzokoegazkoa egitera najoak lehenengo eta gero gerokoak.”

“—Jakiik, txo —begi gora baten berak oraindino—, Fidel eure anaia izan bazoan be, bardin deituko gendula manifestapena.”

“Eskerrik asko” erantzun barik etorri naz... Ezetz ba, ama, irratiak ez dauela Koldorena baino beste ezer aitatu, edo polizien kotxerik etorri ete da gurera, Beitibiskora etorri dala esan deust zuenez? Ba ziur abisoa emoten etorriko zirela. Eta Ane mogidu bada, harago, komisarian egiztapenen bat emotera joango jatzuen eta bide batez langileek oraintxe daroen manifestapenera...

Eta Anton eta Tomasa? Nork egiten dautse lagun une honetan? Gaozen, ama, geuri dagokigu... Hara, entzun hil kanpaiak Seiloanten. Don Felipe jakitun dago. Ez negarrik egin, ama. Ez zara “gaur zuekaitik eta bihar geugaitik” esaten auzokoei laguntzera joango.”

5

“Lasciate ogni speranza voi ch’entrate”
(Divina Comedia, Dante)

“HARREZKERO SARRITAN ERABILI DOT NEURE AR-tean udako euskal Unibertsitateko estudiante lagunak esan eustana, ea ze komedia egiten neban hemen. Batzutan ziri irrigarria jatan eta neure biziari zentzuna emon leion ausnargarria bestetan. Hemen nengon, egon, errefuxiatu izatez, baina zer egiteko edo zergaitik...? Ez neunkan erantzunik. Gauzea ziriz edo txantxetan hartuez gero, galdera itzultzea baino ez zendun: “eta heuk zer egiten dok...? Baina bizitzan txantxak une batekoak dozuz eta goiz edo berandu, erantzun egokiak prestatzea baino ez dozu.

Historiako estudiante harek ni mostradorean aurkitu eta “Beatriz, ze komedia...” ziri edo agur berbea egingo baleust, zera erantzun neinkion: “Ba... hementxe Komediako papera asmatu ezinik-edo...”.

Hanartean eta, Beatriz izanik, ez neinkitsun Beatriz pertsonaiaren zeregina ez neurean eta ez Danteren Komedian, Kazetaritza Historiaz eta Gizarte arazoaz eta komunikabideaz arduratzen dalako, literatura eta teologiaz baino gehiago. Beatrizen pertsonaiarena ikasi behar neutsun, “zertan ari zara...” itaunari ganoraz erantzun ahal izateko. Danteren “Divina Comedia” irakurri behar neban.

Denda guztiak arakatu neuntsuzan liburuaren bila eta “Divina Comediaren” arrastorik ere ez. Ez erderaz eta ez euskeraz. Tipo

t
arrarotzat joten ninduen liburuzainek, nire frantsesa ez zelako horren akademikoa alde baterik eta hain liburu zaharra edo modaz joana eskatzen nentorkielako bestetik. Ez zela irakurten. Ausaz hori antigualeko zeretan-edo... Jo! Ederra botaten eusteen! Neure pertsonaia, neure eroesa ez zela dagoneko aintzat ere hartzen. Nire guraso eta aita-amabitxiak zelan ipini eusteen halako garaietan halako izena ba?

Aintzinako tresna eta bilduma zaharren dendara jo neban azkenean. Hango tipoak ere ez eukatsun esku-eskuan, baina, aurretiaz ordaintzekotan, Paristik-edo zuzenduko eustala.

Hala izan zan, Paristik edo Florentziatik ez dakit, baina Danteren eskutik leztxe, italiar mintzairan agertu jatan. Eragozpen bat gehiago, baina aurrera. Hiztegia erosi eta bera ez beste gidari gabe bertso zerrenda kale luzean abiatu eta inpernu mortu latzetan sartu nintxatzun. Behin sartuez gero, ezin urten, liburuaren egileari berari jaso, jasoten jatan antza neuri ere. Leze ateko pistiak eragozten ninduela aterako bidea. Irakurketa bera bide malkartsua jatan hizkuntzaren ezjakinak maiz tupusterazoten nindula. Eta ni Beatriz, neure pertsonaia, nondik agertuko, nik neurez, neure pertsonaiari argirik emon ezinik.

14
Neure irakurketen mamuak nindaukeela oraindino hitzartzen nintzan maiz kafetegiko lan goiztarrean. "Nork egotsi nau ni gizarte grinatu eta narras honen mostradorera, neure gurasoen ikuskizun gozo eta maitakorretik urrun eta gaztetado adizkideen lagunarte alaitik at?"— negar egiten neuntsun barrutik. Ardi deslaitu aske-nahien edo bizitzako komedian nabarmendu puzminen ordea jasaten neban ezbaigabe. Edo pekatu larriagoen basapiztiak inpernura behartzen ninduen katamotz, leoi otsoek. Nork jaso eban bestela nire eta maite nebazanen arteko muga debekatua?

Nere errefuxiatu kartan neure desterruaren kondena irakurten ikasi neuntsun eta arpegi askotan beste hainbeste kondenaduren markak ikusten hasi nintxatzun. Eurak ziran, nire mostradorera etozen izendun edo ezizendun mutilek. Azalez alkar errespetatzen eben eta ninduenarren, ez eben alkar maite eta ez ninduen maitatzen ez euskeraz egienek ez eta frantzes edo espainolez berbetan

ebenek, kondenatuek ez direlako, hain zuzen ere, alkar maitatzen. Ez zenkian? Hagaitik eta ni neska gaztea nintzalako, edaki edo kafe bateren bila baino hareago etortzuzan maitasun grinaz. "Maitasuna neuri?" —ninon neure artean—. Ez ete dakizue neu ere kondenatua nagola eta ez dela posible?...” Eta hala zan. Soinean gose-egarririk edo beste zigorren minik sentidu ezarren, kondenatuen gogozko minaren partekide ninduzun. Horixe baido inpernuko oinazerik handiena: zuk maite dozuzenengandik urrun eta gorroto dozuzenengandik hur bizi beharra. Eta halatan alkarri hitz erdi esan orduko "zuk frantsez? Ba ni espainolez erantzungo" —nik neure artean—, Zuek euskeraz? Ba... nik ez dautsuet neure euskalkitik zuenari berbarik ere parkatuko.” Eta lokarriak mozteko artezi gitxi basedun, "che la diritta via era smarrita" edo halako Danteren beste bertso mordoaz erasoten neuntson. Uste dok halakoetan nere begiak distira berezia jaurtitzen ebela. Ea Beatriz Italiako lorea barik, euskaldun alaba errefuxiatu-hatzerriratu-kondenatua anti-eroesa nintzela konturaten ziren. Lilurak eta grinak hantxe topo egiten eutsuen, baina zaputzaren eta erneguaeren berotasunez. Bati baino gehiagori esanda daukatsat "ez bide-erratu, txotxo. Zerurako bidea zein den banenki, esango neunkik."

Besteen zerutik aldentzen ninduen mugea igaroteko aske bide-rik egon behar eutsun halan eta guzti. Inpernu atetako itxaropen debekua hilentzat behar eban, ez bizientzat. Eta ni, neure amorruan ere, bizirik sentitzen nintzan. Baina nork aterako nindun ni harako bigarren edo hirugarren lezetik edo deabruaren abogaduen sareetatik?

Koldo agertu jatan orduan. Bera ere, beste mutilen eskaritan etortzun eta ez eustan balio izan beragaz harako "zuk euskeraz?..." Babeleko trikimailuak. Hitz eta aditz bardineko berbak ebaiten genduzan ta doinu bereko hizkuntza sortu zan bion artean "zu nor zara eta zer egiten dozu" alkarri itauntzeraino. Zoriak edo zeruak neu inpernutik ateratera bialtzen eustan angerua zela uste izan neuntsun. Ez neuntson begirik kendu, gorroto isladak amatauko nebazan. Ez dakit zer esan neuntson ere. Bihozkaidea izan eiteken edo erratua. Estrepozu bat gehiago leize malkartsuan. "Errefuxia-

tua nazenarren, ni ez nozu kondenatua, ez dot izan gura. Ez nozu beraz heriotzera kondenatua doan gudari bat burruka honetan — esango neuntsun.— Ni kasetari nozu gudako muga berootan eta heriotzaren sarraskien barri emotearren, Wiet-Namgo jungletan bakarrik sartu den guda erreportaria bezala. Bizirik urten behar dot frente honetatik, neugaz batera galdu ez daiten kondenatuen alauria eta inpernuko erreportaria itzalgarría...”

Irrialakoz begiratzen eustan Koldok, gaueko ordu galduetako irakurketen lurrinak bainengon. Neure Canona eta Kazetaritzako Estudiante Karneta erakutsi behar izan neuntsozan.

“—Ez ete daustak sinisten?... Wiet-Namgo erreportariarena sinisten ezpadok, hator neugaz kondenatuen Zortzigarren Lezera (Danteren inpernua alkarren gainean gero eta sakonago dagozan hamar leizek osatzen dauela jakin behar dozu) eta etxekalteak eta anaien eraileek daroezan oinaze ikaragarriak erakutsiko dauazat. Euretariako bakoitzaren oinazeak berez ere ezin-eroanak badozak, ikustea baino ez dok oraindino Zortziagarren Lezekoak Bedera-tzigarren Lezekoekin uneoro prestatzen joezan burrukak. Hemen ez dok “otsoak otsoari laztan” lurtarren artean lez, “kondenatuak kondenatua gorroto” baino. Ala ez dok ikusi edo dagoeneko ez al deuk zipristindu gure kaleetan ixurrazoten den anaiarteko odolak? Ez ete dozak entzuten gorrotozko birauak edonun? Ba inpernu lezeen arteko burruka dok...”

Inpernuko labearen berotasunak eraginda, lez, bero egin neuntsan berba Koldori, labetik berak aterako nindulakoan, bizi neban komediako papera burutzen berak lagundu eta inpernu ateetako pizti amorratuei matrailezurak berak hautsiko eutsezalakotan.

Atzera ta aurrera pauso erratuak emon genduzan Koldok eta biok. Berak errespetatu egiten nindun, nire liburu edo burutapene-tako inpernua ulertu ezarren. Maite ninduela aitortzen eustan. Nire inpernua etxemina edo etxekeoengandiko urruntasuna izatekotan, laster amaituko zela, epe laburrean etorran amnistia orokorrak askatasunera gindaroazala-ta. Orduan mugak atzindu eta espetxe-ko kateak apurtuko zirela, beste liburu batetan idatzita dagoanez, eta askatasun zelaira eroango ginduezela eta orduan askatzaileen

ereinotzakaz koroatuak izango gintzazala eta ez askatasun mese-dea egin jaken gaizkile errukarriak bezala... Artean ekin eta jarrai egin behar gendula itxumustuan eta argitan, etorteko zen askata-sun egunaren itxaropenean. Hanartean maitasuna bizi edo eta umeak hazi edo maite lokarriak legeztatu? Pentsau ere ez egiteko... Berak eguneko bizitza maite ez bai-leitsun edo benetako aukera-rako konfiantzarik edo bere buruaz eritsi onik ez baileutsun... Bizi izateko eta umeak hazteko, mundu barriari itxaron behar baigeun-tson.

“—Hori dok, hori, bizitza maite eta ipuinetan ez sinestea?”— arpegira botaten neuntsozan halako kontraesanak.

“Ipuinak” nire irakurketetakoez inotsun berak, nik geroke bere amesak zirela-ta.

Bakarti, gogo bakarti nenkusan joan aurreko egunetan, eta ez uste, hil eban arriskuagaitik-edo izan zenik... Bera erakarten ahalegindu nintxatzunaz eta... Erakarri, baina nora? Neu ere bide erratu eta itxumustuan nenbilela?

Orduan ez, baina geroago bai, behin baino sarriagotan egin izan dautsut harako “herbeste honen ondoren erakutsi eiguzu Jesus, zure sabeleko seme onetsi hori...” errefuxiatuen otoitza deritsot, errefuxitu hil direnena batez ere.

Lur honetan bere gidari izatea ezin asmatu izan nebanez, argi egin gurako neuntson beste munduko pauso ilunetan. Bere hiletan lagunek opa izan eutsoezan bertsoak asko gustau izan jatazan, batez ere harakoa:

“Izarretan jadanik
zure gogoa,
gure gogotan ahalegin
zure asmoa.”

Hementxe gordeta daukat egunkari txatala. “Zure lagunek” firmatzen daue. Eta ironia finena badirudi ere, zoragarria da. Ez

dakit zetariko lagunek opa izango eutsoen eta lotsarazo ere egiten nindun neu, bere bizitzako lagunena izanik, halako bertsorik eskeintzeko izan ez nintzalako...

Inoiz bai aitatu genduzala alkarren artean liburuko izar, planeta eta zeruko beste esferak. Dantek oso poetikoki deskribatzen dautsu zori ondunen mundua, geroko bizitza, hain zuzen ere Koldok "ipuina" deitzen eutson bizitza. Geroa ipuinetan eukatsun, oraina bizitzat eta errefuxiatu konplexua daukanak bestelaz ikusten dautsu, Fidel. Zuk zelan ikusten dozu?... Jakina neuk ere bestelaz ikusi gura neunkela, baina zergaitik dinotsu "herbeste honen ondoren..." otoitzak edo "izarretan jadanik zure gogoa" hiletako eskelak?... Nork jakin, beraz, honez gero, azkenik gu oraindino bizi dogun inpernutik at eta Purgatorioko menditik zehar, zorientzuen esferen batetan atanda hartu dauskun berak...

Hileta eskelako bertsoak kantatzen ere inoiz ahalegindu naia-tzu, baina hileta jotzen dautsut ahalegintzen nazen bakoitzean eta "non dago —itauntzen neure buruari— halako hitz politiei emote-ko den arnasea?"... Zera esan gura dautsut: gu garen ahulaz, zelan egiztatu daikegun bizitza, ez dinotsut goiko esferetan bakarrik, ez eta hementxe bertan ere...

Bere aburuz ezpada, Dante poetak, Beatrizen mesedez lortu ei eutsun bizitzan, bizitzako heltzaroan, inpernua ikustatzea, bere okerren zentzabiderako hatan ere. Artean nahiko bidegaldu ibilia ei zendun bera ere. Baina guri, noren mesedez edo noren mesederako tokatu jaku inpernu hau eta ez bizitzako heltzaroan, bizitzan sartu orduko baino?

Koldoren heriotzeak egiztatu daust bizi dogun inpernua, artean teoria eta konplexua bakarrik nebana, Koldo beraren eritsiz, "ipuina" zena. Zeuk esango daustazu, Fidel, zein den ipuina eta zein bizitza. Nik ipuinak itzi eta bizitzara urten nahi neunke hainbat arinen, nahiz eta jakin dakidan, inpernuraz gero, bisitariek ere ez dauela, gidari zuhur eta angeru zaindari barik, handik urteterik.

Koldok huts egin eustan bideotan, birritan egin ere. Behin bizitzan edo hobeto esan, heriotz aurrean eta beste behin herio-

tzean. Ausaz indarrean edo ausardian neuntsun ustea eta ez dau-tsue balio norbere amarruak. Angeruarena, hegoa eta inozentzia dozuz, otoitza eta eskubidea lez. Otoitza zilegi jaku, baina eskubi-dea nondik, Fidel? Zoriak edo zeruak nire inpernura hurbilduazo zaitunez gero, itzi eistazu zeure angeruari dei egin daiodan..."

"NIRE ANGERUARI? NON DAN BANENKI... ORAIN arteko nire pausuak horren aldrebesak izan ezpalitzaz, sinistu neinken bere hegoetan. Ez nindun nagoen trokan sartzen itziko. Ez dakit dagoneko, zuk dinozun lezeko azken bazterra jo dodanetz, edo joteko zer falta jatan, baina susmo okerrak nagotzu angeruak barik Morterok deitu nindun harakotik. "Garri, presta hadi"—esan eustan... Jakina, angerua izan balitz, "Fidel" deituko eustana, zeuk deitzen daustazun lez, eta zerurako errekaioa izango zana eta ez inpernurakoa. "Presta hadi, mozorroa dantzatu behar diagu-eta"—esan eustan eta gero eztalakoan gehitzeko.—Ekarritzak kalera-ko aldagarriak. Ba dakik... oinetakoak eta..."

Niretzat, egia esan, mendirakoak izaten zenduzan askatasun egunak, eta "kalerako zera" horrek atximurka egin eustan.

"—Ze dantza modu joagu, ba?" —itaundu neuntsan bertan.

"—Gero esango diat" —berak.

Gure mozorro dantzaketak mendian izaten ziran. "Mozorroa dantzatu" esaten geuntson harako txorimaloa dantzatzeari edo antzeko arma ariketei. Basamortu-mortuenak aukeratzen genduzan hatarako. Armak zuloren baten jaso eta ez egon gure lorratzak jarraitzekorik mendian zehar. Hala eta guzti, mozorrotu egiten genduzan buruak teleobjeto bihurriren batek-edo beroenean antzemon ez gindeizan. Itxura baten mozorroek mozorroen kontrako burruka zendun, ume gaiztoen olgeta inozentea kontuizu.

Jantzi aldagarriez itaundu neuntsan gero Morterori.

"—Bueno, badaezpadan esan diat... Baina menditar janzkitan ere berdin egin genezakek, bidean itxura zeharo galtzen ez badiagu behintzat. Ba, esan diadanez..., kalean duk oraingoan..."



"—Oraingo zek?" —nik arduraz.

"—Ba, mozorro dantza" —berak.

"—Ez haz ihauteriez ariko? —esan neuntson, ihauterien astean sartzan gintzazan, izan.— Piura ona egingo gendukek halako mozorro eta guzti."

"—Eta arma luzeekin. Ez al duk?" — Barre egin eustan zoroko Morterok.

Barre haren ostean estrategiako zehaztasunen bat eskutatzen eustan Morteok. Bera zendun orduan hirukotearen erantzule eta, seguridadearren-edo, beti egoken azkenean programa aldaketaren bat, ordua zala edo bideak zirela. Lauretan urten behar gendula? Ba lauterdietan edo bostetan urten. Ezkerrerantz eta mendi haretako jo behar gendula? Ba eskuma edo zeharbidetik eta beste mendi batetara jo. Alperrik izaten zan Don Aldrebesi galderak egitea, zeuk haren erantzunetatik aldrebesko ondorena bilatu-edo gura ez basedun behenipehin.

"—Ez hadi larritu, txo, kaleko mozorro dantza dantzaten ez badakik —Zorbaldan jo nindun Morterok.— Neuri zegokidak mozorroa ta musika aukeratzea, hiri eskutariarena, zaldunaren gibela zaintzea. Entzun al duk?"

"Hobe baino ez" ninon neure artean. Nilako baserritar bateri ez jako izan atsegin kaleko dantzea. Zeuk guraezik oinen bat zapaldu dautsezula-ta, estrepozua ipini eta ahozpez eratziko zaitue. Mortero bera, egia esan, ez dakitsut baserritar ala kaletar danik, ez eta batu jakun beste hirugarrena.

"—Iluntzean muga igaroko diagu —esan euskun Morterok eta mapa kopia bana zuzendu.— Hor dakusue dantza tokia eta bideko zenbait zehaztasun. Hemen gauden puntu hanetatik fletxei jarraiki aurrezkua eta atzekua. Azeri zaharra, oiloa harrapatu ondoren, ez omen da joan den bidetik itzultzen. Azeri zaharrarena egingo diagu. Ohar superbibentziarako lezioak eta kaskoan gorde mapako zehaztasunak, paperok laister erre egingo bai-dizkiagu."

Mendiak, aranak, errekak, bideak, herrien mugak eta probintzien seinaleak lehendik be ondo ikasita geunkazan. Artean gure oinek ibiliko mugetatik harantz joazela Morteron fletxak. Haranzkoa kalean amaitzen zan, hantxe egon gurutzea, hantxe zan nonbait dantzea. Han hasten honanzkoa.

“—Haruzkoa ahalik zehatzen egingo diagu, honuzkoa ikusi egin behar... —Sudurrak astindu ebazan Morterok—, bakoitzaren senean egongo da. Mendarteko dantzaldia batez ere bakoitzarena izango da. Hagatik aukeratu zaituet...”

Ezbaigabe mugea igarotera ginoazen, baina zer esan gurako ete eban maisuak “haruzkoa bai... honuzkoa ikusi egin behar...” sudur astinketaz edo Azeri zaharraren oilo harrapatzeaz? Geure askatasunerako aukera bat emon gurarik ete ebilkun edo gure zintzotasuna probatu gurarik? Kaleko ihauterietan marro jantzi eta bakoitzak bere bideak hartu al izateko aukerea emoten ete etorkun?

Nire zintzotasuna ez baitan jarteko arrazoirik ausaz ba euka-tsuen. Ondo ekitsuen azkeneraino abogaduari esan neuntsona: paperak konpondu egiazaneko, itzuli egingo nintzana. Hanartean ez nenkitsun paperon barririk edo amnistiari itxaron beharko ete neuntsan.

Mortero hitzerdika azaltzen euskunez, nik neuretik beste erdiez osatzen ahalegindu nintzan. “Kaleko jantziek be hori esan gurako deuek, hik ihesien legeak eta basatiar itxura itzi eta kaletar zibilizatuen reinsertzinoa-edo janzen dokala.” Baina duda bat bihotzondoan. Zer egingo artean Morterok? Bertanbehera lagako ginduzan ala atzetik jarraituko? Azeri kumeok ba ete gintzazan ehiztari zaharra bide-erratzeko? Nahiko izango ete gendun fletxen zuzenbidea aldatzeaz? Edo eta beste era batera esanda: Mapako seinaleak agindu zehatzak ala aholku hutsak zenduzan?... Ez, mapen erreketak dantzaketa orokorraren sekretutasunerako zendun.


Beribila itzi eta mendi bidea hartu genduneko, iluntzea zan. Baso trinkoak egunez be nahiko sorginduak dirala, sorgindu eta bi zenduzan izarratu edo iretargiaz. Baina, tira, basoko mamuei

aurre egiten ohituak gengoan artean, oinak lurrari tinkatu eta begi-belarriak barriz zuhaitz adarretako argi itzalen jokuetara eginak eta zeure oinotsak haizearen abarrotsetatik bereizten edo zeure arnasosnak ontzen purrustadetatik. Bardin sasi erpa luzeen kakoak zeure irudimenetako erasoetatik.

Ibili eta ibili gorakadan izarren keinuak gero eta hurrago genduzala, urrunago gizakien argiak, lurarren babesaren ordeztatik goitik baigendun gidaritza, edo egunez ezin eta gauez hegaz egin gurea-edo... Mendiak ez zaitu traizionatzen, zeuk mendia ondo ezagutuz gero, abere senak gidatzen zaitu. Beste gauzarik da artean zuk gizakiek eginiko mugea edo alambre arantzatsuko hesia topatzea edo zuk urteerako atea eragosten harako esan dozuzan piztiak topatzea. Han ez gendun gendarme edo “txakurren” arriskua baino besterik, baina ez geuntsen bildurrik, eurak baino lagunagoa gendun-eta mendia...”

“IKUSTEN DOZU HORRELA ZEIN POSIBLE DEN INPERNUKO PIZTIEI IHES EGITEA, ZUK MENDI SENA EUKI ETA GAUEKO ARGIEK MISTERIOA ULERBIDE JAKINEZ GERO? HORREEK DOZUZ BA, NIK ESANEKO INOZENTZIAREN BEGIAK ETA ANGERUA IZATEA, EDO ZEUK AITATU DOZUZAN “HEGOAK”. LAGUNTZA HORI BARIK EZ DAGO INPERNU LEZETIK URTETERIK. DEABRU ZAKARREN KONDENATUTZAT JOTEN ZAITUELA? ZEURE ANGERUARI BEGIRATU ETA AUERRERA! ZER DAGIKE DEABRUAK ANGERUAREN AURKA? EZ DIRA GUREAK LEZECO ILUNPEAK. ITZI INPERNUKO TROKAK ETA GOAZEN PURGATORIOKO MENDIAN GORA, ZEUK DINOZUN LEZ, IZARRAK GERO ETA HURRAGOTIK ARGI EGITEN DAUSKUELA. ITXI DAIGUZAN ALDREBESKERIAK. EZ DOZU ESAN ZEUK DON ALDREBES? HARA BA, NI “DIVINA COMEDIA” OSOAN BEATRIZ IZAN BEHARREAN, PAPERAK GALDUTA, DOÑA ALDREBES BIHURTUA. TOKI ONEAN KONTURATU NINDUZUN BEATRIZI EZ EGOKIOLA INPERNURA JAISTEA. BEATRIZI, EZELAKO IGUIN ETA ARRISKU GABE, ZORIONTSUEN ERATARA, BERE MAITALE ETA POETA ZENTZARAZO ETA GOITIK GIDATZEA EGOKION. NI OSTERA ITXUMUSTUAN INPERNUAN BERTAN SARTU NOZU, BERTATIK NEURE BURUA ATERATEKO ERE EZ NAZELA.

Ez egotzun niretzako ez angerurik, ez benetako maitalerik ez eta abogadurik. Gurasoek izendatu eusteenak ez ei eukatsun



legebiderik errefuxiatuen artean. Espezializatua behar ei neutsun. Zertan espezializatua baina? Harrezkero inpernuko hesia igaro nebanez, deabruaren abogadua izendatu eusteen. Salbabidea hur zendulakotan, izu pelikuletan lez, atzean atea izten jatzuzan...

Zuri, Fidel, izena kendu utsuen, baina ez angerua. Niri izena laga eta paperak trukatu, angerua kendu. Ez deritxazu horrela? Hara nondik eta hara non aurkitzen diren batabestearen beharra daukeenek!

Nik neure burua eta neure bizia bilatzen neuntsuzan eta biak galdu dautsudaz liburuan idatzita dagoanez. Komedigileek itxura eskeintzen eusteen ordetan Udako Euskal Unibertsitate haretan lez. Han, Kazetariko Seminariorik ezean, Antzerkiko Seminarioa joan nintxatzun. Mozorroak zelan egiten ziren erakutsi eusteen, hau da mozorrogintza. Neska edo mutil arpegia egiteko, benetako neska edo mutila ahozgora etzan edo jesarri egiten zendun. Mozorrogileek orduan aukeratuko arpegia sorginarena lez dana ukenduz igortzen utsuen, gero igeltsu uretan bustiriko gaza txalatak ezarten utsuezan bekokitik okotzeraino: betondo, sudur inguru, surtziloak izan ezik, eta matrailen piura ondo antzetzua geratzen zelarik. Arpegia galduala, mozorroa sortzen zendun. Hiru minutotan, karea gogortuala, mozorroa egina egotzun. Ahoa barrerako edo negarrerako behar beste idegi eta begiak zulatzea baino ez zendun, zeuk euren ostetik begiratu eta negar edo barre egin ahal izateko.

Nik artean, kazetaritza senari jarraituz, erreportajerako fotoak egiten nihardun eta harako estudiantearen ziria behingoan, ea ni ze komediatako "Beatriz" ete nintzen adar joka. Ez ete zan bera ere Historia Seminarioan egon behar ebana? Bada Historiako Seminariorik ba egotzun. Bera erratu zendun alorraz eta ez ni. Kazetari ofizioak edo zereginak niri hatarako eskubidea emoten eustan eta ez berari. Neuk salatu neinketsun bera eta non bera aurreratzen jatan. Izan ere kontzientzi txarrak izaten dozuz besteen salatzaile, barruko sornea inoren kontra astindu behar... Eta hanartean nire angerua lotan, mozorroa egiteko bere arpegia aukeratu izan bai-leuen eta oraintxe arte..."

“ETA NIRE MUGA BERRIRAGOTEA ASKATASUNERA-ko izan zala uste dozu? Kontauko dautsut neure zoritxarra. Mugea beheko autzatik barik goragotik igaro gendun mugazainei kuku egitearren, baina arriskua geugan generoan, ez egotzun pozoia “txakurren” ortzetan bakarrik. Esan be egin dautsut geu be basapiztien senaz genbiltzuzala, eta basoa itziarren, basapiztia basati...

Mendi kutsuak apur bat astindu eta mendigoizale baketsuen ganoraz hurbildu gintxatzuzan mugaz haranzko beheko kaminora. Morterok autostop egin eutson aukera izan eban lehenengo beribilari.

“—Nora zoazte?” —itaundu euskun gelditu jakun mutil gazteak.

“—Berara” —erantzun eutson Morterok.

Mutilak berebiletik urten eta maleteroa idegi euskun, motxilak han sartu gengizan. Ateak idegi euskuzan eta barruan sartu gintzazan, Mortero bera aurradan, beste biok atzean.

“—Mendian ibiltzeko giro ona, ez al da?” —Mutila haserako gure toteldurak apurtzen ahalegindu zan.

“—Bai oso ona” —lehor samar erantzun eutson Morterok.

Berba egin eutsoneko Mortero txoferra pipeaz apuntatzen egotzun. Otsikarak hartu nindun mutila konturatu baino lehen.

“—Nondik zatoze?” — itaundu euskun oraindino bere inozentzian.

“—Menditik gatoz, mendira goaz, baina astiroago mesedez. —Pipea sudur parean ipini eutson Morterok.— Hor eskuman dakusaaan bidetik, mesedez.”

“—Etzenduen esan ba Berara?” —Beribila galgatu eban mutilak.

“—Berara esan dugula? —Samea okertu eban Morterok.— A, bai, Berara, baina hi gabe, to, joango gaituk oraingoan. Hik hemen itxarongo diguk.”

Beribila basabidetik sartu zan eta ni Don Aldrebesen bihurrikeria zertara joaken ezin asmaturik, “eskergea heu, ongilea mozorrotzat hartzeko” ninon neure artean.

“—Baina zer egin behar didazute?” — Larritu zan mutila basoan sartu gintzazanean.

“—Ezer ere ez; ez hiri eta ez hire kotxeari, esana egiten baduk” — agintzen eutson Morterok, pipea betondotik asko urrundu barik.

Pinudi erdira heldu gintzazanean gelditzeko agindu eutson, gero kotxetik urteteko.

“—Atera iezadak hor motxilan dagon lokarria” — agindu eutson Morterok.

Urduriaren urduriaz hebilak askatzea ere kosta egiten jatan. “—Lasai, txo, oraingoan ez zekarguk bonbarik-eta” — irritsu Morterok nere ostetik.

Lokarria zuzendu neuntsoneko, aurreko pinua adierazi eustan.

“—Hortxe” —esan eban Morterok pipeaz apuntaka.

Karretean bildu plastikozko haria zendun. Pentsau be ez neuntsun egingo haren hariaren fina gizona pinuari lotzeko eitekenik eta gitxiago neuk lotu behar nebanik. Eta Morteroren aginduak agindu zirena banenkizanez, mutila pinuari lotzen hasi nintxatzun. Pauso ederra ez da, norebere askatasuna estrainau egunean beste gizon bat kateatzea? Baina burutazinoa oraingoa dozu. Orduan ahalik onenean urtetea baino ez neuretze eta lotzen niharduana-rentzat, bada “ez zaio ezer txarrik jazoko, esana eginez gero” agindua neunkan gogotan. Ez nenekitsun noraino eroan nindaiken D. Adrebesen morroi izateak.

“—Ordurako olara ailegatzen ez banaiz, nire galdezka ariko dira lankideek” —ohar egin euskun atxilotuak.

“—Bentaja bat hiretzat, to — esan eutsan Morterok arma baltza gordeten ebal.— Bidean utzi dizkiagun kurpil arrastoeekin

azkarrago bilatuko haue eta guk ez diagu zertan beste ardurarik izan.”

Nik buelta gehiago oraindino pinuaren eta atxilotuaren inguru harik eta karretea amaitu zaino. Zenbat traba zoroki ez neuntson ipinten neure askatasunari!...

“— Deitu ezazue, mesedez telefono numero hontara — Numero bat esaten euskun larri atxilotuak.— Apunta ezazue mesedez.”

Morteroek ezentzuna egiten eutson eta ni buruz hartzen ahale-gintzen nintzan.

“— Mesedez, nire emaztea haurdun dago-eta” — inoan antzika mutilak.

Morteroek kotxean sartuazo ginduzan hanartean eta eskua jasorik baiezko itxaropena emoten neuntson neuk atxilotuari, abisatu-ko geuntsola.

Oraindino ez dautsut ahaztu harako numeroa eta zorrak kitu arte kontzientziak emon ohi dauen atximurkadea emoten daust, gogoratzen dodan bakoitzean. Ez neban deitu numerora.

Gure hirugarren lagunak txofertzan ekitson eta ni bakarrik eta murriz ninoan atzean.

“— Ze uste zenuen ba, moteilak, gurutzebide osoa oinez egin behar genuela? — Atzera begiratu eustan Morteroek.— Itzulerako ere mardo pixka bat aurreratuko diagu. Ez al deritzaizue?”

Kilometroak arin joazen, orain herritxo bat eta gero beste bat, laster heldu gintzazan gurutzeaz markatuta egoan kalera.

“— Hementxe da —esan eban Morteroek.

Kaleak euskal izena eukala ohartu neban eta ihauterietarako ez neban mozorro festarik nabari kalean.

“— Hik hemen itxarongo duk, Garrik eta biok errekadoa egin artean agindu eutson Morteroek txoferrari.— Gertu egon hadi berehala etorriko gaituk-eta.”

“— Tok eskutariaren arma —esan eta beste pipa bat luzatu eustan Morteroek.— Kontuz ibili hadi, kargata zegok-eta.”

Anorakeko boltzikoan sartu neban pistolea. Nere askatasun lagun ala askatasun lapur? Kalea barriro zapaldu nebaneko, hanka pehetan betiko txakur gorotzak itzuri beharreko iguinak emon eustan. Adore bila-edo, Morteroi begiratu neuntson. Morteroek ortzak estutu ahaleko ihauteri barrea eroan ahotan. Ze estrategia ete eroan oraingoan haren mozorroak?

“— Ez al zaik gustatzen edan toki hau —esan eustan kafe-bare baten aurrean gelditzen zala.

Erdal izena eukan kafetxeak.

“— Zer hartuko duk?” —esan eustan barrura sartzean.

“— Zerbeza bat?” —erantzun nik.

“— Astundu egingo hau geroko dantzarako, baina tirok...”

Hainbat jende egotzun barean, batzuk mahaicari jesarrita, besteak mostradorean. Mostradorearen beste hegala aukeratu gendun. Edatekoa eskatu barmanari. Mutil gazte eta zurbila zendun edo halatan begitandu jatan mostradoreko argiagaitik edo soingainekotzat eroan brusa zuriagaitik.

Neure basoa hartu eta, eskutariari egokonez, Morteroi gibela emonik ahargabetu antzean jendeari begira edaten neban. Basoa erditu orduko, Mortero barmanari “Txori” deitzen entzun neban eta handik unetxo bat geroago tiro garratz bat neure ostean. Uste dot basoa eskuetatik jausi egin jatala. Jendeak geure aldera begiratzen eban.

“— Goazemak!” —inostan Morteroek zapotzetik oratzen nindula eta neure ostetik jendea pistoleaz zemaizen ebala atze-atzezka aterantz nindaroan neure soina babesgarri harturik.

Batzuk mostradorera begira jarraitzen eban. Ez neban gehiago barmanaren zurtasuna han ikusten. Ai ene! Orduantxe konturatu ninduzun mozorro dantzako egiaz. Mozorro gabe egin eustun

gainera Morterok, asmo bihurriak bitimeari azkeneraino hobeto eskutatzearren.

Jendea bareko atera orduko gu beribilean ihes ginoazen. “Jo kale gurutzera” Morterok oraindino txofer laguna gidatzeko odola eukatsun. Bere mozzorro irriaz eta agirika baten begiratu eustan.

“—Eta hik zertarako huan pipa hori boltzikoan atera edo zerbait egin gabe?... Nahiko huan erakustea! —Ni zurtu nengon zer jazo zan itauntzeko be ez nintzala eta Mortero haginak erakusten. —Bai, txo, erakutsiaz bakarrik atzera egiten ditek... Ez al dukala mogimendu susmogarririk ikusi?”

Horixe esango neuntson nik, ez nebala ostetik ezelako susmogarririk-edo ikusi. Ez uste, Beatriz, ni basoa hartuta etorteko zana disimulatzearren edo krimenaren gordina ez ikustearren atzera adi jarri nintzala. Nirea bere ostea zaintzea zendun, baina ez berak aurretik egikezan barrabaskeriak. Berak neure ostea beste hainbestean zaindu izan baeban, ez eutsun horrela nire askatasuna kakaztuko mugea igaro gendun harakoan.

Sirenen hotsa belarrietan gendularik, berebila uri bazterrean itzi eta, Morteroren aginduz, geure seguridaderako banandu egin gintzazan. Ni hegoak moztu-barri eta kaiolako atea idegi dakusan txoria ninduzun orduantxe. Nora ihes egin nengiken? Ze askatasun itxaron, “Txori” izena edo ezizena, uso zuria bularpe odoldutan lez, hil aginean ikusten neuntsula eta gorritan neure eskuak?”

6

“Hil ta gero salda bero.” (esakuna)

“BADAKIZUE POTIKOS HORI ZER ESATEN IBILI DAN tabernan? Ea zergaitik ez dautsogun ipini behar “Koldo” izena herriko plazeari. Horixe “Koldo Zugadiren plaza”. “Herriko plazeari deitu “Koldoren plaza”? Horixe be...” —barre egin dautsat—. Baina zergaitik herrikoa dan eta herrikoa beti izan dan plazeari aldatu izenik?”

Eta Potikosek orduan, ea herriagaitik berak, Koldok, baino gehiago nork egin dauen esaten hasi jaku. “Berak baino geahiago” hori ez baitan ipini dautsat nik. Ea eguneroko zortzi orduko lanean dihardugunok ez ete garen kontuan hartzekoak. Eta badakizue haren erantzuna? Guk geuretzako egiten dogula lan eta hareek osteria, Koldolakoak, herriaren alde. Eta osteria be ni bat ez nentorkonez eta aurka egiten neuntsonez, oraindino be neu limurtzearren, zera gehitu daust: “Txo, ba zeuena izan bazoan be bardin, nik “Fidel Garaitaren plaza” deituko neuntsoan.”

“—Ez joat gura neure edo geureen izen edo abizenik herriko plazaren gainean —garbi erantzun dautsat.— Herriaren alde badiabilzak, errespeta dagicela herriaren nortasuna eta plazeari orain arte daukan izena.”

Bestela ez litzakela herriaren alde ekitea, esan dautsat, herriari berea kentzea baino... Horixe mesedea egingo leuskiguena Potikosek-eta geure abizena plazeari ipintean!... Mesederik egin gura badauskue, bialdu daiskueta bizirik eta ez hilda (apur bategaitik ez dautsat esan, baina esatekotan egon naz gero...) Jakin daiela Beiti,

gure baserriak, geure izenean dagozan sailak lantzeko bizien laguntza behar dauela eta ez hilen ohorea.


Ez dago bestalde, Koldoren hileta dala-ta, horreek esan eta egin dauezenak esan eta egiteko eskubiderik. Ez noa orain aitatu be egiten Udalean egin dauezenak, bada hutsa dira kontuizu, eleizan eta kanposatuan egin dauezenen aldean. Lehenengo atauta ikurrinaz estaldu eta guardiaibilak euren bandereagaz egiten dauena bera egin eta abadeari bere esanak iruntziago. Don Feliperi neuk behin baino sarriagotan entzuna: Bakearren, eleizan eleizako seinu edo ikurrak bakarrik sartu leikezela eta ez plazako banderak edo ikurrinak. Egia esan, Autzikan ez dago lehen bandereari lez, orain ikurrinari iguinik-edo dautsonik eta bake santuan alde horretatik. Baina okerra osterakoa da, herriko seinua dan ikurrina alderdikeria eta bereizkeriarako erabiltea... Batsokian be erabilten dauela? Bai erabilten joen? Eta ez batsokian bakarrik. Gura dauen alderdi guztiek erabil daikien euren batzarre eta ekintzetan, baina ez osterako danon batzarrerako dan eleizan... Zein erabili behar donan eleizan? Ako bestea! Ez ete don ikasi dotrinan gurutzea donala kristinauen ezaugarria? Ba horixe don eleizako ikurrina be: gurutzea, eta ez gizakiek euren opininoak adierazteko koloreak.

Bueno, gurutzea edo gurutzatua ez jonan gitxi aitatu be egin hiletako abade laguntzaileak bere sermoian... Jakina, Don Felipe-ren estarria ez zenduen halako jendetzari entzunazoteko nahikoa eta euren gustoko abade languntzailea ekarri behar eleizkizunera. Zer esateko hatan be? Kristok iragarritako amnistia herriak orain bertan behar dauela adierazteko. Kristo bera be kateak apurtzera eta espetxeratuak askatzera etorri zanez, geuk be ebangelio berbera iragari behar dogula eleizan eta plazan... Ez ete zabize holako zeozer antolatzen hurrengo manifestazinorako?... Ez zera, ea gauzea horren ebangelikoki daroazuen jakitearren izan don. Eta zer gehiago? A, bai: gaurko gurutzatuak kontuan euki ezik, gaurko persegituak, errefuxiatuak... Samurtuko zintzazen ez al da?... Nora joan gura dodan? Ba neure Ebangelioa iragartera. Osaba abade edo anaia frailerik ez dodanez, neure hiletan ez neunkela gura Don Feliperena baino beste semoarik. Bereizketarik ez dodalako gura. Ez gendun ba lortu-barria hiletetako bardintasuna gure parrokan,

beste gauza askotan lez? Zer dala-ta beraz holako nabarmenkeriaz gurealako herritxo batera inon diren hizlari edo kapelauak ekarten hasi? Edo batzuk, "anaitasuna" aipatzen danean, "askatasuna" ohiukatu behar ete dautsue eta "askatasuna" aipatzen danean, "bardintasunera" behartzen?

Hileta azkeneko kantuan bardin. Nik nahiko dodala herriko sakristauaren abotsa eta jende arruntari abesten jakozan letrak eta ez azken modako bertsolariaren ziriak eleizako musikan... Ez hendula ezelako ziririk entzun? Ba nik Koldo Beitibiskoko martirien koruan eta herria maite dauen gazteen jarraibidetzat seinalatua susmatzen najonan, eta hain zuzen be, horixe esan neuntson Don Feliperi, berak burua mogidu eta halasoko begiak idegiten eustazala. Tabernea edo batzokia eleizan sartzea baino ez genduken eta ez zan asko gitxiago jazo euren "Eusko gudari gara" eta guzti. Bai hori azkenean izan zonan eta hasi eleizpean hasi joenan, baina eleizakoak eleizan luzaro jarraitu.

Tira, baino hori ezereza dozue gero kanposantuan jaso zanaren aldean. Zeozergaitik kapelau hori, Don Felipe sakristiara bialdu eta gero, gorpuari laguntzeko bera prestau zonan, Don Felipek ez leukelako han jazo zirenak ikusteko gibelik. Ikusi ezik ez dago sinisterik... Ez ba, neuk be Antonen gerizpean sartu ahal izan nendunan, bere ezagun eta auzoko lez. Ondo legoken bestela, euren harikoak ez gintzazala-ta, geuri, auzokoenei sarrera galazotea... Jakina han ez egotzuena danontzako tokirik, baina ez zenduen izan tokiagaitik sarreran euki eben kontrola, barruan zeozer antolatzen ebizelako kontrala zenduen harakoa... Konforme! Ba diakinagu hiletea ez zena autzikarrak bakarrik antolaturikoa, baina autzikar batena ezeze, geure auzokoenaren hiletea zonan. Autzikarrrak dozan beraz eta Autzikan zenaren familiakoak eta Autzikako abadea eleizkizunen erantzule. Ez neunkizue beheniphein geure familiako bat dalata... Bueno! Ez jonat nik aitatu. Potikos Agerreko berak aitatu jonan "Fidel Bustintzaren plaza" dalakoa. Eta ez neunkenan entzun gura "Fidel, herriak ez zaitu ahaztuko" ohiurik, edo eleizatik kanposanturaino "Herriek ez du barkatuko" letroririk ikusi nahi... Hilerria ez dala eleiza? Baina kanposantua don eta santutzat diaukanagu, gorroto ohiuez kakaztuteko. Edo heuk be ba



ERRAZKUA '90

ete dakin kanposantuan zer jaso zan? Anek esango euaan. Ez zonan makal portatu bera... Ba ezpadakin, etzuistan. Gainerakoetan jendea asko edo gitxi, kabitzen dala edo ez dala, gorpua kanposantuko kapilan ipinten don. Oraingoan ez. Jendea barruan ez zala kabitzen eta hilmahaia kapila aurrean egotzuen. Han ipini eutsuen atauta herriak inguratzen ebala. Kapelauak edo danadalakoak, kapa barik eta gurutze barik, atauta bedeinkatu ebaneko, "Eusko gudari gara" abesten hasi jatsuezan. Kabidu ezinik, kanpoan gelditu zintzazenok be eztzungo zenduen, baina ikusi ez zenduena zera da: "irrintzi bat entzunda" unera kantuan heldu gintzazaneko (bada neuk be abestu egiten neutsuen eta ez tokia hatarako ontzat emoten nebalako, inguruko gendearen berotasunak bultzatuta baino) une horretara heldu gintzazanean, begi itxi-idegi baten lez, hara non lau mutil baltzez mozorroturik eta armak eskuetan goradi, agertu eta atautaren lau alderdietan kokatzen diran. Harritu ez banintzan, zurtu nintzan. Neu eta beste asko, ez danak, Potikos esate baterako. Eta kantua saman korapilatzen jatala, beste batzuk lehen baino indartsuago abesten eutsuen. Mozorrotuak nortzu ziran? Batek badaki, aita. Herritarrak? Ezagunak?... Bai, mozo-rroagaitik dinotsut, aita. Armina jauna baitu ebenak be mozorrotu joazen harakoan, baina honakoan Armina baino gehiago izan gintzazan armen aurrean baituak... Ez uste, geure Fidelengan be pentsau ez nebanik. Eta azkeneko "goazen gudari danok ikurrin atzean" abesten zala, lau mozorrotuak atauta gaineko ikurrina jaso eta, agertu ziran lez, gendartean amen baten eskutau ziran "mátalos" eta holako ohiu gordinek jendarteko batzuk ukabilak jasoka esaten ebezela.

Han ikusi nebazan eguno susmatuko ez nebazanak ukabilak gora ainenak esaten. Albokoen bildurrez? Neuk ez behintzat, neuri eurelako askoren ondoan egotea tokatu jatanarren. Bueno eta Koldoren hiletean Beitibiskokoen lehen auzotar lez, guzti honen lekuko izan nozuenez, Beitikooi be ahalik eta zehatzen kontau gura izan dautsuet harakoan zer jazo zan eta halakoetan zelan jokatu behar dogun jakin daizuen... Bai, baina zuek, guzti bau jaso eta gero sartu zintzazen, beste jendeek tokia ustu ebenean. Zuek atauta barruan egoena ikustera joan zintzazen, Koldoren amak-eta

zelako zotinak egiten ebezan ikustera, ea hila arpeiz itxuratsu ala itxura-galdu egoen. Ezagutu izan al zenden? Nik ez neuntsuen dudarik eta hagatik ez nintxatzuen hila ikustearren gelditu. Nahiko eta lar izan neuntsuen mozorrotu hareen ikuskizunagaz.”

“BATZUKLUR-JOTA NORA EZEAN AURKITZEN DIRE-nean, seme ondatzaila lez, orduan inguratzen dozuz amarengana, Josefa. Ba dira, tarraka ezinean, inoren eskutik edo hilda atautean datozenak inutu eban lurak, amaren errukizko altsoan lez, onartu dagizan. Zer egingo jako ba, Josefa! Orduan ez dago ez alkartearen pozik, ez damuaren gozotasunik. Eleizamak negar egingo dautsu ostera be munduko pekatuak kentzen dauzan Jainko Bildotsa gurutzean opaldu eta otoitz egiten dauan artean. Edozelan be, Eleizamaren besoak gurutzearenak lez, zabalik dagotzuz, zabalik begiak eta bihotza bere seme-alaba aldenduak noiz itzuliko. Batzuk txarto eginaren damuaz diatortzuz, batzuk amari beste mozkinen bat nondik kenduko eta lehengo hiletako eleizkizunean lez, kalean alkar ikusi ezinik eta parlamentuan alkarri erasoka dabilzan jendea, beragandik aldendu izana damu baileuen, baina funtsean kalean daroen burruka eleizan jarraitzearren. Kristinau zintzoak balitzaz, Josefa, bestela egingo leukeen, eleizako Kristoren burrukea eroan kalera.

Hileta odoltsua zendunarren, Josefa, Kristoren gurutzak burutzen eta gozaten eta antzaldatzen dautsuz hileta guztiak, askok halan ulertzen ez badautsue be. Danok Kristori begiratu eta beragaz bat eginik “parkatu gure zorrak geuk gure zordunei parkatzen dautsegunez gero” erresatuko bagendu, oi zelako zerua litzaken, Josefa! Euretariako asko oster, burrukako sumnaz sorgortu, Eleizamaren negar anpoluez ohartzeko be ez dozuz, bakearen eta maitasunaren osakaia baino gurago baileuezen gorrotoaren lazurak eta zauriak.

Kristoren gurutzea! Horixe dozu, Josefa, herrien arteko eta anaien arteko asarrea baretzeko emon jakun bide bakarra. Kristok bakarrik apurtu ahal izan dau gorrotoaren katea, “parkatu egiezu”

gurutzean hiltzaileen alde erregutuz eta otoitzean “geure zordunei parkatzen dautsegunez” burubideko izaten erakutsiz.

Bat baino gehiago etorri jatazan, Josefa, hiletan egin eta esan ziren larregikeriak salatzen. Asmo ona ekartsuen, halan be ez dautsue sakoneraino ulertzen Eleizamaren bihotza. Seme-alaba onenak be sarritan seme ondartzailaren zeloak dagotzuz, parabolari lez. Ez zirela ondo portatu? Jainko herriaren batzarra eta Kristoren buruzagitza euren auzitegi bihurtu gura izan eutsuela? Nik zer egingo neuntsen aurretiz euren asmoen jakitun ez nengola? Ez zenduzan danak asmo bihurriaz etorriko. Sarritan ardi batzuren erratuak bultzatzen dautsu artalde guztia amilgadegira. Baina hanartean ezin geinke ukatu eurak be bateo ponte berean bateatu eta eta geu sagaratu ginduzan olioaz sendotuak izan zirena. Eurai be noizbait eleizako batzarrean eginiko promesak barriztea eta betetzea dagokie, bada behin eginak betiko baliagarri eta betebeharreko dozuz.

Oraingo drogaminuak diatordaz burutara, Josefa. Hasiera baten eztalakoan edo ezjakinean jausi jatuzan, eta gero haretariko bat osatzeko mirariark behar dozuz... Baina zer dala-ta, Josefa, jo ete eben bide okerrera? Zer egin geuntsen amaren etxetik urrundu eitezen? Zergaitik ezetsi eutsuen amaren begiramena, gero, inork gura ez dauzenez, ondakin errukarri, edo txarrago, hilotz itzultzekotan? Handia benetan, Josefa, giza-ukapenen misterioa! Handiagoa bakarrik Jainko Aitaren bihotz zabaltasuna. Gure zabarberia dan baino handiagoa ez balitz bere aintza eta ongurea, garbiezinak litzakezan benetan gure lotsariak.

Orain bada, Josefa, Kristoren odolaz garbituak izan garenok geure kontra-burruka egin behar dautsugu gaitzari Eleizamaren bihotzetik. Ez dautsugu Eleizama alperrik deitzen. Oraitxe bertan be zein uste dozu, Josefa, dala herria alkartzeko erakunderik beharrezkoena? Partidu politikoak? Zera! Herria batzeko baino banantzeko gehiago direla esan leike-ta... Eta zergaitik hatan be? Bakoitzak bere alderdiko eritsiak eta lehiak besteenen gainetik ipini gura leukezalako eta euren burua eta aburuak baino goragotik beste inorenik ezagutzen ez dauelako, topeka ekingo dautsue batak

bestearen burua hautsi arte. Alderdikideak herriaren serbitzari izan beharrez, euren mozkinen morroi eta jopu bihurtzen jatzuz, eleiztar eta kristaukide direla be askok ahaztu daroela. Ba jatortzuz halakoren baten eleizara eta ez seme eta ez serbitzari, eleizkizunetan atzamar bat edo ezpain erdi mobitzeko be ez dozuz. Hobe Jainko Hitzaren morroi balitzaz eta bere esaneko. Eleizatik kalera orduko konponduta edo erdi konponduta leukakezan euren arteko eztabaidak.

Eta eleizkizuna ez da teatroa. Eleizkizunean danok parte hartzen dogu. Han “aitortzen dot”, “damu dot”, “sinisten dot” bakoiztu egiten dau eginkizuna edo “eskatzen dautsugu”, “atera gagizuz gaitzetik” taldean ekiten dautsogu. Gure ahultasuna sendotu eta hutsune guztiak bete dagizanagaz dogu hartuemona eta zeure burua korupean uzkurto barik, gura dozun guztia esan zeinkio Berari, Jainko seme-alabatzakoak horretarako emoten dautsun eskubide eta askatasun osoagaz. Zu NOR zara eleizako batzarrean eta zeure nortasuna ezagutu eta haztera zatoz Kristoren adineko heltzeraino. Umekeriarren erantzukizuna itzuri gura izaten dogula edo taldearen ilunpetan eskutau geure koldarkeria, NIK neure orde berik, TALDEAK taldekeriaz erantzun daian, ZEU, alderdikideen batzarretan lez, talde ahalguztidunaren jopu egiten zarela, lentejen orde berari nortasuna saldurik. Ez da burutuko NI hori Jainko seme-alaben askatasun eta familia giroan, taldekeriak antzutu ezeze, jopu biurtuko dautsu-ta. Taldearen esloganak errepikatu edo handik zapuztuta urtetea baino ez dauka. Talde batzuk jainkotxo egiten jatzuz gero, biziaren eta heriotzaren jabe bailitzazan eta Jainko Zuzenaren epaia maiz aurreratzen dautsuela. Eleiza beti be bizitza gehitzera diatortzu eta Jainko Espirituak barrutik bultzatu eta argituala, eraiki egiten zaitu. Gizarteko erakundeek barriz, barne espirituak barik, norleriaren alkohol mugitzen dauzenez, aldomaldoa joatzuz zuzenetik baino harago. Euren frutuetatik ezagutuko dozuez, Kristok dinoskunez, Josefa. Bizia dakarrela? Alderdi onekoak ziur. Heriotza dakarrela? Parte txarrekoak. Herria alkartzeko zein da beraz, Josepa, oraintxe be, erakunderik behinena? Nondik etor daikio bakerako bidea? Alderdikeriak, gorrotoak, harrokeriaren puzminak ala guztiok anai eta herentzia-

ren partekide egin gaituenaren batzar buruak? Orain bada, Josefa, Jainkoaren lotsatik urrunduala lagunurkoaren anaitasunetik be urundu eginten gara eta gizartea Eleizatik aldentzen dan neurrian, gizarkiak alkarrengandik aldendu eta sakabanatu baino ez dira egiten. Politika alderdiak, bera bariko eta sarritan bere kontrako torre handia eraiki gura dautsue, baina Jaunak ahoko haizeaz banandu eta txikitu egiten dautsuz.

Izan be, zelan izan daiteke inor anaiarteko serbitzari aurretiz Jainko Hitzaren serbitzari izan ezik? Ba gaurdanik Jainkoaren esanekoago eta euren zirien belarriberotzaile nagiago izaten ikasibeharko leukeen...

Hain gordinki ez baina, haunexek esatera noatzun lehengo hiletean, baina Jainkoak hala nahita edo han batu zan jendea halakoak entzuteko sorgor egotzulako, ezina izan jatan, Josefa...”

“ANEN ERRUA IZAN DOZUE DANA ETA ZATI BATEN ondo merezita ordaindu dautsue berak be. Jesus, baina ta gauzak bere neurrian ez hartzeagaitik. Manifestapenaren aurradea arriskutsua zala Erramona Arriakoak esanda geunkan eta gu, ama-ta arrapalada handietarako ez egotzuezala-ta, manifestapenaren erdi inguruan babestuta ginoazen, deskuidoan be gauzak bere senetik urtetzen baziran, manifestapenerako baimenik be ez egola-ta. Guk zer genkian gauza on bat egiteko be baimena behar zanik?

Ane Beitibiskoko topau gendun orduan Tomasa ama besotik eroala. Berari jarraitzeko eta jarraitzeko esaten euskun, auzotiarroi manifestapenaren aurradea tokatzen jakula-ta. “Aurradea? Zer ba? —nik neure aurtean— Otxondo jaunaren ondoan joan gura ete dau beronek? Hauxe nebearen odola errentagarri biurtu gurea”.

Ez nenkizuen Ane Beitibiskoko kirolari famatuaren horren “intxa” zanik. Ez dakit zergatik egin dautsodan kasorik eta han goaz Beiti eta Beitibiskoko ama-alaba pare. Neuk be, egia esan, baneuntsuen Otxondoren emazteagaz topo egin guratxoa, bada harakotik ez gendun alkar ikusten. Lehenengo ea bera manifestapenera etorran jakin eta hurren agurren bat egin berari, etxeko

danok ez bada be, bere aholkuko errepresentasino polita genkarrela adieraztearren.

Kalearen estua eta gendetzaren trinkoagaitik ostaz lortzen gendun zintarririk be aurrera pauso egitea. Ikusi bazenduen Ane ukondoak batera eta bestera eta bide eske, "mesedez, Koldoren ama-eta gara-ta" eta esku bat geuri emoten, atzean gelditu ez geintezan. Halako lotsaririk! Josus! Nik ez nenkitsuen Ane Beitibiskoko horren amorratua zenduenik, ez eta Koldo bizi jakela ia manifestapenetara joaten hasia zenduenik. Bada bizi zalarik, etxetik bera bakarrik joaten bazenduen, orain ama eta biak joatzuez... Jo! Eta pentsaten egon nozue, "guk Beitikook behiniphehin ba daukagu halako manifestapenetara zertan joanik. Eta gure erdiak etxean gelditzen zareela, Beitibiskoko ama-alabak geureari laguntzearren joatzuez". Bai, eurenak lortu ezin izan ebenez gero, gure Fidelek behintzat lortu ahal daian... Bai, ez joat ukatu heuk be anaia mugazandik errefuxiatu daukaala eta amnistiaren beharrizanean gagozuala... Honetara ez eta zelan gura dok ba bestelan anaia etxera erakartea? Uste dok ama-ta biok geure gustora joan gozake-la manifestapenera eta manifestapenaren aurradaraino? Zera! Otxondo eta bere emaztea ikustearren... Horixe! Halako tipoen ondotik ibili garela gero esatearren. Esan be egitea! Ba ez, txotxo, jakin daikan. Han ez egoan ez Otxondo ez bere emazterik-eta, nik dakinadik.

Zurbitu gure abogadua bai ostera. "Tira, —pentsau neban neure artean-honexek bai emoten dauskula ejenplua eta ez esanaz bakarrik, edo, Otxandoren emazteak lez, besteak kalera bialduz, bera etxeko epelean gelditu. Bueno, bere arrazoiren bat eukiko utsuen. Izan be ume txikien ama batek nahiko eta sobra arrazoi daukatsue. Horixe ez dot ukatuko.

Ama ta biok hirugarren lerroan-edo ginoazen. Ane eta Tomasa geure aurretik. Aurradakoen artean gizon altu bat joan. Ostetik ikusten nebalako-edo ezin ezagutu, Ane sorbaldan ikutu eta badi-notsat "nor don antijudun horren ondoan doan gizonezko hori?"

Otxondo-edo ete zan jakin gura neuntsuen. Jeesus! Esan baneison, esan neuntson. Anek jaurti eustan begikunea eta baten baino gehiagok entzuteko moduan bota eustana:

"—Manifestapenetan ez don inortaz ezer itauntzen! Ala txibata izatea gurako ete henduken?..."

"—Zergaitik dinostan hori?"— nik aserre.

"—Bada, txitean pitean benetako txibatoak zehaztasun horreen bila etortzen dozan; manifestapenera nortzu datozen eta zer ohiukatzen dauen jakitearren eta gero..."

"—Bueno, bueno, nik ez nenkinan..."

Kalean beti ikasten dozue zeozer eta oraindino ikasi eta ikusi beharko, ene... Prozezinoan lez ibiliala, amnistiaren aldeko esloganak ohiukatzen geuntsuezan. Gure ama eta Tomasa enterau be ez ziran egiten, baina Anek eta nik samak urratzeraino "Amanistia orain bertan!", "Amnistia orain bertan" ohiukatzen gendun pausoko. Bai, ama, isilian bai ausaz edo ahopetik zeuenak esango zeneduezan, baina uste dozuz manifestapenak Jaungoikoak-edo entzun daizan direla ala? Jaungoikoak isilekoa be bardin entzuten dautsu, baina han zarata egin beharra dagotzu lurreko agintarien belarri gortuak be herriaren nahia entzun ahal dagien eta herriaren eskabidea behin edo behin betetzera mogidu ahal daitezen. Zuek gure zaratei laguntzeko bestetariko orazinoak erabili dozuezala, lehortetan euria-edo eskatzeko egiten ziren prozezinoetan lez? Sinisten dautsut neure partetik, Koordinadorekoek ostera, barre egoin-go leikizue.

Baina tira. Heun metro-edo ibiliko genduzan halantxe eta ohiuekin batera pausoen ritmoa aldatzen gendun. "Amnistia..." geure andana atzetik aurrera lehenengo, hurren "Presoak kalera!" aurretik atzera geurea azpiratzen eta "Txakurrak kalera" jarrarian, "Amnistia" ahaztuta. Nik lehenengo partea "Presoak kalera" bakarrik ohiukatzen neuntsuen, amnistiaren parte egokia lez. "Errefuxiatuak etxera" neure indar guztiakin hots egiten be ahalegindu nintxatzuen, baina ez eustan inork erantzuten. Dana zan "Presoak kalera! Txakurrak barrura!" "Amnistia orokorra badon

—esaten neban neure artean Beitibiskoko Aneri begira— zergaitik egon behar joen batzuk barruan, besteak kalean egon ahal daitezkan?" Eta berari belerrira esateko gogoak emoten eustan. Baina nik zer nenkitsuen manifestapenetako erreglamentuez?

Nire estarria ordurako etenda egotzuen eta Anerena barriz, lehendik be saiatua egon balitz lez, gero ta zoliago nabarmentzen zenduen txakurrenak esaten. Une baten atzera begiratu neban eta baltzez mozorrotu batzuk ikusi nebazan geugandik hogetamar metrotara inguru. Lehen agirikatik Ane neure ondoan etorran eta ukodoz jo neban.

"—Ez don atzera begitzen, beti eurrera baino!"

Haxe purrustadea. Lotsarazo be egin nindun besteen aurrean. Horixe ikasi behar nebala! Ez begitu, ez itandu eta esanak bakarrik oihukatu...

"—Gero ez don ezer jakingo, ez ezer kontauko, zeozer jazoten bajan..." —inostan belarrira oihuen artean.

"Zeozer jazoten bajan?" Zer jazo leikidan ba? Ezaguna eban nik baino metro gehiago ibilia zana halako prozezinoetan. Gero ez dakitsuet berak zer erantzungo eban komisarian. Ausaz ez eutsen kantaazoko, ez dakar behintzat zigortuaren seinalerik. Koldo zanaren arrebea zala aitortzeak balioko eutson, behar bada... Ezetz uste dok? Ba... horixe jazo jakon Aneri. Berak be besteei hainbeste aholku egiten ibili barik, bere neurriak hartu eta danetarikoak nabarmenki oihukatzen ibili ez balitz, ez jakon gero gerokoa jazoko.

Plaza aurreko gurutzera heltzean izan zan istilua. Ni ohartu be ez, arik eta geure aurreko batzuk urduri mogitzen hasi ziran arte eta "ahí están" esaten. Une berean geure atzetxotik "Galgoak ere txakurrak dira" eta "ETA mátalos" esaten hasi ziran. Polizien altaboza aurretik eta manifestatzaileen orroak atzetik, itzelezko erronkaren artean gengoan, ez atzera eta ez aurrera. Hareek kas-kodun eta armadun aurrera pausoa eragozten eta atzetik oihuka eta bultzaka. Berandutxo gogoratzen neuntsun Erramona Arriakoak esana eta Ane hori gorrotatzen hasi nintxatzuen. "Eta orain zer?"

berari esateko nengoala, non lehen baino be amorratuago dakus-dan ukabil biak gora jasoka.

Ni aurradaoak eurak geldituko zirelakoan edo gurutzadurako hegaletara bidea ebakiko ebelakoan. Baina, zera. Otsoaren ahora ginoazen. Tiroak entzun genduzan eta aurreko batzuk makurtu egin ziran buruak gordeka. Hegal batetik makilarien eraso behin-goan. Aurrekoen apatxotsa orduantxe, atzekoak "Policías asesinos" makilariak aurrekoen kontra erasoten ebela.

Amari eskutik oratu eta ikusi neban lehen bitartetik, lehen atartera egin gendun. Uste dot adinari-edo izango eutsoen begiramenak salbau ginduzala. Eskerrak zeuri, ama, bestela...

Gero jakin izan gendun Tomasa gixajie jausi egin zala ihesian estrepozu eginda-edo, behar bada poliziek Aneri oratu eutsoenean. Gogor aurkatu ei jaken bera barriz "Policías asesinos" arpegira esaten eutsela. Jo! Maribizar halakorik!

Iluntzerako libre itzi daue. Ezer be ez, antza. Hagaitik esan dauat, ba, Koldo zanaren arrebea zala jakitean, itzi egingo ebela-koa-edo. Edozelan be, ama, hurrengoan ez goaz berari kasorik egiten. Erramona Arriakoarena egingo dogu eta zeuok gizonez-kook bialdu aurretik..."

"NEU BE ETXEA EDO ETXEKOA DEFENDITZEARREN, zigortua izan nintxatzuen eta zuek baino zati bat samurragoa nintzala. Neuk etxe alde nenbilela uste neuntsuen beheinipehin, gero etxekalte urten baneban be. Hagaitik ez nau bat be harritzen guretariko batek hau edo bestea egin dauela entzutean. Gure Fidel jaio orduko hazia ereinda egotzuen..."

Eskolara hasi nintzan urte berean izango zenduen eta, oker ez banago, baratzeko txorimaloa armatu neban harakoxean. Arma eta guzti, gure txorimaloari paseko txoriek kaka burutik behera egiten eutsoela esaten entzun neban eta ni arbindu egin nintxatzuen neure kainaberadun eskopetea horren ezaintzat jotzen ikustean. "Igarri egin ete dautsoe ba txoriek ez dala tiro-botatekoa?" ninon neure artean. Neuk konponduko neban osterera be gauzea.

“— Txorimalo hori zaindu beharra dago” — esan neuntson aitari.

“— Bai, txotxo — irribarre egin eustan aitak —, beste txorimalo bat ipiniko jautsoguk aldamenetik.”

“— Beste txorimalo bat?...”

Nik harrituxe begiraten neuntson aitari eta orduan gure arreba Jokinek, izeko Jokinek, ziria jaurti eustan.

“— Heu baino txorimalo hoberik!...”

“— Ez ba” —Nik mihina atera neuntson arreba Jokineri hala-koetan egiten neuntson lez.

Hurrengo goizean, eskolara orduan, eskolara barik, inori ezer esan gabe, estratza zaharrean sartu eta gure baratze ondoko garitzan urten neban. Garitzan katamarka egin eta inork ikusi barik eta txoriek eurak sentitzen ez ninduela, garitza ertzean geure txorimaloaren aurrean kokatu nintzan. Hantxe egontzuen txorimalo armatua, gau guztia amesetan eginda, oraindino lotan bailegon eta orduantxe kapela gainean kokatu jakon kurloia sentitzen ez ebal. Egingo ez eutson ba kaka be, gura izanez gero? Neure ezpainak puztu eta “pun” hots egin neban orduko aidean zan txori lotsabakoa. Gure txorimalo armatuak tirorik bako eskopetea eukatsuen baina neuk langunduko neuntson tiro-hotsean.

Gerotxoago guk txorruak deitzen genduzan berderoi aldra bat etorri zan eta txorimaloaren inguru ostaz gira bat egin orduko, lotan egoela ikusirik, arbazia jaten hasi ziran. “Pun, pun” nik oster a be eta hareen hega hotsa. Txori aldra batzu joan eta beste gosetiago batzu etorri. Nik ostaz izten neuntsen arbi adarretan oinak ipinten eta halan eta guzti, arbazi asko, heldu orduko, mokatuta egozen. Eta horrela goiz guztian joan eta etorri, txorruak ez baziran, txirriskilak, hareek ez jatzuezan zentzatzen nire tiroakaitik. “Neuk eskarmentauko zaituet —erabagi neban orduan—. Tiro hotsak ikaratu bai egiten zaitue, baina bizirik eta lehen baino be grinatuago izten. Ba armearen hotsa ezere, perdigoia ikusiko dozue. Ea orduan lotsa apur bat dautsozuen gure txorimaloari...”



Garitzan atzera katamarka eginaz, kamino hegaleran urten eta harri koskorrez bete nebazan paltrikera biak eta osteran be neure parapetora. "Bazatoze? Ba orain ikusiko dozue zer dan ona". Orduan nik "pun" zarata egin orduko, harri zaparradea jaurtiten neuntsen. Munizinoa amaitzen zanean, harri iragoketa barria eta eraso barriak. Artean hainbat hegoak trabeska, gerra mundialean aparautako abioen antzera, altura galduz, garitzan eskutatzen ikusi nebazan, baina bat sikera garbi gelditu zan txorimaloaren oinetan. Harek ez eutsuen behenephein murriztuko gehiago gure arbazia. Ume batzuk ez dautsue esana aditzen, kokotekoa hartu ezik.

Harrezkero bazkal ordua be ba zan-eta, lurrean zetzan txorrua jaso eta txorimaloaren trofeoztat eskegi neban eskopetearen kainu puntan hegoak zabalik. "Hau ikustean zentzatuko zaree, txori gosekilok —zemak egiten neuntsezan neure artean. —Nire eskopeteak ez dauela aparetan?"

Nire belaunak katamarka eginaren eginaz zikinduta ikusi eban zan amak. "Non ibili haz, txarrito hori?" agirika egin eustan. Nik aitortu txorimaloari laguntzen-edo ibili nintzanik? Bai zera! Hurrengo egunean, eskolatik etxerakoan, bai goraldur gure txorimaloaren trebezia.

"—Hemendik aurrera paseko txoriok kontu handiagoz ibiliko jatzuez gure baratzean... Zer ba? Je! Han eskopeta puntako txoria siku ikustean, ikusiko daue zer dan ona..."

"—Zer, txotxo? Heuk eskegi dautsakala txori hila eskopeta puntan?" —itaundu eustan aitak.

"—Bai, nork bestela?"

"—Ta ze markako perdigoiaz jota izan dok, jakin ahal balei?" —gure aitak serio.

"—Perdigoiaz ez..."

"—Ba nengoan ba ze barraban ibili eiteken gure arbaziak harrikatzen eta txoriak eurak baino be triskantza handiagoa egiten gure baratzean..."

"—Ez, ez, aita —ni atzatzeka—, gure txorimaloari laguntzearen egin dot."

"—Laguntzearen dinok? —Aitarek bekaina—. Zeri laguntzen eutson begiratu behar henduan, txotxo."

Aidean gelditu zan aitaren eskua, baina kokotekoak baino min handiagoa egin eusten harekek berbak. Ez dakit zergaitik ez nindun jo. Ausaz nire ume arrazoiak ontzat emon edo nire damu negarrak ziurrago.

"—Ez neuntsuen esan nik? —Jokine arrebeak ez eustan parkatzen bere eztenaz ikutu barik—. Zein bera baino txorimalo hobetik?"

Aitarek trumonadea ordurako igarota zan eta nik oraindik be eskutuan Jokineri mihina aterateko ausardia euki neuntsuen. Batetik hartzen neuntzuen nekeak ez eustan bestetik orde emon gurea baretzen. Barrabasa neu be!...

Zer? Zeuok be lokartu egin ete zaree neure txorimaloa lez? Etxea zaintzeko onak zagoze zeuok! A, eta sasiskolarena jakin be ez. Eta jakin izan baleue be zer egun batekoagaitik?... Besterik dozue egun bateko sasiskola egin eta urte guztian egiten jarrai izan beharra gure Fideli jaso jakon lez... Zer? Entzun dozuena. Eta zer egingo dautsazue umeari? Zigortu datorrenean, ba, noiz edo behin sasikola amaitu eta etorri egin beharko dau-ta? Ta zer esango zeunkioe?" Jo, mutil, oraingoan irabasi egin dautsot aitari."

"EZ EISTAN ESAN, ALABA, PARABOLA HONEK EZ dauskula balio, gure Fidelek, seme ondatzailak lez, ez ebalata erentzirik ondatu eta beraz ez daukala zertaz damaturik. Jakina ez zonala bere diruak hartuta neska galduekin eukiak xautzera joan. Herentzia ondatu barik, bertanbehera itxita joan zonan, gu eta Beitiko etxaguntza guztia gitxietsi izan baleu lez. Eta gitxi deritxon oraindikarren egin dauskun zaputzari? Oinordekotzaren zatirik onena berari emotekotan gengozala, aita eta bion asmoari aurretiaz igarri izan baileutson, ezer esan barik, alde egin? Horren

ezeztagarria uste dozue Beitiko etorkizuna? Edo goserik edo lanaz urkatuta edo jasan ezineko morrontzan egon ete zaree gure artean? Esaistan, alabatxo! Ez don ikusten zaputz hori dala-ta, aita gero eta etsipenduago dagola?... Ta “nik zer egitea nahi dozu” dinostan? Ba eskribidu eiozan gauzok eta azaldu aitaren ganorea. Esatearen ezagaitik ez daitela izan behintzat.

Ba diakinat gauzea ez dala parabolan baizen argia, baina danori be erdi-erdian joten dauskun bere alde diaukan. Geure Fideli be bai. Jakina, ordutik hona trabak eta elorriak inguratuko jakozala eta damaturik eta etxerako guraz dagolarik be, ezin etorria izan daikela, lehenengo eta behin orain daukan ugazabak lehengo gurasoek baino estutxuago lotzen dauelako-edo, nik zer diakinat? Esaion behenipehin bere alde otoitz egiten dogula eta ez zarata bakarrik kalean lehengo manifestazinoan lez. Esaion hango batzuren makilkadak baino handigoak sufritzen dihardugula hemen etxean beragaitik. Esaion gure Mikel eta danok bera noiz besarkatu zoratzen gagozala... Bai, esanda diaukatsanak gure Mikeli, Fidel nebea datorrenerako, deskuidoan ez hasteko harako “seme zintzoaren” muxakin, anaiari gaztetako erratuak arpegira botaka eta lotsak emon gurarik. Ez holakorik. Dana ahaztuta, lehen lez izango dala dana baino. Ez jonan egin horixe bera parabolako aitak?... Parabolakoa parabolakoa eta hemen hemengoa, jakina ba. Baina harek hemen zelan ihardun erakusten diauskun. Edo ze beste jarraibide hoberik emona izan jakun, jakin ahal balei? Ez janala parabolakoa gustatzen? Ba asmatu egin beste parabola bat eta ea hataratzen donan. Eta esaion etsipena baino askoz hobea dala damua... E? Ez daustan ukatuko Judasena baino San Pedrorena hobea danik...”

“Buztana lastozkoa duena suaren bildur.” (atsotitza)

“ZEURE ZEREGINA BESTE BATEK HARTU ETA ZEURI inoren papera emoten dautsueanean jarkitu egiten zara, erraiak eurak oka egiten dautsuela. Zuk ahaleginak eginarren, ez dautsu komediak ondo urteten eta azken baten paperak jaurti eta “emoistazue niri dagokidana” hots eginez, injustizia salatzen dozu eta amoremoten ez badautsue, ez dozu zaputzalditik urteten... Hara-koan lez, neu ninduzun kronikari edo entrebistari, neuri agokidazan itaunak egitea eta non entrebistatua galderak egiten hasten jatzun... Ez ete dozu hori epaitua epailariari kontuak hartzen hastea lez?

Jasanak jasan eta gero ia alperrik irabiatzen nozu. Jende kaskarinakin barik, helduekin hasi izan banitzan... Jo, ba zan han kategoriako pertsonaiarik, Frankoren gudatik hara hatzerrian bizi ziren politikari adinekoak oraingo antzezleri edo kantante gazteen artean, hareek unibertsilari barriekin eta honeek muganzandikoe-gazko harremon bila Udako Euskal Unibertsitatera etorriak. Baina nik benetako pertsonaiak barik, argazkirako arpegiak bilatzen neutsuzan kokola honek, aukeratuak barik, edotarikoak, hareek, urteen burrukaz zimelduriko betarteak beharrez, azal leun modakoak, ez ziur “notizia” manipulatzearren, joaneko gizaldiaren historian edo agure beneragarri haren bizitzaz ezjakin hutsa nintzelako baino.

Eta harroputz, Canona hartu eta flasa nori jaurti niharduela, ba diatortzu historiagile kumea, adinez urteren bat edo beste neu

baino haziagoa eta jakintzaz barriz haziagoa edo puztuagoa eta "zertan ari haiz...?" ez dinost ba esaten neure lehen erreportari ahaleginari seriotasuna kendu gurarik? Ze ardura eutsozan harrozko hari nik neure entrebistetarako aukeratzen nebazan arpegiak? Berea aukeratzen ez nebalako-edo, tripak erretan ete egotzun? Ausaz zorionsuegia ikusi nindun edo nabarmenedia ikaskide izateko edo astiroago pentsauta, gainean eukan bere inpernura angeru bila ete ebiltzun? Ulertzen daustazu, Fidel? Eta zirikatzaileagaz berbetan hasteagaitik, moztuta gelditu jatzun haserako eginkizuna, baztertuta aurretiz gerturiko galderen ordena, lanaren helburua, titulua, nahiko heldutasun lortu ez dauen hasibarriaren antzera, itxumustuan bizitzako nahaste eta eztabaidan sartzeko.

Deabruagaz berbetan hastea galgarria zena entzunda neunkatsun, baina nork uste behar eutsun halako mutil ulegorri arraitsu baten begi disdiratan inperu garrrik eskuta eitekenik? Nekez parte oneko angeru antzik, Fidel. Haserako okerrak kilometroetan eta kilometroetan bidea erratuaz egiten dautsu eta azaletik begiratzeko zendulako itxurakeriak zeu engainatzen...

Frutu garratzetatik ezagutzen dozu azken baten zeure erratua: Neu ninduzun estudiante alai eta liburu zaleaz eta hara ez titulu eta ez ohore, ikaslemotx benetan. Amesetako artisten edo gudari zaharren entrebistaria bera espiazat joa, galdekatua eta zelatatua eta guda barrien erreportaria soldatu barrien kantiniarsa bilakatua. Argi eta takigrafoen artean zendun zeure etorkizuna eta alkoholaz lirotuko begien aurrean non dozun bizibidea. Askatuei argia dizdizaka zabaldu beharrez, kondenatuei ardoa basoka banantzea dagokizula. Ez dozu uste naska emoterainokoa eta angeruen aurrean salatzeak dela nirea? Angerurik baldin badago behenipehin. Zer dinostazu, Fidel? Zuk ez zeunstan edateko zerbezarik, ez beste alkoholik eskatu Koldogaz nire mostradorera etorri zintzazanean. Nork ase leike zerbezaz kondenatuen egarririk? Zu ez zintzazan gero ere guzur maite loxintak esatera nire belarrira hurreratu. Izan ete leike maitasunik inpernua? Hemen gorrotoa mozko garri delarik ere, zeuri ez dautsut biraorik entzun. Zergaitik ete?... Hemen eztabaida eta zarata direla musika bakarra zure isilak behin baino gehiagotan harritu nindun. Neu aurreratu behar izan

naiatzu sekretua lapurtzera. Ba nenkian zugar erantzunen bat eskutatzen zena. Orain ba dakit jakintza puzminetan edo beso indartsuen adorean baino edozein mutil ohargabetugan angeru hobea izan daikezuna. Zeure erantzunaren eta isilekoaren begira nagotzu... Ez atzendu. Ba dakit deabruak zure inozentziari dautson bekaitzarren, gorroto izango zaituna. Kazetariak dagoneko eraillekin nastau zaituela? Kazetariak ez dakitsue azaletik irakurten baino, baina barrutik begiratzeko dauen angeruak ondo dakitsu errugabe zarena. Hegoak moztu gura dautsue euren mugak gaintzeko gei izan ez zaitez. Zuk ez itzi, Fidel. Hego horren beharrian handian gagozuz..."

"HEGOA" ESAN DOZUNEAN NIK TXORI BARMANAGAN pentsatzen neuntzun, Beatriz. Bera be askatasunerantz hegaz eginetarikoa zendun. Burruka bideari itzi eta, bake gizon lez, angerua lez nahi badozu, zuriz jantzi eta mostradorean herriari serbitzen hasi jatzun. Zoritxarrez, baina, hemen angeruak eurak be erail egiten dautsue. Tiro bikotxa behar dauela? Tiro bikotxa: batz odolustu eta besteaz famagabetu. Hori dozu hiltzailearen grina: euren buruen zuriketarako bitimen izena zikindu. Odolaren kutsua ez da hain erraz astintzen baina.

Neuk ikusi neuntsun Txori gaisoa Morterok edatekoa eskatu eutsonean. Ez zendun bat be asalatu bera. Erailtera etorkonari serbitzera lehiatu zan ostera. Harek ez eukatsun okerraren susmorik be. Bere inozentziako jantzi zuritan jausi zan. Txibatoa zala esango eben. Horixe: odol garbiaren salapenetik buruak gorde behar. Baina nik dinodana: zertarako behar dau txibato ofizioa behin askatasuna aukeratu dautsunak? Edo zeuk esango zendunez, inpernutik urten eta nor gelditzen jatzu inpernuko atea joka? Ostera bai, sufre sunda guztitik alde egin, arriskutik ahalbait urrunen. Hara nik neuk egingo neunkenetik juzgatzen dautsut eta ez Morterok lez, aldrebes pentsau eta ekiten dautsuen ikuspuntotik. Zuk dinozun kondenatuak errubakoa inpernura erantzi gurea bekaitzarren be izan daiteke, baina bai euren seguridaderako be, eurek dakien egia inongo auzitan salatu ahal izan ez dagien, hau da,

odol arrastoak atzindu horretarako odol gehiago behar izanarren. Inpernuko sasi-logika dozu eta zeu be sasiak oratuta zagoz. “Nahiko da” esan zeinke zeure artean, “ni ba noa hemendik”. Eta zure hegoak ikusi orduko, hor jatortsuz errementariaren guraizeekin, “Askatasuna nahi dokala heure kontura? Ba ikusitzak ondorenak” esan gura baleutsu lez.

Mortero ez eukatsun, izan be, erailketa hatarako nire laguntza beharrik, baina bai ausaz nire askatasun minari txakurrak otxatu gurarik. Ez eustan askatasunerako aukera handirik emoten. Oraindino polizien sirenetatik ihesian, kaletik urten-barri eta mendian norabide ziburra hartzeko astirik gabe nengola, uhelean neroan pipea lehenengo sasitzara jaurti neban. Izan be, haren inozentea banintzan, zer egiten eutsun arma baltz harek nire gerrondoan? Ondo bako potsura jaurti izan baneban be bardin. Arma baltz harek barik, Mortero halakoaren angeru zaindari izateak zikintzen nindun. Goragotik etozan uharrak. Inpernuan ez dagotzu errubakorik. “Etzak uste —inostan geroago Mortero— inork ere ez dik horrelakorik egiten odolaren gustoarren.” Askatasunari bere baldintzak ipinten eutsozan. Askatasuna zeurea edo neure asmoa izan eiteken, baina baldintzak bereak: “neuk esaten didan orduan eta neuk erabakitzen diadan eratan” esatean lez. Sinistu gero zuk halako bihurri aldrebestuari.

Uharrak aurretik etozala esan dutsut. Umekeriaz-edo txorimaloak erasoten hasten zara zeu olgetan eta azkenean gizaki bizia aparatzen dozu, edo ezustean, hatan laguntzen. Zergaitik daukatsue, izan be, txorimaloen antza gizakiek? Ez daukatsue horixe ondo erabagi. Guk geure serbitzarako eta geure jagole ziranez gero, geure antzeko asmatuko geuntsuzan, guk euren jainkotxo burua egiten dogula. Serbitzari onak badira, txalotu eta zaindu, nagiak badira, itxurgatu eta desegin. Sortu ginduzan Jaungoikoak gugaz beste hainbeste egin izan baleu, lekutan gengoan gu honezkero... Hilturreko inpernu esperientzia aitatu dozu zuk lehen, Beatriz, txorimaloen bidetik ez bada be, salbaidiearen beharrezana zertan dan ikasi-edo ahal izan daigun. Ez deritoxozu?... Hau da, txorimalotzat hartzen gaituenen erratutik uler ahal daigun gizaki sortu

ginduzanaren bestelako zuzentasuna. Bere zigor asmoetan barik, inpernu geugan dagola argiago ikus ahal daigun-edo...

Hemengo askatasun bideak atzinduta nenkusan errugabearen odolak kutsatu nindunetik. Txorimaloek ez daukatsue odolik, gulako txorimaloek ia gizaki izenik be ez. Mortero “Txori” deitu eutsun bere bitimeari, gizatasuna errekuiperatu orduko ezizenaz eta harek ariketetako mamuari lez, otz eta prezisinoz emongo eutsun tiroa.

Zuk, Beatriz, maite banozu, Fidel deitu eistazu, Garri dagoneko kondenatuta dagoelako. Neuk ez dakit zertan lagundu zaikedazan, hego-moztu edo sasiak oratuta nagolarik. Harakoa askatasun aukerea barik, askatasun tranpea izan zendun. Beste une ohoretsuagoa itxaron beharko neuntsun, Morteroen pruebea gaindu eta gero behar bada. Horixe. Mortero bere jokabidea itxurgatu eta gero. “Esan eikidan, txo, aurretiz zer egitera ihoan —esango neuntsan arpegira— eta neuk aukeratuko najoan hire angeru jagolea izan ala ez. Edo taktikaren izenean, gizabidea be zapaldu egin behar eta hendun?”

Sasira jaurtiniko arma jaso eta mugarantz jo neban bakarrik. Arma jabeari emongo neuntsun, baina ez barruan eukan polbora galgarria. Idegi neuntsun pipa hori balak kentzeko asmotan eta balarik harean be ez eutsun harek. Don Aldrebesek marro egin behar herakoan be, “kontuz, kargata zegok” esan eta arma ustua emon eustanean. Ez ete zendun bere angeru jagoleagaz be fidatzen?... Arma barik angeruaren xalotasuna uztiatu gura ete eutsun? Nire tiro lanaren beharrik ez eukana argi baino argiago egotzun. Tiro bakarraz txori bi hilteko be nahiko zendun bera. Esatea be gogoko ohi eban: “tiro batez txori bi garbituko dizkiagu...” Ai ene! Eta arakoan neure askatasun usoa zendun bata. Maltzurak halakoak zelan egin nindun tiro ber-beraz Txoriren zorikide, hari bizia eta niri garbitasuna kendurik.

Zorikide hoberik edo pintatuagorik idoro neuntsun, halan eta be, handik mugara bidean. Bide latza benetan. Artzain bordetan lo eginaz, eta errekan ura edanaz eta bideko baretan ez sartzearren, mokaren bat limosnaz eskatuaz, eguneko bizarrak eguneko argiari eskutau eta mapatik buruz ezagutzen nebazan mendate eta erre-

kabideak igaro eta bigarren iluntzean aukeratutako herritxora jatxi eta taberna atean mutiko bati berendiaz itaundu neuntson. Gure enlazarikoa zendun, mapeagaz batera iragarri jakunetarikoa. Ez dakit zergaitik aukeratu neban haxe itzulerako fletxetan bira luzeena egiten ebana. Zenbat eta urrunago seguruago-edo usteko neuntsun. Berendiak jaramonik be ez eustan egin tabernatik urtetea. Plazako argitasunetik at ilunpera jo eutsun eta nik hara jarraitu. Ilunetan etxatetik pauso batzu emon ondoren, seinua eskatu, eskuzurubitik igonazo eta nonbaiteko barrura sartu nindun. Hantxe mandio gaineko bedar onduaren gainean etxun eta itxaroteko mesedez, tabernako gazteen bilera amaitu arte. Zurubia kenduko eustala eta handik ez urteteko. Nire presentziaren susmoa handik uxatzearen egingo eutsun hori.

Bedar onduaren biguna neure soin unatuaren azpian eta aspal-diko haren usaina sentidu nebanean, baserri giroak hartu bainindun edo harek emoten eustan ziurtasunaz, gogo nasaitu jatzun soina gose-egarri eta logurearen arteko ames latzak egonarren. Handik gertu entzuten ziran txakurraren zaunka baketsuak be etxeko akordua ekarstan. Katillu bete esne amari amesetan-edo eskatu eta bertan lokartuko nintzan. Gerotxoago, ez dakitsut zenbat denporara, atearen hotsak iratzartu nindun. Mutila neure ondoan egotzun “Satur nauk —inostan ahapetik— Jo, ihes egin hendula uste izan diat” Antza danez, isil-misil bada be, luzaro deika egon jatan eta oinetan-edo ikutu nindun arte ez neuntson erantzun. “Jateko zerbait dakarret.”

Ilunetan eskura emon eustan botila bat ardao eta ogiarteko beroa. Tortila haxe bai jan nebala gustora, bai gozatsu edan ardaoa. Manta bi itzi eustazan, ondo biltzeko aholku egin, negua zendun. Gainerakoaz hurrengo goizean hitz egingo gendula, atea barrutik itzi eta bere seinalea entzun arte, ez inori idegiteko.

Manta beroak gaineratik, bedar ondua azpitik zer besterik eskatu neinkion nere gogoko ez zendun askatasunari? Soineko atzitu hareentzat aldagarriak edo amak ipini eikidazan izarak?... Bueno, zeureak be balio dausue, Beatriz, esateko. “Luki, Luki —ninotson txakurrari erdi amesetan—, isilik egon hadi, ama konturatuko dok

bestela”. Berandu erretiratu nintzaneko edo lastaitik etxera sartu nintzanekoa-edo neunkan gomutan.

Goiz albako oilar kantuak eta goizaldeko oiloen kakaraxak ia urte bi zirala, galduneko askatasunaren salatzaile zenduzan. Orduan galdu eta orain galduagotzat errepikatzen baletorzan lez... “Morroi sikeran Saturrenean...” neure zoriari opa neuntsola, goizaldeko argi zirrinta ikusi neuntsun hegaleko hotsaren eta teila zirristuetatik sartzen. Ez nintzan mogidu ere egin, mantak batuago eta bedartzan burua barrurago sartzeko izan ezik. Abereen edo egaztien hotsak baretzen, gizakienak gero urduritzen ninduen: kamion bateren tarranta edo urruneko andre barbaroa. Ez, ez euken Beiti nire baserrikoen doinurik. Abereak toki guztietan dozuz eskola edo mezu bardineko, gizakiek oster... Dagoneko itxarturik eta gora begira, zirristuetatik argiak ekarstazan barriak adikatzen nihardun. Saturren presondegia ez zendun gela zabala, mandio gaineko gelaren bat behar zendun. A... eta hegal bateko hotsa, argitara emoten ebana plastiko gardenez indartuta egotzun, neguko hotsaren kontra. Ez nintzan izango eskaleetan lehenena, ez atzena. Nire beste kideak, Mortero eta txoferra berere, nondik ete ebiltzen? Ostatu samurragorik idoro ete eutsuen koordinadetan? Nondik norako askatasun bide erratua ete eroen?

Oskirria astintzeko be ezin neinteken mogidu azpiko zurajearen krakadak salatu ez nindeian. Mantak estutu eta kukubilo jesarri nintzan orma kontra. Halatan begiak erdi itxi-idegi nengola, aurrean, nere pare-parean, barreneko oholtza kontra etxuniko norbait neuri begira-begira ikusi neban. Haseran itxurapena edo zirristuetatik unadaka uharitzen joan argiaren jokua begitandu jatan. Baina ez, norbaiten giza-itxura zendun. Zer? Neu lotan nengola, sartuneko ostatukideren bat ete? Arnasarik be ez zan entzuten eta. “Hi, txo, hi haz nere angeru zaindaria ala?” txistadea egin neuntson, Mortero bera-edo bailitzan. “Heuri dinoat, begi handi, arpegi gorri”. Apurka-apurka eta zaratarik egin gabe hurre-ratu nintxakon. Gizakia barik, gizaki itxura zendun, txorimalo berezia ezbaigabe, txano puntatsu eta koloretsu haregaz.



“—Oporretan heu e? —oles egin neuntson barruko ikarak astintzearren.— Neguan ez hendun zeregin handirik izango uga-zabaren baratzcan eta deskantzuan e? Horren tratu ona emoten al jeutsek hemen txorimaloei?”

Behar bada, neugan konfiantza hartzearren edo mamu haren argitasuna bilatzearren egiten neuntson berba. Berbea be ez zendun, barruko ezbaiak mihin puntara atera gurea baino. Arpegian ikutu neuntson, besoak zurrun gurutzean eukazan.

“—Maisuak zigortu egin ete hau, e txo? Ze gaiztakeria-edo egin dok ba?”

Nik ez dakitsut zergaitik besoak gurutzean egon behar dauen txorimalo guztiek. Ausaz gizaki itxura handiagoa emotearren. Bedar onduz beteriko zakukia edo jantziren bat eukatsun soineko-tzat.

Neure ostaturideagaz berbetan nengola, Saturren urrumak ohartu nebazan zurubian gora. Atea idegi eta kapazoa eskuan ekarrela ikusi neban.

“—Atzarri hago?”— agur egin eustan.

Orduantxe ohartu neban lehenengoz Saturren bigote baltza. Artean Satur bigote bako beste edozeinlako mutila izango zalakotan nengotsun... Ez, ez dinotsut bigotea gorrotogarri-edo jatala inoren sudurpean, baina ez neuri eskatu... Bai, ba dakitsut Koldok be, errefuxiatu egin zanetik hara bibotea eroela, baina ez artean. Ez zenkian? Orientabidea edo usnamen aldatzea esan gurako eutsun goizetik gauera bibotea izteak. Alkarregaz bizi eta ez eutsun esan bere bibotearen zergaitia edo historia?... Nik dakit ze historia? Esan daigun Saturren bibotea ez zendula latza edo goiko ezpaina hagnetara arte ezkututzen dabenetarikoa.

“—Honez gero gosetuta egongo haiz —esan eustan orma zulotik bedar onduetz estalduriko katilu sakona eta koilarea ateratzen ebazala.— Gaur argitan gozaltzeko modua izango duk.”

Botila bete esne bero, ogia, lukainka muturra eta sagar bi ekarstazan.

“—Nola igaro duk gaua?”— itaundu eustan.

“—Ederto baten, angeru jagole eta guzti”— erantzun neuntson txorimaloari begira.

“—A bai, ez nian bart ohartzeko astirik izan. Miel Otxin duk hori...”

“—Eta ni Don Bildur...”

“—Don Bildur? —Bibotea astindu eban Saturrek.— Ez diat ezagutzen izan horretako morroirik inguruan. Hi kiputza izango haiz noski.”

“—Bizkaitarra, Garri serbitzeko.-”

“—A, Garri, ezagutzen diat”— Arpegia begiratu nindun Saturrek.

“—Garri Bildurgarri izen-abizenak bezala dozak”— azaltzen neuntson.

“—Nerau ere gaurkoz Miel Otxin nauk —Bibote ertza irrisua agertu eban Saturrek, Txorimaloa lurretik jasoten ebala.— Mamu honekin dantzatu behar diat gaur turistekin omenean.”

“Mamua dantzatu”, “mozorroa dantzatu” erretolika nastua egiten jatsun, sobera ezaguna alde batetik eta bildurgarria besterik. Saturrek burutik behera jantzi eutsun txorimaloa, Miel Otxinen plantak eginaz. “—Miel Otxin nauk, hona. Ze iruditzen zaik?”— inostan.

“—Bedar hutsez mantendua izateko ez hain txarto be.”— Ogi lukainkaz aho beteka nik erantzun.

“—Etzak uste, tela fina dik soinean.— Mamuaren besoak mugitzen ebazan.— Pintura eskua eman ondoren, pertsonalitate berezia hartuko dik honek.”

Mamua erantzi eta bere lehengo eratan itzi eban orma kontra.

“—Orain lastozkoa duk —gehitu eban—, baina garai batetan benetako gizakia huan, muga horietako gaizkile aparta nonbait.”

“—Mugalariren bat?”

“—Bainaazienda lapurra eta eraila. Mugaren alderdi honetan ohostu eta bestean saldu, hortarako hemen hilak utzi behar bazituen ere.”

“—A... eta bizian ezinik, itxuran urkatu nahi izan dozue?”— jostatu neban.

“—Ez, baizik berarekin bizian egin zena bera ospatzen diagu urtero ihauterietan. Haseran etxekoen zentzabiderako egiten zena orain turistekin entrenigarri egiten dugula eta horrela berak bizian egindako kalteak kitotzen.”

“—Bai ederto, be...”— nik.

Harritu samar isilik gelditu nintxatzun Miel Otxini begira, ogia katilu esnetan biguntzen zan artean. Mamuak bere begi handiekin begiratzen eustan zetzan tokitik. Neure ostaturidearen azkena ikusi gurako nebala esan neuntson Saturri.

“—Jakina, moteil —Barre egin eban Saturrek.— Hi herau ere turista bat haiz Miel Otxin ikustera etorria. Ez al duk horrela?”

“GALGARRI JATZU, FIDEL, MAMU HORRI BEGIRATZEN ihardutea. Lezeak hurbiltzen jakona zurrustan eta irunsten dautsun lez, hala mamuek, eta hareago deabruzkoek, lilurarren, begiralea bere zorira lotzeko ahalmena ei daukatsue. Mamuen deia parte txarrekoa izan daikizu, beraz, norbere azpian lurra galdu orduko, hobe begiak itzi eta angeruari dei egin. Bestela, mamuari begira zagozala, bera baino beste deabru gaiztoago batek atzetik oratu zagikez. Eta argi dago hemen bertan ere inpernuko lezeak idegi dirana eta leze banatako kondenatu eta deabruak burruka daroela euren artean.

Ez neuskisu honela berba egingo neure azaletik, bion azaletik nahi badozu, eraso sentidu izan ez bagendu. Inpernua dozu eta ez teatroan edo ihauterietan ikusleen atseginerako mogitzen diren pertsonaiak. Deigun ihauteriak edo teatroak berak nonbaiten edo noizbaiten kalean jaoa erakusten dautsuela, baina guk ez dogu izan nahi hurrengo gizaldiaren zentzagarriako antieroe halako.

Guk bizi egin gura dogu eta bizia emon hurrengo belaunaldia-ri. Buruz jokatu behar dogu, Fidel. Zergaitik jarrai besteen lepotik pentsatzen edo besteen eskuek mogidu txontxongilo izaten? Txontxongiloaren itxaropena ete da gurea? Esango dautsut zergaitik dagozan mamuak besoak zabalik edo gurutzean josirik bailegozan. Ba Miel Otxin bezala herio epaia sorbaldan, heriotzera doazelako hurrean. Zelan erutzen zenduezan ezpaere, zeuok Harrobi Zaharrean edo mendi eskutuan punteriarako txorimaloak? Besoak zabalik, ez al da? Besoak zabalik dagoena maitasunera eta bakera gonbidatzen dagotzu. Gorrotoarren burrukara doanak osterara, halantxe gura dautsu bere bitina, ohargabetu eta desarmatu, zuriz jantzitako harako barmana lez. Bestela ez litzaken izango horren bitina. Hiltzaileak bere bizia arriskuan ipini gabe, garbi egiten dautsu lana. Heriotzeak ez gaizala, maitale antzera bilosik hemen aurkitu. Zu ez zara Miel Otxin, ez Garri, Fidel baino, gu ez gara ihauteriak trapuz jantzi dauzen mamualakoak.

Herriak ondo egingo dautsu zentzabide edo irrigarrirako aspal-diko zauriak gogoratu eta gozatzen edo mamu zaharrak ihauterien ritoalako araoztean, baina ze onura dauka gure lepotik zauri barriak erakustez edo anaien edo arerioen odol beroa ixurrazoteaz? Herriarentzat negarra baino ez, inpernuko lezeentzat barre zantarrak osterara...

Gure odolak ez dautsu balio, Fidel, Koldorenak ere balio ez eutsun lez, gure arteko errebindikapenak eta eztabaidak argitzeko. Lastozko mamuan egin ritoak alperrikoak edo turistaren pasadenporarako badozuz, ez beitez gertatu geure madarikazinarako gizasoinan egindako sarraskiak.

Hagaitik min emoten daustazu, Fidel, kondenatuen penazko Miel Otxin edo dena delako mamu horri horren liluraz begira zakustazanean. Mamuaren zeloak naukala esango ete dautsut? Halako kondenatuengana hurreratu eta hareago harei berba egin edo haretaz erruki izatea ere eragotsi egiten eutsun Birgiliok Danteri. Biziok ez daukagu eurekaz zerikusirik. Epaituta dagoz eta gure sentikariek ez dauke euren auzian zertan sarturik. Bildurrak

ahienatzearren barriz, mamua janzteza edo mamu buru egitea, suarekin jolastea dozu. Horrela mamuari begiratzen dautsona haren zoriaz kutsatu-zorian dagoke eta haren soinekoz janzten dana barriz, haren soinkide gerta daiteke... Eskerrak zuk, Fidel, sorginkeria guztiotatik at, paparrean dozun gurutze horri... Ez, ez eizu kendu Jainkoarren. Ondo emoten dautsu. Ez dautsut esan itxurgatzearren, osterara baino... Ba hare gitxiago abadeak sendotza egunean ipinitakoa badozu. Sendotza esan dozu? Zeozer gogoratzan daust horrek... Ez ete gendun mamu guztien kontrako sendagarri hori beharrezko? Halako bat erosi behar dot, beronen bardina... Bueno, suerte hobea emongo daust, zeuk erosten badaustazu... Ez, hau ez dozu gurutzatu baten herio-mamua, herio-mamu guztien sendagai araoztearen baino.

Berandutxo, baina halako gurutze handia ipini eutsuen Koldori ere haren gauela antolatzen ebenean. Bere lagunak izango zenduzan edo Sokoako abadea. Ez dozu gogoratzen? Gurutze handira begiratu eta nasaiago zenkusan Koldoren betartea, batak bestea adierazten edo hobeto esan, batak bestea salbatzen... Batak hil ta gerorako ohikuna hutsa dala esango dautsue. Hil ta gero salda bero, ez. Hobe bizi gareno ipintea, gero ere bizi ahal izateko. Ez dozu inoiz entzun gurutzearen aurrean deabruak atzera egiten dauela? Bai, holako arteren bat ere erabili eutsun Dantek inpernu lezetako pasadizo larrietan. Eskerrak zeure paparrean ikusiz gogoraz daustazuna. Zeruak zu neugana bialdu zaituelako beste seinale bat niretzat, Fidel. Erosi eistazu mesedez luxu bako halakoxea eta nik jertse gainetik erabiliko dautsut hemendik aurrera, bion itunbenerako eta zorion bila nigana datozenen argibiderako. Beste armak jaurti eta besoak zabalduko doguz. Besoak zabaldu esan dot? Baina ez gero inork errazago tirokatu gaizan e? Ezaguna da, behin besoak zabalik dagoen gizakiak gurutzaren forma hartzen dauela berak ere. Soinean berez gurutzea daroagula esan gurako dautsu, baina hemendik aurrera aitortu egingo dogu. Ederra eta egokia izan zendun benetan izan ere, batek herriaren alde, danon alde, bizia emotea, hemen berak bere odolak erosiak hiltzen jarrai ez daigun gehiago. Ez deritxazu, Fidel? Zer pentsaten dozu? Zeri begira zagoz?"

“ZEURI BEGIRA NAGOTZU, BEATRIZ. EZ ZAITUT mamua, ez hala? Zeuk ateratzen nozu ni mamu guztien liluratik, neure izenez deitzen daustazun bakoitzean. Hemendik aurrera sarriago etorriko naitazu mamu galgarrien erakarriari kontra egin daiozun. Zeuk nakarzu neure izenera eta senera. Orain bada, mamuok zelan arautu dakigunez gero, entzuistazu ihauteri haretako gainerako esperientzia. Zeuk esango dozu gero mamuen eraginetik garbi nagoenentz.

“— Bueno —esan eustan orduan Saturrek—, nahiz eta toki hau turista baten einerako ez izan, horixe egingo diagu: hire pertsonaia aldatu lehendabizi eta egontokia gero, ahal izanez gero.”

Bizarrera eroan neban eskua, arpegi latz, uhardo eta atzitu nenkusan burua.

“— Bizar hori gora-behera... turistarena egingo duk edo eta mozorro kume jantzi haiteke, nahi baldin baduk. Nork zekik gero ere arratsalderako karnet mozorroturen bat agertuko ote zaigun mugazandik honuntz?... Hi lasai...”

Horixe bai, halakoetan bat izan daiteken baino nasaia go ni, batez be harako gozari oparoaren ondoan. Toki nasaia ez zendun halan be. Zutunik edo etxunda egon behar zendun eta geldi denpora guztian zaratarik ez egitearren. Hagatik urdurigarriagoak egiten jatzuz besteem zarata txikerrenak, zeuk isilik egon behar dozunean. Nahiago neban ihauterian arrantza egin, han etxunda egon baino. Ez neunkatsun ba, Mikel Otxin haxe baino beste entretenigarrik eta beti bere aurrean hitzak urtetan eustan edo urten gurarik neunkan mihin puntan: “hiri ez deuek ezer jaten emoten ala? Mamu hutsa hazelako seinale... Ni bizia nok, ez nok mamua —neure konplexua osatu gurarik ihardungo ninduzun. Nik zer dakitsut?— Ez eistak horrela begiratu. Nork emon deuk hiri arrontkideei lez, besteei begiratzeko baimena? Edo hi ete haz nire zaindari barria? Gustora trukatzeko neunke lehengoa. Eraila izan hazela? Edozelan be ez hintzan izango Mortero baino zitalagoa...” Ikusten dozu orain, Beatriz, noren lepotik mamuak uxatzen nebazan? Hobe izango neban lo egitea, batez be iluntzean muga-

rainoko saltoa egin ahal izateko. Erdi lokartu be egin nintzan barriro, eta handik laster ume talde baten iskibiduak iratzartu nindun. Kantuz etozen unadaka, gero eta hurrago:

“Gaur dala Maria kale,
bihar dala Sanpantzar...”

abesten eben. “Gaur dala, bihar dala” errepika harek txikitako Doniene suteak gogazoten eustazan. Harako epaia eta harako sua: “sorginak eta sugeak erre...” abesten gendunekoa. Ez nenbilen oso okerretik, bada umeak behingoan kantuari itzi eta neure alboko oholtzara harrika baten hasi jatzuzan. Hitzelezko tanborrotsa ateraten eben nire belarrietan. “Ze tormendu mota barriak-edo ez dautsuez asmatu behar eurok?” esateraino kontuizu. Ez nenkitsun zutitu ala bedarretan burua eskutau. Zorionean atso baten agirikak uxatu eban laster umeen ekitaldi barrabana. Hareen abarrotsa ahienatu zaneke, neure bihotzaren taupadak entzun neinkezan kontuizu. Ze epai edo barrabaskeria etc erabilen ume barrabanok? Eta behingoan konturatu nintzala nire atzetik barik, Miel Otxinen jasarrarian etozala hareek.

“— Zer? Hi izan haz lapur gaizkilea ala? —ostera be nik arpegira berari.— Horrek heure kontra etorri dozak. Heu errudun eta neu zigorraren jasale. Zer egin dok?” Errua aurreko mamuari egosten neutsonarren, errukide sentitzen ninduzun, espilukoaren legenen errudun, espilua barik, espilu aurrean dagona dan lez. Umeen eta zoroen ahotik gero be egia guztia...

Dana dala, zeuk dinozunez, ez jatan egokia mamu haren ondoan jesarrita egotea. Mesedez handik aterateko eskatuko neuntsan Saturri,” ala Miel Otxini faltatakoak sufritzeko itzi behar ete nok hemen?”— esango neuntsan...

Halatan nengola, neure osteko orma zulotik, txistadea entzun neban. “Garri, Satur nauk —inostan—. Toki seguroagora eramango haut.”

Jagi, atzera begiratu eta Satur bera ez neban ikusten. Orduan mandioak etxeari dautson ate-lehio idekian agertu zan.

“—Umeen barrabaskeriagaitik dinostak?”— itaundu neuntson.

“—Ze umeek?”— berak harritu.

“—Horixe! Nork agindu jautset herriko umei niri harrika egiteko?”

“—Ez hintzan Miel Otxinen mozorroan-edo atera irtengo...”

“—Lastaitik ez nok mogidu-ta...”

Bera harrituago orduan, nik ezelako marrorik jantzi barik, eraso neu babesten nindun oholtzaren kontra izan zala jakitean.

“—Arraioa! —inoan Saturrek,— Zer ikusi ote ditek ba umeok?”

Harrezkero nire pertsonaia aldatu behar ebala erabagi eban.

“—Bazkal ostean nere inbitatua izango haiz. Hik bai al dakik frantxesa?”

“—Frantzez nik?”

“S’il vous plait” eta holakoak esaten bakarrik nenkiela erantzun neuntsan. Egitan, ez naz alkarriketa ondo eroateko. Ondo dakizunez, jende isila nozu.

“—Orduan Bilboko egunkariren baten erreportaria izango haiz”— inostan berak.

Adi-adi begiratu nindun, hatan ikasia bailitzan. Nire begi urte-nak ohartu ebazan.

“—Ez al duk hala?”

“—Erreportari izatea zer dan be ez diakiat-eta...”

“—Gauzarik errexena —berak.— Nik fotografiatzeko makina utziko diat eta hik horixe, erreportariek eta turistek egiten ditekena: ikusi eta ikusiala fotoak atera. Ez al duk?”

Atzera egin nebala uste dozu, Beatriz? Ez horixe. Eta estudioz eta bokazinoz zeu lez, erreportari izatera deitua izan ez nazenarren, egun baten zeure lehikari izan nintxatzun. Ez ete dozu harrizkekoa?... Bueno, zoriak-edo halan alkarren lorratzak zapaltzea nahiko eutsun. Eta eskuetan eguno artean foto makinarik erabili ez neuntsula eta gitxiago Nafarroako Unibersidadean Periodismo kursorik egin, erreportari izendatu nindun Saturrek.

“—Bueno, Deiakoa izango naz”— erantzun neuntson.

Berak be ontzat emon eutsun nire hautapena. Bai, Deia eta bestearen artean izan zendun nire ezbaia. Baina seguruagotzat emon neuntson, nire egoera haretan ha, bestea baino.

“—Deiakoa orduan”—baiestu berak.

Mandioko ate-lehiora igon eta sabaitik zehar etxe barrura eroan nindun Saturrek. Sarkorrakoak egiten jatazan orduan baserriko zantzuak. Duxa ta guztikoa, baserri ondo ornidua emoten eutsun. Dutzatu, bizarra moztu eta nire praken eta bota zikinduen aldagarri, bakero eta plaiera batzuk zuzendu eustazan. Eguzki eguna zendun eta ondo etorriko jatazan. A, eta fotoak aterateko makinea. Makinearen lehiotxutik begiratzen eta erabatera klik eragiten eta hurren palankeari emoten irakatsi eustan. Gauza erreza, berak esan eustanez edo gauza egina nire erreportari tajua. Zuk, Beatriz, zeure Canona aitutzen zendun bakoitzean, “ba... badaukatsuk neuk be —ninotsun nik neure artean— esperientzi horretaz esateko zeozer.” Eta hara, Koldoren zeretik izan ezbalitz be, gu kazetaritzaren arloan-edo beste nonbaiten alkar ezagutuko genduela uste dautsut. Bai horixe! Nondik edo handik alkar ezagutzea dozu dana. Zoriak garoaz edo zoria daroagu. Orduak eta moduak ez dautsue hainbat esangura.

Kazetaritzaz zerikusirik ba nebala emotearren egunkari bat zuzendu eustan eskuetara. ‘Egin’ ale bat.

“—Jo! Ba hemen ez diagu ‘Deia’rik eta antzerakoena zuzendu diat.”

“—Bardin diautsok kasurako”— nik.

Bazkaltzera tabernara eroan nindun. Ni erdi turista erdi errepor-
tari eta bera gonbidatzaille. Herriko ihauterietako erakundekoa zala
esan eustan. Bat baino gehiago etorri jakozan agur egitera bertan
bazkaltzen gengozala eta ezelako hankasartze barik urten gendun.
Herriko gazterian animo handia, umeak ere taberna atetik
kuskusean. Ezagutuko ete nindun bart iluntzean Saturrez itaundu
neuntsonak-edo?... Harririk ez ekartsuen behintsat eskuetan.

Bazkal ostean etxeko ganbara guztia neure aukeran itzi eustan
Saturrek.

“— Gaur nerez ez zioat inori hemen sartzan utziko, baina hala
ere, etxekorik edo kanpokorik ikusten baduk, hik esan Bilboko
erreportaria haizela, nire eskutik, Saturren eskutik, igon dukala.
Entzun duk?” —ohar egin eustan joan aurretik.

Miel Otxini beila egitera joan behar ebalá esan eustan. Ni
ganbarako lehiotik kuskusean hasi nintzan. Eleizearen eta herriko
plazaren inguru bildutako etxe multsoa zendun. Ihauteriko jai
giroan jendea balkoietatik etorkinei begira. Eleizpean jende gehia-
go, banderea eta ikurrina udaleko balkoian. Plaza erdian zurezko
zutabea, abar txorta eta iratze apur bat azpian inguru eukazala.
Bera zan ziur herriak Miel Otxini opa eutsun urkamendia. Jendeak
maiz hara begiratzen eutsun, asmo guztien helburua eta erabat bide
guztietatik itzuri behar zan madarikazinoa bera bailitzan. Halan be
jendea nasai eta jostari egotsun, neu, erreportaria bakarrik ohostu-
ohostuka lehió ostetik.

Arpegia emon beharra baino ez egotzun, bestela nere kamu-
fleak oker urten eikidan. Erreportaria eta kiki? Gainera ha ez
zendun Wiet-Namgo gudea aina, ez ta gitxiago be. “Zeren bildur,
Don Bildur” akulatzen neutsun mutiltasuna. “Saturrekin tabernara
joatean dardararik be ez hendun egin eta bakarrik hemen, balkoira
urteteko horren beste begiramen?” Egia esan, ha ez zendun teatro
beteko balkoia. Zu teatroan edo zinean ilunetan zagoz eta ostean,
han danen aurrean eta argitan zengozan, danean parte hartu behar
baizendun.

Aulki zahar erretiratu bat zuzendu neuntsun ganbara bazterre-
tik. Dardarizuak-edo emoten baeustan, hantxe jesarriko nintzan.
Aulkiari hautsak astindu eta balkoira atera neban. Bertan jesarri
nintzan eta mundu guztia ezarduratan ba neunkan lez, egunkaria
irakurten hasi nintxatzun. Orriak iduli bai, baina ez neuntsun
irakurten, ez santuei begiratzen, orrien hegaletik eta baraden
artetik beste balkoetako emakumeen barbaroa eta begiradak zain-
du baino. Baina noiz atertuko ete ziran euren begiak nire kontra?
“Kasetari arrunta bat nozue, Deiaiko erreportaria. Nere oinetakoak
ez direla kale jantzi? Baina ez daustazue esango nire bakeroak
modan ez dagozenik...”

Eta horrela egunkariaren orriak itzuliala, azkena eta aurrena
bateratu jatazan osterá be. Egunkaria tolestu eta aurrez aurre
disimulo barik, jendeari begira hasiko nintzan. Nasaitu samar
sentidu nintzanean, egunkari tolestua belaun ganean ipini eta non
letra handietan irkurten dodan: “Matan de un tiro en la nuca al
barman del Café Catalán”. ‘Café Catalán’ horixe zendun nik
Mortero gaz gurutzaz josita egoen kalean irakurri neban letreroa.
Biok edan genduneko mostradorearen argazkia be hantxe etorren.
Txoriren gorpu odoldurik ez osterá, halakoetan ohi dan lez.
Erreportariak berandu helduko jatzuzan edo erdi hilik ohera jasoko
eutsuen gaisoa. Bihozkadak zotinka urten gurarik sentitzen neun-
tsuzan barruan, haginak estutu eta begietako ezotasunak iruntzi
nebazan. Ia ezin neinketsun balkoia ustu eta neure zeregina
baztertu. Eskuetan neunkan egunkaria be ezin neinketsun jaurti,
plaza aurreko balkoraino jazarri eustan bestelako arazoa astintzea-
rren. Ez, danari erabat aurre egin behar neuntson: herriari eta neure
erantzukizun guztiei. Oraingoan letra txikiari begiratzen neuntson
eztalakoan eta herriari marrorik egin gabe, erreportari lez.

Roberto Bezara zendun harako... alias ‘Txori’... Ezagutzen
zendun zuk Roberto hori?... Ez izen eta ez izenorde beraz. Neuk be
ez. Halantxe jakin neuntsun hiltzailleak bi zirana, bata bibotedun
zana eta bestea bibote barikoa. Neu, jakina eta Mortero barriz
bibotetsua. Honez gero egingo neunke harek sudurpekook erreko
ebazala, neure fama erre eutsun lez.

Jarraiko lerroetan ekartsun erailketaren zergaitia be "... supues-to confidente de la policía..." Ez eutsoen 'chivato' deitzen, behar bada 'Txori' ezizenaren errespetoz edo haren barman jantzi zuria-rren... Eskerrak egunkariari Txoriren arpegi odoldua erakutsi ez eustalako, eskerrak haren jantziaren garbitasuna irudimenean gorde ahal izan dodana. Gordinegia eta parkezina litzakidan bestela, gizaki bera birritan hiltea...

Egunkari barruan zehaztasun gehiago egozan, baina harakoan ez neuntsun barriro idegi. Nahikoa eta sobra neunkan harako muestreaz erreportariak inokena jakiteko. Neu une haretan Miel Otxinen erreportari barik, Txoriren erreportari urten baneuntsu, ikusiko zendun, Beatriz, letrearen aldea... Baina ezin daiteke inor izan gertakizunaren egile edo eragile eta barriemoile, nahiz eta barriemoile batzuk eragile be emoten dauen. Hala ni behintzat Miel Otxinen harakoan. Ez nintzan bat be garbi-garbi sentitzen. Ezin dautsudaz, esate baterako, ordutik berezi Txoriren arpegi zurbila eta Miel Otxinen ardao gorriarena. Erruaren edo errugabetasunaren koloreak izan daikizuz iruditan eta biak bereizten dodazela, ezin dautsudaz alkarrengandik banandu, erailketa baten argazkian hila eta eraila banandu ezin daitekezenez. Hara ba nire dilema, Beatriz: edo erailekide, edo erreportari... Bai, bai, bai. Funtsean eta neure kontzientzi barruan ez ninduzun bata ez bestea, baina bata eta bestearen fama eta antzak neunkatsuzan une haretan. Orain bada, erailekidearena horren txarto egin nebanez gero, erreportariarena sikan ondo egitea egokidan. Makinea hartu eta fotoak aterako neuntsozan, lumarako ez neuntsun ohitura handia-gorik, baina tira, hasteko zera esan neinken: "Miel Otxin hau 'Mikel Ozina'-edo zenduen honako 'Txori' Roberto Bezara zenduenez. Biak zenduezan hazur eta mamindunak, biak euskal odolekoak, bata herriak heriotzara epaitua eta bestea "muerto de un tiro en la nuca" egunkariak dinonez, baina nik dinotsuet..." Zelan jarraitu neinken gauzea, Beatriz?... Benga, zuk ikasketak daukazuz-eta. Hortxe hasiko litzakezan niretzat behar bada, benetako esturasunak.

"Miel Otxinen kasuan, behin herio epaiatz zigortua izan danak ez leuke birritan pena ber-bera jasan behar. Beraz behin bizian hil

ta eratsia eta sutan erreza izan dana, ez litzake urtero eta hainbestetan, ez eta turistaren atseginerako be, jo eta eratsi eta sutan erre behar. Edo ez ete dozue harrezkero 'aministia' izen ederrik entzun, herritar maiteok? Zerk zaroeze ba batzuk mamuan hiltera eta besteok bizian erailtera?"

Ondo noa?... Aprobadoa beraz. Eskerrik asko. Ba aurrera ekingo dautsot.

"Funtsean behin be ez jat gustatu giza irudiari mamu edo txorimaloa deitzerik, gizakia bera Jainko irudia baldin bada, eta beraz errespetagarria, giza-irudia be aintzakotzat eukitekoa data. Giza-irudia tirokatu, lurrera eratsi edo erretea gizonen legeak debekatzen ez dauenarren, Jainko legean ez da zilegi, asmoa erakusten dauenak, asmora orduko, hogen egin dau-ta..."

Bueno hau herriko abadeari entzuketik-edo dakitsut. Holakorik ez jake gustauko ziur. Nire asmoa bestalde, ez zendun ihauterietako ohiturak herriari itxurgatzea. Herriak berak itxurgatzen dautsuz ihauteriaz bizitzako portaera asko. Bizitik ihauteria edo teatroa sortzeari ondo deritxot, baina ihauteriatik nastea eta heriotzak sortzeari... zeuk esango dautsazu.

Egunkari tolestua eskuetan eta buruz egin neuntsuzan nere erreportari gogoetok, ia arratsaldeko laurak inguruan joaleen dulun-dulun hotsa entzun neban arte. "Ordua da" esan neban, zutundu, besoak karelean kokatu eta foto makinea prestatu neuntsun. Zuriz jantziriko tunturroak errenkadan etozen garrian arran handiak eta sorbaldan txikiagoak ekarrezela, garria eta bizkarraldea danak bateratsu astinka din-dulunako soinu etengabea. Eta harrigarriena, soinekoz sakristau zaharrarenalako puntilla eta guztizko roketek luzea eroatsuen. Kontu eizu, erreportari baino lehenago, ni herriko monagiloa izana nozula. Puntiladun roketea eta eskuan ipizkialako isipua, lehenago eleizkizunetan eta erabilten zanetarikoa. Lehendik tunturrook ikusita neunkatsuzan ez dakit zein herritako jaietan, baina hantxe konturatu nintxatzun lehenengoz isipu harek plazako jendea ur bedeinkatuz-edo ziprintintzen joazela, sakristauek abadearena egiten leztxe. Plazeari ingurutxoak egin eta kalean gora ahienatu ziran, ez nik neure

erreportari makinean eta begi ninietan ondo sartu barik. Joaleak deitzen dautsuez, eleizako kanpean ordea eginaz-edo herria batzen bailiharduen. Joaleen arrabotsa ahienatuala, deabruzko jendea agertu zan adardun eta sardedun eta gorritz jantzita. Hara zuria eta gorria ostera be, angeruen ostetik deabruen prozesinoa bailetarren. Hareek ur bedeinkatuaren bedeinkazinoa baekarren, honek kaltearen eredu agertu behar eben: sardeaz jendeari eraso, aukeratuenak jazarri eta haren arimak sardeaz oratu eta plaza erdiko sugarritara jaurtitekoa egien. Hara esateko, Euskalerriko herritxo baten, zuk liburu horretan, ikusi dozuna, Beatriz. Teatroa edo ihauteria, baina hango inpernua hemen antzeztu. Okerrerrian, izan be, gizakiek deabrueri imitako dautsee eta ez bestelaz.

Hain zuzen be, deabruetak nastean etozan beste tunturrodunak. 'Tunturroa' txoto luzengei deitzen dautse. Soineko sugartua eka- rren honeik be oinetatik kaskoraino, eskuetan barriz, idizilezko eta bestetariko zigorrak, aspaldietako izurritea-edo bardindu gura baileutsuen. Deabru txikiagoak be izan eitekezan, hau da, deabru nausien morroiak. Ez dozu zuk holakorik irakurri? Morteroren jagoleak, esate baterako. Ez neuskizu honez gero 'angeru jagoleak' deitu gura.

Neuk be erreportari eginkizuna ahaztuteraino jarraitzen neun- tsun mamuon dantza, eztalakoan be, eurekin parte hartzen neun- tsun. Harela ezin neinken argazki makinea luzaro euki begien aurrean, ezer argiago ikusi eta ihauterian parte hartzekotan. Erre- portari onak makina barruan ikusgarrien erdia be ez dautsu eroan- go eta onenak, beti be, sentigarriekin nastean, barruan gordeko.


Hurrengo mamua bedegarra zendun, guztiz arraroa egin jatan. Hara arteko mamuak tunturroaren tunturroz luzenga urten gura baeutsuen, beste hau apal eta zabal etortzun zai-sakuak emon ahalako tripontzi eta zango potorrakin. Besteak euren txintzarrien arian edo gaiztaginen leraz etorri eta joan baziran, potorro honek ez eukatsun iradurik. Gizon gizen, baketsu, zorionsu, erromesa- ren makilea eskuan eta kapela zabala buruan. Nor ete zan berau? Plaza erdira heltzean, zaldiko mamu ipertutikariak non gaizto grinaren irrintzika bidera urten eta ostikoz erasoten dautsoen.

Erromesak bere pauso astiroan zirkinik be ez haren erasora. Zal- dikoak ostera, gizaki potorra aparatzen eben bakoitzean perrak galtzen eutsuezan. Eta hareek ziran jendetzaren barreak, perratzai- leak zaldikoa oratu eta plazan bertan mailu otsean berperratzen hasten zirenean. Zaldikoak perratu-barri orduko, grina bikoiztu lez erasoten eutsoen erromesari. Sanpantzar zendun haxe, goizeko ezorduan umeek kantuz ospatzen eutsuena, "gaur dala Maria kale, bihar dala Sanpantzar". Santuren baten izena eroan behar eutsun hainbeste zirikaldiri zutunik eta ezelako jaramonik gabe erantzuteko. Santuen pazientzia ez bazan, nik ez dakit beste zerez bardin- du gizaki zoriondun haren tankera... Uste dozu eritsiok errepor- taierako balio eikidaela?... Ba, noan aurrera, zeure baimenaz.

Han etorran azkenik, santu bedeinkatuaren ostean, herriak eparako itxaro ebana, neure erreportaiako pertsonai berezia, Miel Otxin, tunturrodun bera, aintxinako ereheen buruko gorriaz, eta besoak zurrun zabalik, tunturroaren gorakoak gurutzea hobeto antzeztu gura baileuan-edo. Noizbehinka orpoen gainean irabia- tzen zendun eta haizerrota emoten eutsun orduan, edo galmendia- ren zurrunbiloa. Unadaka bere begi idegi handiak herriaren kontra jasoten eutsuzan, norbait begizkoz-edo jo gura baileuan.

Plaza erdira heldu zanean, Miel Otxinek kalean gora joatekoa egiten eutsun behin eta barriro, baina hedez garritik lotuta ekarren lau borrorok kale erdira erakarten eutsuen ostera be. Plazearen biran eroen, gurutzeari jositako mamua emoten eutsun. Eguzkia- ren itzala luze samar jausten jatzun ordurako plazaren hegal batean eta han zendun itzal dantza edo geriza dantza deitu geinkiona. Miel Otxinek bere itzalaren luzeaz danak izurristau guraz eta jendea alkarri bultzaka eta plazatik urten gurarik eta eleizpeko babesean sartzen, Miel Otxinen geriza galgarriak ikutu ez egizan.

Urkamendiaren inguru ebiletariko baten Miel Otxin —horixe be Saturren jokoa izango zendun, nik bizian sentiduaren— ez jatan ba neuri, nengon balkoe gainera begira gelditu? Txantxa larria eta neuk gura izan baino luzeagoa. Neu nengon ba zer ete ebiltzun Saturrek. Aurrez-aur berari argazkia atera neiola eskatzen ei eutsun horrela. Azalpen erraza, ez hala? Baina azaletikoegia.



Gauzak, ez diralakoan be, zentzu sakonagoa izaten dautsue sarritan. Benga, Miel Otxin arin fotografiatu, bestela funtzinoa geldituko zan eta ni neure erreportari ofizioa salduta... Zentzu sakona ba... nik dakitsut... Zera: goizean presokide hartu nebanak berak herriaren aurrean gaizkile lez salatu izan banindun lez. Nik olgetan hartzen nebala presokidea, baina nork ziurtatzen daust niri berak benetan hartuko ez nindunik?

Arratsbeheran plazatik eguzkia aldendu eta herriak Miel Otxinekin erabilan kontrapasa edo eztabaida amaitu eta Miel Otxinen zemak “zuek ni habeari lotuko nozue, baina nik neure itzalaz jazarriko zaituztet” amaitu ziranean, lau borrhoeok epaitua erdiko zutabeari lotu eutsoen. Ez zan egon antza damurik, ez eta amnistia edo erruki ekintzarik. Lehen ke moltsoaren ondoan sugarrak gora igoten hasi zirenean, herriaren alauriak balkoeraino igon eben. Haxe be bazan Miel Otxinek min eta jailariek erosta egin. Lehen burukazko kontrapasa zenduna orain justiziaren garaipenezko eresia-edo emoten eutsun.

Ni sor eta lor Miel Otxinen mamua suak erruki gabe mihaskatuala, jausten eta hausten ikustean. Azkeneko fotoa berari ateraten niharduala, norbaitek ostetik sorbaldan ikutu nindun. Errea neu izan banintzan, ez neban ikara-min handiagorik hartuko.

“—Hator, mutil —inostan Saturek—. Hor zeudek besteak.”

“—Nortzu?”— Ni begiak urtenez eta balkoetik saltatzeko be gertu.

“—Mugara nasai asko eramango hautenak, to. Nor beste uste huan ba?”

Neure barruko garrei estalkia bota behar izan neuntsen.

“—Jo! —urten eustan—. Eta ni heu ere suak hartuko ete hinda-lakoan.”

“—Bai agudo —berak begiak be bihurrikatuz—, lastozko mamua garaiz utzi ez banian!”

Saturek “hor zeudek besteak” harako ezustez eta funtzinoa

amaitzear egoela, esan eustanean, okerrena pentsau neutsun orduan, Beatriz, gero eztalakoa egin neuntsunarren.

“— Itxaron daiela horrek —erantzun neuntson Saturri— harik eta neure erreportari lana amaitu arte.”

Miel Otxinen azkenak ikusi gura nebazan, sua amatau eta gero haren ondakinak zelan batu eta erre kara jaurtiten eutsuezan.

“— Beste foto bat, mesedez,” —erregutzen neuntson.

“— Alperrikoa izango duk baina —barrezka berak.— Hi hai-zen erreportaria! Ez ahal dakik makina horrek ez dikala roilorik?”

“— Hutsik dagola, esan gura daustak?”

Asarre imintzinoa egin neuntsan Saturri eta ezpainak oska gelditu nintxatzun nere erreportari lana horren zapuztu ikustean. Gomutagarritzat ondo ordaindu eta argazkiok neugaz ekarteko asmoa neuntsun.”

8

“Han iztia ez da amnistia” (esakuna)

“NI EZ NINTZAKENAN SUTATIK KASTAINAK INO-
rentzat ateraten ihardungo. Bada, zuek amnistia gura dozuela, bes-
teok gaztainak gura dautsuez atera. Heuk be ez hendun esan ba
harako “Hator, mutil, etxera” kantau baino gura dautsuela orain
“kastainak erre artean, kastainak erre artean” errepikatzen jarrai?
Horixe: kastainak erre! Eta noren eskutik hatan be!... Hori dinonat
ba! Horren begira bazagoze, gaztainak zimeldu ezeze, usteldu be
egingo jatzuez... Ederto, ba, Jone. Heuk “Hator, muril, etxera”
abestu gura izan hendunala lehengo eguneko manifestapenean eta
inork be ez erantzun bestelako begirakun ahierkoarrez-edo izan
ezik. Ze kalte diagon ba “hator, mutil, etxera” abestean?... Gabon
usaintxoa daukala? Etxe-mintxoa? Ala armetan diharduenei armei
agur egitekoa?... Presoentzako ia ez dauela gaztaina zimela beza-
lako janari mengelik gura? Jo! Gaztaina zimela baino jateko in-
dartsuagorik gurako joen ziur haren ahuldura sendatzekotan.
Turroi gogorra, esate baterako. Ederto! Egin ba paketeak eta
bialdu turroi eta mazapanak kartzelatuei eta Frantzian dagozan
errefuxiatuei. Egun bateko aloguraz lagunduko dautsuegu. Ea
horrela etxerako mina gozatzen jaken edo horregaz konformatzen
diren...”

Gaztaina zimelak jateko garaia joan zala. Je, esan be egitea! Eta
Marikastainaren ipuinetan sinestea ez ala?... Zera: turroiz asetzeak
ez jonala beteko kartzelatuen etxera gurea, biztu baino. Gaztaina
zimelak lez. Edo ez jeutsen dagoneko ezer esaten kantuarren
gorakadako “ikusiko dok aita barrezka, ama be poz atseginez” ha-

rakoak? Gaiztaina zimela baizen mengela ausaz askoaren estarrirako ala gozogia halako burruka daroentzat?

Kartzelatuen etxera gurea alde batetik eta etxekoen yorana bestetik, batzuen pena eta besteen etsipena alkarren gainean pilatu ezik... horixe, ze tiro egin leikenan euren gaztainak erretzean? Eta zuek barriz, hor kalez-kale, manifestapenik manifestapen Potikos halako tipoekin. Suertea diaukanagu beste batzuk halakoegaz topo ez egiteaz bakarrik... Zuek barriz, halakoekaz eta halakoentzat 'txipli-txapla' euren txistua jo eta euren tanbolinari eragiten, zeuok boto bila zabizen artean, eurak 'pun' erantzun eta danon zorion gurako kantua danon zoritzarreko alauri bihurtzen dozuela... Pentsa egiken hobeto hurrengoan noren erostari bihurtu hazen ama-ta danok halako prozezinora lotu gurarik. Ama lotu don, baino kostako jan aita ta biok lotzea... Ez, ez don hik dinoan ezardurarren edo federik-ezagaitik, eta ondo dakin hori, bestelako opinioa daukagulako baino. Jakin gura badon lehengo doinuak eta letrak kantatzen jarraitzen jonagu "hator, mutil, etxera" eta horren gainean jarri daikezan letra barri guztiak. Ez lehengoak kenduta. Zuen bideak ibilita diaukanaguz Fidelek eta biok, etxetik kalera-koak oinez eginda gainera, aitagaz batera joan gintzazanean eta ez orain zuek lez, kotxean. Hi neska koskorra hintzan orduan eta amaren ondoan etxezain geratu behar izan hendun, jakina. Guk "hator, muril, etxera" abestu eta beste barik lortu gendunan harakoan espetxeratu guztien etxeratzea. Ha zonan amnistia orokorraren ordua. Zuek oster, hik behinipehin, orduan golperik be emon ez zenduelakoa daukazue, antza, buruan sartuta eta oster be Gabonetan kereizak gura dozuez. Horixe: kereizak Gabonetan!... Gainera, neuk dinonat, ez hendun harakoan ezelako okerrik egin etxean amagaz gelditzean. Orain geldituko bahintzan be bardin, kontuin. Edo negua amen negarrekin-edo biguntzen dala uste al don? Ea ba hurrengoan gozoago abesten dakizuen "hator, mutil" hori danok alkatasunean "Gabon gaua pozik igaro daigun"...

"NIK EZ JOAT EUKI LAGUNAK AUKERATZEKO LUXORIK. Ze uste dok ba? Potikos Agerreko edo Ane Beitibiskoko

neure gustokoak direla? Ez eta hurrean be! Baina guk preso eta errefuxiatu guztien amnistia, hau da, guk gure Fidel etxera erakar-tea gura badogu, danon ahaleginak alkartzea baino bide hoberik ez joat ikusten. Ze erru diaukat nik halako ahaleginetan Potikos edo Anekin topo egiteaz? Honez gero jakin egin behar hendekek nire helburua ez dokala halakoen-edo manifestapenera mozorroto agertzen direnen lagun izatea. Baina gitxi batzuren gorroto eslogan eta zarraparragaitik ez dauskue etsiazoko bestelako geure burrukan. Gure asmoa, gehiengoena beheniphein, ez da haren gorak txalotzea, presoak eta errefuxiatuak etxeratzea baino. Orain bada, hik gitxi batzuren grina eta jokera egotsi gura badaustak, ez nok ezagutzen edo Beitibiskoko Anegaz konfunditzen nok. Ez al dakik Jone nazela eta ez Ane? Jakik ba, ez noana neure gustoz inongo manifestapenera, kontzientziako zeregin batera baino. Ama barriz... berak erantzungo deuk nik baino hobeto. Zer esan neinkiok bestela hurrengo bisitan gure Fideli? Zer idatziko hurrengo kartan? Negoziazioa ondo doala-ta, nasai egoteko? Eta zelan gura dok negoziazioa ondo joatea, herriko errepresentazio zabal baten bidez indar egiten ez bajoagu?... Ea noiz konturatzen hazen heu be, nahi eta nahi ez, gizarteko indarren zurrumbilo horretan sartuta gagozen... Nik ez diakiat batzuk prakak zertarako daroazuezan be... E, kontuz! Nik ez joat hori esan, ezpabe, orduan lez, danok alkartuko bagintsozak, laster gendukela oster be amnistia baino.

Eta hanartean gure Fidelentzat turroi hoberik badok, emoistak neure eskuz eroan daiodan mugazandira noan hurrengo baten. "Turroi hau heure anaia Mikelen partez" esango jautsoat. Eztalakoan be poztu egingo litzakek barruan, ez dakik zenbateraino poztu be. Hori bai, gainerako gure politika eztabaidez berbarik be ez. Ez daijala pentsau bera dala-ta, etxean opinioz bananduta gagozanik, batzuk Eajeko eta beste batzuk Atxebeko militante eginik. Ba dinoat, politikaz hitzik be ez. Gainera horrelakorik entzun be ez jok egin gura. Lehen be ez zoan sartzan horretan, ez orain be, antza danez. Bere errugabetasunaren aldeko prueba bat gehiago... Baina, honez gero nori ardura dautso gu bakoitzaren opinio edo barruko sentikerak. Hori bai litzakela benetako askata-

sun, norbere sentipenei jarrai eta norbere gogara ihardun ahal izatea... Horixe baina, geuk gura ez genduken gizarte zurrumbilo honetan sartuta ez bagengozak eta geure gustoko lagunak aukeratzeko luxoa larregia ez balitsok. Gura geunkena, gura geunkena... Ezin geinkek egin baina. Ez hik eta ez nik eta gitxiago gure Fidelek...

Ez egik ba uste, honez gero bere aukeran daukala mugak itzi eta etxera itzultzea, errubakoa dala-ta, beste barik. Gauza bat dok bera bere kontzientzian errugabea izatea eta beste bat gizarte honek sinestea... Dana diagok katean eta ez eik egin barrerik... Katean esan joat, ez kateatu, dana katean organizatu baino. Hau da, batek egiten jokana edo egin leikeana danok batera edo bateratsu egitekoa dala. Estrategia dok, ez hala?... Ez, ez, ez. Ostera be nik ez joat esan "herri armatua, inoiz ez zanpatua". Edo estrategia armadako ganora bakarrik dala uste dok? Ez, txotxo. Zeuok be zer egiten dozue ba lantegiko produzinoan? Bakotxari dagokiozanak bete eragin, ez al dok, danok produkto berbera merkatuan aurkeztu ahal izatekotan? Ba hori estrategia dok, jakin daikan. Nik gure Fideleri bidea erraztu behar dautsogula esan joat eta hatarako estrategia bat behar dogula... Ez hagola estrategia honegaz konforme? Ba asma-tu egik hoberik. Lehen be joan nintsoan berari Gabon ikusaldia egitera eta ez eustan errekorik emon, belarrira esan nengion. Oraingoan be ez daustak emon ez turroi paketerik, ez aparteko mosurik. Hatarakoxe mugea igaro eta ez ete daustak bere barririk eskatu behar? Ala neurez kontatzea bakarrik gura dok? Bueno, ba, hemen lehen aitari eta amari kontatuak esango dauazat ea behin gure Fidelen situazioaz konturatzan hazen..."

"SUFRITZEN EZ DAUENAK EZ DAU IKASTEN, JOSEFA. Sufriduazo barriz, maite gaituenek egiten dauskue gorroto gaituenak baino harago. Gozaro edo gazaro hemen bide batzuk ikasi beharra dago. Buztari bera onartu dozuen eskonduak, esate baterako, ezin zaitekeze aldebanatu edo alderoka ibili, pauso bateratsura baino.

Ziur nago zuen mutilak be, Fidelek, zelanbaiteko atzerrian dagola, eta zer esanik be ez, karteletan-da urteak daroezenek, zeozer ikasteko erea eta aukerea izango ebela, horixe ez dakit onerako ala txarrerako. Onerako izango dala uste dogu. Indarkeriak atarramentu onik inortxori be ez dakartsola ikasten badaue, ez da gitxirako izango. Indarkeria izan be, hartzen dauenarentzat mingarria bada, eragiten dauenarentzat laidogarria baino ez dozu. Ez dakarrela probetxurik ez zerurako eta ez lurrerako, indarkeria inpernua bera dozu-eta. Indarkeriaz eta herriaren alde diharduela? Herriaren alde zu eta neulako jendea gabiltzuz, Josefa. Zer egin dogu geure bizitza guztian, nahiz eta arlo ezbardinetan gabizan, geure hurkoaren alde osasuna eta astia emon baino? Eta bizia emon behar balitz be bardin. Eta halan jarraituko dogu aurrerantzean ezelako jubilazino barik. Eurak herriaz ezeze, mundu guztiaz arduratzen direla? Ez dakitsut zertan. Aldarrika eta txilin gitxiagoz arduratzen diranak ezagutzen dodaz eta inori kalterik egin gabe eta bai mesedeak askori: geure misiolariak hain zuzen... Jo, eta nik zuen Fidelegan neunkazan amesak ostera be gogoratzean, ene!...

Eurak euren indar eta iraultzaz hiru urtetan egin gurako leukela gure misiolariak hiru edo lau gizaldietan daroena? Zera! Bazterrak ondatu eta odol-gorritu bai. Eta halan da be azala baino ez dautsue aldatzen, indarrak ez dauelako giza-borondaterik mogitzen, maitasunaren indarrak baino. Gurutzek eta ez armak mobitzen daue gizakien bihotza eta alderik alde iraultzen...

Gazte askoren pekatuan jausi jatzuz: urdurikeria larregi eta kementu gitxi, horixe, Josefa, fedeagazkoa aparte; amorru larregi eta maitasun gitxiegi, gauza onerako.

Iraultza, iraultza... baina zein da benetako iraultza? Lepoak makurtuazo ala gogoak konbertitzen dauzana? Hor gurako neuntzuz ikusi, ez zigorrak eta gurutzak banantzen, alkarren gurutzak eroaten baino, ez inoren eskubideak hankapetuz, danei askatasuna opatuz baino, ez heriotzera daroan armen indarkeriaz, askatasunera garoazan gurutzeko sakrifizioaz baino.

Itxaron egin beharko dogu, Josefa. Jainko graziaren iturriak ez dira ahortu, ez eta ahortuko be. Eleizamak atek eta bihotza zabalik

daukaz eta geuk be Jainko salbatzailearen mesede-banaketan ekingo dautsogu geuretik. Gazte asko ez jakuzala etorri be egiten txikitan ostaz jastatu ebezen iturrietara? Bai, arerio maltzurak eragozten dautsee ur garbietara “zertan zoaze mezarara? Abade zaharrak kalizatik edaten eta zeuok hainbarik gelditzearren” eta holako umekeriak esanaz. Hau lehengoan ama batek kontau eustana dozu. Arerioraren taldeak oratu dautsuz. Arerio maltzur horrek apostolu asko daukatsuz... Hirugarren munduko pobreei laguntzen baino etxe ingurua lardaskatzen zaletuago dozuz. Eta batabesteen erruz, Kristoren kalizatik aldentzen direla, ez dozuz konturatu be egiten Kristorena baino mila bider garratzagoa dan kaliza edatera behartzen dauezela gure batzarretik aldendu dauzenek. Hau da, salbamen kaliza ezetsi eta edaki pozoituak hartzera. Gero mozkortu, gero drogatu, gero gaisotu egiten jatzuz... Jainkoaren esanetatik ihestean, Ejiptiarren menpean jausten jatsuz ostera be, historia zaharren parterik txarrena barriztu daroela...

Gu zertan goazen mezarara, Josefa? Argi dago. Bada ostaz norbaitek lagun zintzo baten alde bizia emon leikelako. Kristok ostera, gu arerio ginduzala, geure alde bizia emon eutsun gu santutu eta salbatzearren, Apostoluak dinonez. Zertan goazen mezarara? Berbizkunderako izan dogun Kristoren Heriotza gogoratu eta geure alkartasun jaia ospatzera. Eta zein kaliza edatera gero, ezpabe danon bedekazinarako ixuri izan dan odol bakarra-rena? Eta Jainkoagaz baketu eta hurkoagaz anaikidetu gaituena, hain zuzen? Ez ete aintzat eukitekoa ezeze pozez mozkortzekoa halako kaliza?

Ez dautsu ulertuko horixe Kainen espirituak, Josefa. Eta hara non, mezzatik aldentzen direnok noren bideetara bihurrikatzen jatzuzan. Mezzatara baletoz, han Kristo gurutzatuak eta batzarrak salatuko leuke Abeli dautsoen gorrotoa, salatu eta salbatu halako herailketak barriztetik. Kristoren kaliza mingarria jakula? Osagarria harago, Josefa. Bestea bai dozulako mingarria, Kristorena ez dana, pozoia osakaiaren aldean dan bestean hatan be.

Niri hilen mezzak agintzen daustez gehien bat eta hara zuk, Josefa, bizien aldeko mezza eskatzen daustazu ostera be. Osa-

kaiak, bizientzako dozuz, izan be. Halantxe beharrezkoago emoten dautsut mezzak bizien alde eskeintzea hilen alde baino, bizitzan Jaungoikoaren mesede eta konbertzinarako aukera gehiago daukaguzalako. Bestalde arimen purgatorioa handia izango da inon bada, baino bizi askorena be ez da makala izaten. Hagaitik ondo be ondo egiten dozu, hilak ahaztu barik, biziak gogoan izateaz, Josefa.”

“BAÑOAK ETA MUGAN POLIZIAK ADI, GALEKOAK direla-ta...neuri ezer be ez, pasaporte begiratu bakarrik ohi dan lez. Gauzak aurreratu eta begiluzeren baten susmoak moztzearren, taxisa hartu eta bertaraino, berak aurretiaz esanda eukastan kale eta zenbakian. Lehengoan barik, beste batean. Ez diakiat berak be galekoen bildurrez-edo aldatu dauen. Aginduriko ordu-orduan itxaroten aurkitu najoan atean barrutik. Nik deituala, berak urten. Zurubi estu eta ilun batetik goiko pisu edo ganbara izan eiteken tokiraino igon eta eskaratz antzeko baten sartu gintsoazan. Bere neska lagunaren bizitokia zala, esan jeustan. Orain badakik Asunen ordezkoa idoro jokala. Zer dinostak?... Nik neskea bera ez joat ikusi, berak aurkeztuta behenipehin, baina gero esango dauat. Sukaldetxoa eta gelatxo bakarra zoan bizitoki osoa. Gurasoei ez jautset holakorik esan, baina gure goiko sala baino pobreagoa eta batez be estuagoa. Bera ez diakiat orain ze etxetan bizi dan, lehengo Anaiartean ala beste lagun batzukaz, baina hartu, orain arte han edo kafetegiren baten hartzen ninduan... Orain han be arriskua toki guztietan edo bere burua lar saldua ikusten ebalako gendearen aurrean, ez diakiat... Hori dala-ta hartu ñok neska lagun horren pisuan. Ze harremon daukeen alkarren artean? Heuk zelakoa uste dok? Ba ez diakiat eta itaundu be ez jotsat egin. Bizkaitarra dala bakarrik, eta ikasketa arazoez-edo hara joana. Ikasketa arazoez, baina gero kafetegian ikusi dogun neskea izatekotan... “Zer? Galekoan bildurrez?” —itaundu jautsat.

“—Galeko diranen eta ez diranen... —berak erantzun.

Galekoak ez zirenak nortzu ziren nik eta ezpanak astindu eta samea bihurrituz berak. Beralako damutuak kezka zala hori. Ea



“damutuak ormara” edo holako letrerorik irakurri ez neban mugaz-hemendik.

— “Damutuak ormara?” —nik harritu.

— Bai, ormara, ta-ta-ta, badakin... — Tiroen seinua egin ejostan atzamarraz.

— Ba ez, nik ez joat ikusi holako letrerorik eta pentsa egik Autzikatik honaino zenbat kilometro diren...”

Halan da be bera ez zan baretzan. Euk ikusi dok halakorik? Egia esan, kamino hegaletako ormak egunotako hauteskunderen papez beteta diagozak, egon be, eta hainbesteren artean zera hori ez ikustea... Bai benetan eta zorionean ez dala ikusten agirian dagon guztia, ez entzuten esaten dan guztia. Onak gengokez bestela! Batez be euren etxeko ormatan “ROJOS AL PAREDON” harakoaren orde, “DAMUTUAK ORMARA” edo danadalakoa agertuko balitsok. Aldea galanta! Lehen erderaz eta euskaldunen kontra... Ez hainbeste alderik be. Lehengoxe amorruek aginduko baileuan. Lehengo erdaldunak euskaldundu ete dozak ala lehengo ‘gorriak’ damutu? Ez joat ulertzen... Bai, bai, arrazoa dok. Horretan ezin geinkek esan gauzak lehen lez jarraitzen dauenik. Zeozer aldatu egin dok. Ormak euskaldundu dozak, asmoak erdaldun jarraitzen dauenarren. Hori, hori, amnistiarik izan ezbalitz, edo izateko itxaropenik be ez balego lez.

Dana dala be, gure ama ez dok gitxi poztu, ha damututa dagola esan dautsodanean. Damu izatea ze ausardi arriskutsua dan jakingo baleu, ez diakiat hainbeste poztuko litzakenik. “Txoritxoa kaiolan niagon —esan diaustak—, eta orain ehiztariak kaletik diabilkuzala”, galekockaitik. Haseran ez jautsak jara handirik emon esakereari, baina ganbara goiko zurezatuari adi-adi ma muak ikuslen lez ohartu dodanean, arduratan jarri niok. Ez irudian betiko Fidel.

— Ez egik pentsau holakorik —esan jautsat.

Apur bat itxaroteko, amnistiako ekintzak gero eta jende gehiago orapilatzen doala-ta. Bera animatzearren, esan jautsat hori.

Negoziazioa datorrela-ta... Oraingoak kale egin dauskula? Beste bat etorriko dala beste aukera bat honen ostean. Ez uste gero asko animatu danik esan dautsodanagaitik. Ez da harritzeko. Hareek egina ikusi gura joek, guk egiteko daukaguna. Jo! Halako etxe baten bizi eta ezpatea goiko habetik dindilik eta morala lehiotik behera eukitea zer dok ba!... Jeesus! Bizi-bizirik eta bizi izateko grinaz dagoen mutila handik atera edo bizitoki hobera aldatzeko erarik bagendu... Bizibide hobera dinok? Ez dok gitxi eskatzen. Bai, bere kidekoengandik aldendu eta konfiantzako emakume batengana hurreratzeak zeozer esan gurako jok, ez hala?

“—Ezer falta jak?” —esan diautsat gero.

“—Ez dirutan-edo erosi daitekenik —berak— Askatasuna esate baterako...”

“—Jo! Orduan batzuk kartzelan eta beste batzuk mugaz hemendiko baztergoan eta guk barriz amnistiako manifestapenetan lortu behar ete joagu ba, Euskadiren independentzia?”

Nik neure barruko irakin guztiaz esan diautsat eta berak etsipe-nezko irribaretxoa egin jaustak erantzunez, ez batean eta ez bestean sinistuko ez baleu lez... Bueno, bueno egon hadi isilik, neskearena esatea gura badok. Bertan, sukalde tutu haretan antolatatu joagu mokadu bat. Frigorifikoa ondo ornidu, butanotxo bat. York pernila, arrautsak, hiru-lau gaztae mota, fruta batzuk eta zumoak. Etxeko erregaloak —etxekoen artean heu be sartzen hintzan, jakina— hurrengorago izteko eskatu jaustat. Gero kafe batera gonbidau niok, handik hurrean dagoen kafetegian. Oraintxe diatork neskearena, txo. Mahaian jesarri eta neska begi urdin bat hurreratu jakuk. ‘Beatriz’ deitu jaustok. Ez diakiat zergaitik, baina neska bera dala egingo neunkek harako bizitokiaren jabe edo danadalakoa... Zergaitik? Ba... neskeari deitzeko aboskera edo begitzeko eragaitik, zelan esango dauat?... Bai eta bera geuri behin baino gehiagotan begira ohartu izan joadalako, jakina neuk be begirik ez neutsoan kentzen-eta. Egingo neunkek zera aditzen emoteko gogotan egon zirela be. Zergaitik egin ez eben? Behar bada ezkontzeko asmorik ez daukeelako. Ezkondu be halatan

zelan baina? Edo jendeen aurrean alkar ez konoprometitzearren, edo sorpresa bat eukiko jauskuek, nik zer diakiat... Dana dala neska formala eritxi jaustat. Beatriz Fernandez, Fidel Garaita... Ez dok uste erastun polita egin leitekela euren abizenetako siglekin?... Fernandez abizenak iguintzen hau? Bitxikeriak? Polita dana polita dok. Horixe gehiago. Bueno ba, jakin egin joat bere abizena be. Ama euskalduna jok ostera, Munitxa... Bueno hurrengorako gauzea helduago eukiko joek eta orduan esango jauskuek.

Alkarrizketea asko luzatu barik, ordua be ba zoan-eta, neskeari agur berezia egin eta autobusera lagundu jaustak. Salto batean mukan. Aduanan ezelako eragozpenik be ez, baina betiko zaputzalakoa barruan. Zergaitik ni bai eta bera, Fidel, ez? Ze oker edo erratu egin jok gure Fidelek, alkarregaz mugea ezin igaro ahal izateko?”

“ANTXINAKO TXORIMALOEN AZKENA KONTAU BE-har dautsuet, lehendik be herrian josarikoaren ez-jakitun zagozela, horren itxumustu erabagi ez dagizuen eguneroko auzietan.

Gauze izan behar eutsuen txorimaloen burrukearen handienak. Ni lo egongo nintzan eta ikusi ebenak be ez datortzuez danak bat. Era batera entzun neuntson gure aita zanari, goian bego, eta bestelaz etxebarriko Simoneri, goian bego bera be.

Gure aita zanak inoanez, Autzikako txorimaloak "zein gehi-ago" eupadea eroen eta erronka horrek izan behar eutsuen errieta sutu eban txinparta. Simon Etxebarrikoaren araura barriz, autzikar-rrak eurak izan zenduezan txorimaloei zigorra emon eutseenak eta ez nintzake bat be harrituko. Antza danez, txorimalook, euren arteko eztabaideaz, baratze-zaintzea guztiz zabartuta ei eukatsuen.

Niretzat kontakizun bi baino, harago dozuez jazokizun beraren begitantzino bi. Batak ikusiarenetik eta besteak entzunetik jakin izan baleue lez. Batak besteak dakartsue, edozelan be. Orduan zenduen ba harako 'lekuan lekuan maloa, gurean handiagoa', txorimaloak uharitu eta pustuala, baratza zabartu eta murriztu

zanekoa. Txorimaloez gitxiago eta baratzaz gehiago arduratu baziran, ez zan horrelakorik jazoko. Bada, esan dodanez, autzikarrok be, etxaguntzen izen eta gizenean baino be, txorimaloen traputxuetan eta koloreetan eukatsuen pusmina hartuta, ikurrinedo bai-leuezan... Ez eistan niri itandu, atsoen esankizun horrek beste esanahiren bat diaukanentz. Nik kontau eustena...

Arbi sasoiaren izan zenduen, beti lez, arbiaren lorea joan-barri. Ez da lore-lorean dagonean izaten, lorea joan da handik aste gitxira baino... Heuk erakutsiko dautsat aitari arbia noiz ereiten dan eta arbi buruak noiz biribiltzen dozakan. Jakin nahi badok, gure arbiburuak heure arpegiarenalako gorriska-gorriskak zoazen. Baina ez najoak horra. Arbiaren lore ona be neguko arbiburu onetik sortzen dokala esatera baino. Eta neguan lei baltzak izan badozak, arbiburua usteltzeraino jo ez bajoek be, hareek berea itziko jautseek, buruari, aihenari, loreari eta azken baten haziari. Eta orduan alperrik dok errua arbitxorieri eta txorimaloei botatea.

Udabari haretan errua norena izan zan horixe ez dakitsuet, neguarena, txoriarena ala txorizainena. Ohikoak baino paseko txori gehiago izan ei zala bakarrik. Baina zio guztiok kontuan izan beharrez, autzikarrok eta autzikar helduek, (ez ni, ni lotan egotzuen mutiko ninduzuen oraindino-eta) txorimaloei erru guztia bota eta kitu. Errua eta zigorra... Bada Simon Etxebarriko kontatzen ebanez, arbi aihenen zartateko zigortzen ei ebezan txorimaloek, non huts egin eta hatan zentzatuak-edo izan eitezen. Txakur arrautza jaleari arrautza ustela janazo eta arrautza iguina sortzen jakon lez, kontuizue. Hemen be bardin. Zaindu beharreko arbiak aihen hutsean itzi ebezela-ta, benga aihenokaz astindu txorimaloen bizkarrak. Zigortu, egunez zigortzen ei ebezan eta gauez euren eztabaideko trapuez erantzi eta bilosik gaueko otzera behartu. Errua badaezpadakoa, baina zigorra doblea, hori bai. Txorimaloak zentzatu? Zelan gura dozue halako zigorrez inor zentzatzea? Autzikakoak ez behenipehin. Okerraren einoko zigorrik edo zigortzaileengan zentzunik ikusi izan baeben, ausaz bai... baina txorimaloek, beti be, gizakiengan ikusten dautsuen bera errepi-katzen dautsue, tximinoek lez kontuizue.



Autzikarrengan zentzun izpirik-edo ikusi baeben, nork jakin... Halako zigorraz baina, txorimaloek eurak be gaiztotu egin ei ziran, eurei eginiko bidegabekeria kidekoengana banandu gureak amorratzen ebazala. Eta arteetan trapuen eta koloreen moda hutsa zalarik, harrezkero euren beso eta zurezko beso eta oinak egur hotsean makilakiski astindu ei ebezan, Patxi Zaharraren (Jainkoak aparta) ejerzittoa, tanke eta guzti, Autzikako baratzetatik igaro izan balitz lez, edo Gernika erre ebanekoa, nahiz eta Gernika erre ebanekoa bano urte banaka batzu lehenago izan Autzikako txorimaloena. Etorteko zenduen ondamendiaren iragarle ausaz, batek badakitsue, baina halakoxeak izan zenduezan Doniene haretako suak. Zer dala eta ha dala. Txorimalo guztiei sorgin burua egotsi eta egur eta trapu guztiak arbi aihenekin batera plaza erdiko sutara. Ez ete egon herrian beste sorginik edo sasirik? Neu ez ninduzuen harako auziaren erantzule, esan dautsuedanez, bai ostera, begirale. Neure protestatxua egin neban, hantxe erre ebelako, arma eta guzti, neuk aurreko urteetan lez armatu neban txorimaloa. Negar be egin neuntsuen eta burua euren hankatzarpetik igaroazo egiten euskuen kankailoek sutondotik axatu ninduen. Eurak, herriko kankailoak ziren errudun, sugarren gaisetarik salto egin gura ebela-ko, nahiz eta sutan erre behar herriko ohore eta ikurrinak. Bide ertzeko sasiak aurretiaz ebaiten saiatu izan balitzaz, ez eutsuen halako bide erraz eta traukilera joko.

‘Ipuinak ipuin’ esango dozue, baina, enetxuok, ez dozue horregaitik ipuin alperrak izaten. Ba dinotsuet harrezkero Autzikatik ez dala txorru edo txirrixkilarik igaroten, harrezkero arbazirik egon be ez dagotzue Autzikan-eta. Eta ni ez nago bat be konforme ipuinokin, bada gauzak beste era batera konpondu edo asmatu eitekezan danon probetxurako. Edo ez ete dago herri honetan herriko kankailoek Doniene suetan egin hoi dauen auzia baino zuzenbide hoberik? Edo, sorginik aparte, ez ete dago beste sasi edo sastrakarik gure alorretan? Bai, egin zuek barre eta aurrekoen bide zuzenak jarraitzen baino okerretan hurrago zaku-set. Ez dakizuela jazo edozelan be, erratu zaharra barrizterik, gauza barria inbentau dozu elakotan. ‘Ipuinak ipuin’ esan zeinke, baina Autzika ez dozue lehengo Autzika. Kaleak iruntzi daroala, izan

danik be ez dautsue emoten. Txorruak eta txirriskillak bakarrik? Neuk dinotsuek martxa honetan autzikarrik be hemen ez dala geldituko... Zer ba? Ez eik uste mamuen kontraka eraso aspertu barik geldituko dan...”

“BAI, ALABATXO, JOANGO EZ NON BA MANIFESTA-penera? Arrisku horretan ez haut bakarrik itziko ez eta be hasi gendun lana erdizkatu baztertuko... Ze arrisku dinostan? Ba burru-ka gora eta burruka behera, heuk esango daustan arrisku bako burrukarik ete dagon. Onenean be, norbera garraztekoa, alabatxo, ardao onari, ona izanarren, jazoten jakona. Primerako ozpinak ez jauskun gero balioko ardao arruntak beste. Batez be ez gaozan gozatu edo poztuko... Ba dakin zergaitik dinonadan. Manifesta-penera bagoaz, geure Fidel eta gainerakoak etxeratzearren don eta ez inoren kontrako irainetan edo meatxuetan hasteko. Ez jonak heu gogorkerian jausterik gura. Zintzotasuna ez diagon bihotzberata-sunaren kontra, zuzenbidea egiten laguntzen jautson ostera. Poza baino ez daustan emon gure Fidelenaz... Ez dala konbeni esatea?... Ez daukala zertan damuturik? Bai edo ez. Ea zertan geratzen hazen, alaba! Damuaz, damuaz pozten non ni. Neure damuaz, heurez eta besteenaz. Txarto eginaren damuaz. Mundu honetan ez diagon angerurik, baina, dana dala, damutua beheniphein Jaungoikoaren eskuetan diagon, eta gurasoen etxean ez dagola be, esku onetan ikusten jonat gure semea. Heu ostera, alaba, amagaz etxean hagolarik, ez dakin zelako kezka ikusten hautan Ane Beitibisko-koaren eskutik oihuka ikustean... Bai, baina ostera be, heure zintzotasuna aitortu beharko daustan gero neure gogoaren bakera-ko. Ai, alaba, alkarri zer parkaturik ez dogula be, bai Jaungoikoaren aurrean zerez damutu. Damua zerua don, bada damuari Jaungoikoaren parkamena diagokon. Gizonen aurrean zertaz damutu-rik ez daukeela dinoenek be ez diagozan garbi haren aurrean eta gitxien Jaungoikoagan sinisten ez dauela dinoenak. Horreek ez batzuren eta ez bestearen aurrean. Eta auzi biok, bardinak ez direnarren, batabesteari lotuta diagozan Jainkoagazko eta lagunur-koagazko maitasuna lez. Ba dinonat, damutua oin bata zeruan

diagon, damurik gabea barriz, oin biak inpernuan. Hagaitik poztu non gure Fidelen damu albisteaz... Hara, bihotza eskuan dinonat, gurago neunkela, damuturik eta bertan irautea, ezelako damu barik etxera etortea baino. Bada horrela bizirik iraungo leukenan eta damurako gei ez dana barriz, dagoneko hilik diagon... Ez daustan ulertzen? Damutua, esan dauadanez, oin bata zeruan lez, gogoz bere etxean diagon, baina damugabeek, etxean dagozalarik be, ez joen ez etxerik, ez gurasorik ezagutzen, ez errespetatzen. Ez ete don ulertzen damua bakea dala eta damurik-eza barriz, etengabe-ko burrukea?

Orain arte be beti entzun jonagu salbatu gura dauenak damutu beharra daukala... Suposatu, suposatu, beti suposatzen jonagu okerra eta zertaz damutua danona dala, amnistia behar dauenek zertaz amnistiaturia lez. Gero be sobran egongo dozan bai Jainko legeak eta bai gizalegeak ez jainkotasunik eta ez gizatasunik ezagutzen ez dauezenentzat. Baina bai bataren edo bestearen kontra akatsik daukeenei ez dagokie damua edo penitentzia baino beste biderik. Horrek berak diakarn parkamena eta amnistia. Hori don bizitzarako legea. Horreek oster, bizitzarako dan legea heriotzarako egin bajoen, heuk esango daustan deabrukeria ez dan. Ala ez ete don inoiz entzun arima bat damutzen danean, zeruan jai dala. Bada zeruan jai badon, beste nonbaiten izango don negarra. Bai ta be entzun jonak, damurik izanez gero, ez legokela gehiago inpernurik. Hagaitino han dabekauta dagola damua. Izan be nork eragotzi daiken bihotzetiko sentipen eta giza-erantzukizun eta heldutasun seinale bikain hau harrokerian pustu eta umekeria txatxartu diren deabru kumeak izan ezik?

Pozik be pozik niagon, alaba, geure amnistia oihukatze eta manifestapenaz gurearentzat behintzat zatirik onena lortu dogulako. Gainerakoa gehigarriz emongo diauskun Jaunak, bai eta Fidel etxera erakarteko grazia be, dagoneko eta berari esker, gogoz etxean diaukanagu-eta, soinez mugazandik egonarren. Edo ze kristinau hazi erein jonagu ba hiregan, alaba, hogetabost urte dagoneko eleizara habilela-eta?... Esaion hurrengo kartan amaren poza. Ez dagola gure artean ezelako hesirik. Zer dozan gizarteko mugak, bihotzak batean egonez gero?... Bai, dinon heriotz arrisku

hori negargarria don benetan. Pozik sakonenean be ezingo jonagu urrundu gurutzea, baina beti be, alaba, gorputza barik, arima hilten jonaen bildurrago izan non eta gaitzerdi baino ez jonat pozezko albistearen ondoan.”



“Urdaia jan ta garbaia” (atsotitza)

“BADAKIZU ZER USTE DODAN? ZUK ZEURE IHAUTERietako erreportariarena hobeto egin zendula nik neure Komedia-ko pertsonaiarena baino eta zer esanik ere ez, kazetari zapuztuarena baino. Zure erreportaritza ihauteriz hartu zendunarren, edo ausaz horrexegaitik, inork baino hobeto ikasi zendula lezinoa, zuk, beste askoren antzean, lumea barik, (eskribitzekoa esan gura dautsut) bekokia busti zendulako harako kontagaian eta ez jainko-txo usteko jazokizunen rekreazinoa daroen beste horreek bezala. Bizibidez izango dozuz erreportari, baina zeren barri emotekoz? Eta zuk, inongo Unibertsitatean ikasi barik, aprobaduen einerako emon dozu ueca heldu izan jatzunean. Bizitza ei dozu, izan ere, Unibertsitaterik onena, ikaslea zentzunduna danean behenipehin. Eta hara niretzat zugan ustea izan daikedalako gehigarritz diator-dan beste seinale bat.

Zera gelditzen jatzu... gelditzen jaku, Fidel, ihauteriko Miel Otxinena egin eutsun mutil haren zuhurtasuna. Satur, ez al da? Bada Satur mamuaren sutatik garaiz aldendu ez bazendun, Miel Otxin bera kiskaldu eban su berberak oratuko eutsun. Geuri ere bardin dinotsut, inpernu honetan jarraituez gero. Eta uste dozu, Dantek bere kontura-edo, inpernutik igaroteko epea luzatu izan baetsun, urtenbiderik topako eutsunik? Edo eta bere okerren damu barik, kondnatuen erreportariarena soilik egin baeban?... Saturrena dozu beraz, gurca, Miel Otxinena jazo ez dakigun.

Ez dausku balio Sanpantzarrenak, esate baterako. Ezingo daustazu behintzat eskatu neuri, santuen pazientziatz eroateko

zaldikoen eguneroko ostikadak. Ostikariengandik hainbat urru-
nen hobe baino ez. Edo zer dinot? Sanpantzar erromesarena egitea
ba dagokigu. Hartu makilea eta aurrera pauso egin ipertutikarien
plazan atanda hartu barik. Oraindino ihauteriko lezino horretan
sakondu beharra daukagu, Fidel.

Zuk, zati baten beheniphein, ihauteria bizitzako lezinotzat
egokitu zendun, baina hemen bizitza bera darabiltzue askotxok
ihauteritzat eta Pazko gabeko anti-Aste Santu bihurtu gura dautsue
urte guztia, euren herio mamuen dantza toki bihurtu beharrez
kalea. Nahiko inpernu ikusi dogu orain arte ere, ez gaitez berton
luzatu, damu izan ez daigun. Amaitu da zure eta nire erreportaia eta
erreportaritzat. Ez ahaztu erreportari onenak ere jausi egiten direla
tiro gurutzatua darabilen holako gudetan. Geure buruen ezeze,
askatasun erreinuan bizi direnen zentzagarri, zoriak inpernu hone-
tara bialduak izan bagintzaz ere, ez genduken zertan gehiago
luzatu. Ez ete daroagu dagoneko ilintien zigorra geure soinean edo
ez ete doguz geure lorratzak itzi inpernuan? Zentzatu bagara,
lekuko ere bagara. Ez daiogun bada, zoriari bide txarrerako
gehiagorik emon, erabat bizia eta besteei sor dautsegun testigutza
hau arriskuan jarriaz...

Mugea igaro behar dogula dinotsut, gure lehen erratuz bide
zuzena okertu gendun unera joaz. Atzerantz egin behar badogu,
atzerantz eginaz, bada handik izan behar dau Purgatoriorako
bidea. Geure ikasbiderako ontzat emon badeutsuz Jaungoikoak
inpernu honetaraino bide erratzea, salbabidea nondik itxaron
daikegun ikasteko izan dozu eta geure konbertsinoa askoren la-
gungarri izan ahal daiten. Hala nik behintzat, Danteren ikuspuntu-
tik begiratuta. Nire Beatriz aldrebestuarenak gitxi balio dautsu
horretan, bada ezin daiteke izan itxua itxugidari. Ni baino gidari
hoberik izango zendun maitasun bideetan... Ez, ez daustazu aitortu
beharrik. Neu nozu neure hutsak aitortu behar dautsudazana. Eta
damu dot benetan, Beatrizi dagokiazanak egin ezina komedia
honetan. Oker urten daust, Fidel. Zeuk oster, angerua izan dozu
gaurdaino...”

“ANGERUARENA ESAN NEUNTSUN. BESTE NESKA-
rik-edo esan gura izan badozu, ez dautsut ukatuko. Bai eta ez,
gauzea zelaz ulertzen dozun. Asun deritxo behin maitatu-edo izan
neban neskatileari, baina izen horrek ez daust egiten zimiko txike-
rrenik, Beatrizen ondoan. Oraindino mutil heldugabe nintxatzun
eta ez dakitsut ze komedia generabilen Asunek eta biok sasoi
haretan. Baserritar gazte bik kalean-edo dagikeena ausaz. Ba,
astean behin alkar ikusten geuntsun, non eta Okizagako diskote-
karen baten. Alkarregaz dantza, inoz etxera be lagundu... Maitasun
baten hasiera edo ostaz lore potindua izan eitekizun. Ezer be ez.
Domeka arratsalde baten, bestetan lez... neure esperientzirik ezari
kontu egitea baino ez dozu, kalera jatxi eta non neuri itxaron barik,
Asun beste mutil bategaz dantzan topaten dodan. Berak ez nindun
erreparau, bai nik bera oster. Erderaz ebiltzuzan, kaletarra zendun
mutila. Azaletik bada be, ezagutzen neuntsun. Ez zendun neu
baino ezer gehiago, ez izatez, ez eukitez, baina kalea eukatzen hak
bere alde... Bueno, egizu, kaletarra barik, kalean bizibidea eroian
beste baserritar bat eitekela mutila. Kasurako bardintsu izango
zendun. Kalea eukiko eutsun harek be bere alde. Zelaz hautsi
neinkiozan musturrak kaleari eta esan “neska hau neurea dok eta
nere baserrirako behar joat, txotxo”, kalearen aukerea neskeak
berak egin baeutsun? Barre egingo eusteen bai kaletarrek eta bai
bazerritarrek. Besterik litzaken neure burruka tokia baserria izan
bazendun. Asuneri agur be esan barik, aldedun nintzan diskote-
katik eta kaletik. Baserritar zapuztu eta baztertutaren mamua
neroan neugaz. Harrezkero ez neuntsun pausorik emon Asunenga-
na, ez eta berak nigana. Ez Asunengana eta beste inongo neska-
gana, jakin daizun.

Umea izango nintxatzun, baina susmo oneko umea, ez hala? Ba
nenkitsun arrankariek kale uharretik baserrietarantz igoten dau-
tsuela ur garbien bila, baina gizakiek bestelako martxa daroatsue,
baserriko ur garbietatik kaleko uharretan mozkina bilatzera. Asunek
ondo ekitsun zeri loturik egoen nire etorkizuna: baserriari sor
nintxakola. Hori zendun ba nire akatza eta non dakusdan gure
Asun errekan gora eta errekan behera neure kontrajokuan lez.
Zelaz presta neintekizun halako dantzara?

Lehengoan, hain zuzen be, biok Eros Klubean alkarregaz genbiltzuzala, Asunegazko pausoak gogoratu neuntsuzan, ez ezelako yoranez, dantza pausoek pausoan zera ekarrestalako baino... Zuk, Beatriz, uste dozu, Asun baserritarraren orde, zeu kaletar han Okizagan gertatu izan bazintzazan, nire baserritartasunari harrera hoberik egingo ete zeuntsan?... Bai ta zera be! Non entzun dozu maitasunarren kalea itzi eta baserrira eskondu dan neskaren historiarik?... Nik ez dakitsut hemendik eta orain begirata, lehendik eta orduan baino. Munduak atzekoz aurrera-edo birak emoten hasi beharko leuke... Eta jakina, zoriarentzat be halakorik ezin eitekizunez, tokitara erakarri gaitu Jaungoikoak hemengo kontramartxen artean geure aukerea izan gengian, inperuan be, zerutxuren baten itxaropena. Entzunda neunkan bai, Jaungoikoak geure zoritxarretik be zorionik erakarteko ba dala...

Eta Eros Klubean ilunetako argi jokuak konparatuz, zera ninotsun: "nik orain neska hau (zeu, Beatriz) besarkatzen dodan moduan, besarkatu izan banendu, behar bada, ez jatan aldenduko harakoa..." Baina ez neuntson hori galdurikoen gorantziat-edo esaten neure buruari, besoetan ostera neukanagaz (zeugaz, Beatriz) beste hainbeste, hau da, Asunegaz jazo jatana, jazo eitekidan bildurraz baino... Bai, mila esker, baina bestelaz be pentsau neinkizun Eros Klubean: "harako neska harek, Asunek, besarkatu izan banindu, orain honek (zeuk, Beatriz) besarkatzen nauen leraz..." eta ondore bardinera heltzen nintxatzun: ausaz ez nendula galduko aukerea...

Orain berandu da... Esango dautsut. Mugazandiko abenturatik itzuli eta gero arpegira jaurti behar neuntson Morterori egin eustan saldukeria eta jaurti be jaurti neuntson beragaz batzarrerara deitu eustan hurrengo baten. Hasteko mahaigainera jaurti neuntson harako pipa ustela, "hartuik hori, txo —esan neuntson—. Zertarako behar joat munizino gabeko armarik? Ala, oraindino be, arma erakutsiaz bakarrik nahikoa dala uste dok?"

Arpegira begiratu neuntson eta bere aldrebeskeriak salatzen. Txoriri egin behar eutsola halakoa esateko egon nintzan. Horixe: arma erakutsi bakarrik, eta biziten itzi. Ez neuntson esan.

"—Ez joat behar —esan neuntsan—. Edozein txorimalori samatik eskegi eikiok, baina ez niri.

"—Aizak, moteil..."— Burua zuritu gurarik, azalpenetan hasi jatan.

Ez zala bardin mendiko ariketetan edo benetako ekintzan eta hareago kalean ihardutea. Gauzea sinplifikatu eta erraztu egin behar zala. Neure onerako egin ebala gainera. Neu ezetariko konpromesuan ez jartearren, ez nigan konfiantzarik-edo ez eukalako.

"—Hori dinostak orain, txo, baina orduan "kontu, kargata zegok-eta" esan eustaan"— nik serio.

"—Aizak eta noiz konturatu hintzan —barre irriz berak oraindino—, arma hutsik zegoela?"

"—Heure jokuaen maltzurraz konturatu nintzan une berberan, hain zuzen..."

Aitzakiak ostera be, bere aldetik. Estrategia zala, hazibarrien urduriak itzuritearren, aikomaikoak.

"—Estrategia izango zoan, baina hire estrategiez eta gainerako aldrebeskeriez kasko-kaskoraino niagok-bai, eta hagaitik ez joat izan gura hemendik aurrera hire angeru guardakoa. Bila eikek beste bat."

Esan egin neuntson eta ez hori bakarrik. Handik aurrera jakinen gainean aukeratuko nebazala ekintza guztiak eta batez be ez nintzala prestauko beragaz mugazandiko abenturetara... Bai, eskerak, nahi badozu, arma hutsa prestatu eustana. Horrela bera, Mortero, edo beste inor deskuido edo halako esturatsunean jotetik aldentzen nindun. Bai alde horretatik, baina edozelan be, arpegira bota behar neuntson eta beragazkoak apurtzeko aukerea uztiatu. Disparate bat egitetik librau nindula? Baina ez neure seguridaderako. Librau nindaiken bestela halako abentura eta halako erailketan parte hartzetik. Ez ba! Hak bere seguridadea bilatzen eustun alde batetik eta neu konprometitzea besterik. Ederto, baina neuri beragazkoak eta heriotzarako diren armak ezezteko bidea emoten

eustan. Hori be eskertzen dautsot. “Ez dok nigan usterik? Beraz ez joat neuk be higazkorik. Ez gozak alkarrenak.”

Neuk be neure estrategiaz oratu behar neuntson, ez deritxa-za?... Beste arpegia be erakutsi neinkion. Gozoago eta apalago zera esan neinkion: “nik inor hiltzeko ez joat balio, ez diaukat odolik” edo halakoaz. Baina ez neban gura izan kikiltzat edo sakristau semetzat edo orain esaten hasi diren ‘damututzat’ hartu ez nindeian. Nere kristinau izenari errepeto gehiago baneutso, zera be aitatu neinkion: “nire kontzientziak inor ez hiltzeko agintzen jaustak”, eta abertzaleago banintz, Ebangeliokoa be neugana erakarriko: “... baina, inoren alde bizia emoteko prest niagok”. Ez dogu batzuk eta besteok sarri abestu be egiten, “gerturik gagoz odola bere alde emoteko?” Horixe, baina ez kentzeko.

Gau haretan Morteroren orde bestetipo bat agintzera etorri izan ez balitxat, ez eben nigan guardia-mutil esanekoa idoroko. Bada haregazkoak amaitutzak neukazan... Guardia? Ba, zera: Galekoen barrandaritza dala-ta, egosita dabiltzuz, bildurrez esan gura dot. Neuk eta nilakoak armak erakustea gura dautsue. Erakustea bakarrik edo gorenean tiro hutsera, bala bakora. Ez dautsue gura hemen odolik. Ez eta hemen gende baketsu garelako famea galdu nahi. Ez erailketarik, ez sekuestrorik. Eta zuk, guardiamutil egiten dozunak, hiltera diatortzuzan benetako mamuei be armak erakutsi bakarrik, zeu eraila izatea hobe jakelako bestea zauritzea baino. Eta hori alde bietatik bitima burua egitea baino ez dozu, argi esanda. Hemen kristinau faltsoa izan eta be, zeu balaz jotera diatortzueni beste matraila erakutsi beharra daukazu. Esan be egiten dautset: “matraila ala metraila?” Ez dauste aukeratzen emon, ez eta neure defentsan. Eta ez dakitsut zer dan hobe, alderdi horretatik be...

Orain konturatzen nozu, gure Koldori be zer jazo eitekion. Ez utsun eroan armarik egun haretan, baina eroan izan baeban be, ez utsun inor jotera erabilterik izango. Bitima garbia izan zala esan gura dautsut... eta neuk be gurago dodala hemen errefuxiatu ohoretsu ezeze, bitima izan, mugazandik eraila baino. Ez dot balio horretarako eta hau be zuri esan daikitsut: Txikitan gurean txarria

hiltzen zanean, haren girrintziak ez entzuteko be ez nintzan eta gitxiago ume askok ohi dauenez, hari buztanetik heldu eta begira egoteko. Ba dakizu orduan nik zer egiten neban? Ordua zaneko, auzoko baserri lekutueneraino, girrintzirik be entzun ez eitekeneraino, ihes egin eta ez nintzan itzuliko harik eta dana maitu zalako ziurtasuna izan arte... Hori isilian egiten neuntsun eta hagatik inork be ez eustan ‘koldarto’ deitu hori dala-ta. Gaztetan be ez neban urten ehiztari, aitaren eskopetea etxean gendunarren. Txori bateri joteak min emoten eustan eta zelan ez eustan emongo ba ‘Txori’ halako mutil bat erailteak?

Geroago baten txorimaloak tirokatzen hasi banintzan, Koldok eta beste lagunek kikiltzak-edo jo ez nindeien izan zendun. Baina koldarkeria edo bizitzari errespetoa izatea bardina dala uste dozu?... Ez ba! Ahor ba zergaitik eroe izateko ez dodan balio. Jakin dagiela: Ez naz eroe, beraz, Koldorena jazoko balitzat be, ez niri egin hari egin zeutsoen hiletako ohorerik!...”

“BIZITZARAKO PAUSOA EMON DOZUN UNE HONETAN ez eistazu mesedes hiletarik jo. Eroearen berbak entzun dautsudaz eta ez dakizula eroe kemenik falta, ekintzarako ordua etorri jakunean. Morterogazkoak apurtzeak merezi dautsu. Bereiztuko ez dautsut ba ostera ondo ere ondo koldarra eta eroea? Ez zara dagoneko, Fidel, harako baserritar akonplejatu eta zapuztua. Orduan neska bat zala-ta, kaleari aurre egiteko be ez zintzazan, baina orain biziari dautsozun errespetoarren, deabruari inperuan bertan erroakea joteko ere izan zara. Eta nor da etsaiari bere terrenoan aurka egiteko, eroea izan ezik? Horrela egiten da berba! Esatetik egite-rako saltoa egiteko ez dozu bezte azalpen beharrik.

Koldarkeria euren esanera jarraitzea litzake, gozoago edo gogorrago, baino euren esanera. Arriskua zorbatzean dantzatzea ez dozu ausardia, ausarkeria baino. Amaitu ziran, Fidel, gure menpekariak. Esan daigun: “Ez gara gehiago kafetegiko neska, ez inoren guarda-mutil. Bizibidea aldatu nahi dogu eta askatasunean bizi”. Esan beharrik ere ez dogu honez gero, zeuk esan dozu dana eta. Orain geure barruko angeruaren esanera jarriko gara, berak

emongo dauskuz euren maltzurkerien muga eta lakioak gainditze-ko hegoak.

Koldoz esan dozunak begi biak idegi daustaz, Fidel, eta ez dakit pozerako ala saminerako. Edozelan ere, heriotz orduan eraile baino hobe dozu bitima urtetea, bera lez. Baina gure arazoa heriotzaren zirimol honetatik urtetea da, Fidel, eta ez errefuxiatu karta eskuetan, heriotzari deika ihardutea. Errefuxiatu karta? "Eutsie, zeuontzat asmatu dozuezan kateok". Edo zertatik edo norengandik edo zergaitik errefuxitu gara? Non gure errefujioa?

"— Errefuxiatuok ohore jendea gaituzue. Serbitzari onak, euskaltzale apartak. Guk ez darabilagu armarik eta faxisten eratako ekintzarik. Ze oker dago norbere herriaganako maitasunarren, jazarpena jasatean? Eta politikazko geure idealakatik hara gu jazarraitu eta zigortu. Baina eskerrak Añamendi bestaldeko anaiok babesa etxea eta bizibide berria eman diguzute..."

Errefuxiatuok ohoreko jendea garena? Oraintsu arte izango zenduen. Orain "errefuxiatu errefusatu" izateraino heldu gara-eta. Lehen guarda-mutil, kafetegiko neska, langile ohoretsu eta orain, txakurrak eta galgoak gure susmotan jarri direneko, problema... herri baketsu honetan. Ze errefugio, arratoiak bertan sartu badira? Ta ze "chambre d'amour" indarkeriaren haizeak itxasoagino amorratzen badau?

"— Gu errefuxiatuok ohorezko jendea gara. Ikus orain ere nor dabilen indarkerian. Ankerrak halakoak diruz ordaindu borroroak bidali dizkiguzute geure bizitza baketsua ezin eramanik. Ikus nolako faxistak diren galgoak ezeze, txakurrak halakoak..."

"— Bai, eurak izanen dira odola ixuri dutenak, baina zuena da gure kalea zikindu duen odola..."

Entzun dozu hori, Fidel? Geure odolaz zikindu dogula Lohitzuneko garbitasuna. Gure gorputz erien kutsua aldendu eta kaleko odol arrastoak garbitu ezik, zelan uste dozu herri txukun honek Paristiko turismoaren kartela goitik mantentzea?

Orain "eskualdun anaiak" gara, baina hemendik ile batetara udaratien uhariak minorian geldituko gara. Eta gu, serbitzari

zintzo eta txukun garenarren, edozein argelinok egin daikietsu guk baino merkeago eta esanekoago eperdigarbitze lan hori. Negozioak ez dautsu azaleko koloreari begiratzen ez hemen eta ez Bilbon. Bejondeiela!

"Extradiziorik ez?" Ala extradiziorik bai? Horixe be eskatu geinkie, extraditatu gagiezela hainbat arinen "paradisu honetatik" txakurren erreinura. Infernua eta zeruaren mugak non dagozan jakingo dogu bide batez. Ez ala? Zer egin behar da hemen, Fidel, lehenengo trenean fakturatu ahal gaiezan? Gaiztoen eta "indeseable" letreroa bekokian bialduko gauez horrela. Ez deritxazu? Mugazandik ala mugaz hemendik gurago dauskuen jakingo..."

Hara ba zeruko angerua jende ezindua "extradititzen". Betorkigu bere laguntza. Ez zara animatzen, Fidel? Guk uste baino bide gehiago dagoz oraintxe be askatasunerako. Gura izatea da beheina, eta bidea berez diatortzu. Hau poza extraditatuona! Etxera goaz, gurasoak besarkatuko doguz, eurak gu. Nik neureak eta zuk zeureak aurkeztuko dautsoguz alkarri. Kalez edo baserriz nahi dogun bidea zapalduko dogu. Eta badakizu zer dinotsudan? Maitasunarren kalea itzi dauen lehen kaletar neskea izan gura dodala. Ez ete daustazu oraindino ere sinisten? Bai, bai, baserrian errefuxiatuko gara, nahi badozu. Ez doguz alperrik ibili inpernu honetako azken pausoak alkarrekin. Amaitu daiguzan ba dagoneko gure historia tristen kontakizunak eta goazen mendian gora jatorrizko harako ur bizigarrien bila, arrankari enamoratuak bezala. Zer besterik esaten jarraitu behar dogu?... Hango legearen aurrean erantzun beharko dogula? Ez dozuz horren lotsagarriak, Fidel; guk kontatu beharrekoak..."

"ZUREAK EZ, BEATRIZ, BAINA NIREAK?... ZERA ESAN eustan orduan Morterok, beragazkoak kitu nebazanean. Ea neure kabuz ezer erabagi edo mahaiak erabagitakoak ez baitan jartzeko nor nintzan. Mahaiaren aurrean erantzun beharko nebala.

"— Nik ez diakiak mahaiak zer erabagi dauen eta batzartu be ez nok egin inoiz eta gura be ez joat honez gero —erantzun neuntson.

Ni bakarrik izan nozu batzartuen zaindari, guarda-mutila, beti be bazkuneko atletik kanpora, ateko txakurra, galgoen kontra itxurazko garlanga erakusten eutsuna. Ausi bai, baina oskarik ez.

Txakurrak ez dakitsu ugazaben sekretoez, libre nozu. Angerua esan dozu? Ba angeruren batek salbauko nindun...

Baina horixe, zeurea angeru ona badozu, okerrekoaren bekaitza eta amorrua jasan beharko dozu. Harakoan Morterorenak esan eustana, ea ze alde dagoen damutuengandik traidoreengana.

“—Ze alde? —nik hitzetik ortzerra—. Ez joat uste higandik nigana baino handiagorik izango dokan.”

Lehen baino be asarratuago jarki jatan mutila halatan erantzuteko be banintzala ikustean. Ez dakit bere tipoa neugaz konparatzeagaitik-edo izan zendun. Gero demokrazia eta kidegoa esango dautsue.

“—Damutua damnatua!” —esan eustan orduan begiak itzi eta samea luzatuz.

Ez dakit zer esan gura eustan halako aldrebeskeriaz, baina begiak itxi eta sama-luzatze harek, ez dakit itxumustuan edo “juicio sumarísimo” halakoa esan gura eutsun.

Jo! Ni apropoz berari gogor erantzuten eta zertarako? Azken baten “damutuaren” txorimaloa neuri janzteko, Miel Otxin neu bainintzan eta bera, zeuk esan dozunez, ihauteriaren antolatzailea.

Damutu... edozelan berari egokion damutzea eta ordainik gizenena hartzea. Edo bere gizenak eskutatzen edo zuritzen ihardun behar ete dogu besteok?

“—Ez diakiat zer dinoan be —erantzun neuntsan—. Eta gainera nik ez diaukat zertaz damuturik, baina laster eukiko neunke higaz jarraitzekotan.”

Bertan itzi eta alde egin neuntson bere zema eta erremuskadak entzuten egon barik.



Gero, ostera be, bakardadean Txorigan pentsau dautsut. Hara-ko Txori Morterok esaneko damuturen bat ete zendun? Ba harrez-kero agertu ei dira mugazandiko ormetan “DAMUTUAK ORMA-RA” dinoen letreroak, nahiz eta gauzea ziurtatu ez dausteen. Txoriren harakoan bestalde “supuesto confidente” agertzen zan eta ez “supuesto arrepentido”, baina dana dala, nor Mortero bera baino batzuei eta besteei kontuak hartzeko morroi hoberik?... Hori bai e? Mugazandik izan beharko dautsu, Beatriz. Hemen errefu-xiatuok ohoreko jendea gara. Ez darabildu armarik, beraz ez jaku zilegi inor hilterik...

Orain bada, Beatriz, Txorilako angeru baten eskutik igaro nahiko ete zendu inpernuko mugea?... Bai ala ez? Hemen Koldo-rena badozu, han Txorirena itxaron zeinke... Gauzea gogor ipinten dautsudala? Zuk ez dozu nahi ez bataren eta ez bestearen zoririk, zuk hirugarren angeruarena gura dozu. Baina nik Txorirena ikusi neuntsun hurrenetik eta ez dakit, Txoriren angeruak ala Txoriren konplexuak hartu nauen. Ha mostradore ostean jausi eta bere arima zerura joan zanetik, zer besterik egiken haren angeruak, angeru gaiztodun eta bide galdu nindakusan neugana etorri baino? Eta horrexegaitik uste dautsut Txorirena izeniko angerua neugan sartu jatzula... Hau medikuagana joatekoa izango da, baina ez nozu orain angeru onaz gabetu gurako? Zeuk esan dozunez, orain angeru onaren esaneko nozu, Morterorena izateari itzi dautsodane-tik. Eta badakizu zer dinostan angeru onak? Morterorenak esaten daustan berbera: “serbitu zure Jauna, zeure gorputz guztiaz eta arima osoaz...” Jakina ba hori Jaungoikoaren lehenengo agindua dozuna. Baina nor da hemen serbidu beharreko Jauna? Nor da hemen Jaungoiko?

Ia zure gorputzaren, zeure askatasunaren jabe egin dirala uste dautsuenean, zeure arimaren jabe eta erantzule urten gura dautsue, zeuk zeuretik, bai edo ez esateko, onaren edo gaitzaren aurrean negar edo barre egiteko ez bazina lez. Neure burua saldu behar ete dautset, neure arima? Saltzaille galanta izango nintzake eta orduan bai izango neukela zertaz damutu... Miel Otxinen suaz jolasten

nagola ostera be? Zeuk aitatu zendun inpernua, Beatriz. Eta zer dozu Miel Otxinen sua, inpernukoaren ondoan?

Hurrengoan “damutuarena” itauntzen badauste, zera erantzun-go dautset, ea ze pekatu dan badaezpadan “Jesukristo gure jauna” erresauta egotea...”

“Lezeak lezeari dei...” (salmoa)

“GEURE SENTIMENTUEN KONTRA BADOA BE, ONAR-
tu egin behar dogu. Baina nik ez neunke esango horrelan, ez neure partetik behintzat. Sentimentuak be bide egokia behar daue. Zuk zer dinozu, ama?... Behin bide bat hartzen danean ez ete da azkeneraino jarraitu behar?... Herriotzaraino? Nik azkeneraino esan joat, hau dok, lortu arte. Hi beti larriaren larriaz gauzea ardatzetik atera gurean. Mila bider be esan dauat gure helburua geure Fidelen askatasuna dala, baina askatasuna behar dauen gainerako guztien kontestoan. Beraz ez dago zertan harritu erreinsertzinoari buruz koordinadorak daukan jarreraz. Erreinsertzinoa tantokako gauzea, amnistia ostera, erabatekoa. Zeozergaitik etorri jakuk Zurbitu bera be firma eske. Zenbat eta gehiago indar handiago eukiko dautsue agiriak. Ze akatz edo eragozpen diaukak ba gure firmeak? Ez dauat eskatzen manifestapenera joateko be... A, ederto! Presoen familikoen arazoa dala hori. Guk ez daukagula presorik, ez dok? Ba heuk esana dok, txotxo, behin baino sarriagotan esan be, gure Fidel, bere borondatearen kontra mugazandik badago, preso daukeela... Hori bai eta hori ez e? Ez hadi orain era bateko eta besteko kateak bareizten hasi, kate guztiak apurtzeko ordua danean, konpromisoa ihestearren. Gauzea paper bat firmatzea baino ez dok. Total zer esateko? Presoen familikook banakako reinsertzinoa barik, amnistia orokorraren alde gagozala. Presoen Kolektibokoekin ados ez hatorrela? Ba neu be ez niatork. Ez diaukagu danean danok batera etorri beharrik, baina bai danon bizirako eta askatasunera-ko direnetan behenipehin. Ala presoek orma barruan eta errefuxiatuak muga ostean bizi gura dauela uste dok? Amnistia orokorra eta

kito! Hori dok bake orokorra egiteko alternatika bakarra, gainerakoak apurtuen gaineko adabakiak. Eta nork diaukak orain praka apurtuak adabakitzen hasteko astirik? Barriak erosi eta aurrera... Eurak, kateaturik dagozanak holantxe aukeratu bajoek, zer? Eurak baino hobeto jakingo ete joagu gaitzak mina non egiten jokan ala zauriari ze enplastu ipini behar jakoan...?

Gainerako guztia hemengo frente bien ezjakitun egotea baino ez da. Eurak batean diatozak eta hik banandu egin gura dok? Euren reinsertzino horregaz hi frente batetik askatzen haz, baina beste frentekoen erasoari erantzun beharko dautsot orduan... Hirugarrena nondik baina? Amnistia orokorra ostera, alderdi bien negoziazioaz datorrenez, erabateko askatasuna eta bakea lortuko gendukek. Eta lehen esan dauadana: zelan gura dok negoziazio onik, geure alderdikoek aldebanatzen bagozak?

Preso edo errefuxiatu, zer ardura jok? Danok gaukazak arazo bardinak eta danok behar joagu bide beretik indar egin. Non dozue ezpabe, zuek horren beste goiraipatzen dozuen solidaritatea? Ea hemen esan beharko dan "psolidaridade" gitxiago eta "alkartasun" gehiago... Ez, esatearren izan dok. Ez jok ardura.

Ez egik uste, bestalde, Presoen Familiko Kolektiboan gauzea eztabaidatu ez dogunik. Bai eta askoren eritsiak aztertu eta geheingoaren erabakia onartu be. Neure partetik, arazoa hobeto ebastearren, Otxandoren emazteagana jo be bai... Ez hadi orain txotxolokerietan hasi. Ni baino bere "forofo" handiagoa hintzan, Fidelek eta biok futbolaz ekiten zeuntsoen bakoitzean. Nik Zurbitu geure abogaduaeren aholkua baino beste zaletasunik ez najoan eroan hara eta arazo bardinak orain be... Neure oldez izan dala? Eta zer.. Zer esan daustan? Ezer be ez. Hi aldi bateko horren "forofo" eta ez henkian Otxando orain ez dala Okizagan bizi? Ba nik be ez nenkian... Horixe, ez nebazala ez bata eta ez bestea gure kaleko manifestapenetan ikusten. Beste handiago baten egingo ebelakoan ni. Non? Eta Ozanikan, antza, bere emaztearen jaioterrian... A, horixe ez dakitsuet emazteak amaren etxera ihes egin dautsolako ala Otxando berak klub barria handik daukalako izan danik... Dana dala be, ez joat sinisten bestelako zurrumurruetan. Horrek joan

zoazen senarremazteak alkarregaz manifestapenetara urteten hasi zirenetik. Otxandoren emazteak berak neuri esanda. Baina alde batera esamesok, ni ez-reinsertzinorako firma bila niatork..."

"LANDU EZIN DOGUNA, PINUZ LANDATU ETA KITU, aita. Zertan ibili beti ganadujatekoak egiten? Emon behiai igitai bana eta larrera. Batu daiela eurak, Urubeko Peruk esango leukenez. Geuk be bardin: emon pinuari bedarraren edo artoaren tokia eta ez dozuz behin eta barriro ebaiten edo jorratzen ibili beharrik izango. Euria bardin jausiko da gero be hodeietatik, eguzkiak bardin berotuko eta soloak ez dakarrena basoak emongo... Baina neu ez nozu beti gure Fideli egokiozanak egiten ibiliko. Zeu be ez zagoz, aita, orain arteko martxan jarraitzeko ez eta traktoraren bolantean jesarteko... Ez dinonat, Jonetxu, alderdiko ordezkari herrian aukeratu nauelako. Arazo horrek, egia esan, bere orduak eroango jaustazan, baina lehendik be esanda diaukanak: nahiko dodala kaleko zereginaz eta baserrian ahal dantxoa bakarrik. Orain arte alde bitara ekin izan bajautsonak zeuon amnistiako arrandian uste larregi ipini izan dodalako izan don. Horixe, egun batetik bestera hor preso eta errefuxiatu guztiak etxera erakarriko zenduezalakoan, zorioneko negoziazioa lortuto zenduelakoan eta gure Fidelek ostera be txanda hartzean, lurra samur aurkitu egizan. Baina... Hiperkorreko horregaz zuen amesak lehen baino gordinago ikusten jonazat. Batzuk gero eta triskantza handiagoz negoziatioa probokatzen dozuelakoan eta besteak halako eraileekin ezin daitekela konponketarik egin esaten, ez Argeleko eta ez inongo mahaian. Edo legezkoa deritxan esku bat az amnistia eskatu eta besteaz tirokatzea?... Hi, jakina, esku ona haz, eskuma ongileak ez diaukan zertan jakin ezker barrabanak zertan diharduen artean. Hik jarrai daiken nahi donan bidetik. Harritu be egiten non dagoneko zelan ez hauen koordinadorako aukeratu. Beitibiskoko Ane nabarmenago ikusi ez bajoen, honez gero bai... Eta gure Fidel, nork jakin, hemen egongo zonan heure meritoei esker. Behin bide baten sartuez gero, eurrera. Astoak be egingo ez leukena. Zelan sartu bide lokastuetan, zergaitik abiau urtenbiderik ez daukan

kalean? Ba, gaztedia be hasi don aurreko ormara begiratzen. Euren atzamarretatik hara begiratzen ez dakien hamairu eta hamalau urteko umeak orapiltzen hasi beharko dozue, Potikos Agerreko lez. Ormak paperez zuritu behar direla edo pinturaz gorritu? Ale, mutilek! Manifestapenaren gorienean dendetako kristalik apainak apurtu behar direla? Ale, bost txanponen ordezu... Ez ba! Besteen bizia eskatzeko direnak inoren kristalak apurtzeko lotsak edo bailegozan.

Bidea bakoitzak bilatu behar jon eta ez besteek markatzen dautsena ibili, estrategiaren izenean. Ez non ni buztarri horretarako. Eta jakin gura badon, neurea ondo aukeratu dodanentz, esango daunat. Gura izanez gero, bihar bertan itzi daikenat alderdiak emon jaustan kargua, bai eta alderditik urten be eta hiretzako eta niretzako eta gure inorentzako ezelako kalterik gabe. Hori don askatasun bidea eta ez behin bide batetik sartuez gero... musturrak hausi arte hantxe ihardutea edo ihardun beharra. Edo zuen bide markatzaileek ez dozan inoiz erratzen?

Hemen batzuk aministia eskatzen dauen artean besteek justizia eskatzen dauela. Eta justizia, errenka bada be, aurrera doala. Horra Armina jauna baitu ebeneko ia hirugarren urtea eta egunotan don haren baitzaileen auzia. Berandu, baina seguru. Beste hainbeste dozan gure Fidel aldendu zonala. Ez don agertzen... Guzurrezko juizioak? Ala Arminarena be egiazko juizioa izateko han agertu behar ete zonan Koldo Beitibiskokoaren izena? Edo geure salatuekin bakarrik egiten ete dozan juizio zuzenak?... Ez, ez don izan hilak akusatzearren. Ez geunkenan asko aurreratuko hilei kontuak eskatzen hastean, bizienak be atzeratuta dagozanean.

Hemen batzuk armen indarra eta beste batzuk legearen indarra esaten joenan. Bata bestea epaitzen diatorn, batak besteari erasoten ez dautsonen... Ez, hori esatean, nik ez jonak gure Fidel armadunen aldean ipinten. Zelan juzgatu daikenat neure anaia legeak juzgatu orduko. Bakoitzari berea, hori don zuzenbidea. Zigorra ala saria. Baina batzuren errugabetasunak ez dagiala estaldu besteen errua... Jakina ezingo dauena Azken Juizioaren

osotasunera heldu hemengo epailariek. Han bakoitza ardi edo aker dan gauza nabaria izango don, baina hemen aker bat bilusten daneko urteak joaten dozan, eta txarrena ardi inosenteek artean guzurrezko ordea jasan beharra...

Hemen batzuk manifestapenetan eta beste batzuk goldaketan dihardue olako lanen ostean... Heu eta neu, esate baterako, Jone. Heuk esan eustan anaicari ez neuntsola ez gorantzirik, ez mosurik, ez beste erregalorik bialdu, heu ostera, erregaloekein mugazandira, amnistiako esloganekin kaleko prozesinoetara habilela bere alde. Eta ni noren alde ibili nazela uste don traktoretzan eta solora bideetan sartu dodazan orduetan? Ba... esango deunat, Beitiko oinordekoaren alde. Eta nork kendu diautsan oinordekoa Beitiri? Hobeto aitatu heinkenana gero 'solidaridade' edo dalakoa. Ala txikiak handiari sor dautson zergea ete don hori?"

“UMEAREN GOSE INTZIRIA ENTZUN ORDUKO, AMAREN bularretan esne golpea izaten danez, halan Espiritu Santuak gudan arnastuko eskarira leihatzen dozu Jaungoiko Aitaren laguntza, Josefa. “Santu izan bedi zure izena” esan orduko, guk sarritan “atara gagizuz gaitzetik” atzekoz aurrera darabiltzuzuzala orazinoak. Eta zelan atera gaikez Jainkoak gaitzetik “eta ez gutentaldira eroan” errezatzen ezbadogu aurretiz? Hau da, zelan salbatu gaikez geure borondatearen kontra?

Ondo be ondo dakizu, Josefa, zelakoak diren umeak. Txiki diren artean, beti egon behar dozu euren gainean batean dagoka, bestean ibiltzen erakusten, eta lehen pausoak emoten hasten direnean barriz, orduan ardura handiagoak, patina dala, lokatza dala, edo kaminoa. Umea, arriskua non eta haraxe doatzulako. Begiak idegita jaioten direla entzun dot gaurko umeak, baina ez dakitsut nik zertako. Gaurko umeak be, lehengoek lez, angeru jagole bana eskutik behar dauela uste dautsut. Nik ez dakitsut zergaitik galdu dan angeru jagoleenganako debozinoa. Behar bada umeak urritu direlako, eta umeak urrituz amen ardurak be erraztu direlakoan, izango dozu. Baina arriskuak ez dira urritu, eta oraintxe be umeak errazago joatzuz gaitzora onera baino.

Ez dakitsut jendeak zegaitik lehenago beste otoitzik egiten ez dauen. Beharrizan gitxiago daukalako izango dozu. Baina gatzu-naska edo frigorifikoko generoa izango dozu hori. Barrukoei begiratu ezkerro Josefa... Lehen baino tentazino gitxiago dagola uste dozu? Bai zera! Lehen tentatzailea harako adarduna zala uste geuntsun eta, azaltxo bada be, hurrean zenkusan bere geriza baltza. Orain tentazinoa, deabruaren negozioa barik, gizakiena bihurtu danez gero, adardun zaharra bakazinoetan dagolarik be, bere endakoek daroatsue aurrera lana. Gitxirena dozu dirua egitearren ala arimak galtzearren eurak ahalegintzen diren jakitea... Arimak eta gorputzak... Bai, ugazaba horrek ondo be ondo ordaintzen daki bere dirutik... Errezua barriz, Josefa, ez dozu inoiz be izan negozioa, baina orain inoiz baino gitxiago. Erruki dautset negoziante barrieci, baina harago euren bitimei... "Eta ez gagizuz tentaldira eroan" otoitzean jarraituko dogu, hagaitik, Josefa. Askok barregarritzat edo gogo kikilen loretzat daukatsue orazinoa, baina barre handiagoak egiten dautsuz euren ugazabak kikilagoak mozko-rrean edo beste edotariko drogatan jausten direnean. Orduan hasten jatzuz bera edo ingurukoak "atera gagizuz gaitzetik" otoi-ka, umea potzura jausi eta gero. Halako gaitzen baten jausi arteino, Jaungoikoa geure aita edo ama danik be ez "gure Aita" maitakor berari esan behar jakonik be ez, ez eta "santifikadu bedi zure izena", gitxiago "egin bedi zure nahia" edo hain dohaneko eta hainbat barne gurariren asegarri dan "emoiguzu gaur eguneroko ogia". Askoren estarri mingoztuak gurago dautsue euren narrutik bultzatu gaiztoagazko negozioa. Eurak dozuz aspaldiko erregu santua "parkatu eiguzu gure sorrak, geuk ere geure sordunei par-katzen dautsegunez gero" kalean birau biurtu dauenak "herriak ez du barkatzen" oihukatuz. Eta herriak pakatzen ez badakitsu, Josefa, nork parkatuko dautso herriari? Hagaitik guk aurtengo guru-tzetakoan be harako "parkatu eiozu, zure herriari" kantu zaharra abestuko dogu eta "etor bedi zure erreinua" gogo beroagoz erre-zauko, besteok gura leukeen diktadura lehengoak itxi euskuzan ondakinak eurak kentzera etorri ez dakigun.

Ezingo gara, Josefa, erruki sentikerako begi bustiekin, baina norbere erruen ezjakitun edo adinako damu barik guruzetara joan

Jerusalengo alabak lez, Jesusen agirikea entzun barik "ez egizue nigaitik negar egin zeuon eta zeuen semeen pekatuakatik baino". Jerusalengo alaba bihotz samur hareek damu eutsuen benetan Jesusen heriotza, baina ez zenduzan heriotz haren zergaitiaz garbi konturatzen, Juan apostolua eta Madalena eta gu danok be ostaz konturatzen garenez. Bere heriotzean parte hartunekoak lez, damutu eta negar egin behar dogula, dinosku, geugaitik hil eta hobiratu izan zanak, geuk Beragan Jainko seme-alaben berbizkuntza lortu gengian.

Konturatu, badakizu, Josefa, nor konturatzen zan? Andra Maria, bere ama. Gizakietan errugabeena zana, Jesusen gurutzaren partea eroateko prest egotzun. Berari bakarrik emon leikion Jesusek hilturreko borondatez, gainerako semealaben ardurea "horra hor zure semea" Juanengan geu danok ikustean.

Kristok amen bihotzak barrutik ikusten dautsuz eta semealaba galduak berreskuratzeko landike bikainenak aurkitzen eurengean. Jaungoikoak, 'Aita' deitzen dautsogunarren, amaren bihotza daukatsu, Josefa. Ez leuken bestela amarenaz konporatuko guga-nako daukan maitasuna "zeu inutu zaituan ama zutaz ahaztu baledi be, nik ez zaitut ahaztuko" dinoskunean. Halakoxea izan behar eutsun hatan be, amatasun eta gurasotasun guztien egile danaren bihotzak.

Emakumeak be, ama danetik ikusten dautsu soin eta gogoz maitatzen, harrezkero errai-bihotz eta izatasun guztiz hatarakoxe gertu eta konprometitu bailegon. Kristau amak barriz, hau da bizitzarako eta federako erabat umeak edatu dauezen amak, mundurako ezeze, zerurako hazten eta hesten ahaleginduko jatzuz...

Horrela ikusten zaitut, Josefa, beste ama askoren artean. Zeuon semealaben alde ahal direnak eta bi egin ondoren, besterik egin ahal ezinean, euren alde otoitzean ikusten zaituedazanean.

"HAMABOST URTE BETE IZAN NEBEZAN BESTE HA-rakoan izan zenduen txorimaloen azken urtea. Ez, txorimaloena le-

henago, umeago nintzala. Gero ikurrinarena izan zenduen. Harrez-keron ezin izan gendun geure gustoko kolorerik balkoian eskegi. Baltzen eta gorrien arteko gudea zan. Kontatuko dautsuet, entzun gura badaustazue. Baltzen guda hori Afrikan sortu zan eta hegoaren indarrak maiz hango desertuetako hautsa ekarri ohi dauen antzera, triskantzea eta negarra ekarri euskun. Bigarren moroena deitu jakon, baltzen ejerzitoan moroak gitxirenak zirela. Hegoaizerearen deabru eraginezko mendi erreketaren baten ikusiko zenduen goiak eta behak su ta gar harturik, suak zelan kiskaldu daroan baso-mendien edertasuna. Bada konparazinarako gitxi izan zenduen Donienetako Txorimaloen harako erreketeta. Nire adineko mutilak mendira bialdu ginduezan trintxeraginen... Kontrasua? Kontrasua esan dok? Ba zerbait antzekotan. Baina zelan kontrasturik tankez eta abionez etozanei? Ezuste baten zenduezan Okizagako kalean, gure mendietan ez ebela halako aurrekadarik egingo ustekoak. Gure ahalegina Okizagatik Autzikara bideran dagoen trokan moro edo baltzok estikatzea zenduen. Hantxe Herrimendi buruan trintxerak egiten bagenduzan, gure gudariak tirobegi ederra eukiko eutsuen. Ale ba, baserriko aitzurlariok! Aitzurra, pikatxoia eta palea gura arma bakarrak eta mendira, ume, emakume eta agure asko euren eukiekin herritik alde egiten eben orduan. Gu herriaren salbatzaile izango gintzazan gudariekin bat. Hareek atzeratuko orduen orde atzedena ditzoxa egiten ebenerako trintxerak eginda egon behar eben.

Hasi gintxatsuezan aitzurren artean eguno solorik egon ez zan toki haretan eta unadaka erraz eta unada toska biguna, baina batzutan gure pikatxoiak probatzerainoko toskea. Ha zenduen lurrari tripak ezeze hazurrak atera beharra! Metro bat sakonera joteko, handik gorakoa ateraneko lur beraz eta haregaz beteriko sakuez orniduko zala. Zuzenean barik, zirkun-zarkun, bosna metro batera ta bestera. Iluntzea zan. Hurrengo goizerako prest egon behar eban gudalekuak, gure lanen jakitun-edo, baltzak aurrea hartu ez eiskuen. Guk ezingo gendula begiokaz ikusi gudaketa, baina tiro-hotsak sobra be adieraziko euskula. Gu aitzurketarako balio geuntzun ingenerietan czelako saiorik egin orduko. Fusiletarako ostera, umeak gintzazan. Armarik ikutu be ez. Eta munizi-

no eskasa gulako eskolagabeak hutsak egiten hasteko. “Jo, eta ezingo dogula ikusi?” Geuk egineko lanaren frutua ezin ikusiak emoten euskun penarik gehiena. “Zergaitik ezingo dogula ikusi?”-esan geuntson kapatazari. “Zergaitik? —erantzun euskun—. Zergaitik uste dozue trintxerak zirkun-zarkun egiteko agindu dautsuedala? Lanak doblatzearen ala?...” Zera, abioiak etorriko ei ziran gudarien buru gainetik eta frente bikotxari erantzun beharko ei eutsoen, beheko trokatiko tiroei ezeze, gainetiko mandaeuli burdinezkoen ziztadei. Hagaitik hareek zirkun-zarkunak. Abioiak alde batetik etozela? Bestera egin kuku eta horrela narrua eta bidea zaindu beharko ebela. Subertea izango gendula guk handik kilometrotan urrun joateaz.

Aurrera ba geure lanean, aitzurka nekatzen gitzazanean sakuak lurrez betetzen ekiten geuntson, ezelako geldiune barik. Metro bat eta beste bat, bata besteangandik apur bat banandu, ilunetan alkarri minik ez egitearren. Argi bakarra iretargia. Sekretuko lana izan behar eutsun, arerioa sagua arratelean lez jausi eiten.

Heundasak metro lur zulatu, heundasak saku lurraz bete, zer ez gendun egin hogeiren artean, erdiakino neulango gazteak gintzazala, gero esan daizuen orain arte Euskadigaitik ezer ez dala egin.

Goizalderantz geure aitzur eta guzti etxeratu gintzazan. Egarri bat! Ondo nekatu eta logurak erreta egonarren, kamarako leihoan ni, gudarien mogimentua edo tiro hotsa noiz hasiko. Manta batean batu eta erdi lotan-amesetan. Argitu zaneke, zera, gure amesetako frentea bera hilda. “Zer? Ez dozue ikusi gudaririk?”

“—Neu lotan-edo egon nazen unetxoan izan ez bada, hementik ez da inor igaro— erantzun neuntsen lagunei.

Azkenerraino gelditu gintzazanok ebakuatu beharrik be ez gendun izan. Ez zala egongo frenterik Herremendik eta artean astoz edo gurdiz edo oinez etxea itzi ebenek okerreko bidea hartu ebelakoa zabaldu zan... Zer jaso zan? Horraxe nentorran ba. Ez ei ziran ausartu, ez eta moroak eurak, Autzikako trokea igaroten. Gure gaueko lanaren jakitun edo, Herremendi buruak beheko trokan daukan ikuspegia zala-ta, susmoak hartuta-edo, mendira

igon beharrean, itxasora jo eutsuen euren kamion eta tankeekin. Tiro bat be ez Herrimendin. Onerako ala txearrerako? Zeuok esango dozue. Eta zelan ez genkiala —gero jakin geuntsuen— non Bizkaiganetik behera ikusten doguzan itarliar tanke txikiak lehio eta ate bako burdinezko gurdi baltzak, hareek pasakeran lurra bera be sotaldu egiten eutsuenak, kaminoz zein mendiz bardin ibiltzen zirenak. Eta euren ostetik baltzak etorri, ikusi eta ezelako oztopo barik, euren trapuak eskegi eutsuezan tantairik handienetan Goietan eta Herrimendin.

Nor ausartu harrezkero Autzikako baratzetan beste koloretariko txorimalorik ipinten? Zuk ezin zeinken ipini euren kolorea izan ezik, edo orma kontrako tiroa itxaron zeinken. Eta eurenalorik be ezin zeinken ipini geure euskal baratzetan, eurentiar ez emotearren. Ba orduan txorimalorik ez ipini eta kitu. Paseko txoriak jai? Handik gitxiara arbirik be ez zan erein...

Ez tirorik eta ez heriotzik, hemen Autzikan. Gudariak Bilborantz alde eginak zenduezan ordurako... Alperrikoak be ez. Guk trintxerak egin genduzan toki haretan itzelezko patatatzak emon zoazen, txotxo, hurrengo urteetan.”

“EZ EIZUE BEITIBISKOKO TOMASAREN AURKA EZER esan, bere zahartzaroan be, eta etxean inor askatu beharrik izan ezarren, amnistia manifestapenetara joaten dala-ta. Zertan joaten dokan, seme? Uste dok Ane bere alabea lez, ukabila jaso eta berba garratzak esatera-edo doala? Ez, txotxo. Gura izango ejoen eurak alabearenaren orde, amaren ukabila jaso erretratau eta burruka deiez orma guztietan erakustea, haren adorea ikusirik, “hara” esan egien danek, “ikusten dozue? Andre honek seme bat emon dautsue herriaren alde eta oraindino bere bizia emongo leuke. Ikusi giza-gaixook emakume horren tenplea eta ez zaiteze kikildu burrukan”. Baina ez. Beitibiskoko Tomasa ez zan hataratu, “ni zaharra nozue horretarako —erantzun eutsen berak borondatea eskatzen etoza-nei.— Nik ukabila jaso, neure seme-alabei errespetoa sartzeko eguno eskua jaso beharrik izan ez dodala?” Tomasak berak neuri kontatua. “Errezoia, Tomasa —esan neuntson—, ukabila ez dozu,


izan be, ama baten arma edo ganora, bihotza bero kolkoan eta berbea gozo ezpanetan baino.”

Hor agertzen jatsue orain bere orde, Ane alabearen ukabila Okizadako ormetan. Ane bai, jokura prestatu jatzuen, berak jakingo dau zergaitik, baina Tomasa amaren eritsien kontra. Ez dozue uste izango Beitibiskoko Tomasa alabearen halako piureaz harrotzen danik. Ez, lotsatu eta gogaitu baino. Neuk ikusi neban ormako erakutsiaz alabearen ganorea goraiatzuten etorkon emakumeari erantzuten. “Nire alabea dala?” Ez sinistua, ez ezagutua egin eutsun une baten. Baietz, Ane bere alabea zala ostera be esan eutsoenean, atzamar eta atzaskol, ormako irudia urratzeari ekin eutson neure aurrean, eta manifestapenaren erdian. Zuek biok aurrerago zinoazen orduan... Itzelezko famea lortu dauela, ukabila dala-ta? Gorrien zera baino ez dozue niretzako. Euskaldunok gorrien seinura alkartu behar bagendu, euskaltasuna zeharo galdu gendulako seinalea izango litzake.

Manifestapenak-eta antolatze berebizikoa izango dozue Beitibiskoko alabea, baina neska horrek daukan adinean, beste zerbaitetan be pentsa eikitsuen... Ez zindukedaz, alaba, munduko urregaitik be halatan ikusi gura. Nor hurreratu baina halako piura batengana? Horixe, batzarentzat ospagarri dana beste batzarentzat zer dan gero barregarria, negargarria ez esatearren.

Jakik, ba, heuk be, seme, eta hemen Jone bera dok lekuko, Beitibiskoko Tomasa ez doala gehiago amnistiako manifestapenetara alabeari men egin edo laguntzearren, neuri, heure amari, lagun egin eta gure Fidelen eta beste askoren askatasuna lortzearren baino... Jone, esaion gure mutilari Tomasak eta biok zer egiten dogun amnistiako manifestapenetan... Ez hazela heu gure arazotan sartzan? Ba neu, heure borondatez, heureetan sartu non antzera, heu be neuretan gehiago sartu beharko hendun. Zer, ama-alabok alkarri laguntzen ez bajautsonagu? Ez don esan ba alkartasunean dagola indarra?...

Esango deuat, seme, zer egiten dogun Tomasak eta biok manifestapen orduetan, besteak zarata egiten dauen artean. Gure Jonek ez daukala amagaz errosarioa errezau gura? Hori bere proble-



ma dok. Amnistia ez ei dok errosario erreztatuz-edo lortzeko zera, ezpabe formal ibiliz. Esaistak, seme, ea errosarioa erreztatzea formal ibiltea ez dan... Jakina, formal ibili eta amnistia deiadarrez eta pankartzaz eskatuz. Baina guri, zaratarik egin barik be entzuten jauskuk amnistia emon dagiken Harek. Ez dok horrelan? Ba jakik heure gobernurako errosarioa errezatze hori ez dokala izan neure burutaldia, Beitibiskoko Tomasarena baino.

Neuk be lehenago, gure alaba honek lez, errosarioa errezateko kaleko manifestapenak ez zirela egokienak uste najoan eta hara non Beitibiskoko Tomasa eskua poltzikoan sarturik eta errosario garauak atzamar puntatik igaroten ikusten dodan. Arpegira begiratu eta ezpainak mugitzen ejoazan isilean. “Ba zabilz, Tomasa? —esan neuntson— Neuk lagunduko dautsut.” Eta harrezkero, alkarren ondoago goazak manifestapenetan, inori ezer aditzen emon barik, baina ez gure Jone konturatu gabe, errosarioa erreztan joagu bizien eta hilen alde. Ulertzen daustak? Argi diagozak gure asmoak ez ala? Hareek be, betiko bakearen eta amnistiaren beharizanetan egon daitekezak. Edo hemen zarata egitea hareentzat probetxugarri izan daitekela uste dok?

Hiretzat, alaba, jakina: manifestapena manifestapena don eta kalea kale, baina Jaungoikoa toki guztietan diagon eta Berak baterako eta besterako emendioa diaukan. Eta ez hori bakarrik, alabatxo. Zuen manifestapenak baino lehenago Aste Santuko prozezinoak egiten zonazen hain zuzen be Okizagako kaleotan eta bere zahartzaroan ostaz kalera joaten jatzuen Beitibiskoko Tomasa txikitatik ibiliak diaukozan kaleok Jesukristoren Pasino Santuko irudiei laguntzen, neu be, gazteago izanik, inoiz edo behin ibilia non-eta.” Jesukristori kenduez gero pekatuagaz bizia” abesten geuntsuen harako prozezinoetan. Hareek zonazen kantuak eta debozinoa! Haxe benetako manifestapena, fedarena, jakina. Kristo bera agertzen jatzuen saldua, eskulotua, iraindua, salatua, espetxeratua, zigortua, arantzaz koroitua eta azkenik kurutzearatua eta hila. Onaren eta gaitzaren burrukea ikusten geuntsuen Kristoren eta Judasen artean, baina maitasunak irabasten eutsuen gorrotoaren kontra. Oraingo manifestapenetan oster... gorrotoa dozue garaile eta maitasuna hila. Damu kanturik bapez, besteen erru

salapenak danak, eta bakearen izenean, odola sarritan odola eskatzen. Manifestapen edo prozezinoetan, alaba, batera edo bestera ospatzen dirala, gurutzea beti don bardintsua eta antzekoak gendeen grinak eta jarrerak. Egoki zonan ba, halakoetan norbaitek maitasunaren aldeko burrukan errelisto zaharrak erabiltea...”

“Etxeko sua estalzazu ,
baina etxeko hautsa ezarzozu” (atsotitza)

la “ZERTAN URDURITZEN ZARA, LAZTANA, GURE ANgerua agertzen ez da-ta? Ausaz okerreko beste deiren bat jasoko eutzun eta urrutira joan beharra izango. Nora ez dakitsut... Nora hatan ere, neuri txistadatxoa egin gabe? Horren sekreto a ete dautsu ba? Gure artekoa baino handiago ez dozu izango, halan eta guzti ere. Ez horixe...

Bueno, bihar edo etsi agertuko dozu eta dana azalduko dausku, egon ba nasai. Aitatxok angeru ona dautsu eta berak zainduko dausku bideko estrepozu guztietatik... Ez dautsut gaurdaino aitarren barririk emon. Ez harritu, laztana, horregaitik, oraindino berari ere ez dausat emon zeurerik-eta... Hori dozu ba gure isilekoa. Aitatxok ez daki hementxe eta bizi-bizirik zagozana. Hurrengoxean, sinfalta, esango dautsogu. Barriaren zoragarriagaitik, neuri sinistuko ez baleust, hor zagoz zu. Egia jakiterakoan, zerua idekiko jako. Orduan ez dausku ezertxo ere esan barik, holako ihesik egingo.

Horixe, egia osoa esan beharrean “eta umerik izango bagendu” halakoaz zirikatu bakarrik egin neuntsula. Berak orduan arpegira begiratu eta besarkatu egiten nindun eta ziria igarri ez eutsunarren, hantxe zengozan zu, bion artean. Egia osoa esateko txikiegia-edo zintzazala pentsatu neutsun edo ausaz bera egotzula dana jakiteko

ondo heldu barik eta hagaitik asmotan lez “eta umerik izango bagendu...” esan neuntson. Ez eta “umea izango bagendu” ere. Zera, asmo hutsa bailitzan... Baina hantxe zengozan zu.

Azalean zerbait nabaritzen zintzazaneko orduan esango neuntsola dana. Beraz, hanartean ez estutu, egin lo eta ardura barik egunetik egunera hazten joan zaitezke, laztana.

Bart ohean nengola sentidu zaitut inoiz baino argiago, sentidu ere. Gu bion bihotzok kontrapuntu txikia, geldi-geldi egon ezik ostaz nabari eitekera eroen unadaka, gero ostera ere bat egiteko. Orduan ez zenduzan batabesteagandik bape nabaritzen, biok bat izango bagintzazan lez. Baina ez, eta neure artean esan dot: “familia daukagu..., etxe bat geurea beharko dogu eta ez errefuxiatuen aldean...” Zuk ez dakizu hitz horrek zer esan gura dauen, ez dot gura ere jakin daizun... Gu bai, aita eta biok, errefuxiatuak gozuz, baina ez geure borondatez. Eta hara, geure zori latz hau aldatzeko zer egin ez genkiala edo zer egin ezinik gengozala, hobeto esateko, angerua lez, isil-islik non agertzen zaren zu ustekabeen. Ustekabeen? Ez neunke esango horrenbestearino. Hobeto esanda legoke ‘beharrenean’. Horixe, gu bidegaldu eta nora jo ezik, eta beharrenean zeu agertu zaiakuzala. Zeu agertu eta “hara guk behar gendun angerua” esan dot neure artean. Ba dinotsut, laztana, aitatxok zeru idekia ikusiko dautsula, jakitean.

Nik halako zerbait banenkusan, ikusi, beragan, aitatxogan, umez-edo berba egiten gendunean, baina orain ezelako dudarik gelditzen bajako, ba dakit zer esan, “hara, berton eta inora joan barik, angeru Fideltxo”. Erratu egiten dala ostera be, zeutaz barik, beste nosbaitez-edo nabilkolakoan? Ipini dagiala orduan bere eskua neure zilbor gainean, edo belarria, ea zure bihozkoaren tau-padarik sentitzen dauen. Neure odolaren dundunaz nahasten daue-la? Orduan medikuaren agiria erakutsiko deutsot. Ez, ez da bardin izango zeu kanpotik aztatu edo amatxok lez barrutik sentitzea, baina poztu, edozelan ere poztuko dozu. Asmoa bera zirikatu neuntsonean “eta zer umerik izango bagendu” harakoaz, ahorik idegi ez ebanarren, harako begirada eta besarkadeaz nahiko eta sobra adierazi eustan ondoetorria zintzakezela. Ia bertan ere iraga-

rri neinkion asmoa egia zala, baina asmotik egiara unetxo handia-goia igarotea egokiagotzat emon neuntsun.

Jakin egin behar dozu, laztana, aita eta biok ere, angeru beharrez gengozala geurea, geure inozentzia, galdu gendunetik. Ea zuk zerutiko barri hoberik dakarkuzun, ea gure angeru galduen garaintzirik berere... Bai, “lolotxu, angerua. Zeruan ze barri?” abestuko dautsu zuri amak kuman eragin zaizan bakoitzean eta zeuk kontauko daustazuz gozoak hemengo gazien orde... Zeu barik, geurez, geure egoera latza iraultzeko ere ez garela, esan gura dautsut. Zeure hegotxoak jasoko gaitue. Hego txikiak gorakada handia egingo dautsue, eragingo dauskue. Nor ausartuko da orduan zure kontra eta, beraz, gure kontra? Onak dagoz euren hagineta itziko zaitugula uste badaue!... Ez zara zeu errefuxiatuen seme edo alaba izango, ez horixe. Zu ‘Aingeru’ izango zara, mutiko izatekotan, edo ‘Gotsone’, neskato izatekoz eta aitatxok besoetan euki zaizazaneko, bagoaz ani-ani hemendik amumaren etxera... Jo! Amumari eta aitari esan beharko jake hainbat arinen... Amuma eta aita? Ez dautsut esan neuk ere beste aitatxo eta amatxo dodazena. Baneunkatsun, euki, zimikoalakoxea bihotz-tzean, laztana. Aspalditxotik munduan bakarka lez bizi izan nozula, aita eta amagandik aldendu, nitaz inor arduratuko ez balitz bezala. Eta komedia latz edo historia garratz honetik aldendu gurarik gogoa erreta nengotsula, orain zain eta muin asaldatu nozu bide berean, zeu neure erraietan mogitzen sentidu zaitudanean. Zeuk agintzen dozu etxean. Ez dautsut esan ba ‘hego txikiak, baina indar handikoak’? Goazen ba, laztana! Mugako mendion gainetik hegaz egingo dogu uso zuriak bezala. Ez... Ez neuntsun esan behar ‘uso zuriarena’. Zera, ehiztari gaiztoaren ipuinetan ez jaustearren. Angeru onaren hegoetan esan eta kitu...

Angeru galduarena esatera noatzun... Ez dakitsut neuk ere ondo. Mundurako hegoak urten-barri-edo nengotzun, hegaka hasi eta uste izan, edo behar baino urrunago aldendu nintxatzun etxetik eta uso zuriari jaso jakona... sareetan jausi. Ai ene, nork askatuko eutsun nire usotxo? Eta hego moztuen orde, nork emongo eustazan barriak? Negar eta negar egiten neuntsun bakarrik neure zoritxarrean. Ingurutik igaroten zirenak begiratu egiten ninduen

eta "zer dozu?" itauntzen, baina borondate ona eukiarren, hareek ez eukatsuen niretzat hegorik. Angeru oneko hegodun bat agertu jatzun behin eta baietz, emongo eustazala berak. Orain, laztana hiru gozuz: bera, ni eta zu, zeu hegoduna gainera. Hirukoitz banandu ezina egin gozuz. Ez zenkian hiruko txortea apurtu ezina zenik? Ez zenkian, laztana, zeruko Jaungoikoak ere, Hirukotxa izan ezbalitz, ezin izango eutsula konpondu, beragandik aldendu eta semetzakoa ukatu eutsun gizakiagazkoa? Baina izatez bakarra dena, ahaleginez hirukotxa dozunez, Aitak mundu guztia sortu eiketsun, Semeak haregandik aldendu ziran semealabak erakarri eta Espiritu Santuak ostera ere, zeruko eta lurreko familia baketu ahal izan eutsun. Ea beraren bitartez, zeuk ere, laztana, halako zerbaiten laguntzen dauskuzun aitaxori eta biori..."

"NASAI, LAZTANA, AITATXOREN BARRIAK DOGUZ-eta. Bai, bere eskutiko gutuna dozu, harritzekoa..., firmarik ez dakanarren. Ez ete daki aitaxok gutunak firmatu egiten direnik?"

Nasai, laztana. Gutuna idegi orduko, iraulkadea emon daustazu, neugaz batera unkitu izan baizintzazan. Aitaxoren lehen gutuna dalako izango dozu. Lehen bera etorten zendun, ezinean-edo letrok bialtzen dauskuz...

Nasai, laztana, barriak ez dozuz horren latzak guk bizi doguzan orduotarako-eta. Zera: aitaxok aldendu egin behar izan dauela eta ez bere borondatez, ez luzarorako baina... Urrunago joan behar izan dautsunez, ezingo dauela etxera etorri beste iluntzetan lez, gugaz gaua igarotera edo ordu pare bat berere, geugaz egotekotan. Bere zerginetarako deia izan dauela, hemendik nonbait, ez mugazandik. Harantza joatekotan, ez jatzu gu barik joango, ez horixe. Non dagonik ez, ez eta nondik dabilen. Eta entzun, ez ei dautsu firmatzen bion onerako... Bion onerako dinonean, ez zaitu zeu kontuan hartzen, aitaxok zure barririk ez dakitsulako. Jakitun balego, 'hiruron onerako' esango leukitsun. Zuzenbiderik emon izan baleust, behingoan erantzungo neuskio, laztana, eta zehatz aditzen emon gehiago barik: "kontu egin, aitaxo, hurrengoan, bi barik, hiru garela izatez eta hemen bi batean gagozanarren, zeu

zarela besteongandik aldendu zaren hirugarrena, guri ezertxo ere esan barik. Ea noiz zatozen gure txikiaren barriak hurragnetik jakitera eta hirukotxa pozez ospatzera. Jo, eta bion firmea ipiniko neuskio. Neuk firmatuko, jakina, zeure partez. Behinbehineko 'Angerutxo'-edo izenpetuko neuskizu neure firmearen azpi-azpi-txoan. Eta sinistu egingo leuke. Neure ikurren makurduratik igarriko leuke zure bihozkeraren hurtasuna.

Berak ez eutsun firmatuko, laztana, gure zeraren barri inortxok jakin ez daian, hau da, berak maite dauen habiari kalterik egiten inor hurreretu ez daiten... Zuk, laztana, ez zenduke holakoren barri zertan jakin, angeru onek eta txarrek laster ezagutzeko dozun mundu honetaraino zabaldu dautsuela euren betiko burrukea.

Horrexegaitik dinotsu aitaxok 'bion onerako', norbait gaitz egiteko prest-edo bailegon...

Egon nasai, laztana. Angeru bekaiztia ez daitela zutaz konturatu. Eztalakoa egin zuk amaren altsoan. Gaizto harek jakinko baleu, zu angeru onen alderdia bultzatzerazatozena, ahalegin maltzurak egingo leukez zuri bidea oztopatzearen. Aitaxok zure barririk baleuko... Aitaxori barri hau emoterik baneunka... Baina hak gure onerako itzi dauskun atek berak eragozten dautso amatxori urtenbidea eta zer egin?...

Nasai, laztana, bada urdurikeriaz nekezago burutuko dogu arazoa."

"AITATXOREN BILA IBILI NOZU, IBILI GOZUZ. BAI, biok ibili gozuz. Eztalakoa ere, ni noan tokitara hara zatoz zeu ere. Gero eta egun gitxiago, baina zati baterako banandu ezinak gozuz. Biok gabiltzuz beraz kalez kale eta telefonoz telefono asmo berean. "Ikusi dozue aitaxo? Agertu da hortik gure aitaxo? Ez ete dakizue gure aitaxoren barririk? Nork emongo dausku aitaxoren aztarrentxo bat?" ogi apurren eskale ibili gozuz ijitana errefuxiatu bi lez, edo kaletik lehiora umeak amari deidar egiten dautsonean lez jendea molestutzen... Zeu izan ez bazintzazan neure arduren lagun eta akulu, ausartu ere ez nintxatzun egingo atez-atez ibiltzen.

“—Ez, ez dogu ikusi —erantzun dauskue.— Hemendik ez da agertu. Ez dakigu haren barririk. Extraditatu egingo eutsuen.”

“—Zelan extraditatu, hementxe mugaz hemendik dagola dinosku eta? Extraditatu? Ze oker egin dauela uste dozue ba?”

Pentsau be egin dautsut, laztana, aitatxoz larregi arduratzeak, kalteren bat erakar ete leikion. Badakizu, angeru onen eta gaiztoen arteko barrukagaitik eztakigulakoan.

“—Ez zaiteze arduratu —erantzun dausku beste batek—, gizonak joan eta etorri egiten dozuz-eta..”

Norbaitek barre ere egin dautso zure amari, maitale bat doanean beste bateri ateak idegitea baino ez dagola esanaz. Halakoxea dozu, laztana, angeru gaiztoaren iraina. Horrexek emon daust amorrurik handiena eta barrutik asarratu eta zeure ostikadaxoen protesta ere sentidu dodanarren, isilik itzuri dautsut bere geriza galgarria. Alperrik halakoari gure aitatxo den maitalerik onena azaltzea. Ikusiko dozu, gustauko jatzu haren abotsa. Honez gero zure belarritxoak entzuteko gai izango dozuz, ez hala?

Hemen egon behar eutsun honez gero, baina lehengo barriak ez dozuz bete eta barriagorik ez dager. Geure onerako idazteari horren larri baderitso, zergaitik ez ete dausku hots egin? Badakitsuz nire bareko lan orduak. Haraxe dei egin eikidan. Inori pistarik ez emotearren izango dozu. Horixe, motatxoriak lez egingo dautsu. Badakizu motatxoritxoak zer egiten dauen kumeen habiara katua datorkonean. Habiatik salto eta katuari aurre-aurrean jarten jako ‘pio, pio, hemen nago’ kantetan dautsola. Ba doako katua itxurik bera irunsteke asmotan, eta txoriak hegaka atzera salto, ‘pio, pio, hemen nago’ kantetan dautsola. Ba doako katua itxurik bera irunsteke asmotan, eta txoriak hegaka atzera salto, ‘pio, pio, hemen nago’ ostera be eta horrelaxe kumeengandik urruntzen dautsu motatxoriak katu gosekila. Katuak motako kumatxoak harrapauko baulez, bertan garbituko leuskitsuz, baina eskerrak txoriamearen amarruei despistatu egiten dautsu. Katua urrundu daueneko barriz, hegada baten diatortsu ostera motatxoria txorikumeen gainera.

Aitatxo gureak, habian zeu zagozana baleki, jakin, arrapalada baten etorriko litzakizu, laztana. Ala katu gosekila lez dan angeru bekaiztia despistatzearren ete dabilzu ba? Kontu egizu gure kaleko lagun batzuk zure presentziaz konturatu egin direla eta angeru bekaiztia ere ez dala lotan egongo. Hemen gero eta nabariago zara. Aitatxo ez jakitun dagonarren, auzoan barri zara zeu. Batzuk halako bihurrikeriaz begiratzen dautsoe zure amari, ea aita nor dan galdetu gura baileutsuen. Kokolak halakoak! Zelan esatea gura dautsue ba? Ez ete doguz kaleok bere galdezka ibili bion artean, oraindino ere halako begikuna erakutsi daiskuen? Ba Fidel da gure aitatxo. Jakizue auzoko sorgin guztiok. Zoaze eta emoiotze berari auzoko barria, gauza onik egiteko bazaree. Baina, deskuidoen, ez zaiteze berari edo gure txikiari kalterik egiten ausartu.”

“AITATXO IKUSTEKO NIK NEUNKATSUN GOGOA, laztana, eta bere orde zure gutuna diatorku ostera ere, oraingoan bere firma eta guzti. Zergaitik firmatzen ete dau oraingoan, lehen ez bezela? Gure habiaren inguruko arriskua aldendu egingo zendun nonbait edo dagoneko ez dautso nigazko, gugazko maitasuna firmaz agertzeak ardura. Edo ea okerragoren bat ez diatorkun...”

Angelutik dator aitatxoren gutuna, beste zehaztasunik gabe. Angelun zein tokitatik baina? Zelan idatzi daikiot nik Angelura hemen beste angeru bat daukagula adierazten emonaz? Behar bada han ez daukatsu egoitzarik eta ihesian dabilzu batetik bestera katuen eta txakurren jazarpenetatik. Josus, zenbat buelta emon behar ete dautsuz aitatxok gaiztook halakook despistatu eta atzera bere habiara itzuli ahal izateko! Bere angeru onak lagunduko al dautso, laztana. Eskatu daiogun Jaungoikoari darabilen arazoa lehengo baino txarragoa izan ez daian...

Esan dautsut deabru bekaiztiarena? Haseran zeure kontra ebiltzun, zeu amagandik aldendu nahirik. Ba dakizu zer esaten eustan? Egoki egingo nebala nengon situazioan zeu abortatzeaz. “Neure situazioan eta zeu abortatu?” Nik ezetz. Zer ekien hareek nire egoera zer zen eta halako egoeran noren beharrean nengoken? Nik



urrezko erastuna baino maiteago zindudazala, eta aitatzok berak erregalauko gurutzetxo haxe lez gordeko zaitudala. Ze uste daue ba? Hobe zeu galdu asmotan barik, aitatzxo bilatzen lagundu baeusten.

Dagoneko handitzen zoazela eta ia argitara saltatzeko prest zakusela, bekaitz-erreago agertuko jatzu. Harek zeure mokau biguna gurako eutsun, baina neure ortzak eta atzazkolak jan beharko eutsuzan aurretik. Eta gaiztoak halakoak, zeure galpena lortu ezin izan dautsunean, aitatzoren kontra dihardutsu. Zer egingo ez leuken gero gure hirutasuna apurtzearren. Apurtuez gero, harek badakitsu ezina izango litzakela guretzat zerua munduan eta ausaz munduak berak ere inpernu iraungo leiketsula... Eta gogoz eta bihotzez lortu ezin izan dautsuna indarrez eta materialki nahi leuke, gure zoriona bere ahorako gozokia baileutsun. Ankerra, basatia halakoa! Ez dau lortuko, ezpabe gu biok alkartuago egotea eta gu bion aitatzogazko ustea eta itxaropena sakontzea.

Zorionaren antzia bihotzeraino sartzen jatzunean, laztana, edo zoritxarretik urteteko bidea idegia ikusten dozunean, angeru onari oratu eta indar guztia egiten dozu berari jarraitzen eta horixe dagitsu zure amak... Zerua gugaz portau da, angerua bialdu dauku, baina, antza, ez dira kitu nire pekatuen ordainak, ostera ere prueba hau diatorkunez gero...

Aitortu egin behar dautsut, laztana, hirutasuna apurtzea hiruentzat den samina ez zeuretzat, besteengandik alden du zaren, zeure kontzientziarentzat bakarrik. Zuk besteen zorionari baino zeureari gehiago begiratzen badautsozu, bide-erraten zara, ardatza galtzen dozu, eta munduko unibertsoan izar galdua izan zaitezke. Ez dautsut esan ere egin gura izar galduen infernua zer den. Orduan ausaz ulertu ahal izango zenduke inpernu horretan lorratzak izterainoko aitatzxo eta bion maitatzea zer izan den. Eta maitasun hori barriz, zerutik nor ekarteraino...

Ume galdua ninduzun eta ume galdua lez agertu jatzun bera orduan. Ume galdu bi gintxatzuzan, errefuxiatu deitzen euskuenarren. Hemen, laztana, bere etxean lez sentitzen zendun. Bizitzako gorabeherak alkarri kontatuala-kontatuala, zorion barri baten itxa-

ropena ernetzen jakun barrenetik. Eta latzak kontatuala, atzean gelditzen jatzuzan ames erratu joanak euren behaztunagaz eta ames barriak sortzen eztalakoan ere, haren hautsetatik...

Ez geuntsun dana kontatzeko astirik izan. Berak bai ausaz, ni baino frankoagoa zendulako, edo bere angeru onak nastetik burua gorde eutsolako. Nik, neureak kontau ondoren, esango neuntsan zurea. Baina zelan orain neureak kontatzeko ere astirik izan ez dodala? Zurerik ezin neinkion esan. Txantaia egitea eristen neun-ton aurretiaz esateari. "Bueno, gauzea hor dozu eta ea orain zelan erantzuten dakizun" esatea lez. Ez, ikusi nindeiela bilus-bilusik neu nintzan lez, aurretiz. Egoki zendun, ez hala, amaren seme edo alabea baino ama bera lehenago ezagutzea.

Dana aitortzeko astirik izango ete dogu? Gauzea doan lez, bildur nozu bera baino lehen zeu atetan izango ete zaren. Eta dana aitortzea dozu, laztana, inpernua gainditzen dozulako seinale ziurrena eta nik inpernu hori desegin gura dautsut, zuretzat dago-kizun zerua izan daiten... Ba dabil oraindino ere gure zerua eragotzia gura dautsun deabrurik."

"HIL ETA INPERNUETARA JATXI ZINAN KRISTO JA-ungoikoa, ez dakit zelan ausartu nazen zure kontra birauak esaten; jatxi zaitetz zure alaba baztetu honengana ere eta, horren duin ez banozu ikusten, aintzat eukizu behintzat zeuk erraietara bialdu daustazun angeru hau eta askatu eizu inpernu honetatik. Ez dinotsut mundutik eroateko, orain arte ere maite izan dodazan bat baino gehiago eroan dozuzan lez... Edo nigana hurreratzen diren guztiak horrela kaltetzeko sorgin bat ete nozu? Zelan itzi dozuz ba eskutik erailak, urrundiak edo desagertuak izan daitezen? Jenteeek sorgintzat-edo erre naiela-edo gura ete dozu? Ez ba... Erraietako angerutxoagaitik eskatzen dautsut, ez neugaitik. Larrienean ere, zeuk bialdu daustazun argibide eta angerutzat hartzen deutsut. Bera neuri lotu danez, berari lotuko natxako ni, burdin goriari lez...

Ez dakit zelan ausartu nazen zure kontra neure etsipenean, baina noizean behin neure bakarrekoetan gorroto dodan gaizkilea-

ren ostoparrian jausi eta burua galtzen dot, neure jabe barik, bere ostikopeko bainintzan eta orduan... ze Aita Jaungoiko maite eta ze hostia, iraulka baten barrua garratzu eta zure kontra doa nire pozoi guztia neure erratuen eta zoritxarren errudun egiten zaitudala. Eta inpernuko garrak hartzen nauela, gero eta gordinagoak dinodaz neure artean. Orain osterera, zeure angeru hau bialdu daustasunetik, ixilduazoterainoko protesta emea sentitzen daustsut erraietan: zeure angeru ona gaiztoaren garrak amatetan...

Ez dakit zelan ausartu nazen... Ba dakit osterera, hasera-haseratik neure jakinmina izan zendula oztoparri. Ebak sagarraren sekretoan lez, nik bizitzako neure paperean nahiko neuntsun idoro jakinduria, bizitza zeuk emoniko dohaia eta erantzukizuna barik, munduko jakintsu-ustekoek antolatu komedia-edo bailitzan. Mundura jaio eta zeure alabako bateatu ninduen, 'Beatriz' izenagaz batera zeure erregetza eta abadetzako ihardunkizuna emoten eusteela eta nik paradisiko harako komedia munduko pasadiso bategaz trukatu neuntsun... Aukeratzeko askatasuna emon zeunstanez gero, nik txarto aukeratu, baina horixe... okerreko aukera batek halako ondore gaiztorik ekar leikikedalako ezjakinean.

Orain bada, hildakoen inpernura jatxi zinan horrek, begiratu eizu bizion inpernura ere eta eroaizu askatasun betera zure maitasunak osterera ere barriztu dauen itxaropena. Zaindu egizu angeru oneko zure Fidel, bere mamuen gerizpetik... Baina nondik atera dautsu gizajo handiak "gorpua erre, hautsak mesedez erre kara edo itxasora egosteko" hori, Miel Otxinen lilurak-edo baileuan? Edo gorpua sutara emonez-edo uste ete dau araotzen dela inpernuko zigorra?...

"EZER ERE EZ, LAZTANA. JAUNGOIKOAGAZ BERBE-tan egon nozula. Zeu lo zagozanetan ez daukatsut beste norgaz berbarik egin. Aitatxoren alde, zeure alde eskatu dautsat... Zeure jaiotegunerako ezin bada, zeure bateorako behintzat sinfalta egon daiten, 'Angeru Fidel' deitu behar zaitugu-eta. 'Angeru Fidel' angeru ona esan gura dautsu. Ez dogu erratu gura ezelan ere, zure izena asmatzean. Izatez zaren gino izenez izan behar bai-dozu eta

ez egundo izena guzurtatu. Ikusiko dozu zelan ontzat emoten dautsuen danek zure izena, aitatzok eta aita-amabitxiak... Eta deskuidoan aitatzok berandutuko balitz... Ez, ezergaitik ere ez. Deskuidoan dinotsut, berandutu eta bateorako ezbalitz agertuko, ez daiela angeru gaiztoak barrerik egin, gitxiago zeuri 'sasiko' deitu...

“—Zelan dinozue 'sasiko', 'Angeru Fidel' da eta? Non ikusi dozue sasiko angeru fidelik? Bada hau 'Angeru' dozue amagandik eta 'Fidel' barriz aitagandik.

Agertuko da, agertuko da, laztana. Baina deskuidoan agertuko ezbalitz, (ez dautsu gure Jainkoak holangorik permitiduko) arpegian erakutsiko zenduke haren begietako santua... Ez dogula dagoneko bere barririk, ia ez dauskula bialtzen, ez dala bere gorpurik atautean agertu, ez kutxatilan errautsik?... Ene, zer dinotsut, laztana? Ezer ere ez. Angeru ona eta angeru txarra dakustudaz alkarrekin burrukan eta itxura baten gaiztoa nausitzen dalakoan, angeru ona urtengo dozu garaile, aginduta dago-ta... Zera, zu jaio eta gero ezingo dogula hemen luzaro itxaron, errefuxiatuaren sindromeak-edo ikutu ez zagizan edo mugazandiko aitita-amumak eta zure bateoko aita-amabitxiak larregi aztoratu ez daitezzen. Ba dakizu? Ba goazela idatzi dautset, 'Angeru Fidel' daroadala neugaz, aitatzok eta bion herbestealako esperientzi garrazetan itxaropen bakarra. Aitatzok geroago etor daitekela, Jainkoak hala nahi badau, gogoz behenipehin geugaz datorrela-ta.

Nik aitatzok berak eskutik edo apapa eroan zagizan gurako neuntsun, baina zer egingo jako, laztana. Erosi dautsut kuma ibiltaria, oinez igaroko dogu mugea eta zubi handitik gainera, ez behin-behineko zubitik, kontrabandorik-edo daroagula pentsau ez daien. Ez kontrabandorik eta ez drogarik, ez armarik, ez ezelako burruka mezurik... Egunez igaroko dogu, laztana, argitan, argitan ikusi zaiezela mugazainek ze angeru arpegia daroazun. Inori agurrik esan barik joango gozuz, 'gero arte', 'bihar arte' behar bada, bakoitza handik edo hemendik bizitzeko libre da-ta. Maite garenok gero ere alkar ikusiko dogu... Pauso firmea eroango dogu, zu neure aurretik kuma ibiltarian, laztana, neure angeru gidari lez.

Aztertu gaiezela mugazainek nahi badaue, ezelako susmogarririk ez daroagula ikusiko dautsue. Ordurako zubitik behera jaurti eta urak eroango dautsu errefuxiatu karta hau. Geure nortasunez landa, inork zehaztasun gehiago eskatuko baleusku, ba dakitsut zer erantzun: “gu Euskadiko jende liberatuak gozuez...” eta mugak gaintuz, kondaira barria hasiko dogu zuretzat...”

“Non galpena han salbamena” (esakuna)

“GAUZA ZIURRIK TEZ HALAN BE. PERIODIKUEK esan dauena bakarrik.

Zuek ba zenkien gure Fidel alias ‘Garri’ zana? Beragaz bizi izan dan neskeak, Beatrizek, be ez dau ‘Garririk’ aitatu. Beretzat Fidel zan. Argi dinosku horrek beragazko harremonak onezkoak zirena, argiak esan gura dautsuet. Fidelek be, bere izenaz firmatzen dau orain hiru hilabete Beatrizi egineko eskutitzan. Hara hemen. Geu egiten gaitu beronen eskuko eta erantzule, bera, Beatriz, egunotan umea eukiteko eta handik laster bere gurasoen etxera, hemen Aukatoria, datorrenez gero... Orain hiru ilabete, jakina. Ordukoak ezeze, lehenagokoak be badozuez, bere larritasunak, harako ‘damutuak ormara’-eta aitatu genduzanetik... Bai, Beatriz bera joan zala poliziengana desagerpena edo danadalakoa salatzerara, baina gauza argirik ez. Eurek, poliziek, hasi jakozala berari galdekizunetan. Ea zertan arduratzen zan desagertuaz, ea Fidel nor eban, noiz ikusi eban azkeneko bidarrez, noiz bere azken barria jakin, ze bizibide eukan, non lan egiten eban, nortzu ziren bere adizkide arruntak, zelako bileretan ibiltan zan, zergaitik ete zan Espaniatik aldegina, zer dala eta ez zan itzultzen bere herrira, etabar. Eta zertarako? Gehien bat ea bere erantzunak, Betrizenak, euren fitxetan egozen zehaztasunekin bat etozen jakitearren edo aldeak markatzearren, ez asko gehiagorako. Desagertuaren atzetik pausorik emon-edo? Bere ustez gauza handirik ez, azaleko zeozer, baina Frantziaren izena zikindu-edo errefuxiatuen pupuak zirelata? Nasai egoteko, “horixe gainera — esan daust Beatrizek berak — nasai egoteko, Frantzia orain arte negargarrik jazo izan ezbalitz.”

Desagertuaren notea prensara bialdu ebanean, orduan mogidu zirela zeozertan eta gaur arte... Prensakoei nork emon eutsen 'Garri' ezizenaren barririk? Polizien fitxerotik, behar bada...

Anaitasunean egon eta Beatrizegana joan nintzan. "Sekuestratu badaue, nork sekuestratu dauela uste dozu?" —itaundu neuntson.

"—Gu errefuxiatu guztiok gagoz apur bat sekuestratu..." —erantzun harek irribarre mintsualakoz.

"—Danok, baina zu hemen zagoz eta Fidel nire nebea ez da agiri" — esan dauzat.

"—Ez dago bestelako sekuestrorik —berak serio.— Sekuestratu ba eben, sekuestratzaileek honez gero zergaitik eta askatasun baldintzak agertuko leukeezan."

"—Esan daigun desagertuazo..." — nik orduan.

"—Desagertuazo dauenak edo leikenak ez daustu aitortuko. Desagertuazotera doana ilunpetako lana egitera doa.

"—Hori bai, baina zergaitik uste dozu desagertuazo dauela?" — nik oster a be.

"—Argi dago niretzat, prensak egiztatuko ez dauenarren. Fidel bere kontzientziaren esana jarraitzeko ere ba zelako eta ez beti inorenera makurtu zalea..."

Holantxe esan daust, ama, beragaz ez dakit zenbat denpora bizi izan dan neskeak... Ez, ama, ez dogu aitatu be egin hil-edo egin dauenik. Berba hori aitatu be ez dogu egin, ez negarrik egin beraz, ezelako itxaropenik-edo ez bagendu lez. Negarraz zer aurreratzen dozu gainera, gauzea larriagotu baino?

Nik orduan ea Galekoek-edo izan ziran. Galekoena periodikuan agertua dozue eta Anaitasunean be susmo bardinak eukeezan, baina edozelan be, gauza arrarotzat eukeela. Ez ebela total desagertutzat emoten, gendarmeek oraingoan ebilen extraditatzeko politikaz. Orduan zera erantzun daust Beatrizek:

"—Zergaitik ez dautsezu eurai itauntzen?"

"—Nik Galekoei itaundu?" — urduritu nau apur bat.

"—Ez, 'Galekoei-edo' esan dozu..." —berak.

"—Nik ez daukat inogazko harremon handirik eta gure abogadua bera be zurt dago, berak prensaratu diren susmurrak baino beste argibiderik ez daukola-ta."

Prentsea be aitatu dogu. Zera esan daust:

"—Holako zurrumuekaitik ez dozu mugitzen hemengo prentsea, kalea odolez-edo gorritzen ez den artean. Gainera udaratien ordua datorrelarik, ez leukeela gura alperriko susmoekin turismoa uxatzerik."

Horixe, gendarmerian lez, gitxi gora-behera: ohorea garbi...

Errefuxiatuen ardurarik? Bueno, besteak beste errefuxiatuen ardurea daukeela, baina errefuxiatu asko gero be Frantzia bizia-rran, mugea igaroteko libre direla.

Izan be, gendarmeriara joan nintzanean, han erdera ekitsun batek onartu nindun ordu erdi itxaron ostean. Beatrizek iragarri eustan galdeketaren antzekoa egin eusteen... Ez, ez neuntsen erakutsi karta hau, Beatrizek berak be ez eutselako erakutsi. Bere izena, Beatrizena, berton agertzen ez denez, libre gintzazala beronegaz nahi doguna egiteko, baina hobe gendula etxeko sekretotzat edo hartzea, Fidel berari be on baino kalte gehiago egin geinkionez gero edonori erakusteaz... Pentsa eizue sekuestratu-edo euki leikeela.. Hara ba karta hau Fidel bizi daneko seinalea, ama. Geu familikook be bere arduren partekide egitearren emon daust karta hau Beatrizek eta ez gauzeaz bera ezarduratu eta "hor dozue zeuena" esango baleu lez... Zer dinoan? Astiro, ama. Lehengo eta behin ez dozu geuri idatzia izan, Beatriz bere lagunari baino. Zer esango dautso ba, berari eginiko maite konfesionalakoa dozu-ta? Umearen barririk ez, ama. Hori irudipena dozuna! Baina hara zure gustoko dozun ale bat: "Edozelan be, neure erruen..." Ez, hemen "gurago dot inori kalte egitea baino neu kaltetu izatea..." Erruen

damu dala, ama. Zer besterik itxaron zeinken, beti gura izan dozuna baino?

Abogaduari be ez erakusteko. Lege bideetan sartu barik be, bere azken borondatea beteteko nahiko dala geure erabakia. Bue-no, "azken borondatea" esatea dau, ama. Deskuidoan —dino— jausiko balitz... Heuk esanekoak gogoratuko jozan, Mikel, eta ez dausku ezelan be, beste disgustorik emon gura, deskuidoan be. "Jausiko banintz" dino, ez "hilko banintz"-edo holakorik. Ez larritu ba, ama. Edo nork egiztatu dausku dagoneko jausi danik?... Ez dozu bizi dana egiztatu beharrik, hil dana egiztatzen ez dan artean bizi dozu-ta.

Beatriz nigaz egon dan denpora guztian paparretik dindilik eukan gurutzepika bateri oratzen ihardun dautso, esku artean eskutau gura izan ba leust lez. Ohartuz ohartuz, gero konturatu nozue gurutzetxo ha gure Fidelek eukanalaxoxea zala. Eskutatu barik, ausaz aditzen emon gurako eustan, ez dakit, baina seinale haxe be biek, Beatriz eta Fidel, alkartzera bailetarren.

Agur esaterakoan, alkarri eskua emon dautsogunean, zera esan daust, ama, umeaz arduratu zarenez gero, ea jaio-hurrean dagoenaren amabitxi izan gura dodan. Nik baietz, baina esan eikidala halako gonbiterako arrazoiren bat behenipehin. Irribarre egin daust orduan Beatrizek. "Angeru Fidel" deituko dala umea.

"— Angeru Fidel eta beste barik?" —neuk be irribarrez.

Ezetz, Fidel Bustintzaren arrebea izatea nahiko ta sobra arrazoi zala, baina horrezaz gainera, haren bila pauso gehien emoneko emakumetzat jo nindaikela. Eta horretan gelditu naz, angeru Fidelen amabitxi izatekoan. Zer deritxazu, ama?... Aitabitxirik ez joagu aitatu. Bere familiakoren bat hurrean. Edo inbiditan ete hago? Fidelek ez jotsan hire aipamenik egingo eta jakina ez hauela ezagutzen. Umearen abizenak? Umearen abizenak aitatzea, aita-tzea bera dozue-ta. Ala uste dozue gendarmearena egitera joan nintxakola? Umearen izenak harritzen hau, oker ez banagok. Zer diaukok ba gauza arrarorik "Angeru Fidelek"? Zergaitik ez hator umearen bateora, neu eroateko aitzakiaz ez badok be? Bai, Auka-

tion bertan, Beatritzen gurasoen herrian. Ama eta umea erabatera ezagutu ahal izango dozak. Eta zu be ez larritu, ama. Neuk eskatuko dautsat Beatrizi halakoren baten Angeru Fidel Beitira erakari daiskula. Gurako zeunke?..."

"BAI, KOLDORENA NABARMENAGOA IZAN ZONAN...

Danok ikusi ahal izan gendunan haren gorpu odoldua kale bazterrean jausi-barri prensan agertu zanez eta gero nahi izan zenduenok hilerrian. Galekoek behingoan aitortu joenan erailketea... Baina desagertzea besterik don, gure aitak behin baino gehiagotan aipatu izan dauen harako sasiskola luzea lez. Hila bete badon susmoa kaleratu zala, eta ez Galekorik eta ez beste inor mogitzen. Danak isilik, errubakoaren gainean eskua ipinten bildur bailitzazan edo dudearen iraunpena, iraun dagian artean, batzuri eta besteei ondo baletorkie lez. "Ez diakiguk zer jazo dan, estraditatu artean be ez dok ikusten. Betiko sikarioak izango zoazen..." "esan dau Potikosek. Beitibiskoko Ane be hor dabiltsu lagun min edo iraultzalekide izateko arrazoiak atejoka etorri balitxakozan lez. Ez diaukane beste konsignarik. Desagertu bateren odala ikusi be egiten ez danez, ez daukee zertan aztoratu. Desagertuaren gorpurik ez dagerrenez, arranoak ez dozan kaleratu.

Hik amari begi ona egitearren, gure Fidel bizi dalakoa egiten don, baina funtsean sinistu barik. Neuk be ez jonak sinisten, baina gure aitaren amesei jarraiki-edo, inoiz gure Fidel, ume bihurria lez, geure saminaren erdian atostetik kukuka ikusten jonak. Ez deunat esan be egin gura zein baino zein litzaken latzagoa: bera hilda egotea ala bizirik dala, gu halako ezbaian arantzean eukitea. Hau da, heriotzaren susmoak samintzen gaitun bestean, isiltasun honek be, borrero gaiztoenak lez zehatzen gaitula etxeko danok... aita zoratzeraino, amak be hiletako eleizkizunez zirt edo zart egin gura izateraino. Ez jonalako ez zerurako eta ez lurrerako urtenbideik ikusten, ez geuretzat eta ez desagertu danarentzat... Holako dudamudak itto egiten joen pertsona. Torturak ipatuko joezan gero...

Gure abogaduak egin dauzenak baino gehiago ezin daikela egin. Dana be hutserako. Amnistiakoak ez dala euren zera. Hara

ba, ez errefuxiatu, ez espetxeratu eta, antza danez, ez sekuestratu dagoen seinalea. Amaitu jatzuez honez gero zeuon manifestapenak, edo esango daustazue kalera jaisteko eskatzen daustazuen baikoitzean, ea noren izenean manifestatu behar dozuen... Bueno, bai, itzi daigun arazo hori, hiletaz dihardugunez gero. Koldorenik ez jonala gura. Neuk be ez. Nork gura jon Koldorenik, Potikos edo bere arrano kumeak kenduez gero? Bata latza badon, ez don gozoagoa gorpua hauts bihurtzea. Ba diakinak erretzailearen edo ehortzailearen lana geurea ez dana. Erabakiagaitik dinonat... Bai, eta deskuidoan gorpua —hilda ala jausita?— agertuko balitz. Ez jinon hor “okerreanean...?” Ba okerrenerako prest egon behar jonagu. Gorpua aztetzera joan, karnetak erakutsi. Uste don ezagutzeko moduan egongo dala?... Ez, berba zelan egitea gura don ba? Batek ba diakin noiztiko eta non aurkitua izan daiteken. Ez jonak pentsau be egin gura. Heure anaiaren gorpua erretoko agindu, hatarako beharrezkoa balitz, hilaren borondate idatzia erakutsi..., neurez ez neunke egingo bestela. Labetiko hautsak jaso, ez itzi euren eskuetan, ez dakit ze zorginkeritan haizatu ez daiezan... Hautsak erakartea, gorpua erakartea baino errezagoa izango don. Funerariari ordaindu beharrik ez jonagu izango. Gorpua erreteta bera eta hautsen kutxa be ez dozan dohanekoak izango... Bai, erretoko labeak txukunak izango dozan, mugazandik horretarako jokera gehiago egongo don, baina halan eta be ikaragarritzko laztura ikusten jonak agindu horretan. Inork inorenean egiteko danean, neuk be “hor konpon” dinonat, baina geuk geuretariko bategaz egiteko danean... Eta ez dinonat norbaitek “hako nabarmendu gurea” edo “zelan bururatu jatzue zuek hilerrian daukazuen mausoleogaz” esan leikenenagaitik, gauzea berez dan latzagaitik baino. Ala Frantzian gauzak ez direla horren latz azaldu behar ete jonagu edo han labeak txukunak? Edo geure hilaren borondate aitortu azken baten? Familikooi arazo larregirik ez emotearren izan dala? Ba ez jauskun gitxi be ardurazoten. Bizitzan gugandik mugaz bestalderaino aldendu zanak heriotzean be Garaita Sendikoen hazurrekandik urruntzea erabagi baeban, ez gitxiago. Gure artean halako etenik egon leikelakoaz baten bat harritzeko be!...

Jakina, bere asmoa guri ahalik eta nekebide gitxien emotea zala, baina nork sinistuko jon hori, karteak irakurten-edo emon ezik? Horixe, heriotzako zauriak erakusten lotza izan bailitzan eta guretar izeneko haztarrenak azkeneraino atzindu gurarik, errautsak eurak be errekarra jaurti edo itxasoari emon gurago izan baileuzan. “Inpernu honetatik” ihestearren dinotsu berak. Halako bizibidea emon dautse, antza, bere lagunek. Beatriz horrek horretaz gehiago jakin behar jon, ze inpernuk hatara bultzatu dauen, esate baterako. Erreka bidea edo itxasoa bestea baino garbiagoa edo arinagoa ete don ba beste mundura bidean?... Bai, bai, erretolikak aparte, gu geure harira. Hiletan edo danadalako eleizkizunean be, geu aurreratzea onena. Ni amagaz bat niaton horretan. Geu aurreratzen bagozan geure eskuetan diagozan noiz-zelangoak. Arranoak mugidu aurretik esan gura daunat. Ez diaukanagu horretarako Zurbitu jaunari edo Otxondo edo haren emazteari aditzen emon beharrik. Luto soila izango jonagu azaletik, barrutik prozesinoa daroagunarren...”

“AI ENE ALABATXO, GURE SEMEA AHENATU, EDO zuek dinozuenez desagertu eta gu hemen bere alde meza bat atearateko be ez garela, mezak aurreratzea munduko bere biziaren kaltegarri-edo balitz lez. Edo hilentzak bakarrik izaten ete dozan mezak? Bizi dala edo hil jakula bietara balioko jautson. Ez jonak esaten hiletako meza, desagertu danaren aldekoa baino. Ez dinonat, gorpurik ezean, gurutze bat-edo gehitu beharko gendukela sendiko hilobian, heriotza ziurtatzen ez dan artean gurutzerik ez dala ipinten-eta. Baina horrexetan be, hil egin behar ete jon kristinauak gurutzeaz seinala ahal izateko? Bateotik hara guztiok be ez ete gagozan gurutzeaz nahiko seinalatu? Jaiotzean eta heriotzean beraz, baina behar dan moduan. Ez daiala osteria be gurean inork, kanposantuan barik, gurutzea baratzean ipinteraino burua galdu. Etxeko zentzundunok geure eginkizunetan atzeratzen bagozan, zentzunbakoengangik zer itxaron geinken?”

Gauzea hasieratik garbi ez esatearren izan dozue, alabatxo. Bere azken asmoak behar dan moduan etxean jakin bagenduzan, ez zan horrelakorik jasoko. Nonbait, gorpua erretoko agindu

dauela jakin izan dauenean, gurutzea baratzean jaso behar dauela-ko burutazioak emon dautso aitari. Negargarri batek, bestea, alabatxo, gauzea zoratzekoa be ba don-eta! Auzokoek zer esango be! Ea nora goazen gauzak behar dan moduan ez agiteagatik! Edo heure nebearen hilotzik edo errautsik ez dogula-ta, ukatu egin behar ete jautsonagu guretzea? Usteltzeko dan aragiaren izenean ala salbatzeko dan arimaren onerako ipiten don ba bera? Gorpuak ez diaukan zerikusirik arimagazkoak bete behar diranean, alaba. Eta gorputzez ezarren, gogoz geugaz badiagon (eta heuk esan hendun geuganatzeko inoiz gogo handiagoz egoela mutila), jaso daigun gurutzea bere familiko izan ziranen artean, behar dan tokian eta ez lehenengo familatik aldendu eta gero eleizatik be at, ereje moduan hil izan bailitzan. Gurutzea jaso, mezak agindu, gero zer jazokoari begira egon barik. Gero bizirik agertzen jakula? Pazkoa eta bera! Eskerrak Jaungoikoari! Ez dala agertzen? Ez don mezak aurerateagaitik izango eta ez jonagu erratu bata bezteaz estaltzen ihardungo, mezak aurreratzeak hil egin danaren seinale direla esanaz. Hil ala bizi, mezak argibide eta laguntza makala izango jonaz beti be.

Erratua dudamudatan jarraitzean diagon, alaba. Joan dan guda-tean be gero bizirik agertu ziranen bat baino geiagoren alde mezak agindu zonazen eta gudea amaituez gero ez zonazen asteetan nondik agertuko begira egon, desagertua hildakotzat emon baino. Edo gudako latzik eguno jasan ez dauenaren antzera, eskuez begiak estaltzen jarraitu behar ete jonagu, egunak berez gauzea aurreratu edo argituko dauelakoan? Zoritxarrerako astia diagon gero be, laztana, baina zorionerako danari ez daiogun eperik edo hesirik ipini:”

“GALPENAREN HISTORIÀK SALBAMENARENA DAKAR begaraz, Josefa, Kristoren heriotzati guganaino “non galpena, han salbamena” esateraino. Eta orduan heriotzaren galpena bera, horren galpena barik, geure salbamena hurragnetik ikusteko unea dogu, gure miseria guztiak eta heriotza bera gain hartu ebazan harek jaso egiten gaitulako jausten gareneko eta berbiztu hiltzen

gareneko. Horra ba ukapenean gure baiezpena be, “Aita, zure eskuetan izten dot nire arima” esan eban Hareri eskerrak. Eta meza santua dozu hatan be, gure galpena aurkeztu eta salbamena ospatzeko unerik egokiena, han Kristogaz bat egiten dogulako. Guk, hilkorrok, geureen heriotzea eta bihotzeko samina aurkezten dogula, Kristok bere Salbamen Ekintzara jasoten gaitu, beragaz heriotzean eta berbizkudean bat egiteraino. Geuk be heriotzeraino jasan behar dogula? Geure izakereari diagoko, galaziari bizi barridun ernezekotan lurrean ehortzi eta usteltzea lez.

Gure familiakoen bat hiltzen danean geure bihotzeko zatiren bat hiltzen da eta hori amok dakizue beste inork baino hobeto. Zeuk sentitzen dozue, besteok heltzen ez garen uneraino sentidu be, heriotz horren partekidetasuna, Ama Doloretakoak Kalbarioan lez. Baina era berean, begiak guztiz lurrean gelditu barik, fededuno dagokigu, gure aurretik joan direnen zoriona gogoratzea be, hemen negua dan artean han harentzat udabarria dalako.


Jaungoikoak geure itsak geure kontzientziaren harrian lixibitzen dakitsu, Josefa, baina ur garbia beti be bere graziaren iturritik orniduten dauskula. Lixibatzaileak harriaren kontra joaz astintzen dautsuz zapiak, (emakumeok ondo be ondo dakizue lan hori) dana garbi gelditzen dala. Harria geure kontzientziaren gogortasuna bada, ura Kristoren zaurietatiko garbigarria dozu.

Suaz konparatuko baneutsu be, bardin. Sua dan mingarria gure ukimenerako, baina zelan dakizan zaborrak garbitzen. Bada Kristoren bihotzeko maitasun garrak garbitu dauena ez eukatsun lurreko suak zertan ikutu eta hareago inpernuak erre... Baina, edozelan be, gitxi ardura dautso, hil ondoren, gorpua lurrari ala suari emoteak. Hori kulturaren zera edo ekologia dozu. Aintzinako euskaldun batzuk be, zeltarren kutsu edo eraginaz, beste hainbeste egin eroen, mendiko harrespilak lekuko direla. Hilzen gorpuk erre eta harrisko hesietan gordeten eutsuezan... Batera edo bestera, lurra dana lurrera doa, baina heriotz osteko gogoaren antzaldatzea, hori da guri ardura dauskuna...

Gogoan dautsut, Josefa, Hausterreko antolatzean behin baino gehiagotan, arratsaldeko meza aurretixe hain zuzen, Fidel mona-

giloari esana: “jatxi eistazak kanpandorreko zurubipean dagozan ereinotz abarrak”. Mutilak jatxi, nik azauan egozanez sua emon eta garrak amaitzean teila bat gainean ezarri eta bertanbehera izten geuntsun. Meza ostean sua txingarretaraino amataua eta hautsa barriz, agurearen ulea baino zuriago idoroten zendun. Gurako neunke gorpua erretoko labe modernook hain zuritasunerako lain izatea. Urte beteko haize eta lehorrak iharturiko ereinotsekin lortu zeinken hori, Josefa, aurre-urteko Erramu eguneko abarrekin, hain zuzen. Eta halakoxe hautsaz seinaltzen dogu urtero Garizumako penitentzia kristinauen bekokian. Lehenengo, hautsa ezarriala, “memento homo” —esan dana— “hautsa zara ta hauts bihurtuko”... Larregi be ba zendun halakorik esatea, ez hala? Hautsaz seinaltzea, tira, baina hautsaren gairaipena halako hitzekin adieraztea ilunegia zendun. Penitentzia baino harago inotsun haragiaren azkena: “hauts bihurtuko zara”. Eta gizakia haragia baino zeozer gehiago, askoz gehiago da, Josefa, Jaungoikaori eskerrak. Mila bider ederragoa deritsot liburu barriko esakunari, gure patua edo geroa ez dalako hauts bihurtze soila, geureaz erantziala Kristoz jantzi eta beragan antzaldatzea baino. Aldea makala, Josefa! Beioa zorionean hautsa hautsatara, baina ni nazena edo gu garena Kristogana. Hagaitik esaten dausku liturgia barriak, hain polito be hautsa ezarkeran “konbertidu eta sinistu eiozu Ebangelioari”. Bada, Kristoren jarraipenean, beragaz hil eta beragaz berbizten garela sinisten dogunez, egoki eta bidezko da dagoneko asmoz eta gozoz beragana konbertitzea.

Konbersinoa hori dozu ba Ebangelioko premina “konbertidu edo galdu egindu zaree” dinoskunean. “Hauts bihurtu gura ez dauenak konbertidu bedi” esatera baitorren. Oraingo ekonomistek munduko aberasbidei buruz dinoena bera kontuizu: “rekonbertidu edo lurra jo”. Teknika barriak, produzino barriak merkatu barrirako. Kristok bi mila urte aurretiz esana: “gizaki barria eta frutu barriak” hau da zerurako dain diren frutuak. Ulertu ete daue, Josefa, Europa Merkatuan saldu behar dauenek? Eta ulertuko gaurko kristinauek zer dan konbertitzea? Sarritan hitzak aldatu, (bada “konbertitu zaitze” hori ez dautsu entzun gura gaurko pekatariak) eta “rekonbertitu eizuez zeuon ekintzak” esateko gogoak



emoten daust, Josefa, gaurko hitzez eta errealitateaz baliaturik, espirituzkoak be hobeto ulertu ahal dagiezan. Rekonbertitu? Bai! Eta mendu zuen zuhaitz zabartu hori zuen frutuak Merkatu Alkatuturako gei ezeze, Santuen Alkartasunerako duin izan daitezcan, "bada goserik nengon eta jaten emon zeunsten, egarri eta edaten, gaisorik eta espetxean nengon eta bisitatzera etorri zintxatazen..."

Lurraren una eguzkiaren eraginaz lurrun goratu eta antzaldetzen dan lez, halan haragizko bihotz honen asmoak Jainkoagana zuzendu eta Beragan osotu behar doguz, Josefa, Espirituaren Bultzadaz..."

R
2
"NIK EZ DOT IPINI GURUTZETIK BARATZEAN. ZUEK zagote burutik holakorik egin neinkela usten izan badozue. Edo Erramuz bedeinkatzen diren gurutzekien orde, tramankulu hori ipiniko neuntsuen ba? Eta zergaitik hatan be? Gurean izan gendun azkeneko astoa hantxe lurperatu gendulako-edo? Pentsau be egitea! Nik txorimaloa ipini dautsuek antxineko ipuinen gomutagarri eta gure mutilari ondoetorria egitearren eta gure baratzean begiralerik ba dagoela ikusi daian. Nik hortik denpora gehiago egingo ebala uste neuntsuen, baina bidean dala dinostazue eta aurreratu egin naiako. Ez eiala Autzika horren aldatu, horren bakarti ikusi. Hara ba, nik aurkitu izan dodazan jantzi ederrenakaz txorimaloa ipini eta hurrengo goizerako baten batek soinekoa kendu dautsola, tramankulua bilustu eta zuen usteko gurutzea agirian gelditu dala. Lehen be esan neuntsuen, ordukoez gero txorimaloen bildur direla bat baino gehiago auzo honetan. Paseko txorien kaltea joan zanarren, esan ezineko beste zerbaiten edo norbaiten kaltea susmatu izan daue, antza, behinbehineko txorimalo horren agerpenean. Jo, eta kaltea uxatzeko, txorimaloa kentzea otu jako norbaiti. Horixe be badozue! Kalte kentzailea zana kaltegarraitzat jo!... Zoratu egin jatala gero neuri? Ea zoroagorik hortik zehar bilatzen dozuen. Egindo neunke nor izan dan be... Hain zuzen be, txorimaloa bere lehioara begira egoela uste izango eutsun, begirik be ez eukan baina... Baina ha begizkoaren bildur. Begirik ez eta txapelaren biran euki ahala begidun ikusiko

eutsun, dana begi horregaitino. Ba txapela kendu, alkondarea eta prakak erantzi eta hazurretan itzi dautsue. Hori izan dozue dana... Eskekoren bat? Bai ta zera be! Ea hurrengoan ipuin hoberik asmatzen dakizuen. Nik ez dautsot inongo hileri gurutzerik ipini, gurean inor hil danik sinistu be ez dodalako egiten... Desagertu, desagertu dinozue, baina bizirik agertuko da. Zer-edo dala uste dozue ba Benezuelara-ta estraditatuaren barri hori? Ez dala listetan agertzen? Ai kokoloak! Eta ez zenkien gure Fidelek izena aldatzen ekitsuena? Ez dozue esan ba hemedik izen bat eta mugazandik beste bat erabilten ebala? Ba, muga barriak izen barria. Kuku egitea da gauzea, eskoleari sasiskola, soldadutzari mugea eta muga bata hurregi gelditzen bada, urrunagoa bilatu. Zer uste dozue Kalifornian? O Beitiko oinordekoaren aspaldiko ameza zenduen... Egingo neuke gero gure Fidel egundoko diru mordoia egin dala Kaliforniako Pedro osabarenean... Ezetz? Eta neure sasoiaren neuk egin ahal izan ez nebana zergaitik ez daike egin orain gure mutilak? Noiz sasoi eta era hoberik? Noiz Beitik gaur baino beharrian gehiago? Norbait mogitu eta mugak igaro behar ebazan Betik burua jaso eta baserri zaharrak kaleak lez dizdira egian. Orduan orma, leiho, gela, teilatu barriak, orduan ez dautsue inongo neskak ezaintzat hartuko Betiko oinordekoagaz eskontzea... Bai, norbaitek egin behar nik orduan ezina. Osaba Pedro Ameriketatik dei eta dei, dirutza egiteko aukera ezinobea eta nik ezin joan, Frankori serbitzen igaro behar izan nebazalako nere gaztaroko urterik ederrenak. Ai nik mugak igaroteko erarik izan baneban orduan!... Ea gudaritzako alperreria galduriko lau urteak errekueratu eta neure zaputzei orde emoteko dan gure mutila. Ez daustazue entzun gura e? Ba horrela sortzen dira gero ezulertuak etxekoan..."

ERASKINA

"Lohitzune, 2 de julio de 1983

Queridos aitas. Salud y paz y a tí, ama, en particular, tranquilidad. Ya te estoy viendo preocupada y murmurando a cada rato: "¿dónde estará nuestra hija que na llega?" y un tanto asustada al recibir estas letras. Nasai, ama, ondo eta osasuntsu nago-eta.

Como al término de Udako Euskal Unibertsitatea de que os he dado noticias poco ha, se me ha presentado una ocasión a pedir de boca e inmejorable por demás para mi trabajo de Estudiante de Periodismo como es el de poder hacer unos reportajes de primera mano haciendo turismo, como quien dice, por esta parte de la muga tan desconocida de nuestra tierra. Voy a romper una lanza contra esta frontera que nos separa de nuestros hermanos. ¿No te parece, aita, una buena manera de estrenar el Canon que me regalaste y que funciona tan a la perfección? Espero que te guste particularmente la información gráfica. Me referiré tanto a la tierra como a sus habitantes.

La invitación me ha venido de una amiga que he conocido en la U.E.U. Ella es una buena vasco-francesa, como tú la llamarías, aita, pero acaso te harás otra idea, si te digo que tanto ella como yo, no hemos cesado de hablar en euskera, como si no existiera para nosotros el castellano y el dichoso francés. Que espere un poco más el gabacho. Hay que empezar por arreglar la casa, como dice ama.

Resulta que tanto para ella como para mí esta parte de la tierra de ambos lados de la frontera es simplemente Euskadi y no ha sido simple casualidad que dos chicas separadas por una frontera hayan coincidido en estos sentimientos de patria y de lengua. La misma lengua en que te estoy escribiendo, aita, se me hace un contrasentido, después de una semana entera que la he relegado al olvido. Es como si yo misma estuviera dividida por otra frontera lingüística. No obstante, condescendiendo contigo para que no pienses que ama y yo te la tenemos armada. A ver si llegáis a un acuerdo sobre el particular tú y ama, pues yo creo haber hecho definitivamente mi elección.

Te he comprado una Euskal Gramatika de euskera batua por si la prefieres a la nuestra casera y nunca mejor dicho materna de siempre. Ama, zu trankil, que no vamos a hacer a base de tiros y de tanques esta revolución lingüístico-cultural. No es más que un libro, que por cierto, aquí en Francia cuesta más que ahí, para que luego hablen de Jaujas. No te molestes en mirar que para mí tienes bien aprobado el euskera. Es para aita que no ha querido aprender o al que no te has dignado enseñar. Eso nunca se sabe...

Pienso llevaros carretes y más carretes de mis andanzas y por ahora recibid besos y abrazos de vuestra hija, Beatriz".

"Aucatio, 12 de septiembre de 1983.

A Beatriz Fernández Munitxa en San Juan de Luz (Francia).

Mi querida hija Beatriz: No puedes figurarte cuánto deseamos tu felicidad tu madre y yo y cuántos pasos he dado para solucionar tu situación y reintegrarte tanto a la vida familiar como a la Universitaria que mejor te corresponde. No puedes hacerte a la idea de los desvelos que sufre tu madre cada vez que encuentra vacía tu habitación, la de tu casa, hasta tanto que con nuestra ayuda construyas tu propia casa.

No quiero reprocharte falta de sensibilidad en este punto. Después que yo personalmente contraté al abogado, el Sr. Arandia, después del inútil viaje que personalmente realicé a San Juan de Luz y en el que me fue imposible conectar contigo a pesar de las referencias y puntualizaciones... Bueno, igual que si te hubieran secuestrado los tipos de turno, que para mí ésa es la palabra: secuestro. Decía del Sr. Arandia, a quien en última instancia y a ser posible, transfiriera los papeles de la Universidad de Navarra a la de Pau y aclarara tu situación en Francia alegando tus estudios, y me vienes con que ya tienes tu abogado de rigor en la persona del Sr. Ozaita a quien no conozco ni le puedo reconocer como abogado en estas circunstancias. O es que, puestas las trabas ¿también te ponen un abogado que las defienda? Abogado del diablo llamo yo a ése. Seguramente que tiene más intención de quedarse contigo que tu propio padre. Hasta ahora sólo había oído de referencias y como de bromas lo del “abogado del diablo”, pero ahora te puedo decir, querida hija, que lo sé por propia experiencia y no puedo menos de odiarle con toda mi alma a él y a cuanto él representa por cuanto ha conseguido arrebatarme lo que más quería en este mundo: a mi propia hija.

Por lo cual, dicho está, que el sentido de responsabilidad y la conciencia nos impide a mí y a tu madre colaborar en este sentido con quienes se empeñan en contraponer los intereses del corazón y del sentido común. Sería como pedir favores al diablo. Peor todavía, sería vender en cuerpo y alma a mi propia hija y regalar al enemigo además treinta monedas, como precio de la traición.

En política no lo sé, pero si en algo estamos de acuerdo tu madre y yo es que, estés donde estés, sigas tus Estudios de Periodismo. Eso sí que te lo abonaremos con mucho gusto así como tu estancia en esa.

Recibe a pesar de todo, nuestras más vivas muestras de afecto, si quieres mezcladas con lágrimas, como en el caso de ama, y un fuerte abrazo de tu padre Andrés Fernández.

“Autzikatik, martiak 6, 1984an.

Fidel Garaitari - Lohitzunen.

Kaixo Fidel: Zuen ihesa dala-ta, zuen ama ardura bizitan etorri jatak. Egia esan, ez zuen sendikoek ez eta neuk be, ez genduan uste izango holakorik zuen partetik, baina gitxiago heure aldetik. Zer jazo jak ba, txotxo, harrelakoetan sartzeko?

Letrok idaztean ez joak zuen amaren agindua baino beteten. Nik neuretik be ba diaukat, egia esan, hiri esatekorik, baina oraingoan entzuistazak amaren ahotik lez. Izan be, hartu dokan bide horretan arrisku handian ikusten haugu eta “ez gagizuz tentaldira eroan” erreztatzen joagun bakoitzean gogotan haukagu. Zorbatzaren ahoan ikusten haut eta orduan eta larriogoa dok gure otoitza “atara gagizuz gaitzetik” esatean. Ze gidaritzaz edo gudaritzaz hartu dokala neuri ezelako garbitasunik emon gabe? Edo isilik egongo nintzala uste hendun, ezelako agirikarik gabe? Nork izendatu hindun gudari, Kristoren gudari hatan be, eta beste inork baino lehenago salbamen olioz igurtzi hire bekokia, deitua izan hintzan bidean zintzo iraun hengian? Umetaroko pauso hareek hutsean gelditu ez eitezan, geroago ez ete dok gogoratzen heure gaztaroko igortzia: Sendotzako Sakramentua? Gauzeari berea emotearren, Gotzainari deitu geuntsoan eta etorri be egin zoan. Ahaztu egin ete dozak hatarako eskubide osoaz egin euazan itaunak eta heuk emoneko erantzunak? “Uko egiten dautsazue pekatuari eta pekatuaren iturri dan Satanasi?” —Bai, uko egiten dautsot”— erantzun hendun hik. Eta danen aurrean Kristogazko lokarria aitortu hendun. “Sinisten dozue Jesukristo gure Jauna...?” — Bai, sinisten dot”—erantzun hendun. Ez hintzan umea aitor hau egitean. Hamasei urte bete-beteak henduzan, hamazapi egiteko. Kontu egik beraz, beste inork baino lehenago neuk izentatu hindudala beste inongo gudaiburuk baino hobeto ordain-tzen dakian Kristoren gudari eta egik harrezkerok, beste inori eginiko siniiz edo juramentutik aske hagola. Kontzientzian ez hauela berari eginiko juramentuak baino beste ezerk lotzen. Horretan

diagok heure salbamena ezeze, heure inguruko beste askorena, Kristok bere burrukara deitu haelako handik edo hemendik hagola edo diharduala. Bere izenean bateatu hindudan, "Fidel" izena ipini. "Zintzoa" ez baaz, izena bera ezeze, burua eta gudaiburua ukatzen dozak.

Gorantziak Koldori hortik ikusten badok. Euri esanak eta bi berari, bada biok be, eskola batekoak zaree, adinean bera harean zaharragoa dokanarren. Bakean eta zintzotasunean ikusi gura zaituegu, bada eguneroko lan apalean be Euskadi ederto egiten dala ikusten joagu. Ez diagok bide hoberik. EsaioK Koldori "Aita gureko" azken eskari hareek errezetan jarraituko dogula biok hemendik ikusi arte. Eta ez ahaztu, zeuok be beste hainbeste egiten ihardun. Agur Kristoren ordezkaritzan zeun serbitzari. Felipe Zalbidegoitia."

"Autzikatik, irailak 28, 1985an.

Fidel Garaitari - Lohitzunen.

Kaixo lagun: Zoritxarrez zoritxarrena jazo jakuk Koldoren heriotz negargarriaz. Oraindino Aitagureko "baina atera gagituz gaitzetik" otoitza ahotan gendula kaliza horretatik edan behar izan joagu herriko danok, ez Beitibiskokoek bakarrik, halakoetan herri txikiak baten erantzuten dauelako. Egin bedi Bere nahia... Herri txikiak batean erantzuten dauela esan dauat, baina ez danak era batera edo sentikera bardinekin, esango dauadanez. Eta oraindino be ez etsiko "ez gagizuz tentaldira eroan" geure arrenetan, alperriko odolik, harago kalterako dan adolik, gehiago ixuri ez daiten.

Egunotan ikusi joat, lagun, lehendik be banenkiana, baina entzutez eta sinistez bakarrik. Zer eta Kristoren odolak alkartzaren gaituen bestean, banandu baino ez gauzela egiten anaien arteko zarraparra odoltsuek. Autzikara etorri eta ikustea baino ez daukak. Autzika lehen zana eta orain dana! Autzika lehen herri alkartua zonan, orain, Koldorenaz gero, herri aurkatu bi

direla esan leikean. Lehen herri alkartua eta baketsua, orain banandua eta urduria.

Koldorenaz gero, esan dauat, bada gorrotozko berbak entzun zoazen harako hiletan eta gorrotozko asmoak hor irauten joek kartel eta ormetan ezeze, askoren bihotzetan. Ahor ba zati bitan banaturik herri txiki bateko abertzaleak eta ez inongo etsaiaren kontra alkarren aurka baino, gorroto-sugearen burua jasoazoteko, Koldoren odola eta Koldoren odola aipatzen joela, odolak odola erakar behar baileuan. Edo gure Koldo ez ete zonan kristinau, geuk bateatu eta kristautasunean heu lez sendotua, orain haren odola, Kristorena lez bakerako barik, apentzarako eskatzeko? Ez ete genduan kristinau guztiok Kristoren odolean parkamena lortu eta bere maitasunarren alkarri barkamena agindu, orain amorrutan eta apentza asmoan odolak gorbizten etorteko? Nor da kristinau baten odola horren deskristauki erabilteko inor?

Ahor ba, Fidel, urteetako Kristoren maitasunak herrian lortua zelan desegin dauen golpean gorrotoaren deabruak. Heure amaren abotsaz dinoat: "ez zaitugu ikusi gura horrela zulatuta, seme" eta nik neurez dinoat ostera be: "hator, mutil, etxera" abertsaletasunaren bideak idegita diagozak-eta. Danok poztuko gozak Autzikan eta Beiti heure baserrian zerua izango joek. Ea heure etorrera pozgarriak alkartzaren dauzan Koldoren heriotz lazgarriak apurtu dauzan lokarriak. Laster arte, mutil, heure kristau gudaritzaren arduradun zahar Felipe Zalbidegoitia."

"Angelu, maiatzaren 6a, 1986an.

Ene maite: Oraingoan firma eta guzti natortzu. Ez daust ardura, edo hobeto esan, ezin bestean ardurazkoa litzakit gu bion izenak paper honetan alkartzea, gu alkarrentzako garean eta izan gura dogulako dudarik inork izan ez daian. Baina halan eta be, ez dot aipatuko zure izenik, neure beroaldi hau ezelan kaltegarri izan ez dakizun.

Karten azal barruan zure izenik aipatzen ez dodanarren, gure zeraren jakitun dagoz beste mutilek eta poztekoa baino ez da alderdi batetik, goiz edo berandu jakitekoa zendun-eta. Zeuk dakizu inork baino hobeto gure arteko guztia maitasunari dagokion konfiantza baino harago, alkarri eginiko konfesinoa izan dana. Besterik da, hori dala-ta, norbaitek niri-edo, egin ez dogun pekatuaren penitentzia egotsi gura izatea. Alkar maite direnak alkarren barri emotea gauzarik arruntena dala uste izan dot, alkarren artean ezelako mugarik sortu ez daiten, soinez bilusten dana gogoz be bilustu egin behar dauelako. Neure aldetik ez neuskizu isileko bat be gordeko, baina besteen bizitzan sartu eta ahal dala inoren izenik konprometidu barik. Edozelan be neure erruen erantzule nozu eta inor kaltetu baino gurago dautsut neure burua kaltetzea, inori bizia kentzea baino neuk bizia emotea, harago orain, zugandik aldendu, niretzat bizia bizi erdi be ostaz danetik.

Inpernu honetan, zeuk esango zendun lez, deabruak burduntziraino probatu gurako banindu, jakin eizu, lehendik be esanda daukatsudana, ez dodazela neuretzako gura Koldo zanari herrian egin eutsoezan hileta ohoreak. Kaliza hau edan behar badot, neuretzako bakarrik gura dot. Ba dakizu hau niretzat oso garrantzitsua dana. Badaezpadan dinotsut, ez zeu larritzearren, deskuidoan jausiko banintz, nire ondakinen erantzule zeu izan zaitez. Ez nagiela ezelan uztiatu heriotzean bizitzan egin izan nauen lez, ez etxekoei emon dautsedan baino nekebide gehiago emon.

Jausiko banintz beraz, "lepoan hartu ta segi aurrera" barik, gorpua erre eta hautsak euskalerriko edozein erreka edo itxasora egotsi daizuzala azken mesedez. Bide zabal hori hartuko dot penitentziz, inpernu honetatik at beste munduan aurkitu zaidazan arte. Trantze honetatik onez urtengo baneu ostera, zorionean eta laster alkartzeko izan daitela. Asmook agertu eta egiztatzeko, neure eskuz firmatzen dot Angelun, mila bederatzirehun eta larogetaseiko maiatzaren seian. Maite zaitu Fidel Garaitak".

